

**UNIVERSIDAD DE DEUSTO
TERCER CICLO**

PROGRAMA: LENGUA Y LINGUISTICA

BASAURIKO EUSKARAREN AZTERKETA LINGUISTIKOA

Tesis doctoral presentada por D. Jon Arretxe Perez.
Dirigida por el Dr. Juan Manuel Etxebarria Ayesta.

El Director

El Doctorando

A handwritten signature in black ink, appearing to be 'Jon Arretxe', written over a horizontal line.

Bilbao, 1-9-1993

Atxikorreko Karmen Moja Abrisketari, bihotzez.

ESKERTZEKOAK

Eskerrik asko honako hauei:

- Basauriko udalari, hain beharrezko eta premiazkoa zen ikerketa hau bultzatu eta nigan jarritako konfidantzagatik.
- Labayru institutuko lagunei, ikerlan hau egiteko sortu zen beka lortzen laguntzeagatik, baita euskal letren munduan sartzeko hainbat aldiz emandako bultzada eta laguntzagatik.
- Juan Manuel Etxebarriari, nire lan honen zuzendari eta laguntzailea izateko ardura jatortasun osoz hartzeagatik.
- Alfontso Irigoieni datuak informatizatzen laguntzen eta bestelakoetan ere nirekin pasatutako denboragatik.
- Iñaki Gaminderi trianguluak ordenadorez pasatzen eta bestelakoetan emandako laguntza handiagatik.
- Joseba Ibarra San Migeleko euskal filologoari, hasierako zereginetan emandako laguntza eta utzitako materialeengatik.
- Nire gurasoei, Felix Lasarte eta Klara Santamaria izeko osabei, Jose Maria Rekakoetxeari, Juan Llagunori eta batez ere Anton Perez Urzelai osabari Basaunko azken euskaldunen bilaketa nekezean hain laguntza handia eskeintzeagatik.
- Deustuko Unibertsitateari bere laborategi fonetikoan lan egiteko baimena emateagatik eta bertako arduraduna den Alexander Iribarri nire hainbeste ordutako lan astuncan beragandik jasotako laguntza desinteresatuagatik.
- Kultur-etxeko Beatriz Zabalari lehengo Basauriri buruzko informazioa eskuratzen laguntzeagatik.
- Geroko zerrendan agertuko diren lekukoei, baita beraiekin bizi diren senide guztiei, heuren etxetan hain harrera atsegina egiteagatik.

Eta baten bat ahaztu egiten bazait parka diezadala, ez bait da erreza zeozertan lagundu didan jende guzti guztia gogoratzea, hainbeste izanik.

LAN HONEN HELBURUA

Nerbioi haraneko euskara, "Arrigorriagako aldakia", Bonaparteren hitzetan, Bizkaiko hizkeren arteko ezezagunena dela esan daiteke. Izan ere, gure eskualde honetan ez dugu eduki oraintsu arte ez euskal idazlerik ez euskarazko testu argitaraturik¹, ez betelako testigantzarik.

Arazo larriena, dena den, ez da hizkera honi buruzko ezezagupena, baizik eta bere gaur egungo egoera larria. Ekialdean Erronkariko euskara zena Mendebaldean Nerbioi haraneko euskara da, nolabait. Izan ere, gure bailara honetatik Hegoaldera nahiz Mendebaldera joz gero erdara hutsa baino ez dugu aurkituko² eta geografia aldeko kokagune honek, lan honen lehen kapituluan aipatuko diren beste fenomeno batzurekin batera, gure hizkera ia desagertzeraino bultzatu dute.

Nerbioi haraneko euskararen egoera, beraz, larria da orokorrean, baina badaude desberdintasun handi samarrak bertako herrien artean. Alde batetik Zollo edo Zaratamo-Elexalde egongo lirarteke, nahiko euskaldunak oraindik. Eta beste muturrean euskararen azken hondarrak baino gordetzen ez dituzten herriak, agure eta atsoren batzuren testigantza baliosa baizik eskeini ezin dezaketenak, eta berauen artean neure hema, Basauri.

Basauri, beraz, oraindik betiko euskararen eremuan kokatzen diren herrien arteko erdaldunenetarikoa da, baina badauka bere hizkera berezia, nahiz eta askok galdutakotzat jo, eta lan honen helburu nagusia, hain zuzen ere, hizkera horren deskribapen ahalik eta osoena egitea izan da, beranduegi izan baino lehen, eta beranduegi laster izango da, nahi eta nahi ez.

¹Labayru institutuaren IKER ATALAK aldizkarian, 5. alean, Bonaparteren aginduz Uriartek prestatutako Asteteren dotrinaren Arrigorriagako aldakira itzulitako bertsioa argitaratu zen. Lehengo esku-izkribua nik neuk prestatu nuen argitaratua izan zedin.

²Bus "Mapa argigariak", hurrengo orrialdeetan.

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	25
1.1.- Mapa argigarriak.....	26
1.1.1.- Euskararen hedadura - 1863.....	26
1.1.2.- Euskararen hedadura - 1992.....	27
1.1.3.- Bonaparteren sailkapena - 1869.....	28
1.1.4.- Basauri udalerrria: Auzoak eta mugak.....	29
1.2.- Basauri: Kokagunea eta egoera soziolinguistikoa.....	30
1.3.- Lan honen metodologia orokorra.....	37
1.4.- Lekukoak.....	41
1.4.1.- Lekukoen zerrenda.....	41
1.4.2.- Lekukoen datuak.....	43
1.5.- Basauriko euskararen eredia.....	58
1.5.1.- Baldintzak.....	58
1.5.2.- Transkripzio ohar garrantzitsua.....	60
1.5.3.- Kontaketa-Eredua.....	61
1.6.- Laburdurak.....	62
1.7.- Grabazioen zerrenda.....	63

2.- FONETIKA.....	66
2.1.- Aurkezpena.....	67
2.2.- Triangulo bokaliko akustikoa.....	68
2.2.1.- Trianguloaren garrantzia eta fidagarritasuna.....	68
2.2.2.- Metodologia.....	69
2.2.3.- Erabilitako testua.....	73
2.2.4.- Lortutako baloreak.....	99
2.2.4.1.- Lehen triangulorako baloreak.....	99
2.2.4.2.- Bigarren triangulorako baloreak.....	101
2.2.4.3.- Azken triangulorako baloreak.....	102
2.2.5.- Bokaleen sakabanatze grafikoak eta trianguloak.....	103
2.2.5.1.- Toniko guztien sakabanatzea.....	103
2.2.5.2.- Atono guztien sakabanatzea.....	104
2.2.5.3.- Lehen trianguloa.....	105
2.2.5.4.- Bigarren trianguloa.....	106
2.2.5.5.- Azken trianguloa.....	107
2.2.5.6.- Zenbait ondorio eta komentario.....	108
2.2.6.- Beste triangulo batzurekiko konparaketa.....	109
2.2.6.1.- Zeberrikoa.....	109
2.2.6.2.- Baztangoa.....	110
2.2.6.3.- Nafarroakoa.....	111
2.2.6.4.- Gaztelerazkoa.....	112
2.2.6.5.- Formanteen baloreak triangulootan.....	113
2.2.6.6.- Zenbait ondorio eta komentario.....	114

2.3.- Fenomeno fonetikoak.....	116
2.3.1.- Sarrera.....	116
2.3.2.- Metodologia.....	117
2.3.3.- Bokalismoa.....	119
2.3.3.1.- Armonizazioa.....	119
2.3.3.1.1.- A + A.....	119
2.3.3.1.2.- A + E.....	119
2.3.3.1.3.- A + O.....	120
2.3.3.1.4.- E + A.....	120
2.3.3.1.5.- E + AK.....	120
2.3.3.1.6.- E + E.....	121
2.3.3.1.7.- E + O.....	121
2.3.3.1.8.- I + A hitz barruan.....	122
2.3.3.1.9.- Hitz bukaerako I + A.....	123
2.3.3.1.10.- I + DA.....	123
2.3.3.1.11.- I + BAT.....	124
2.3.3.1.12.- I + BATZUK.....	124
2.3.3.1.13.- I + E.....	124
2.3.3.1.14.- I + O.....	125
2.3.3.1.15.- Diptongoko I bokalerdia + A hitz barruan.....	125
2.3.3.1.16.- Diptongoko I bokalerdia bukaerako kokagunean + A.....	126
2.3.3.1.17.- Diptongoko I bokalerdia + BAT.....	126
2.3.3.1.18.- Diptongoko I bokalerdia + BATZUK.....	126
2.3.3.1.19.- O + A.....	127
2.3.3.1.20.- O + E.....	128
2.3.3.1.21.- O + O.....	128
2.3.3.1.22.- U + konts. + A hitz barruan.....	128
2.3.3.1.23.- Hitz bukaerako U + A.....	129
2.3.3.1.24.- U + DA.....	129
2.3.3.1.25.- U + BAT.....	129

2.3.3.1.26.- U + BATZUK.....	130
2.3.3.1.27.- U + E.....	130
2.3.3.1.28.- U + O(K).....	130
2.3.3.1.29.- Diptongoko U bokalerdia+konts.+A hitz barruan.....	131
2.3.3.1.30.- Diptongoko U bokalerdia bukaerako kokagunean+A.....	131
2.3.3.1.31.- Diptongoko U bokalerdia + BAT.....	131
2.3.3.1.32.- Diptongoko U bokalerdia + BATZUK.....	131
2.3.3.2.- Erregela fonologiko nagusiak.....	132
2.3.3.3.- Armonizazio bokalikoari buruzko zenbait ondorio.....	132
2.3.3.4.- Diptongazioa.....	133
2.3.3.4.1.- AU / EU alternantzia.....	133
2.3.3.4.2.- AI / EI alternantzia.....	134
2.3.3.4.3.- EI bereziak.....	134
2.3.3.4.4.- UI bereziak.....	135
2.3.3.4.5.- JA JE JO.....	135
2.3.3.4.6.- WA WE WO.....	136
2.3.3.4.7.- OA OE AO.....	136
2.3.3.5.- Diptongo desegitea.....	137
2.3.3.5.1.- Sabaiketa.....	137
2.3.3.5.2.- Monoptongazioa.....	137
2.3.3.5.3.- Kontsonante epentesia.....	137
2.3.3.6.- Bestelakoak.....	138
2.3.3.6.1.- I / U hitz hasieran.....	138
2.3.3.6.2.- I - konts. - U = U - konts. - U.....	138
2.3.3.6.3.- I / U alternantziaren beste kasu batzuk.....	138
2.3.3.6.4.- E - konts. - U = U - konts. - U.....	139
2.3.3.6.5.- U - konts. - E = U - konts. - U.....	139
2.3.3.6.6.- U-dun trisilaboen aldakortasuna.....	139
2.3.3.6.7.- I-dun trisilaboen aldakortasuna.....	139
2.3.3.6.8.- E / O / A asimilazioak.....	140
2.3.3.6.9.- I / E nahastea.....	140
2.3.3.6.10.- O / U nahastea.....	141
2.3.3.6.11.- ER / AR alternantzia.....	141
2.3.3.6.12.- N aurreko itxidura.....	142

2.3.3.6.13.- Sabaikari aurreko itxidura.....	142
2.3.3.6.14.- Azken bokalea errepikatzea.....	143
2.3.3.6.15.- Hitz hasierako R.....	143
2.3.3.6.16.- Sinkopak.....	143
2.3.3.7.- Beste zenbait bitxikeria.....	144
2.3.4.- Kontsonantismoa.....	145
2.3.4.1.- Fonemen inbentarioa.....	145
2.3.4.2.- Kontsonanteen banaketa.....	149
2.3.4.3.- Taula fonetiko eta fonologikoak.....	151
2.3.4.3.1.- Azalpena.....	151
2.3.4.3.2.- Basauriko fonema kontsonantikoan taula.....	152
2.3.4.3.3.- Alofonoen taula.....	153
2.3.4.4.- Zenbait Shandi.....	154
2.3.4.4.1.- Leherkari + Leherkari.....	155
2.3.4.4.2.- Leherkari + Beste kontsonante batzuk.....	157
2.3.4.4.3.- Txistukari afrikari + Beste kontsonante batzuk.....	159
2.3.4.4.4.- L / N / R + -Z(-S).....	161
2.3.4.4.5.- EZ + Kontsonantez hasitako adizkiak eta beste.....	161
2.3.4.4.6.- Kontsonante bikoitzak + Leherkari ozenak.....	163
2.3.4.5.- Bustidura.....	165
2.3.4.5.1.- I + L.....	166
2.3.4.5.2.- I + N.....	166
2.3.4.5.3.- I + S.....	166
2.3.4.5.4.- I + X.....	166
2.3.4.5.5.- I + TZ.....	167
2.3.4.5.6.- I + D.....	167
2.3.4.5.7.- I + T.....	167
2.3.4.5.8.- I + LD.....	168
2.3.4.5.9.- I + LT.....	168
2.3.4.5.10.- I + ND.....	168
2.3.4.5.11.- I + NT.....	169
2.3.4.5.12.- TT / LL / DD.....	169

2.3.4.6.- Bestelakoak.....	170
2.3.4.6.1.- G / K hitz hasieran.....	170
2.3.4.6.2.- G / K bokale artean.....	170
2.3.4.6.3.- R bokale artean.....	170
2.3.4.6.4.- T aditz amaieran.....	171
2.3.4.6.5.- K hitz bukaeran.....	171
2.3.4.6.6.- J-ren presentzia.....	171
2.3.4.6.7.- L / N / R disimilazioa.....	172
2.3.4.6.8.- P / B / F / M alternantzia.....	173
2.3.4.6.9.- B / G alternantzia.....	174
2.3.4.6.10.- D / R alternantzia.....	174
2.3.4.6.11.- R = G bihurtzea.....	175
2.3.4.6.12.- D = G bihurtzea.....	175
2.3.4.6.13.- U = B bihurtzea.....	175
2.3.4.6.14.- Murrizketak.....	175
2.3.4.6.15.- Z erderaz bezala ahozkatzea.....	176
2.3.4.7.- Beste zenbait bitxikeria.....	176
 2.3.5.- Zenbait espektrograma berezi.....	 178

3.- DEKLINABIDEA	183
3.1.- Sarrera - Metodologia.....	184
3.2.- Basauriko deklinabidearen ezaugarri orokorrak.....	187
3.2.1.- Galtzen ari diren ezaugarri batzuk.....	187
3.2.1.1.- Mugagabea.....	187
3.2.1.2.- Plural hurbila.....	187
3.2.1.3.- Azentua singular/pluralezko formak bereizteko.....	188
3.2.2.- Deklinabide kasu batzuren galera prozesua.....	189
3.2.2.1.- Instrumentala.....	189
3.2.2.2.- Prolatiboa.....	190
3.2.2.3.- NOGAN eta bere deribatuak.....	190
3.2.3.- Erabilera bikoitzak.....	191
3.3.- Paradigmak.....	193
3.3.1.- Galdera hitzak.....	194
3.3.1.1.- NOR / NORTZU(K).....	194
3.3.1.2.- ZEIN / ZEINTZU(K).....	195
3.3.1.3.- NON.....	196
3.3.1.4.- NOIZ.....	196
3.3.1.5.- ZELAN.....	196
3.3.1.6.- ZENBÁT.....	196
3.3.1.7.- ZER.....	196
3.3.2.- Hitz arrunten deklinazioa.....	197
3.3.2.1.- Mugagabea.....	198
3.3.2.2.- Singularra.....	199
3.3.2.3.- Plurala.....	200
3.3.2.4.- Plural hurbila.....	201
3.3.3.- Pertsona izenak.....	202
3.3.4.- Leku izenak.....	203
3.3.5.- Erakusleak.....	204
3.3.5.1.- Singularra.....	204

3.3.5.2.- Plurala.....	205
3.3.5.3.- Birritako erakusleak.....	206
3.3.6.- Izenordeak.....	207
3.3.6.1.- NI eta bere intentsiboa.....	207
3.3.6.2.- HI eta bere intentsiboa.....	208
3.3.6.3.- GU eta bere intentsiboa.....	209
3.3.6.4.- ZU eta bere intentsiboa.....	210
3.3.6.5.- ZUEK eta bere intentsiboa.....	211
3.3.6.6.- Hirugarren pertsonetako intentsiboak.....	212
3.3.7.- BAT / BATZUK deklinazioan.....	213
3.3.8.- Zenbait erabilera berezi.....	214
3.3.8.1.- Inesibo zaharra.....	214
3.3.8.2.- Ablatibo zaharra.....	215
3.3.8.3.- HEMEN / HOR / HAN.....	215
3.3.8.4.- HONELA / HORRELA / HALA.....	215
3.3.8.5.- EDOZER / ZER EDO ZER / EZER / ZERBAIT.....	215
3.3.8.6.- ASKO / GITXI.....	216
3.3.8.7.- NAHIKOA.....	217
3.3.8.8.- DENA / GUZTIA.....	218
3.3.8.9.- GAU hitzaren deklinazioa.....	218
3.3.8.10.- BEHE hitzaren deklinazioa.....	219

4.- ADITZA.....	220
4.1.- Sarrera.....	221
4.2.- Metodologia.....	223
4.3.- Basaunko aditzaren zenbait ezaugarri.....	224
4.3.1.- HIKA / ZUKA / BERORIKA.....	224
4.3.2.- Sistemen arteko nahasketa.....	227
4.3.3.- Sistema batzuren erabilera eskasa.....	228
4.3.4.- Erabilera berezi batzuk.....	228
4.3.5.- Sinkopak eta aditz erroa.....	230
4.3.6.- Aspektoari buruzko zenbait ohar.....	231
4.3.7.- Faktitiboak.....	233
4.3.8.- Pluralgileak.....	233
4.3.9.- Egite erako orainaldia.....	233
4.3.10.- Egite erako lehenaldia.....	234
4.3.11.- Baldin era.....	235
4.3.12.- Ondoriozkoa.....	237
4.3.13.- Ahalera.....	239
4.3.14.- Subjuntiboa.....	241
4.3.15.- Aginte era.....	245
4.4.- Paradigmak.....	246
4.4.1.- Egite era / Orainaldia.....	248
4.4.2.- Egite era / Lehenaldia.....	266
4.4.3.- Baldin era.....	270
4.4.4.- Ondoriozkoa.....	276
4.4.5.- Ahal era.....	277
4.4.6.- Subjuntiboa.....	281
4.4.7.- Aginte era.....	286

5.- JOSKERA.....	288
5.1.- Metodologia.....	289
5.2.- Basauriko euskararen joskera ezaugarri orokorrak.....	291
5.3.- Esaldiaren guna.....	292
5.3.1.- Guna galdera hitza denean.....	292
5.3.1.1.- Galdera hitza izenordea denean.....	292
5.3.1.2.- Galdera hitza adjetiboa denean.....	292
5.3.2.- Guna izena, aditz izena, adjetiboa, izenordea denean.....	292
5.3.2.1.- Izena denean.....	292
5.3.2.2.- Aditz izena denean.....	293
5.3.2.3.- Adjetiboa denean.....	293
5.3.2.4.- Izenordea denean.....	293
5.3.3.- Guna aditzaren baietza edo ezetza denean.....	296
5.3.3.1.- Baietza denean.....	296
5.3.3.2.- Ezetza denean.....	296
5.3.4.- Guna aditzaren ekintza denean.....	297
5.3.4.1.- Aditz soilaz.....	297
5.3.4.2.- Aditz konposatuaz.....	297
5.3.5.- Guna esaldia denean.....	297
5.3.5.1.- Osagarria osatuaren aurretik.....	297
5.3.5.2.- Osagarria aurkezle bidez.....	297
5.3.6.- Hizkera arrunteko orden aldrebestuak.....	298
5.4.- Semantika joskera loturak.....	299
5.4.1.- Ohitura edo prozesu errepikatua adierazteko.....	299
5.4.1.1.- TEN atzizkiaren bidez.....	299
5.4.1.2.- TEN + IZAN.....	300
5.4.2.- Prozesuaren jarduera adierazteko.....	300
5.4.2.1.- IBILI aditzaren bidez.....	300

5.4.2.2.- EGON aditzaren bidez.....	300
5.4.2.3.- EKIN aditzaren bidez.....	300
5.4.3.- Inpertsionaltasuna.....	301
5.4.3.1.- Aditz iragankorrekin laguntzaile iragangaitza.....	301
5.4.3.2.- NORR hirugarren pertsona plurala erabiliz.....	301
5.4.3.3.- Aditz iragangaitzekin.....	301
5.4.4.- Erreflexibotasuna.....	302
5.4.4.1.- BURU hitza erabiliz.....	302
5.4.4.2.- Laguntzaile iragangaitzarekin.....	302
5.4.4.3.- Beste bide batzu.....	302
5.4.5.- Elkarren artekotasuna.....	303
5.4.5.1.- ARKAL erabiliz.....	303
5.4.5.2.- BATABESTE... erabiliz.....	303
5.4.6.- Ahalmena eta ezina.....	303
5.4.6.1.- Ahalmena.....	304
5.4.6.2.- Ezina.....	304
5.4.7.- Beharrizana.....	305
5.5.- Esaldi koordinatuak.....	306
5.5.1.- Kopulatiboak.....	306
5.5.1.1.- ETA / TA / DA lokarria.....	306
5.5.1.2.- BE / BERE / BAITA / EZTA / EZEZE.....	307
5.5.2.- Disjuntiboak.....	309
5.5.2.1.- ALA.....	309
5.5.2.2.- EDO.....	309
5.5.2.3.- NAHI.....	310
5.5.3.- Distributiboak.....	311
5.5.3.1.- LA / LA.....	311
5.5.3.2.- BAT...BESTE... / BATZU...BESTE.....	311
5.5.4.- Adbertsatiboak.....	312
5.5.4.1.- BAIE / BAINO.....	312
5.5.4.2.- BARIK / BEHARREAN.....	312
5.5.4.3.- OSTERANTZEAN / EZPABERE / BESTELA.....	313

5.5.4.4.- OSTERA / OSTEAN / BARRIZ / BARREZ.....	314
5.5.4.5.- Erdarakadak.....	315
5.6.- Menpeko esaldiak.....	316
5.6.1.- Osogarriak.....	316
5.6.1.1.- Aditz jokatuaz.....	316
5.6.1.1.1.- LA.....	316
5.6.1.1.2.- NA.....	316
5.6.1.1.3.- NIK.....	317
5.6.1.1.4.- NAREN.....	317
5.6.1.1.5.- LA ren gainekoak.....	317
5.6.1.1.5.1.- LAKO.....	317
5.6.1.1.5.2.- LAKOAN.....	318
5.6.1.1.5.3.- LAZKOAN.....	318
5.6.1.1.6.- N / LA subjuntibozko formekin.....	318
5.6.1.1.7.- BA.....	318
5.6.1.1.8.- ZE... LA.....	318
5.6.1.2.- Aditz jokatu gabekoaz - Nominalizazioa.....	319
5.6.1.2.1.- T(Z)EA.....	319
5.6.1.2.2.- T(Z)EAK.....	319
5.6.1.2.3.- T(Z)EARI.....	319
5.6.1.2.4.- T(Z)EAREN.....	319
5.6.1.2.5.- T(Z)ERIK.....	320
5.6.1.2.6.- T(Z)EKO.....	320
5.6.2.- Zeharkako galdera esaldiak.....	320
5.6.2.1.- Galdera hitzarekin egiten direnean.....	320
5.6.2.1.1.- Esaldi asertiboak.....	320
5.6.2.1.2.- Esaldi interrogatiboak.....	321
5.6.2.1.3.- Agintezko esaldiak.....	321
5.6.2.2.- Baietza eta ezetzaren eremuak.....	321
5.6.2.2.1.- N / BA.....	321
5.6.2.2.2.- EA/ABER... N/BA.....	321
5.6.3.- Baldintzazkoak.....	322
5.6.3.1.- Aditz jokatuaz.....	322

5.6.3.1.1.- Orainaldiko errealak.....	322
5.6.3.1.2.- Gerora begirako baldintzak.....	322
5.6.3.1.3.- Lehenaldiko errealak.....	322
5.6.3.1.4.- Orain-Geroko irrealak.....	322
5.6.3.1.5.- Lehenaldiko irrealak.....	323
5.6.3.2.- Aditz jokatuak.....	323
5.6.3.2.1.- AZKERO.....	323
5.6.3.2.2.- AZKINO / AZKETINO.....	323
5.6.3.2.3.- EZIK / EZEAN.....	324
5.6.3.2.4.- TEKOTAN.....	324
5.6.3.2.5.- Partizipioa + AN + BE(RE).....	324
5.6.3.2.6.- ZEIN.....	325
5.6.4.- Helburuzkoak.....	325
5.6.4.1.- Aditz jokatuak.....	325
5.6.4.2.- Aditz jokatuak.....	326
5.6.4.2.1.- TEKO / TERA / TEN.....	326
5.6.4.2.2.- TEKOTAN.....	326
5.6.4.2.3.- TEAGAITIK / TEAGAITINO.....	327
5.6.4.2.4.- T(ED)ARREN.....	327
5.6.4.2.5.- T(ED)ARRIK.....	327
5.6.5.- Erlatibozkoak.....	327
5.6.5.1.- Egitura lotuan.....	327
5.6.5.2.- Egitura banatuan: Aposizioan.....	328
5.6.5.3.- Erlatibo kutsuko esakera adierazkorak.....	328
5.6.5.4.- Galdera hitzekin erlatibo esanahikoak.....	328
5.6.6.- Partizipiozkoak.....	328
5.6.6.1.- Partizipioa + KO.....	328
5.6.6.2.- Deklinabide markak partizipio hutsari erantsiz.....	329
5.6.7.- Zergatizkoak.....	329
5.6.7.1.- Aditz jokatuak.....	329
5.6.7.1.1.- LAKO.....	329
5.6.7.1.2.- LAKOAN.....	329
5.6.7.1.3.- ...ETA(DA/TA).....	330
5.6.7.1.4.- LA ETA.....	330

5.6.7.1.5.- N MODUEN.....	330
5.6.7.2.- Aditz sintagma eta aditz izenarekin.....	331
5.6.7.2.1.- TEAGAITIK / TEAGAITINO.....	331
5.6.7.2.2.- T(E)ARREN.....	331
5.6.7.2.3.- T(E)ARRIK.....	331
5.6.7.3.- Elkarkuntzak.....	331
5.6.7.3.1.- ZE.....	331
5.6.7.3.2.- ZE ETA.....	332
5.6.8.- Aldizkoak.....	332
5.6.8.1.- Esaldi nagusiko prozesua aurretik.....	332
5.6.8.1.1.- AURRETIK.....	332
5.6.8.1.2.- BAINO LEHEN(AGO).....	332
5.6.8.1.3.- ORDUKO.....	333
5.6.8.1.4.- ARTE / ARTEAN / ARTERAINO.....	333
5.6.8.1.5.- HARIK ETA ARTE / HASTA ARTE.....	334
5.6.8.1.6.- NERAKO / N ORDURAKO / ORDURAKO.....	334
5.6.8.2.- Esaldi nagusiko prozesua batera.....	334
5.6.8.2.1.- ORDUAN.....	334
5.6.8.2.2.- NEAN.....	335
5.6.8.2.3.- ETAN.....	335
5.6.8.2.4.- N BAKOITZEAN.....	335
5.6.8.2.5.- N GUZTIETAN / GUZTIAN.....	336
5.6.8.2.6.- N ARTE / ARTEAN.....	336
5.6.8.2.7.- N BITARTEAN.....	336
5.6.8.2.8.- KERAN.....	336
5.6.8.2.9.- LA.....	337
5.6.8.3.- Esaldi nagusiko prozesua atzetik.....	337
5.6.8.3.1.- NEAN.....	337
5.6.8.3.2.- Partizipioa + IKETONA / IKOTONA.....	337
5.6.8.3.3.- NIK ETA HONA (Aditz jokatuaz).....	338
5.6.8.3.4.- NETIK / NIK.....	338
5.6.8.3.5.- NEKO.....	338
5.6.8.3.6.- AZKERO.....	338
5.6.8.3.7.- N AZKERO.....	338

5.6.8.3.8.-	ETA GERO.....	338
5.6.8.3.9.-	OSTEAN / OSTETIK.....	339
5.6.8.3.10.-	ORDUAN.....	339
5.6.8.3.11.-	ORDUKO.....	339
5.6.8.3.12.-	LA.....	339
5.6.8.3.13.-	Partizipioa + ALA.....	340
5.6.8.3.14.-	Partizipioa + AZ BATERA.....	340
5.6.8.3.15.-	Partizipioa + BARRITAN / ZAHARREAN.....	340
5.6.9.-	Moduzkoak.....	340
5.6.9.1.-	Aditz jokatuaz.....	340
5.6.9.1.1.-	N LETX / LETXE.....	340
5.6.9.1.2.-	N MODUAN-RA / ANTZEAN-RA/ERAN-RA.....	341
5.6.9.1.3.-	BA + Baldintza (+N) + LEZ/MODUAN.....	341
5.6.9.1.4.-	Indikatibozko formekin.....	342
5.6.9.1.5.-	SEGUN N.....	342
5.6.9.1.6.-	LA.....	342
5.6.9.2.-	Aditz jokatugabeaz.....	342
5.6.9.2.1.-	Partizipioa + (E)KO + LEZ/MODUAN.....	342
5.6.9.2.2.-	Partizipioa + TEKO + LEZ/MODUAN.....	343
5.6.9.2.3.-	Partizipioa + BARIK.....	343
5.6.9.2.4.-	Partizipioa + EZINIK.....	343
5.6.9.2.5.-	Partizipioa + TA / (RIK.....	343
5.6.9.3.-	Aditza isilpeturik.....	344
5.6.9.3.1.-	Nor/Nork/Nori + LEZ/MODUAN.....	344
5.6.9.3.2.-	Esaldiak izen sintagmaren bidez batuta.....	344
5.6.10.-	Kontzesiboak.....	344
5.6.10.1.-	Aditz jokatuaz.....	344
5.6.10.1.1.-	NAHIZ ETA / ARREN.....	344
5.6.10.1.2.-	BA BE(RE).....	345
5.6.10.2.-	Aditz jokatugabeaz.....	345
5.6.10.2.1.-	Partizipioa + ARREN (+BERE).....	345
5.6.10.2.2.-	NAHIZ ETA / NAHI.....	345
5.6.10.2.3.-	Partizipioa + TA + BE(RE).....	346
5.6.10.2.4.-	Partizipioa + EZ + DA + BE(RE).....	346

5.6.10.2.5.- Partizipioa + AZKERO / EZIK + BE(RE).....	346
5.6.10.3.- Erdarakadak.....	346
5.6.11.- Konparatiboak.....	347
5.6.11.1.- Gehiago/Gutxiagotasuna adierazteko.....	347
5.6.11.1.1.- Lehen atala + Bigarrena + BAINO + AGO.....	347
5.6.11.1.2.- Bigarren atala + BAINO + Lehen atala.....	347
5.6.11.1.3.- Konparaketaren atalen bat isilpeturik.....	347
5.6.11.1.4.- Lokuzioz: Noren ALDEAN / GANIK.....	347
5.6.11.1.5.- Konparaketak aditz gaiekin.....	348
5.6.11.1.6.- Errepikatuz.....	348
5.6.11.1.7.- Mailakatzea aditzarekin.....	348
5.6.11.1.8.- Mailakatzea adberbio edo adjetiboaren barruan.....	348
5.6.11.1.9.- Mailakatzea atzizkien bidez.....	350
5.6.11.2.- Parekotasuna adierazteko.....	350
5.6.11.2.1.- Adjetibo edo adberbioekin.....	350
5.6.11.2.2.- Konparaketaren atalak kasu berean.....	351
5.6.11.2.3.- Zertarako, Norako... + BESTE/LEIN/GEIN.....	351
5.6.11.2.4.- Aditza + N + BESTE/LEIN/GEIN.....	352
5.6.11.2.5.- HONENBESTE(KO) / HORRENBESTE(KO).....	352
5.6.11.2.6.- HONEN / HORREN / HAIN.....	352
5.6.11.2.7.- Konparaketa zentzuko bestelako esaldiak.....	353
5.6.11.3.- Superlatiboa.....	353
5.6.11.3.1.- (-R)IK / ETARIK + EN.....	353
5.6.11.3.2.- ENETARIKO.....	353
5.6.11.3.3.- (-R)IK ERDI.....	353
5.6.12.- Harridurazkoak.....	354

6.- LESIKOA.....	355
6.1.- Sarrera.....	356
6.2.- Metodologia.....	357
6.3.- Arlo semantikoak.....	360
6.3.1.- Abere eta baserri inguruko animalien kontuak.....	360
6.3.2.- Arbolak eta fruituak.....	363
6.3.3.- Basauri inguruko herriak.....	365
6.3.4.- Basauriko auzoak.....	365
6.3.5.- Baserria: Egitura, tresnak.....	367
6.3.6.- Denbora kontuak.....	368
6.3.6.1.- Aste egunak.....	368
6.3.6.2.- Urtaroak.....	369
6.3.6.3.- Hilak.....	369
6.3.6.4.- Denbora erreferentziak.....	369
6.3.7.- Eguraldia eta zerua.....	371
6.3.8.- Eliza eta sineskerak.....	372
6.3.9.- Etxeko lanak.....	373
6.3.10.- Euskalerriko hiriburuak.....	374
6.3.11.- Gaixotasunak eta akats fisikoak.....	374
6.3.12.- Gorputza.....	375
6.3.12.1.- Buru aldea.....	375
6.3.12.2.- Beste atalak.....	377
6.3.13.- Hegazti eta txoriak.....	379
6.3.14.- Intsektuak.....	380
6.3.15.- Jazkera eta apaintze kontuak.....	381
6.3.16.- Koloreak.....	383
6.3.17.- Lanak eta ogibideak.....	383
6.3.18.- Landareak (Basatiak).....	384
6.3.19.- Lurra lantzen.....	385
6.3.20.- Natura kontuak.....	386

6.3.21.- Narrazti eta anfibioak.....	387
6.3.22.- Ogia eta esnea.....	388
6.3.23.- Ortuariak.....	388
6.3.24.- Senitartekolasunak eta gizarteko roll-ak.....	389
6.3.25.- Sukaldea eta sutondoa.....	392
6.3.26.- Ugaztunak (Basatiak).....	394
6.3.27.- Uzta kontuak.....	395
6.3.28.- Zenbakiak.....	396
6.4. Azkueren hiztegian agertzen ez diren hitzak.....	398

7.- AZENTUA: ZENBAIT OHAR.....	404
7.1.- Sarrera.....	405
7.2.- Etnolestoa.....	406
7.3.- Herriak eta auzoak.....	407
7.3.1.- Silaba bitakoak.....	407
7.3.2.- Hiru silabatakoak.....	407
7.3.3.- Lau silabatakoak.....	408
7.3.4.- Bost silabatakoak.....	409


8.-	ETNOTESTOAK.....	410
8.1.-	Basaurikoak.....	411
8.1.1.-	Ariz.....	411
8.1.2.-	Artunduaga.....	412
8.1.3.-	Finaga.....	413
8.1.4.-	Lapatza.....	415
8.1.5.-	Luzarre.....	417
8.1.6.-	Uribarri.....	418
8.2.-	Inguruko herrietakoak.....	420
8.2.1.-	Arratia-Dima.....	420
8.2.2.-	Arrigorriaga.....	421
8.2.2.1.-	Briskieta.....	421
8.2.2.2.-	Goribisko.....	422
8.2.3.-	Bilbo.....	423
8.2.3.1.-	Begona.....	423
8.2.3.2.-	Buiagoiti.....	424
8.2.4.-	Etxebarri.....	425
8.2.5.-	Galdakao.....	426
8.2.6.-	Larrabetzu.....	428
8.2.7.-	Orozko.....	428
8.2.8.-	Txoriherri-Lezama.....	429
8.2.9.-	Zaratamo.....	430
8.2.10.-	Zeberio.....	431
8.2.11.-	Zollo.....	432

9.- AZKEN ONDORIOAK.....	434
9.1.- Lan honen ondorio orokorrak.....	435
10.- BIBLIOGRAFIA.....	437
10.1.- Erabilitako bibliografia.....	438
11.- ERANSKINA.....	446
11.1.- Aztertutako bokaleen baloreak.....	447
11.1.1.- Zati aleatorioari dagozkionak.....	447
11.1.2.- Testu osoari dagozkionak.....	453


1.- SARRERA

1.1.- MAPA ARGIGARRIAK


1.1.1.- EUSKARAREN HEDADURA- 1863




1.1.2.- EUSKARAREN HEDADURA - 1992



1.13.-BONAPARTEREN SAILKAPENA-1869



1.1.4.- BASAURI UDALERRIA: AUZOAK ETA MUGAK



1.2- BASAURI- KOKAGUNEA ETA EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Basauri udalerria Nerbioi ibaiak Ibaizabalekin bat egiten duen puntutik hegoaldera zabaltzen da. Berarekin muga duten herriak honako hauek dira: Iparraldetik Etxebarri, Ekialdetik Galdakao eta Zaratamo, Hegoaldetik Arrigorriaga eta Mendebaldetik Bilbo.

Luis Lucien Bonaparte dialektologoak 1869an Euskararen eremuaren mugak maparatu zituen¹ Euskalmerriaren mendebaldean azken haran euskaldun bezala Nerbioikoa ipini zuen, Basauri kokatuta dagoen harana, hain zuzen. Bertoko Euskararen aldakiari "Arrigorriagakoa" deitu zion eta beronen barruan sartzen ziren herriak hauek ziren, Hegoaldetik Iparraldera: Laudio, Arakaldo, Arrankudiaga, Zollo, Ugao, Zeberio², Arrigorriaga, Zaratamo, Basauri, Etxebarri eta Galdakao, Bilbo eta Barakaldoko auzo batzuk. Bailara hau mendebaldetik mugatzen duten mendien bestaldean (Pagasarri, Ganekogorta...) erdara zen guztiz nagusi jadanik.

Gaur egun betiko Euskararen mugek bere horretan jarraitzen dute gutxi gorabehera, ikuspuntu geografikotik behintzat³. Egoera soziolinguistikoa aztertzen badugu, berriaz, aldaketa guztiz bortitza gertatu dela konturatuko gara. Bonaparteren garaian, Bilbo eta Barakaldoko kasu bereziak alde batera utzita, herri guztiok zeharo euskaldunak ziren, baina handik aurrera, mende honetako industrializazio basatiarekin eta emigranteen etengabeko etorreraren ondorioz egoera guztiz aldatu da, erdara bilakatu delarik jaun eta jabe arlo guztietan. Oso gutxi dira orain euskaraz biztanle gehienek egin dezaketen herri edo auzoak, komunikabide nagusietatik aldentuta geratu diren leku batzuk bakarrik (Zollo, Zeberio, Zaratamoko Elexalde...)

¹Ikus 1.1.3 mapa. Mapa hau "Euskal dialektologiaren hastapenak" liburutik fotokopiatuta dago. Ikus bibliografia.

²Zeberio hobe egongo litzateke Arratiako aldakiaren barruan Arrigorriagakoa baino, Juan Manuel Etxebarriak bere tesi dokoralean dioenez. Ikus Bibliografia.

³Ikus 1.1.1 eta 1.1.2 mapak.

Ikerketa honi dagokion Basauri herria aldaketa bortitzena sufritu du da eta euskaldunen portzentaia ez da orain ehuneko hamarrera heltzen.

Herri honi dagokionez zenbait datu historiko eta geografiko zehaztu behar dira. Hasiera baten, independientea izan baino lehen, Arrigorriagako auzoa zen. Gero, XVI. mendearen hasieran independizatu egin zen Arrigorriagako udalaren eta Bizkaiko Junten baimenik gabe¹ eta gune nagusia, geroago udaletxea kokatuko zena, San Migel de Basauri bilakatu zen. XX. mendearen hasieran, industrializazio, emigrazio eta komunikabideen garapenaren ondorioz, bere auzo batzu, Arizgoili, Ariz eta abar asko handitu ziren eta udaletxea Arizgoitira pasatu zen, denboraren poderioz herrigune nagusia izandako San Migel, Basauri berritik bizpahiru kilometrotara zegoen auzo handi bat bihurtu arte. Basauri berriari jende zahar gehienak Bidebieta edo "Dos Caminos" deitzen dio, Kareaga-Arizgoili aldean dagoen bidegurutze garrantzitsuari erreferentzia eginez, eta lehengo baserri eta zelai gehien gehienak lantegien, eraikuntza berrien eta asfaltoaren azpian geratu dira. Honen ondorioz, une honetan oso zaila da lehengo auzoak ondo bereiztea eta bere baserrietatik irtendako euskaldunak edo sasi-euskaldunak, kale eta pisu berri ugarietan sakabanatuta bizi direnak, aurkitzea.

Berdintsu gertatu da, neurri txikiagoan izan arren, San Migel aldean, eta auzo ia osoak desagertu dira mende honetan, gehienbat erreka ondokoak, lantegiei lur-sail zabalak eskeintzeko: Artunduaga, Ugarte, Iburguen, Lapatza... Dena den, oraindik baserri auzo batzuk zutik diraude eta berauetan dago euskaldun portzentaia handiena.

¹Labayo y Goicoechea, "Historia general del señorío de Vizcaya", IV, 243 o. Ikus bibliografía.

San Migelen barruan bereizkuntza argi bat egin behar da zati biren artean. Batetik beheko aldean dagoena, "Erbarren", edo "Begie", gehienek esaten dutenez, garatuagoa eta erdaldunagoa, eta bestetik Malbasin mendiaren maldetan dauden auzoek osatzen duten "Ergoien", kamino nagusitik aldentuta, euskara ondoen eta uniformeen gorde duena. Ergoiengo euskaldunen hizkera izango da ikerketa honen oinarria, normala denez. Ingurune hau osatzen duten auzoak Atxikorre, Luzarre, Finaga eta Briskieta dira, azken hau Arrigorriagako sailetan kokatzen delarik.

Aipatutako industrializazio eta emigrazioak, beraz, beste garapen faktore batzurekin batera (errepide berriak, trenbideak, telebista, irratia...) euskararen baztertzea ekarri dute mende honetan ingurune honetara. Basauriko zaharrenek diotenez, eurak umeak zirela gehienek euskaraz egiten zuten, baina funtsezko gertaera bat egon zen, euskararen baztertze prozesua zeharo azkartu zuena, 1936ko Espainiako gerra zibila. Izan ere, guda hasi arte euskaraz egitea guztiz normala bazen, handik aurrera, debekuak eta beldurrak zirela eta, utzi egin zitzaion jatorrizko hizkuntzari eta ia denak erdara hutsa erabiltzen hasi ziren.

Gerrostea oso kaltegarria izan zen euskararentzat, familia gehienetan umeak erdara hutsean hezten hasi ziren eta txapurreoaren konplexua handitu egin zen: euskaldun gehienek guztiz asimilatu zuten euren euskara oso kalitate txarrekoa zela eta ez zuela ezertarako balio bizimodu modernoan, gainera erdara ondo menderatzen ez zutenek era guztietako burlak entzun behar zituzten. Halako gertaerak Euskalerni osoan egon ziren, jakina, baina Basauri inguru honetan are larriagoak izan ziren, egoera berezia kontutan hartuta: Betiko euskararen azken muga, emigrazio handia, erdaldunen gehiengo gero eta handiagoa...

Gerra denboran koka daiteke, beraz, betiko euskararen transmisio-katearen apurketa, gizaldi etena. Hori gaur egungo datu soziolinguistikoak aztertuta garbi azaltzen da. Oso zaila da gerra ostean jaiotako betiko euskaldun basauritarrik aurkitzea. Ia denak zaharrak dira, 60 urtetik gorakoak, eta ia beti, ohizkoa denez, zenbat eta zaharrago izan hainbat eta euskara jator eta naturalagoa. Adin horretatik behera Basauriko euskaraz mintza daitekeen jendea topatzea oso zaila da, meritu handiko salbuespenen bat kenduta. Familiaren bat badago hizkuntza transmisioa eten ez duena, kalean ezinezkoa zenez, "sugetien", sukaldean, beti euskaraz eginez, etxe barruko giroari esker oraingo umeak ere euskaldun izatea lortu dutelarik. Hor daude, denon pozerako, Etxerreko Fermin Larrearen kasua edo Atxikorreko Mari Izagirrerena. Jatorriz guztiz euskaldunak izandako beste familia gehienetan, etena egon da. Euskal jatorriko familietan egoera tipikoa da honako hau, aitaita-amamak euskaldunak, euren seme alabak euskara erdi ahaztuta, eta etxeko gazteak eskolan edo euskallegian euskara batua ikasi dutenak, edo besterik gabe guztiz erdaldunak. Normalean familia hauetako bikote gazteek umeak euskaraz hezten dituzte, senide zaharrenen laguntzarekin, baina ume horiek ez dute inoiz euren aitaita-amamen euskara berdina egingo, euskara estandarrekiko nahasketa baizik. Katea eten egin da eta ez dago atzera biderik. Beraz, egin ahal eta behar duguna, Basauriko agure eta atsoen ahotik inguru honetako jatorrizko hizkera lehen bait lehen jasotzea da, besteontzako oroigarri gisa balio izan dezan, gutxienez, eta hizkuntzalarien aztergai izan dadin.

Premia handia dago ikerketa hau egiteko. Auzo batzutan, Ariz, Urbarri, Bizkotzalde... oso zaila da euskaraz normal egin dezakeen bertako jatorriko aurkitzea. Gehienak oso zaharrak dira, batzu lan hau egin bitartean hil dira: Arizeko Gabino Gorostiaga, Artunduagako Pantxike Arteta..., eta ia beti egiten dute erdaraz. Bidebieta aldean egoera San Migelen baino askoz larriagoa da eta ikerketa hau orain egiten ez badugu urte gutxi barru ezinezkoa izango da, auzo askotan ez bait da betiko euskaldun bat ere gertatuko.

Basauri modemoa baino ezagutzen ez duen jendeari agian hau dena arraroa irudituko zaio, gaur egungo Ariz inguruak, adibidez, milaka biztanle biltzen bait ditu, eta eurretan ehundaka batzu euskaldunak baitira, baina kontutan hartu behar da gu betiko Basauri eta betiko euskarari buruz ari garela. Ariz auzoa zer zen mende honen hasieran? Ezer gutxi, torretxea, ermita, errota eta baseri pare bat. Orduko biztanle gehienak joan egin zaizkigu, euren ondorengoak kanpotik etorritako jendecarekin nahastu eta antzinako baserriak desagertu. Orain euskaldun askotxo aurki daitezke bertan, baina gehien gehienak fabrika berrietara beste herri euskaldunago batzutatik etorritako langileak edo berauen ondorengoak dira: Arratia, Larrabetzu, Zeberio, Txorihernitik. Egoera berezi honek, beste herrietako euskaldunak bertokoak baino gehiago izateak, alegia, asko konplikatzen du ikerketa linguistikoa egitea eta kontu handiz ibili behar da lekukoak aukeratzekoan.

San Migel aldean egoera ez da hain zaila, betiko baseri eta auzo asko zutik bait daude oraindik, baina han ere arretaz ibili behar da, bikote asko osatu bait dira herri desberdinetako jendearen artean.

Industrializazioaren ondorioz, emigrante erdaldunetz gainera, Basauntik gertu dauden herri guztiz euskaldunetatik euskara bizi-bizirik zeukaten langile asko etorri ziren bertoko lantegietara. Hasiera baten "La Basconia"-ra eta gero "Firestone" etabarrera. Euskaraz egunero egiteko ohitura galdua zeukaten basauritar ugari, bizkaieraren beste aldaki batzu erabiltzen zituzten euskaldun oso-osoekin elkartzean euren hizkera moldatzen hasi ziren, lankide arratiar, larrabetzutar, edo zeberiotarren berbeten ezaugarri asko bereganatuz, inertzia hutsez edota beste hizkeren prestijio handiagoaz konbentziturik.

Adibide bat ipintzearren, fenomeno hau agerikoa da fonetikari dagokionean. Nerbioi haraneko euskaraz bustidura ezaugarri nabaria da ("ogiyé, ein ddot, aitte..."), baina berarekin muga duten beste herri guztietan: Orozko, Arratia, Zeberio, Txoriherri... ez da bustitzen ("ogie, ein dot, aite..."). Gertatu dena da Basauriko bertako jatorriko euskaldun askok bigarren era honetara egiteko ohitura hartu dutela, lehen aipatutako langileen arteko kontaktuagatik edota hizkera desberdinetako euskaldunen arteko ezkontzengatik. Basauritar-Zeberiotar, Basauritar-Arratiar eta horrelako bikote asko daude Basaurin eta, euskaraz egitekotan, azkenean nagusitzen den aldakia biziena, indartsuena da, kanpokoa, alegia.

Honek denak traba handia suposatzen du ikerketa linguistiko zientifiko eta zehatza egiteko. Familiak oso nahastuta daude, betiko basauritar asko beste leku batzuetako euskaldunekin edo erdaldunekin ezkondu dira. Basauritar euskaldunen arteko bikoteak oso gutxi dira, zenbaitzu badiren arren, baina berauek normalean erdaraz iharduten dute. Euskara, normalean, ezkontideetarako bat beste herri euskaldunago batetik etorri denean gorde da eta seme-alabengan kanpoko hizkera nagusitu da. Bestalde, ezin dira hizlari zahar eta gazteen joera desberdinak bereiztu, oso arrazoi sinple bategatik: gure herriko hizkeraz mintzatzen den gazterik ia ez dagoelako.

Basauri modernoan egiten den euskara apurra, beraz, erabat kosmopolita da, nahasia eta batasun falta handikoa. Honen ondorioz eragozpen handiak daude honen moduko ikerketa linguistikoa burutzeko eta planteatu daiteke, jende asko eta askok niri planteatu didan moduan: "Basauriko euskararik badago?" Eta nire erantzuna, egoera sakonki aztertu ondoren da "Bai, Basauriko euskara badago". Eta non dago euskara mota hon? Ba zaharrenean ahotan. Ikusi eta ikasi dudanez adineko emakumezkoak dira gure herriko euskarari garbien eta uniformeen eutsi diotenak. Adinekoak izan behar dira euren umetaroa gerra zibilak ekarri zuen euskararen transmisio etenaren aurrekoa izateko. Eta emakumezkoak izan behar dira gizonezkoek lantegietan bereganatu zuten kanpoko euskararen eraginik ez somatzeko.

Lehengo bizimoduan gizonak joaten ziren lantegietara eta emakumeak baserrian geratzen ziren lanean, soloak eta behiak gobernatzen eta gero, sartan, kuadrilan joaten ziren esnea saltzera, euren artean Basauriko euskaraz mintzatzen zirelarik. Honez gainera kontutan hartzen badugu San Migel aldean euskara hobetoxeago mantendu dela beste auzoetan baino, Basauriko euskararen hizlari ereduak honako ezaugarriok beteko lituzke: San Migelekoa, andrazkoa, 80 urtetik gorakoa eta baseritarra. Baldintza guztiok betetzen dituztenak badaude: Atxikorreko Karmen Moja, Lapatzako Kalixta Madariaga, Errekaldeko Xexili Urkiza, Artunduagako Mari Lejarzegi... Guzti hauek eta baserriko jatorriko beste euskaldun batzu, hala nola Uribarriko Pedro Aurtenetxe eta Maria eta Madalena Zabala, Arizeko Gabino Gorostiaga eta Etxerreko Fermin Larrea izan dira lan honen oinarria.

Lekuko guzti hauek eta eurok baino apur bat gazteagoko beste batzuk alde egiten digutenean beraiekin batera Basauriko euskara eramango dute. Zenbaitek hor dihardu bere ilobekin euskaraz, baina gazteenen hizkera eskolako hizkera estandarrarekin asimilatuko da nahitaez eta urte gutxi barru ia ezinezkoa izango da gure herriko euskararen azterketa egitea. Lekukoren bat joan egin zaigu jadanik, lan hau egiten genuen bitartean eta honelako bat gertatzen den bakoitzean hiltzen denak berarekin daraman altxor preziatua galdu egiten da betiko. Hau dela eta, honelako ikerlan baten premia itzela zen eta horretaz jabeluta, jarraian aurkezten den azterketa linguistikoa egiteari ekin nion. Baliagarria izan dadila oroigarri gisa ezezik Basauri aldeko berreuskalduntze prozesuan oinarrietariko bat izanik ere.

1.3.- LAN HONEN METODOLOGIA OROKORRA

Basauriko betiko euskara jadanik ez dago kalean. Beraz, etxeetan sartu behar bila. Askotan etxeke sugelean ere ez dago, agure eta also batzuren oroimenean bakarrik ezkutatzen da eta hortik atera behar izan dut. Batzutan ez da erreza izan, eta mesfidantza eta errezeloek eragotzi didate lana, baina gehien gehienetan jatorrasun handiko harrerak izan ditut etxeetan. Honetarako nire gurasoak betiko basauritarrek izatea laguntza handikoa izan da, betiko basauritarrek ia denek ezagutzen baitute elkar, eta senide batzuren bitartekotzari esker⁵ etxe gehienetan ontzat hartua izan naiz.

Lehen pausu garrantzitsua, azken erroldako datuez baliatuta, baldintza batzu betetzen zituzten basauritarren zerrenda eskuratzea izan zen: Basaurin jaiotakoak, 50 urtetik gorakoak, lehen hizkuntzatzat euskara zutenak eta euskaraz ondo mintzatzeko gai zirenak. Lortu nuen 245 izeneko zerrenda hartan izen batzu sobratzen ziren eta beste batzu falta ere bai, ikusi nuenez, baina abiapuntu moduan oso baliagarria izan zen. Nire gurasoen eta beste zenbait senideren laguntza estimagarriari esker kontaktuak lortu nituen auzo guztietako lekukoren batekin eta grabazioak egiteari ekin nion. Hasierako grabazio guztietan ez nuen galdekizun linguistikorik erabili, besterik gabe eguneroko elkarrizketa ahalik eta naturalena jasotzen saiatu nintzen. 40 lekuko baino gehiagorekin egon nintzen eta gero, zinta hauek banan banan entzun eta aztertu ondoren auzo bakoitzeko ereduak aukeratu nituen, faktore batzu kontutan hartuta: zeintzuk ziren zaharrenak, kanpoko euskararen edo erdararen eragin txikiena zutenak, jatorri basauritarrena nortzuk zeukaten...

⁵Zeregin honetan aipamen berezia merezi du nire osaba den Pedro Perez Uzelak.

Azkenean Basaurik betetzen duen eremuko auzo askotako euskaldun bat edo bi aukeratu nituen, egokienak dialektologia munduan erabiltzen diren ohizko erizpideen arabera (Bertan jaiotakoak, gurasoak ere bai, beste herri batzulan sarriegi ibili gabekoak, adinekoak...) eta grabaketa gehiago egiteari eman nion. Gehienetan elkarrizketa naturala jasotzen nuen eta berau izan da lan honen oinarria, hemendik atera bait ditut datu linguistiko gehienak. Dena den, ezaugarri batzu ia ezinezkoa da eguneroko elkarrizketetan agertzea, gutxien erabiltzen diren aditz sistemetako formak, adibidez, eta berauek jasotzeko galdekizun bereziak prestatu nituen paradigmak osatzeko, ezinbestean.

Guztira 90 minututako 70 bat zinta grabatu ditut eta berauek osatzen duten korpusean sustraitu da ikerlan hau. Gehienetan zati handiena elkarrizketa naturalak betetzen du eta tartekatuta, lekukoak gehiegi ez nekatzeko, paradigmak betetzeko ezinbestekoak diren galdera zehatzak agertzen dira.

Elkarrizketa naturalak errazteko ikutu ditudan puntuak honako hauek dira:

- DATU PERTSONALAK

- Izen-abizenak
- Adina
- Arbasoak nongoak diren
- Bizimodua non egiten duten

-

- HIZKUNTZAREN ERABILERA

- Normalean norekin egiten duten euskaraz
- Auzo bakoitzean eta inguruko herrietan zenbat egiten den
- Hika, Zuka eta Berorika sistemen erabilera

-

- HIZKUNTZARI BURUZKO IDEOLOGIA:

- Ea euskaraz jakiteak merezi duen eta zertarako
- Ea Euskara gorde behar den
- Eskolan zelan irakatsi behar den
- Ea zer egin behar dugun dakigunok besteek ikasteko
- Batua eta euskalkiei buruzko eritzia

-

- HIZKETAN IHARDUTEKO GAI APROPOSAK:

- Baserriko / Kaleko bizimodua:
- Urtaro bakoitzean baserrian zer egiten den
- Janari desberdinak
- Animaliak, abereak
- Arbola eta ortuari motak, garia, artoa, labakoa...
- San Juan gaua
- Txarriboda
- Etxe erreekin zer egiten zen
- Umetako jolasak, bromak, okerrieriak
- Gerra denbora
- Lehengo / Oraingo bizimodua
- Basauri lehen / orain
- Kanpotarrak
- Ondoko herrietako jendea nolakoa den
- Erromeriak
- Herrietako jaiak
- Oraingo gazteria
- Ipuin edo kontaketa ren bat: Laminak, sorginak.....
- Kantaren bat
- Esaerak, bertsoak

-

Berriro adierazi nahi dut elkarrizketa naturalok izan direla ikerlan honen oinarria. Datu linguistikoak ahalik eta galdekizun zehatz gutxien eginez atera ditut. Normalean honelakoetan galderak erdaraz egiten dira eta lekukoa behartu egiten da erdal ereduaren araberrako erantzuna ematen. Horregatik, ezinbestekoa den neurrian bakarrik erabili dut bigarren sistema hau.

Hitz hauek lan osoaren metodologia orokorrerako balio dute. Sarrera berbon ostean datozen kapituluetan argi eta garbi adieraziko da zelako metodoak erabili diren datuak ateratzeko kasu bakoitzean.

Argi utzi behar dut, utzi ere, nire lan honen egiturari begira Juan Manuel Etxebarria nire tesi zuzendariaren Zeberrioko Euskarari buruzko doktorego-tesi lanak funtsezko garrantzia izan duela, berori izan baita jarraitu dudana eredu, aldaketa txiki batzurekin.

1.4. LEKUKOAK

Jarraian datorren zerrendan zintetan jasotako hizlari guztien izenak agertzen dira. Honek ez du esan nahi denak Basauriko beliko euskararen eredutzat har daitezkeenik. Bakoitzari buruz eginda dagoen fitxan eta geroko azalpenetan begiratu beharko da nork zein euskara mota egiten duen, bere ezaugarriak zeintzu diren eta nik eredutzat zeintzu hartu ditudan jakiteko.

1.4.1. LEKUKOEN ZERRENDA

- 1- Karmen Moja
- 2- Karmen Elordui
- 3- Maria Jesus Izagirre
- 4- Karmen Larrea
- 5- Encarnación Etxebarria
- 6- Jose Moja
- 7- Bixenta Belu
- 8- Kalixta Madanaga
- 9- Kandida Madariaga
- 10- Mariano Ibarretxe
- 11- Antonio Ibarretxe
- 12- Rosario Atxa
- 13- Zezilia Urkiza
- 14- Petra Ozerin
- 15- Mariano Uribearte

- 16.- Miren Atxa
- 17.- Felix Solaguren
- 18.- Juan Llaguno
- 19.- Pantxike Arteta
- 20.- Jose Mari Arteta
- 21.- Maria Lejarzegi
- 22.- Karmen Lejarzegi
- 23.- Victoriano Azkueta
- 24.- Fermin Larrea
- 25.- Gabino Gorostiaga
- 26.- Juanita Arteta
- 27.- Jose Ramón Larrea
- 28.- Maria Zabala
- 29.- Madalena Zabala
- 30.- Pedro Aurtenetxe
- 31.- Maria Zamakona
- 32.- Tomas Artaras
- 33.- Ildefonso Landeta
- 34.- Agustina Mujika
- 35.- Marina Elexpe
- 36.- Bernarda Uriarte
- 37.- Jesusa Lekanda
- 38.- Eugenia Legina
- 39.- Maria Moja
- 40.- Maria Elorrieta
- 41.- Joakin Elorriaga
- 42.- Domingo Castillo
- 43.- Klara Santamaria
- 44.- Jose Maria Jauregi
- 45.- Juana Lejarza
- 46.- Eduarda Bilbao
- 47.- Justo Respaldiza
- 48.- Maria Lekerika

1.4.2- LEKUKOEN DATUAK

Kontutan hartu beharko da lan honen oinarri diren grabazioak 1984 urtetik 1992 urtera bitartean eginda daudela. Hemen agertuko diren adinak grabazioak egin ziren aldikoak izango dira. Grabazio bakoitzaren data zehatza jakiteko ikus "Grabazioen zerrenda", kapitulo honen amaieran.

1.- KARMEN MOJA ABRISKETA

- 82-86 urte⁶
- Finaga auzoan jaio zen. Gero Atxikorrera ezkondu zen.
- Atxikorren bizi da.
- Betiko baseritarra.
- Ama Finagakoa zen eta aita Briskietakoa.
- Senarra Atxikorren jaio zen. Senarraren aita Mallabiatik etorri zen.
- Esnea saltzera joaten zen Bilbora San Migeleko beste batzurekin.
- Oso ondo egiten du euskaraz, zuka, berorika eta hika, gizonezkoena eta andrazkoena ondo bereiztuz.
- Bere alaba bakarrak badaki euskaraz.
- Bere etxean erdaraz egiten da, nahiz eta denak euskaldunak izan.
- Gaur egun euskaraz oso jende gutxirekin egiten du.
- Lan honetarako lekuko nagusia da eta bera barik ezinezko izango zen hurrengo kapituluetan ikusiko diren datuak orain eskuartean izatea.

2.- KARMEN ELORDUI MOJA

- 62 urte.
- Karmen Mojaren alaba da.
- Euskaraz nahiko ondo moldatzen da, amaren maila ez eduki arren.
- Senarra, Lapatzakoa, euskalduna da.
- Atxikorreko baserri-txaletean bizi da amarekin

⁶Lehenengo grabazioa 82 urte zeuzkanean egin nion. Orain arteko azkena, berriaz, 86 zeuzkanean.

3.- MARIA JESUS IZAGIRRE IBARRA

- 64-67 urte.
- Finagan jaio zen eta Atxikorren bizi da, baserrian.
- Ama Finagakoa zen, aita Zollokoa.
- Senarra euskalduna zen, Zaratamokoa.
- Seme-alabak euskaldunak dira eta euskaldunekin ezkondu dira.
- Euskaraz oso ondo egiten du.
- Berak dioenez amaren euskara egiten du. Aita normalean kanpoan egoten zen.
- Bere etxean leku askotako euskara entzuten da eta horrek badauka eragin apur bat bere hizkeran.
- Ibilita dago Euskalerrian zehar.

4.- KARMEN LARREA ETXEBARRIA

- 67 urte.
- Luzarren jaio zen.
- Aita Luzarren jaio zen, ama Lapatzan. Aitaren aita Bedia aldetik etorri omen zen.
- Euskaraz oso ondo egiten du.
- Beti egin du euskaraz, bai amarekin bai senarrarekin. Berau Lezama aldekoa da.
- Hirurok batera bizi dira Luzarreko baserrian.
- Eskolara joan orduan ikasi zuen erdaraz.
- Luzarre aldeko euskararen erudulzat har daiteke.

5.- ENCARNACION ETXEBARRIA GOIKOLEA

- 94 urte.
- Lapatzan jaio zen.
- Aita Lapatzakoa, ama Gemikakoa.
- Oso zahartuta dago eta ez zaio ulertzen esaten duena.
- Karmen Larrearen ama da.

6.- JOSE MOJA ELORDUI

- 62-63 urte.
- Finagan jaio zen.
- Bere gurasoak ere, biak, Finagan jaio ziren.
- Karmen Mojaren loba da.
- Emaztea, Begoñakoa, euskalduna da. Euron alaba erdi euskalduna.
- Finagako baserrian bizi dira hirurok eta normalean erdaraz egiten dute.
- Euskaraz jende gutxiarekin egiten du.
- 18 urte bete arte ez zekien ganoraz erdaraz.
- Euskara apur bat pobretuta dauka⁷.
- Arizeko tailer baten egin zuen lan. Arrigorriagako papeleran ere bai.
- Fonetikako triangulo bokaliko akustikoa aztertzeke eredu aproposa. Ikerlan honetako triangulua berari esker egin zen.

7.- BIXENTA BETI ABRISKETA

- 79 urte.
- Finagan jaio zen, baserrian.
- Bidebietara ezkondu zen. Soloarte auzoan bizi da, kalean.
- Ama Finagakoa zen, aita Zeberiokoa.
- Finagako euskara egiten du.
- Karmen Mojaren lehengusina da.
- Oso ondo daki euskaraz, hika ere bai.
- Lekeitiora joaten da, Zeberiora ere bai.
- Erdaraz askoz sarriago egiten du euskaraz baino.
- Alarguna da.

⁷Adibidez, ia lehenaldi guztiak orainaldian N erantsita egiten ditu.

8- KALIXTA MADARIAGA ETXEANDIA

- 82-83 urte.
- Lapatzako baserrian jaio eta bizi izan da beti.
- Ama Zamudion jaio zen, aita Lapatzen.
- Lapatzako euskara egiten du.
- Euskaraz oso ondo egiten du.
- Ezkongabea da. Ahizpa eta nebarekin bizi da. Euskaraz egiten dute normalean.
- Bilbora joaten zen esnea saltzera eta jende gehienarekin euskaraz egiten zuen.
- Lan honetarako eredu nagusietariko bat da, Lapatza aldeari dagokiona

9- KANDIDA MADARIAGA ETXEANDIA

- 78 urte.
- Kalixtaren ahizpa da.
- Lapatzen jaio zen.
- Euskaraz oso ondo egiten du.
- Ez da inoiz etxetik irteten.

10- MARIANO IBARRETXE IBARRETXE

- 67 urte.
- Arteaga auzoan jaio zen.
- Ama Lapatzen jaio zen. Aita Arteagan bertan.
- Euskaraz egitea asko kostatzen zaio.
- Andreak bere moduan daki euskaraz.
- Baseritar bizimodua egiten du.

11- ANTONIO IBARRETXE IBARRETXE

- 64 urte.
- Marianoren anaia da.
- Arteagan jaio zen.
- Anaiak baino hobeto egiten du euskaraz, Firestonen Arratiako jende askorekin praktikatzen zuen eta. Kanpoko euskararen eragina igertzen zaio.

12.- ROSARIO ATXA ARTEAGOITIA

- 64 urte.
- Ama Uriarte auzokoa, aita Txorierri aldekoa.
- Uriarteko baserrian bizi da ama eta senarragaz.
- Senarra erdalduna da.
- Nahiko ondo egiten du euskaraz.
- Euskara noizean behin erabiltzen du, baina erdara baino askoz gutxiago.

13.- ZEZILIA URKIZA ASUA

- 84 urte.
- Artunduaga aldeko "Urkitzene" baserrian jaio zen.
- Ama Larrabetzukoa zen, aita Urkitzenekoa.
- Errekalde auzoko baserrian bizi da alaba eta suhiarekin.
- Suhia Galdakokoa da eta ederto egiten du euskaraz. Alabak erdi ahaztuta dauka.
- Bere senarra Errekaldekoka zen.
- Euskaraz oso ondo egiten du.
- Esne saltzaileetarikoa bat da.
- Basauriko euskara egiten du, nahiz eta ama kanpokoak izan. Lan honen erduetarako bat da.

14.- PETRA OZERIN AMUNDARAIN

- 68 urte.
- Iburguen auzoan jaio zen.
- Ama Zaratomokoa zen, aita Iburguenekoa.
- Errekalde auzoan bizi da.
- Euskaraz ederto egiten du.
- Senarra, Uriartekoa, euskalduna da (Mariano Uriarte).
- Amak ez omen zekien erdaraz.
- Neba-arreba guztiak euskaldunak dira.
- Normalean erdaraz egiten du.

15.- MARIANO URIBIARTE LOROÑO

- 65 urte.
- Uriarten jaio zen.
- Ama Larrabetzun jaio zen, aita Lapatza auzoan.
- Igertzen zaio amaren euskararen eragina. Apur bat nahastea dauka.
- Hika erabiltzen du normal normal.
- Euskaraz ederto egiten du.
- Petra Ozerinekin ezkontuta dago.
- Amak ez omen zekien erdaraz.
- Normalean erdaraz egiten du.

16.- MIREN ATXA OZERIN

- 69 urte.
- Iburguenen jaio zen.
- Ama Iburguenekoa zen, aita Laudiokoa. Biak euskaldunak.
- Euskara apur bat nahastuta dauka, baina ondo egiten du.
- Iburguenetik Uriartera joan zen. Orain Anzoko pisuan bizi da.
- Senarra Orozkotik San Migelera joan zen 11 urteaz.
- Bilbon 15 urte eman zituen, ezkondu aurretik.
- Euskaraz sarritan egiten du oraindik.

17.- FELIX SOLAGUREN BARAÑANO

- 69 urte.
- Ugarte auzoan jaio zen.
- Ama Zeberriokoa zen, aita Lapatza auzokoa.
- Andrea Etxebarriko euskalduna da, baina erdaraz egiten dute.
- Euskara nahiko ahaztuta dauka. Gizonezkoen hizaz egiten dio edonori, sexoa bereiztu barik.
- Berak dioenez, lagun batzurekin beti euskaraz egiten du.
- Alaba bat euskalduna dauka, bestea erdizka.

18.- JUAN LLAGUNO BILBAO

- 65 urte.
- Elexalde auzoan jaio zen.
- Aita Artzentalesekoa zen, ama Bakiokoa.
- Gehienbat Bakio aldeko euskaraz egiten du.
- Bidebietako pisu baten bizi da orain.

19.- PANTXIKE ARTETA IBARRETXE

- 72 urte.
- 1992an hil zen.
- Artunduaga auzoan jaio zen. Bertako baserrian bizi izan zen hil arte.
- Ama Arteaga auzokoa zen, aita Artunduagakoa.
- Euskaraz ondo egiten zuen.
- Senarra Arrigorriagako Buia aldekoa da eta euskaraz ederto daki
- Mari Lejarzegirekin batera Artunduaga aldeko euskararen eredutzat hartuta neukan.

20.- JOSE MARIA ARTETA IBARRETXE

- 77 urte.
- Artunduagan jaio zen eta bertan bizi da.
- Pantxikeren neba da.
- Euskara apur bat ahaztuta dauka.
- Ez du ondo entzuten.
- Emaztea Zamudioko euskalduna da.

21.- MARIA LEJARZEGI LAUZIRIKA

- 89-90 urte.
- Artunduaga auzoan jaio zen.
- Etxerre auzora ezkondu zen. Orain Arizgoitiko pisu baten bizi da.
- Baserrietan bizi izan da beti, oraintsu arte.
- Ama Artunduagakoa zen, aita Gemika aldelik etorri zen.
- Amaren ama Artunduagakoa zen, amaren aita Gemika aldekoa.
- Ederto egiten du euskaraz.
- 7 urte bete arte ez zekien batere erdaraz.
- Basaunko euskararen erudutzat aukeratuetariko bat da, Artunduaga aldekoa.

22.- KARMEN LEJARZEGI LAUZIRIKA

- 85 urte.
- Maria Lejarzegiren ahizpa da.
- Artunduagan jaio zen.
- Orain Basozelai aldeko Ixalet-etxean bizi da.
- Euskaraz ederto daki eta erabili egiten du.

23.- VICTORIANO AZKUETA LANDETA

- 70 urte.
- Artunduagako baserrian jaio zen.
- Ama Artunduagakoa zen, aita Zaralamokoa.
- Emaztea erdalduna da.
- Euskaraz nahiko ondo egiten du, baina apur bat nahastuta dauka, Basauriko gizonezko gehienek moduan.
- Badaki hikaz egiten.
- Ez du ia inoiz euskaraz egiten.
- Zabalandi auzoan bizi da orain.
- Neba-arreba eta lehengusu-lehengusin asko dira familian, eta denak euskaldunak dira gutxi gorabehera.

24.- FERMIN LARREA EREÑO

- 74-77 urte.
- Etxerre auzoko baserrian jaio zen.
- Ama Etxebarriko Kukullaga auzokoa zen. Aita Arizeko torreakoa.
- Bere emaztea Elexalde auzoko euskalduna da.
- Seme-alabak euskaldunak dira, etxean ikasitakoak.
- Samitan egiten du euskaraz.
- Ederto egiten du, baina nahaste apur bat ere badauka, batez ere armonizazio bokalikoaren aldetik, eta noizcan behin neologismoren bat ere sartzen du.
- Arizgoitiko pisu baten bizi da.
- Nahiz eta gauza batzurekin kontuz ibili behar den eredutzat hartu dut Etxerre inguruko euskarari begira.

25.- GABINO GOROSTIAGA AZKUE

- 89 urte.
- 1992an hil zen, 90 urte gaz.
- Arizeko torrean jaio zen.
- Ama ere Arizen jaio zen, aita Diman.
- Bazekien hikaz egiten.
- Jende gutxirekin egiten zuen euskaraz. Apur bat ahaztuta zeukan.
- Mutilzaharra zen.
- Arizeko euskararen eredutzat hartuta neukan.

26.- JUANITA ARTETA LARREA

- 65-68 urte.
- Arizen jaio zen. Torrean bizi izan zen. Orain, Arizeko pisu baten.
- Ama, Patxa, Arizeko torrean jaio zen. Aita, Artunduagan.
- Euskara amarekin egiten zuelako gorde du. Dena den, erreztasuna apur bat galduta dauka.
- Senarra Galdakoko euskalduna da.

27.- JOSE RAMON LARREA BILBAO

- 80 urte.
- Arizen jaio zen.
- Ama Zeberiokoa zen, aita Arizeko torrekoa.
- Umetan Zeberiora joan zen, 10 urte bete arte han bizi izan zen.
Beste 6 urte Ugaon eman zituen, eta gero Basaurira joan zen
- Zeberioko euskara egiten du gehienbat.
- Fermin Larrearen lehengusua da.
- Bere emaztea Arizeko erdi euskalduna da.

28.- MARIA ZABALA BILBAO

- 82-83 urte.
- Urbarri auzoko baserrian jaio zen.
- Ama Igorretik etorri zen gaztelan. Aita Urbarrikoa zen.
- Urbarriko euskara egiten du.
- Apur bat galdua dauka euskaraz mintzatzeko erreztasuna.
- Baserria oraindik zutik dago, baina Bidebietako pisu baten bizi da bere ahizpekin batera.
- Etxean lehen euskaraz egiten zuten. Orain noizik behin bakarrik.
- Neskazarra da.
- Bere ahizparekin eta Pedro Aurtenetxerekin batera Urbarriko euskararen erdutzat har daiteke. Gehienbat Fonetika arlorako erabili dut bere testigantza, zeren eta bestelako gauzetarako aberastasuna pixka bat galdua bait dauka. Berdin gertatzen da bere ahizparekin.

29.- MADALENA ZABALA BILBAO

- 82-83 urte.
- Maria Zabalaren ahizpa bikoitza da. Elkarrekin bizi dira.

30.- PEDRO AURTENETXE MADARIAGA

- 88-89 urte.
- Uribarriko baserrian jaio zen.
- Ama Uribarrin jaio zen, aita Benta aldean, Bidebietan.
- Euskaraz egiteko ohitura galduta dauka, baina ederto moldatzen da.
- Uribarriko soloa lantzen du egunero, baina Bidebietako pisu baten bizi da.
- Jende gutxirekin egiten du euskaraz.
- Hikaz badaki.
- Afrikako gerran ibili zen.
- Ez du ondo entzuten.
- Uribarriko euskararen eredutzat hartu dut.

31.- MARIA ZAMAKONA ETXEBARRIA

- 88 urte.
- Bizkotzalde auzoan jaio zen.
- Gurasoak Bediakoak ziren.
- Arratia aldeko euskara egiten du, gehienbat.

32.- TOMAS ARTARAS LEKUE

- 72 urte.
- Arrigorriagako Briskieta auzoan jaio zen.
- Ama Uribarrikoa zen, aita Briskietakoa.
- Briskietako baserrian bizi da.
- Euskaraz oso ondo egiten du.

33.- ILDEFONSO LANDETA OLABARRI

- 80 urte.
- Arrigorriagako Goribisko auzoan jaio eta bizi izan zen.
- Gurasoak ere hango ingurukoak ziren.
- Artunduagara ezkondu zen. Pantxike Artetaren senarra da.

34.- AGUSTINA MUJICA ETXEBARRIA

- 64 urte.
- Arrigorriagan jaio zen.
- Lapatzara ezkondu zen. Bertako baserrian bizi da.
- Euskara erdi ahaztuta eta berreskuratuta dauka.
- Seme-alabak euskaldunak dira.

35.- MARINA ELEXPE ORBEZUA

- 84 urte.
- Arrigorriagako Peña auzoan jaio zen.
- Ama Areatzakoa zen, aita Zeberiokoa.
- Urte batekin Uribarrira joan zen eta gero Sarratu aldera.
- Orain Bidebietako pisu baten bizi da.
- Euskaraz egitea kostatu egiten zaio.
- Ez du Basauri aldeko euskara egiten.

36.- BERNARDA URIARTE JAKA

- 88 urte.
- Zaratamoko Arkotxa auzoko baserrian jaio zen. Gero Etxerre auzora joan zen bizi izatera.
- Jaiotako baserriaren inguruko lur-sailak Zaratamokoak dira, baina etxe hori distantzia berdinsura dago Zaratamo, Galdako eta Basauritik
- Euskaraz erdaraz baino hobeto egiten du.

37.- JESUSA LEKANDA SALAZAR

- 73 urte.
- Zolloko Aspiuntza auzoan jaio zen.
- Briskietara ezkondu zen eta bertan bizi da, alargun.
- Euskaraz ederto egiten du.

38.- EUGENIA LEGINA ZARATE

- 61 urte.
- Bilboko Begoña auzoko baserrian jaio zen, Ibarsusin.
- Gurasoak ere Begoñakoak ziren.
- Finagara ezkondu zen. Jose Mojaren emaztea da.
- Begoñako senideekin beti euskaraz egin omen du.
- Baserritar bizimodua dauka.

39.- MARIA MOJA LANDETA

- 81 urte.
- Bilbokoko Buiagoiti auzoan jaio zen.
- Briskietako baserri baten bizi da.
- Euskaraz ederto egiten du.

40.- MARIA ELORRIETA ERENAGA

- 67 urte.
- Etxebarriko alaba da. Santa Marina aldeko baserri baten jaio zen.
- Ama Durangokoa da, aita Etxebarrikoa.
- Ugartera ezkondu zen. Han 18 urte pasatu eta gero Bidebietara joan zen, pisu baten bizi izatera.
- Felix Solagurenen emaztea da.
- Basauriko plazan postua dauka eta euskara erabili egiten du.

41.- JOAKIN ELORRIAGA ARESTI

- 85 urte.
- Etxebarriko Uribarri auzoan jaio zen.
- Aita Uribarrikoa zen, ama San Migeleko Ibarre auzokoa.
- Basauriko Bizkotalde auzora ezkondu zen.
- Hikaz egiten du normal normal.

42- DOMINGO CASTILLO OLEA

- 68-70 urte.
- Galdakaoko Urreta auzoan jaio zen.
- Gurasoak ere galdakaolarrak zituen, Urreta aldekoak.
- Juanita Artetaren senarra da. Arizen bizi dira.
- Galdakao aldeko euskara egiten du.

43- KLARA SANTAMARIA ELORRIAGA

- 61 urte.
- Morgan jaio zen.
- Txiki txikitan Ugartera joan zen bizi izalera.
- Ama Morgakoa zen, aita Zeanurikoa.
- Orain Bidebietan bizi da, pisu baten.
- Senarra erdalduna da, alaba euskalduna.

44- JOSE MARIA JAUREGI MARKIEGI

- 68 urte.
- Lezaman jaio zen.
- Ama Begonan jaio zen, baina berehala joan zen Lezamara. Aita Larrabetzuko Goikolexeakoa zen.
- Luzarrera ezkondu zen eta bertan bizi da.
- Karmen Larrearen senarra da.

45- JUANA LEJARZA JEMEIN

- 74 urte.
- Zamudion jaio zen.
- Ama Markinakoa zen, aita Dimakoa.
- Artunduagara ezkondu zen eta bertan bizi da.
- Jose Mari Artetaren emaztea da.

46.- EDUARDA BILBAO ETXEBARRIA

- 78 urte.
- Arratiako Dimakoa.
- Gurasoak ere Dimakoak ziren.
- Arantzatzura ezkondu zen.
- Berarekin egindako grabazio zahar bat baino ez dut erabili lan honetan, bukaeran Arratia aldeko hizkeraren eredutzat paratutako etnotestoa zeukana, hain zuzen.

47.- JUSTO RESPALDIZA

- 75 urte.
- Orozkoko San Martin auzokoa.
- Aurreko kasuaren antzekoa da. Orozko aldeko hizkeraren eredutzat hartu dut.

48.- MARIA LEKERIKA DASOBEITIA

- 73 urte.
- Larrabetzuko Goikolexea auzokoa.
- Gurasoak ere Larrabetzukoak ziren.
- Basaurira ezkondu zen eta bertan bizi da orain.

1.5.- BASAURIKO EUSKARAREN EREDUA

1.5.1. BALDINTZAK

Lekuko egokienak hautatzeko momentua heldu zitzaudanean zeregin hura ez zela balere samurra konturatu nintzen. Auzo batzutan ez zegoen euskaldun ereduak aukeratzeko abadagune handirik, beharrezko baldintzak oso gutxi betetzen baitzituzten, eta betetzen zituztenen artean batzu ez baitzeuden laguntzeko prest. Gutxienezko baldintza hauek markatu nituen aukeragaienezat:

- Basaurin jaio eta bizi izandakoak izan behar. Honelakoak ugari ziren.
- Guraso biak, edo gutxienez eurretako bat Basaurikoa izan behar. Oso osoko basauritar gutxi daude Basaurin, kanpokoan eta bertokoan arteko ezkontzak eta loturak aspaldikoak bait dira. Gainera, kontutan izan behar da gure herria, nahiz eta orain 50.000 biztanletik gora eduki, nahiko txikia izan dela oraintsu arte⁸.

<u>Urtea</u>	<u>Biztanlegoa</u>
- 1877	868
- 1900	2056
- 1930	9444

⁸"Diccionario enciclopédico del País Vasco", II, 184 o. Ius bibliografía

- Adinekoak izan behar, umetaroa gerra aurretik pasatutakoak. Gehien gehienek betetzen zuten baldintza hau, betiko euskaldun gazteago gutxi baitaude Basaurin.
- Ahal dela kanpoan sarriegi ibili gabeko jendea izan behar, Basauri aldeko euskara ahalik eta interferentzia gutxienekin gordetzeko.
- Euskaraz ondo eta errez mintzatzen zen jendea. Ez zegoen halako askorik.
- Baserriko jatorria bazuten hobe. Horrela zen ia kasu guztietan.
- Andrazkoak hobe, lehen esan bezala, beste herri euskaldunetatik etorritako langileen eragin handirik ez baitute izan.
- Laguntzeko prest egon behar, jakina.

Baldintza guztiok betetzen zituztenak ez ziren asko, egia esan, baina gehien gehienen jatortasunari esker, talde polita bildu ahal izan nuen. Aukeratuak honako hauek izan ziren, auzorik auzo.

- Etxerre-rako Fernin Larrea.
- Ariz-erako Gabino Gorostiaga.
- Uribari-rako Pedro Aurtenetxe eta Zabala ahizpak.
- Artunduaga-rako Maria Lejarzegi eta Pantxike Arteta.
- Errekalde-rako Xexili Urkiza.
- Lapatza-rako Kalixta Madariaga.
- Atxikorre-rako Karmen Moja eta Mari Izagirre.
- Luzarre-rako Karmen Larrea.
- Finaga-rako Jose Moja eta Bixenta Beti.

Guztion artetik bat bakarra aukeratu behar bagenu Karmen Moja izango litzateke, zalantzarik gabe, bera baita baldintza guztiak zehatzen betetzen dituena: 80 urtetik gorakoa, bai bera bai gurasoak San Migeleko Ergoien aldekoak, baserritarra bere bizimodu guztian, esne-saltzaileen kuadrilakoa, kanpora oso gutxitan irtendakoa, euskara aberatsekoa, hika, zuka eta berorika menperatzen dituena... eta denaren gainera andra guztiz jatorra, beti laguntzeko prest izan dudana, ordu luzeetan zehar bere baserriko sugetean kafe eta etxeko patxarana dastatu bitartean hainbat eta hainbat bitxikeria kontatu didana bere euskara aberats eta naturalean. Basauri aldean gaur egun honelako bitxi bat aurkitzea ia miraria da eta esan daiteke bera izan ez balitz lan hau ez zela izango, ez behintzat biltzen dituen arlo guztietan, gauza batzu, Basauri aldeko gizonezkoen zein andrazkoen Hitano sistemaren adizkiak, adibidez, bera bakarrik bail da emateko gai.

Karmen Mojaren ahotik jasotako kontaketa bat ipiniko dugu jarraian Basauriko euskararen ereduaren zein den gutxigorabeherako ideia bat hartzeko, arloz arloko azterketa sakonean hasi aurretik.

1.5.2.- TRANSKRIPZIO-OHAR GARRANTZITSUA: Bai testu honetan, baita ikerlan osoan zehar agertuko diren beste etnotesto eta zita adibide guztietan ere, kontutan hartu behar da hitz barruko kokalekuan, "I" bokalearen ostean agertzen den "Y"-ak hainbat lekutan erabiltzen den yod antihiatikoa sinbolizatzen duela, sabai-aurreko frikari ozena, beste batzuk "DX" grafiarekin isladatzen dutena ("ogidxe", "arpeidxe", "bidxer"...). Antzeko zerbait gertatzen da hitz hasierako Y-rekin, hots hau ez baita Basauriko euskaldun gehienek ahotan erdaraz egiten dena edo Nerbioi haranaren inguruko herrietan egiten dutena, baizik eta kostaldeko herri batzutan egiten denaren gisakoa, sabai-aurreko afrikari ozena (posizio neutralean, bestela sabai-aurreko frikari ozena), frantsesezko /j/ -ren antzekoa. Bi hots hauek transkribatzeko "Y" sinboloa aukeratzeko erabakia nire tesi zuzendariaren aholkua jarraituz hartu nuen, transkripzioetarako zein sistema erabili behar genuen kontutan hartuta.⁹

⁹Kus Fonetikari dagokion arloa eta espektrogramak.

1.5.3. KONTAKETA - EREDUA

Hona hemen Karmen Mojaren kontaketa¹⁰:

Domeka arrasti beten egon geintzen mutil-neskatokak kuadrille bat, da in geinddun¹¹ an olgetako juego bet, da nik esan neintzen mutil beteri platero...plateragas olgau ber dule, da gero esacosten "selan?" da esan neintzen se bueno ba "Aixu, mixto bat ivetuixu, d'espabe papel bat, da platerari aspiyen dana bal baltz iinxu, da gero olgetako". Baltzittuteko ba suc emotzen papel bateri, da gero esacosten se "On ser eingu ba ta?". Esan neintzen e "Bueno ba, oin suk u plateran ganien iinxu ure", da esan neintzen se "eskuek urartien bustixus", da gero eskuek an baltzittuteko lekuen, baltza iineko lekuen, ba eskuek baltzittuten eusen berak, baie berari esaten neintzen neuri arpeire begittako, es beittuteko platerera, sem ukusi berak ser dekon eskutan, da gero esan neintzen eskuekas aitteko arpeiyen, da olgetako, ba "Suk u garbituixu arpeiy e eskuekas", d'aixu, nik garbittuten dot arpeiy e, da berak iintten euen arpeiy e bal baltz, baie nik eneinddun moduen euki eskutan esebes, ba nik eneinddun ba... ene...inddun neurie, neurie baltzittuten, da gero dana kuadrille asi sen barreka, da orduen berak) sospetxauen ba seoser pasetan dala, da gero figureu sen da beittu euen eskuetara da eskuek bal baltz aukiusen berak, da gero orduen egon geintzen moduen kuadrille andiye gure nosten niri yo, baie nik eskaça in neintzen. Nos ta niri yo! Da akabo.

¹⁰Transkripzioetan euskal ortografia konbentzionalera egokitutako alfabeto filologikoa erabiliko da.

¹¹DD-k simbolizatzen duen hotsa sabaiko afrikari ozenarena da.

1.6.- LABURDURAK

- B.B. : Bixenta Beti.
- F.L. : Fermin Larrea.
- G.G. : Gabino Gorostiaga.
- J.M. : Jose Moja.
- K.E. : Karmen Elordui.
- K.La. : Karmen Larrea.
- K.Le. : Karmen Lejarzegi.
- K.Md. : Kalixta Madariaga.
- K.Mj. : Karmen Moja.
- M.I. : Maria Jesus Izagirre.
- M.L. : Maria Lejarzegi.
- M.Z. : Mari/Madalena Zabala.
- P.Ar. : Pantxike Arteta.
- P. Aur. : Pedro Aurtenetxe.
- P. O. : Petra Ozerin.
- Z. U. : Zezilia Urkiza.

1.7.- GRABAZIOEN ZERRENDA

- 1.- Karmen Moja, 82 urte: Elkarrizketa, 1988
- 2.- Karmen Moja, 82 urte: Elkarrizketa, 1988
- 3.- Marina Elexpe, 84 urte: Elkarrizketa, 1990-4
Klara Santamaria, 61 urte: Elkarrizketa, 1990-4
- 4.- Bernarda Uriarte, 88 urte: Elkarrizketa, 1990-4
- 5.- Fermin Larrea, 74 urte: Elkarrizketa, 1990-4
- 6.- Gabino Gorostiaga, 89 urte: Elkarrizketa, 1990-4
- 7.- Juana Arteta, 65 urte + Domingo Castillo, 68 urte: Elkarrizketa, 1990-5
- 8.- Mariano Ibarretxe, 67 urte + Antonio Ibarretxe, 64 urte: Elkarrizketa, 1990-5
- 9.- Miren Atxa, 69 urte: Elkarrizketa, 1990-5
Maria Zamakona, 88 urte: Elkarrizketa, 1990-5
- 10.- Maria eta Madalena Zabala, 82 urte: Elkarrizketa, 1990-5
- 11.- Maria Lejarzegi, 89 urte: Elkarrizketa, 1990-5
- 12.- Bixenta Beti, 79 urte: Elkarrizketa, 1990-5
Rosario Atxa, 64 urte: Elkarrizketa, 1990-5
- 13.- Pantxike Arteta, 72 urte: Elkarrizketa, 1990-6
Petra Ozerin, 68 urte + Mariano Uriarte, 65 urte: Elkarrizketa, 1990-6
- 14.- Victoriano Azkueta, 70 urte + Juana Lejarza, 74 + Jose Maria Arteta, 77:
Elkarrizketa, 90-6
- 15.- Zezilia Urkiza, 84 urte: Elkarrizketa, 1990-6
- 16.- Jose Moja, 62 urte + Eugenia Legina, 61 urte: Elkarrizketa, 1990-7
- 17.- Maria Jesus Izagirre, 64 urte: Elkarrizketa, 1990-7
- 18.- Jose Ramon Larrea, 80 urte: Elkarrizketa, 1990-7
Juan Llaguno, 65 urte: Elkarrizketa, 1990-7
- 19.- Pedro Aurtenetxe, 88 urte: Elkarrizketa, 1990-7
- 20.- Jose Moja, 62 urte: Fonetika triangulorako elkarrizketa, 90-7-18
- 21.- Kalixta, 82 urte eta Kandida Madariaga, 78 urte + Agustina Mujika, 64:
Elkarrizketa, 90-7
Kalixta Madariaga, 83 urte + Agustina Mujika, 65 urte: Elkarrizketa, 91-4-5

- 22.- Tomas Artaras, 72 urte + Maria Moja, 81 urte + Jesusa Lekanda, 73 urte:
Elkarrizketa, 90-10
- 23.- Karmen Larrea, 67 urte + Enkarna Etxebarria, 94 + Jose Maria Jauregi, 68:
Elkarrizketa, 90-10
- 24.- Pedro Aurtenetxe, 89 urte + Gabino Gorostiaga, 89 : Elkarrizketa, 90-12
Felix Solaguren, 69 urte + Maria Elomietta, 67: Elkarrizketa, 90-12
- 25.- Jose Moja, 63 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-2
- 26.- Fermin Larrea, 75 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-2
- 27.- Karmen Moja, 85 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-2
- 28.- Karmen Moja, 85 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-2
- 29.- Maria eta Madalena Zabala, 83 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-3
- 30.- Maria eta Madalena Zabala, 83 urte: Elkarrizketa, 91-3
- 31.- Kalixta Madariaga, 83 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-3
- 32.- Maria Lejarzegi, 90 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-3
- 33.- Maria Lejarzegi, 90 urte: Fonetika + Elkarrizketa, 91-3
- 34.- Karmen Moja, 85 urte: Deklinabidea + Elkarrizketa, 91-10-24
- 35.- Karmen Moja, 85 urte: Deklinabidea + Elkarrizketa, 91-10-29
- 36.- Karmen Moja, 85 urte: Deklinabidea + Elkarrizketa, 91-10-29
- 37.- Karmen Moja, 85 urte: Deklinabidea + Elkarrizketa, 91-11-8
- 38.- Karmen Moja, 85 urte: Deklinabidea + Elkarrizketa, 91-11-26
- 39.- Fermin Larrea, 76 urte: Deklinabidea + Elkarrizketa, 91-11-26
- 40.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-11-28
- 41.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-11-29 / 91-12-3
- 42.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-12-3
- 43.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-12-10
- 44.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-12-10/20
- 45.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-12-17
- 46.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 91-12-20
- 47.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 92-1-14
- 48.- Karmen Moja, 85 urte: Aditza + Elkarrizketa, 92-1-14
- 49.- Karmen Lejarzegi, 85 urte: Elkarrizketa, 92-4-10
- 50.- Karmen Moja, 86 urte+Karmen Elordui, 62: Joskera + Elkarrizketa, 92-7-7
- 51.- Karmen Moja, 86 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-7-7

- 52.- Karmen Moja, 86 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-7-10
- 53.- Karmen Moja, 86 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-7-10/13
- 54.- Karmen Moja, 86 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-7-13
- 55.- Mari Izagirre, 67 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-8-12
- 56.- Karmen Moja, 86 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-8-13
- 57.- Karmen Moja, 86 urte: Joskera + Elkarrizketa, 92-8-13 / 92-9-16
- 58.- Karmen Moja, 86 urte: Denetiko galderak + Elkarrizketa, 92-9-16
- 59.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-16
- 60.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-18
- 61.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-18/21
- 62.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-21
- 63.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-21/22
- 64.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-22
- 65.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-22/23
- 66.- Karmen Moja, 86 urte: Lesikoa + Elkarrizketa, 92-9-23
- 67.- Domingo Castillo, 70 urte + Juanita Arteta, 68: Elkarrizketa, 92-11-13
- 68.- Joakin Elorriaga, 85 urte + Fermin Larrea, 76: Elkarrizketa, 92-11-19
- 69.- Eduarda Bilbao, 85 urte: Ipuinak eta kantak, 1984.
- 70.- Justo Respaldiza, 75 urte: Ipuinak eta kantak, 1985.
- 71.- Maria Lekerika, 73 urte: Elkarrizketa, 1987.

2.- FONETIKA

2.1.- AURKEZPENA

Fonetikari dagokion atalean bi izango dira aztergai nagusiak: Triangulo bokaliko akustikoa batetik eta fenomeno fonetikoaren deskribapena bestetik.

Azterketarekin hasi baino lehen gauza bat edo beste esan behar da bi zati hauek lan honetan duten garrantziari buruz. Izan ere, Trianguloarena nahiko puntu testimoniala izango da, gero azalduko diren arrazoiengatik. Fenomeno fonetikoena, osterat, bai izan behar dela ikerlan honetan pisu handiko atala. Bertan hainbat eta hainbat ezaugarri berezi aztertuko dira eta berari esker Basauri aldeko eta orokorrean Nerbioi haraneko Euskara aldakia inguruko herri eta haranetakoetatik gehien bereizten duten fenomenoak agerian utziko dira.

Fonetika da, izan ere, gure haraneko euskara ingurukoetatik gehien urruntzen duena, beste atal batzutan (Aditzean, deklinabidean....) desberdintasunak nahiko txikiak bait dira. Horregatik kapitulu honi merezi zuen garrantzia eman behar zitzaion eta hori egiten saiatu naiz, fenomeno fonetikoari dagokien zatian ezaugarri zerrenda luzea aztertuz.

Kasu bakoitzean erabilitako metodologia zehatzari buruz gero hitzegingo da, atal bakoitza aztertzen denean eta horregatik ez naiz luzatuko aurkezpen honetan.

Triangulo bokaliko akustikoa bokalismoaren zati bat da, jakina, baina bere azterketari dagokion atalak nolako luzera duen ikusita, aparte aurkeztea eritzi diot egokiena.

22- TRIANGULO BOKALIKO AKUSTIKOA

22.1- TRIANGULOAREN GARRANTZIA ETA FIDAGARRITASUNA

Lan honetan triangulo fonetiko akustikoa aztertzea erabaki nuenean nire asmoa ez zen ohizko metodoari jarraituz ikerketa guztiz sakona egitea, pixka bat esperimentu moduan planteatu nuen, gehienbat erabilitako metodologiari begira. Orain arte nola egin dira normalean triangulo hauek? Lekukoak laboratoriora eraman eta han hitz batzu, bilatzen diren kontestuak betetzen dituztenak, banan banan errepikatu araziz. Horrela lortzen diren espektrogramak argi argiak dira eta oso triangulo politak ateratzen dira. Baina honi planteatu dakiokeen galdera honako hau da: Zenbateraino isladatzen dute triangulook hizkera erreala, naturala, egunerokoa? Oso desberdina bait da hitz bat bera bakarrak eta lasai edo hizketaldi bateko esaldi andana luze balen barruan ahozkatzea.

Ni, ikerlan osoaren filosofiarik apur bat jarraituz hizkera naturalean oinarritu naiz arlo honetan ere eta elkarrizketa bizi batetik atera ditut aztertu behar nituen hots guztiak, honek suposatzen zituen zailtasun eta deserosotasun guztiak asumituz. Batzutan zaila gertatu zait laborategiko makinaren pantailan agertzen ziren etengabeko grafikoaren segidan nik aztertu nahi nuen hotsari zegokion espektrograma zehatz-mehatz non zegoen asmatzea eta zeregin honetan bidea zeharo erraztu didan pertsonaren izena ez aipatzea baska ezina izango litzateke, Deustuko Unibertsitateko laborategi fonetikoan lan egiten duen Alexander Inbarren laguntza izan ez banu, ezinezkoa izango bait zitzaidakeen hemen aurkezten ditudan triangulook nik neuk bakarrik ateratzea.

Bestalde, nire triangulooi zenbaterainoko fidagarritasuna eman behar zaien erabaki aurretik aitortu behariko lekuko bakar batekin aterata daudela, baina hori bai, ondo aukeratuta. Gero esango dut, metodologiaren atalaren barruan, zein izan zen lekuko hori hautatzeko bidea.

Onera litzateke makina bat hitzuneekin prozesu berbera burutzea, baina hau oso oso luzea izango litzateke eta gainera, Basauriko kasuan behintzat, ezinezkoa da baldintza zehatz batzu betetzen dituzten hainbeste lekuko topatzea. Dena den, ikerketarako elkarrizketa naturalak erabiliz gero ni ia konbentziturik nago triangulo desberdin mordoan aterako litzatekeela, pertsona berberak leku berean eta ia momentu berean gauza bera esan eta nolako balore desberdinak ateratzen diren ikusi ondoren¹.

Beraz, lan honetan agertuko den trianguloa ezin izango da hartu, agian, Basauriko triangulo fonetiko akustiko bakartzat, baina izandako esperientzia oso interesgarria izan da eta, nire uste apalean, horixe da, hizkera naturalena, nik baino lekuko gehiago bilduz, trianguloaren azterketa sakonak egiteko erabili beharko litzatekeen metodoa.

2.2.2- METODOLOGIA

Emandako pausoak honako hauek izan dira:

- Lehenengo eta behin lekuko aproposa aukeratu. Lehenago esan dudanez bat bakarrik erabili dut eta horregatik baldintza batzu derrigor bete behar zituen:

Gizonezkoa izan behar, bere ahots-tinbrea emakumezkoena baino egokiagoa bait da honelako lanetarako.

Adinekoa izan arren ahoan inolako aparailurik edo trabarik ez edukitzea normaltasun osoz ahozkatzeko (Ordezko hortz-haginak, hagin falta...).

¹Honelakoak sarti gertatu zaizkit, lekukoak ia jarraian hitz bera bi aldiz esan eta halere balore desberdinak suertatu. Adibidez: "...da gero or amAbiyek inguruen amosu apur bet, amAbiyek edo amaketan..." pasartean bi /á/ toniko horien formanteak neurtu eta balore hauek atera ziren, ordenez: F-1: 620/880 - F-2: 1320/1400. Nahiko desberdintasun handia, ikusten denez.

Gizonezkoa izan arren Basauriko ezaugarri fonetiko tipikoak gordetzea, eta honelakorik aurkitzea ez da hain erreza².

Orokorrean, nire lekuko "aukeratuentzat" markatu nituen baldintza guztiak bete behar (Jaiolekuari, gurasoen jatorriari etabarni dagozkienak).

Guzti honetaz gainera, aukeratutako pertsona hori, Jose Moja Elordui, prest egon behar zen, jakina, bere baserriko zereginak utzi eta laborategi fonetikoko kabina barruan hainbeste mikrofono, botoi eta tramankulu artean sartzeko. Zorionez, ez nuen inolako problemarik izan eta Jose, beti bezala, primeran portatu zen nirekin orduko hartan ere.

- Beraz, bigarren pausoa lekuko hori Deustuko Unibertsitateko laborategi fonetikora eramanez eta han larogeita hamar minututako elkarrizketa natural luze bat grabatzea izan zen. Honela grabazio guztiz garbia, kanpoko hots eta zaraten interferentziarik gabekoa lortu genuen. Aipatzekoa da Deustuko Unibertsitatearen jarrera guztiz positiboa nire lanarekiko, hango materialak eta behar beste ordutan erabil nitzan erreztasun guztiak emanez.

-Hurrengo pausoa 90 minututako zinta horren transkripzio osoa egin eta bertako esaldien artean sakabanatuta zeuden beharrezko kontestu fonetiko eta hotsak aukeratzea izan zen. Hiru ahoskune baino ez nituen kontutan hartu, ohizkoenak, bestelakoak oso oso gutxitan gertatzen baitira lan honen oinarri den hizketa naturalean. Kontestu hauek aukeratu nituen, beraz, ahoskunearen arabera³:

- | | |
|--------------------|--------------------|
| - Ezpainetakoak: | Tonikoak / Atonoak |
| - Hortzetakoak: | Tonikoak / Atonoak |
| - Goi-hobietakoak: | Tonikoak / Atonoak |

²Lan honen sarreran esaten denez, enakumezkoek askoz hobeto gorde dituzte Basauriko betiko ezaugarri fonetikoak.

³Bokale aztergarri guztiak ahoskune hau zuten kontsonantez inguratuta egon behar ziren.

- Kokagune hauetan zeuden bokalak guztira 108 izan ziren testuan. Kontestu batzu besteak baino ugariagoak ziren eta horregatik falta zirenen edo urri zirenen presentzia ugaritzeko galdekizun zuzendu bat prestatu nuen Jose Mojarentzat, beti ere esan behar zuen hitza esaldi normal baten barruan, kontestu naturalean eta elkarrizketa baten barruan esan zezan bilatuz. Honela beste 59 bokale aztergarri agertu ziren eta guztira eskutan 167 bokale izan nituen, lehenengo trianguloa osatuko zutenak.

- Beste aldetik, hasieran aipatutako esperimentuaren filosofiarik piska bat jarraituz, beste triangulo bat osatu nahi izan nuen testuaren barruko zati aleatorio bat hartu eta bertan agertzen ziren bokale guztiak, edozein kontestutan egonda ere aztertuz. Honela bigarren triangulo bat osatuko zuten beste 66 bokal izan nituen esku artean.

- Beraz, guztira nituen 233 bokale horiekin lanean hasi nitzen Deustuko laborategi fonetikoko makinetan eta bertan lanean iharduten duen Alexander Iribarren laguntza estimagarnarekin denon formanteak(F1 - F2)¹ atera nituen. Baloreak zuzen pantailatik hartu genituen, hots guztien espektrogramak banan banan inprimitu beharrik izan gabe. Balore hauekin sakabanatze grafikoak² atera eta azkenean, batezbestekoak eginez, bilatzen genituen bi triangulo bokaliko akustikoei itxura eman gemen.

- Azken pausoa aipatutako bi bide hauetatik lortutako baloreen batezbestekoa egitea izan zen, ondorioz azken trianguloa lortuz, nolabait Basauriko trianguloa izango zena.

- Atal honen amaieran, Basauriko trianguloarekin batera beste leku batzuetakoak paratuko dira, Zeberiokoa, Baztangoa, Nafarroakoa eta Gaztelararena, eta konparaketa txiki bat egingo da.

¹Formante hauek bi gauza adierazten dituzte: Bokaleen irekidura/ixidura maila(F-1) eta ahoskeraren kokagune aurreratua edo atzeratua(F-2).

²Bokale bakoitzaren ahoskatze desberdinek ematen dituzten baloreak sakabanatzen diren eremu osoa.

Jarraian, erabilitako testu osoaren transkripzioa ipintzeari egokia eritzi diot, fonetikaren ikuspuntutik ezezik linguistikaren beste edozeinetatik ere interesgarria izango delakoan. Azterketarako erabili ditudan bokale guztiak, bai testukoak orokorrean, bai zati aleatoriokoak ere, argi markaturik azalduko dira. Nahiz eta euskaraz tilderik ez erabili nik, aukeratutako hitzak tonikoak direnean, markatu ditut, bokal bakoitza atono edo tonikoa den argi uzteko. Azterketarako erabilitako bokale guztiak negritan eta maiuskulaz agertuko dira eta tonikoak badira, tilde eta guzti.

Grabaketa hau Deustuko Unibertsitateko laborategi fonetikoan egin zen 1990eko Uztailaren 18an eta bere transkripzioan Jose Mojaren hitzak bakarrik agertuko dira.

Grabazioan jasotako datuak lantzeko erabilitako tresneria honako hau izan zen:

- Sonogrametarako: KAY DSP MODE 1.500
- Inpresora: KAY DSP Scale Printer Model 5510

Berrito esan behar, nahiz eta lan honen sarreran oharra eginda egon, hitz barruko "I" osteko "Y"-k beste batzuk "DX"-ekin idazten dutena sinbolizatzen duela, sabaikari-aurreko frikari ozena, hain zuzen. Era berean hitz hasierako Y-ren ahozkerak ez da erdarazkoaren modukoa, antz handiagoa dauka frantsesezko J-ren ahozkerarekin. (Sabaikari-aurreko afrikari ozena hasiera absolutuan, bestela sabaikari-aurreko frikari ozena).

2.2.3.- ERABILITAKO TESTUA⁶

JOSE MOJA ELORDUI

Ba, nik i, goxien, altzau oitlik, da IEléngoko biarra kortara, da, kortan noperan a bierrak ein, beiyek (g)obernau, da..., beiyek e..., ganadu gustie⁷, gobernau, da yaten emon, da gero yoaten nas, barausten, ya andrie(k)(d)eko preparaarik, da nik i, ba yan, ifinten clauena yan.

Nik i..., IEléngo, kafitesnie, sopakas, da gero or amÁbiyek inguruen, amosu apur bet, amÁbiyek edo amakelan, ordu bet Edo⁸ serien igual a... gero, amosau, da gero barríro, beiyek (g)obernetan, barríro, egurdien or..., ordubatak ordubataterdiyek inguruen, beiyek (g)obernetan, areik i gobernau, da baskaldu, andriek ifinten clauena yan.

Nik i... gogor, ser baten e... gogor baten e... es? danak andrie l'alabie yoan askiño kanpora, ba nik i fasillenera, kosi arrontza bat edo serien da... frijidU te yan, baie osteien lapikokorik es, olan porru porrue edo patÁtak edo inddabie, orreik orreik (g)ausok es esto(d)as ifinten nik, da nekes da gureo dot⁹ itxon o... ordubete, edo ordúterdi, andrie te... alabieri, oin alabie egon askiño alabiek, baskariye bai, are(k)p(b)ai, aregas, da gero baskaldu, da siestara, ori, ya enoste kenduten, inok, ser gogorrien bai, ser gogor baten ba... bijan bat euki biar askiño besten bategas, orduen e, kendu, siestie, ta yoaten nas, baie osteien siestie, len laurek ingurUarte, ordUterdi, ordubire, baie ya oin i apur bet geixuao oin i bostak edo bostak eta... pasau arte, an.

⁶Transkripzioetan euskal ortografia konbentzionalera egokitutako alfabeto filologikoa erabiliko da.

⁷Nahiz eta I ostein ia beti Yod a sartu, noizean behin ez du horrela egiten Josek... Bustidura, bestalde, ez du andrazkoek bestean erabiltzen. Hau joera normala da Basauri aldeko gizonzkoen artean. Arrazoi nagusia lan honen sarreran aipatutakoa da, gizonzkoek inguruko herri euskaldunetatik etorritako langileekiko kontakturen ondorioz hizkera pixka bat moldatu egin dutela kanpokoan erara, bustidura gutxiago egiten diren Arratia, Zeberio, Txorierri aldeko hizkeren ezaugarri fonetiko batzu neutri txikiago edo handiagoan bereganatuz.

⁸Jarraian zetozen bi hitzen arteko bokaleren bat ere onartu dut ahoskatzerakoan inolako etenik ez zegoenean.

⁹Batzutan Jose Mojak hitz bukatuko T-ak K egiten ditu, ia ia "gureo doK", "esatontzeK", "ni neutzaK" eta horrela esaten duela diudi.

Da gero barríro, barríro kortako bierrak ein, bueno, yatekoak eta serien... kosi, lantzimiñ i... berdegilliegas, da beste lantzimiñ i seras makiñegas, geiyena makiñegas eiten dot kosi makiñe ta ebai, gero yoan tratoragas, da prise asko auki askiño... aran batera yoateko edo serien alabieri esatontzet, bueno, ekarri tratora solora, da biyon arte ensegida ingu, da berak alabiek kosten dau tratora da biyon arte, orduerdiyen eiñi(k)l(d)ekus bierrak.

Oin soloan... bier gitxi eiten dau e! soloan bier gitxi, oin bedarrakas bai, bedar denporan, gixon bate(k)p(b)estien.

Orrek e, deko sano, ni(k)p(b)año doblie baño geiyeu, berak, da ibilko¹⁰ dau, nire... labrantzien baño..., dana, asi Atxikorren, sauk u bakixu, Atxikorren, asi Atxikorren da Briskitagiñoko arao goragiñoko, ango basemyen... goiyen... e selan daoen? arei(k)p(b)ere geiyena(k)l(d)abis berak, areik solo gustiyek, bera(k)l(d)abis, aurten, aurten be... ingo daus igual mille ta... gitxike bota eske e! mille ta laureun fardo edo... irúr(e)un, irúr(e)unetik (g)ora, aurten, da ori bedar gitxi daola, arek e birmille inguru igual a, beste urte batzutan eingo dausen.

Bai, San Migelen, baie... arek e urtem, ofisinetik, da kosi tratora, areik dekoiyes, trator bi oin, kosi, da... gixon gitxi ongo da aríri... pastie... nik es e! nik estotzet areri pasten tratoragas ibiltan, areri, da ondo manejaue! arek e... kosi te didadida bere aite(k)p(b)ano obeto, oin soloan, estabil tratoragas, soloan nekes baie bedarrakas da... bedarra ekarri te olAn, ondo.

¹⁰Sarritan egiten dira honelako sinkopak Basaurin: "Ibil(i)ko dau", "Etor(i)ko da", "Ibil(i) nes", "Etor(i) gara"...

Ba nire andriek, einten¹¹ dau ba, oin, oiñ arte, gure bosu yakin, oiñ arte, altzau oitik, ifiñi... barauskarriye... geurie, da esnie kosi, se len aukiten do(d)asen e bos bei, lau, esnien, lau da bos be bai, esnien, da esnie salduten yoaten san Samigelera astoagas, gero astoa ba, txikerra in sen, da ein dodana, serien, karro bat erosi, da asto fuerte bat asto ona, astoa ondo preparau da bere karrotxuegas a yoaten san a esniegas ela, berdura apur betegas, Samigelera, da gero, ya itxi in du serien ori bijori itxi in du, beiyek e saldu esnedunek, da oiñ astien, yoaten gara ba... bI bider, iru bider, yoaten da, kosi esne apur bet, IEnaoko sarrari, IEnaokoari e! ni eskolara ibilduen¹² areik bereseriyek dekodas nik, areik dekodas nik ondiñogarren, neu be eskolara ibillirik e! da, areiri esne apur bet emon, da ale, etzera, da gero bA beti seoser e tomate batzuk (g)obemau, edo indabA (a)pur bet e yoratu...

Gariye, ereiten dun u... Iñ:nau

Aiko, gariye botaten san, erein, da gero ebei, bai, ebei, da gero..., klaro, guk u... gabillek esatentzun, gabillek, olan e... serien, es?

Da gero, a beroagas, berotuduen sano e! sano berotuduen, ba arri beten ganien, ifini arrie, d'arriyen ganien, yo ta benga yo an da, garandu iten san, da gero ser pasetan san, ser baten, olan galbai andi bet, galbai andi betetik pasetan san, a dana kenduteko... ault(s) gustiye ta, estauena balio, da gari bet lotuten san, da gero, etor san an, makine bat, ara makinera bota, ta arek itxiten dauen, garbi garbi garbi garaua

Bai bai bai eskuegas emon o, ser bateri da benga bat emon, gero a kantzauduen e beste bat asten san, d'aren axiet(k)p(b)otaten dauen aren e, seragas, garbi garbi lotuten san, da gero sakure bota, baie a bier gogorra ixin san, guok o... ereiten dun, gogorrien e orduen e... ori abastos, esaten yakon, arek e... derrigorrien e... in ber dun u... gariye... entregetako auróri.

¹¹Jose Mojak sarritan "e(g)itea" bari "e(g)ñten" esaten du.

¹²Ibilli (or)iduen, Josek ia beti egiten du sinkopa hau, Partizipioa + ORDUEN = Partizipioa + DUEN: "Ibilduen", "Egonduen", "Sartuduen"...

Arixera estun eraten, guk eraten dun Seberiyora... Elorribietara, da Santakurtzera, da Santakurtzen, niri geiyen geiyen ara axe gustelan nastan, Santakurtz, nik estail i... ondo esaten nostien edo... niri geiyen.

Es, estauren einten olan a txikerrera estauren bolaten Arixekoak a, aurok euki dauren aurontza(t)p(b)akarrik, bai bai, auron ogiye ta aiteko.

Es, diru, dirúrik estauren kosten, kendúten dauren e aunetik i... ba esaten daurena... killo bat edo serien, baie igual a bi edo iru edo, ni, serien e, Santakurtzeko aek e esetukosus igual, Simon, an dao, areikas amistade andie dekot nik, d'arek esaten nosten e..., erderas, Moja, "de molinero ya cambiarán, no, de molino ya cambiarán, pero de molinero no!"

Danak a danak a ori gurixin dauen esan auskeras, errota batetik bestera, kanbiyaukosu, baie lapurretAlik es! arek, grasiye iten nosten e..., lenao, da gero bere ama, Simonen amak a..., ba lenao ibillen garan a geubes be bai, ta goxaldelan, da an emoten nostien ba..., yateko ogi sati bet, da Simonen ama ona ixin sen gero! nI neutza¹³, se niri ogi sati bet emoten nosten da esan nosten bueno oin es yan, geroxoao yan, se oin, lar bero dao, bera ona, ona, andra ona ixin sen a.

Ni... ni es, baie nire aiti: defuntue, ona Etxebarrire, Etxebarrire, da lenao oneik guardia sobillek, geubes, baie ser goardia sobille(k)p(b)ai, yoan bai, baie errotariyek e..., itxiri(k)(d)ana, da aurok o, gure aite ta serien, etzera, baie gero, geubes, beste egun beten yoan, baie ser, eroan a... berrogetamar killo ta... estosus ekarten e... ogei killo, orduen.

¹³"Ni neutzaK" ia ia.

Labasue..., an a gure, baserriyen es san... gitxi, gitxi sano, egon siesan, an einten san, sera labasue einten dun u..., artoa erretako, bai, artoa... apur bet pasetako, gusto serien emoteko, gusto ona emoteko ogieri.

Lénao, nire aitek eta amak, len leiyak egoten siesan, leiye batzuk esku biges, e, leiye bat esku beten da bestie bestien da neu bñ: bai egon nas, amagas da aitegas, erdiyen ifinten nostien, se eskiñekoak an bierrein ber dauren, erdikoak a, lagundu, aurori, da erdiyen, bai ifini... biyek.. da yo lurrien, da buelta emon, da gero yo, da idiye... idiyek euki dauresanak idiyekas, osteintzien beickas, da goxien goxeli(k)tx(y)oan biar areik mokillok edo yoten! da gero..., mokilporrak esatontzun u... mokilporrak, kosi mokilporrie ta areik mokillek e serien, bueno, erein, kosi artoa ta, pasau... sera... atxurregas einten dun, es? serien, erein, da gero ya sertuteko es eukiteko mokillek e... serien, an mokilporrakas bím bóm yo ta yo yo ta yo, yo ta yo a ixin sen bier bat a, ser, geur, geur orreik i...!

Ba gero yorratu, jo! yorratu an beroagas an, artoa an, noperan a sereginoko, bero artoak artoak bero andie bot Áten dau barruen e! bai, da a yorratu yorran ibilli, eskus, eskus u... atxurregas, atxurregas einten san.

Indabie, indabie, d'artoa bakarri(k)p(b)E bai baie indabie geiyenien indabiegas, indabie kosten san, da oin bE bai (...) ¹⁴ ya aurten estu, estu bota guk (...) ¹⁵ se... estao nok eirik! Guk u, ya edadie gora.

Gero ba, kosi ebei, a! Surok kanille, gu(k)p(b)e kanille esatentzun u, lorie, lorie garbi a, da, bestie, lorie kenduduen, bestie, kanille, an klak klak! eskuek e, dana, ebein be bai, se(r)agas, inten siesan, bai, da gero etzera eran, an a, iru edo lau edo, etzien e segun u senbel jente daoen an, gero benga, garandu ta orretara, da taloa, gero talo ta esnie yan, taloa ein de..., oin oin baño, ogi gitxiao yaten san orduen, taloa geiyeu eraten san, armosetako... da barausteko... serien e..., taloagas.

¹⁴Ez da ondo ulertzen zatitxo hau.

¹⁵Zatitxoren bat ondo ulertzen ez denean honela irikatuta agertuko da.

Ori... lenao... eskolara ibilduen arto bixerragas da..., aiteri tabakorrie es? kendu, da fumeu sera, je-jei, fumeu sano sano, sano fumetan san.

Ba, txarra... ba nik estait txarra ixin basan, baie fumetan san, bai, aiteri kendu..., serien, tabakorrie be bai, ein yako, sarri.

Es, es, tabakorrie es, nik esetu dot ereiten, Amurriyon, Amurriyon bai, Amurriyon o... solo bi ereiten dauresan batzuk, da gero siketako be bai eukiten dauren pabelloi andi bet, andiek euki dauresan, da..., an bai, an nik i..., orduen eukingodasan... emeretzi urte inguru.

Arbolak, gitxi, estao olan, fatxadaskorik estao, an estao lenao egoten san, orrek Luxianok, euki dauen.

Es, olan a txiker batzuk, da... ganorabagakoak, (...)

Or, or, egoten san..., kastañak, da aratxa, orreik (g)eien.

Or, asko es, or afisiñorik (g)eiyeen, or Atxikorrekoak euki dauren, orrei(k)p(b)ai orreik i euki dauren, tia Karmenek eta oneik, auki dauren, da gero, onek Izagirik, gure auzokoak, be bai, orrei(k)p(b)e bai, orreik asko, auki dauren afisiño asko, da gero..., ba esatiarrik i, geu, geu, se guk euki dun u... sagarrak, madariek, milikotoiek, da... gustirik Kenxa(k)p(b)e bai.

Es, aiko orixe es, es, intxaurrik es, da okarani(k)p(b)es, aikor¹⁶, okaranik esi(n) leiyela kosi an, da ain dot nik i alegiñek ein dódas ba kosteko kosteko baie es, esi(n) lei, nik estait segaiti(k)l(d)en.

Bai, baie... orrei(k)p(b)ere iñiri(k)p(b)ai, baie estaure kosten, da landarak a... onak, landara onak, gastiek eta ondo, ondo gobemaurik barres, baie estaure kosten, okaranik.

¹⁶AIKO eta AIKOR, biak erabiltzen dira.

Ba, estait nik segaiti(k)l(d)en ori, da lorie eukiten daure, lore asko.

Nik i... nik i..., baserriyen e..., bierrein, ein dol, la est ót ein, eskóndu te gero bai, baie eskondu arte, gitxi sano, gitxi, nire anajie(k)p(b)ai, a bai, a ixin sen e, biergiñe.

Bai, txarrie lenao, urte gusti gustiyetan.

Ba txariyek e, bi, txarri bi, asten dusen, bata... gabon aurretuxen, da gero, gabona(k) pasau te gero, geroao, bestie, da txarrie ilten san, da orduen, txarribodie inten san, txarribodie in , da, an a, yaten ibilduen, dana ba... osaba gustiyek eta an famelikoak eta, an ausoko batuz(k)p(b)e bai, txarriye eusten e dabixenak arei(k)p(b)e bai, lelengo armosetako, armosetako serien, len e, au, ron, ron, ser bat egoten san, edabe bat a... fine (...) estait selan dekon usena, bueno ron, da..., anixe be bai, anixe, da oneik, galletak, galletakas, da biskotxoak, orreit(k)p(b)ai, biskotxoak, da gero, ba txarriye il, eta... andra biduru¹⁷ ba erre kara, estiek (g)arbituten, beste bat a lotuten san a sugetien e kimpullie..., egosten, da porru... serien ifinten da, mortzillek aiteko, da gero armosetako gibela, da an, txarriye il deurenak¹⁸ eta eusten egon diesanak a, gibela yan, frankillo, ardaoa edan, da etzera, gero arrastiyen, mortzillek serien ein, gero odolestau, ser baten, lapiko andi beten, sue... sue ein, da gero mortzilladie, gaubien, ba ser, igual a ogei edo geiyeu, an txarri txarribodan, da gero batzuk u edaten daurenak a moskor apurtxu bet kosite, ango..., ba sagata(k)p(b)e... ba frankillo an, armoni onien, olan ibiltan san, txarri, txarribodie ori ixin sen.

Ba ori txarriboda... ya urte asko da itxi dala, ya oin esta inten, esta inten, osteien guk u txarriye..., oin i... amar, amar urte edo geiyeu ixingo da estule il txarrink, geiyeu igual amabost urte, baie lenao lenao, aite defuntue bixiduen, bi ilten siesan, bA bat, igual ba, saldu be bai, ein du

Aite defuntue, aite, da gero, anajie, Bitorrek, ilte(n) ixin dausen.

¹⁷"Biduru" = Bi edo hiru.

¹⁸DAURE / DEURE, AU/EU alternantzia tipikoa. Ikus Fenomeno fonetikoak.

Es es es, niri es, niri enasta... ori yoan, ni ixin nas orreik orreik gausetarako kobardetxo, enastan gustan a olan a..., anajie ixin san, beti atrebiduao, fuerteao, beste ser bat.

Es, gastiao, lau urte.

Bai, eskondu in sen ara, da... gero, Firestonen bierreite(n) ixin dauen, da semiek euki dausen ya... eskolatik urteinde (...) emen e oneiri ikisteko geiyeu ba, bota (...) da gero ibil siesan (...) ona, Karmelo baño berao dao, kolejiyon bat edo eon san.

Bai, Bilbon Bilbon Bilbon, estait i frailliekas edo.

Oin estai(t)p(b)a dao baie, or or or, semiek orra iru, euki daus iru seme, da iru semiek orra sartu dies, da, esan dauen berak a ba, andik basemtik ona, da aurok o ba, sertuteko esan dauren, pisu bat eros dauen emen Santutxun, Karmeloan, Karmelo alboan, da andik i ur, yoateko..., serien, osteien basemtik andik i, nor ba? ixn¹⁹, da aurori semieri emotiarrik i... estudiyo apur bet, da gero pasau yakon ori, pasau yakona... serien, fabriken, Firestonen, kositen euen makinek, da makinek e kosiduen e, eskue, da dana, dana deko..., ondatu yakon, niri medikuek berak a, oin gausen moduen emen, berbas, ni, niri kosi nosten medikuek, berak, aber famelikon(k)p(d)ao esan dauen bA baietz, neu bE bai, da bere andrie be bai eon san, nire koñatie, da gero, bera medikuek esan nosten neu yoateko, da esan nosten, bueno, su egon trankillo emen, trankillo e, trankillo, da nobedAderi(k)p(b)a dao, ensegida etorko da baten bat esaten. (...) ni lami, anajie (...) estala librauiko ya, eon san txarto eon san, txarto, da, ondo urtein dauen, operasiñotik ondo urtein dauen, geitu nosten, da ukusi nosten, dana selan eintzien da gusti te, bueno aber konformE banau te, nik baietz, aber... bixiko da ba, bera anajie, nik orixe ba, aunkesea, faltan bat auki arren, es? defekto serien euki arren e aber badator o, etzera porlomenos, koño... berak a gure leukela ba emetik berak

¹⁹"Ezin" esateko, Basauri aldean modu normalena "kin" da, baina "Esin" ere entzun daiteke.

gure leukela, aurréra yoatie, da gero beste egun beten, kosi nosten da, Jose, suerte apur bet bauku, au aurrera doa, se deko odola garbi, odola garbi da bera, ondo, fuert é dao, da orre(k)(d)eko garantie andiye, esan dauen, se egon basan edanik e... gixon bat e... edan eiten dauena, edo fumau da orrelango gausak, e! esebes, etxakola... ya... beragas a es kontetako beragas, da gero olan yoan san, ara, ya lotuduen ba, barriro baserrIre, oin seme gustiye(k)(d)ekos o... bakotxak a, bere puestoetan.

Aiko, guri gure aite defuntuek esaten geuren fabriketara es sartuteko, gure dauela tallerretan a bierrein ta... ikixi seoser, ikisteko, da, ba niri, arotz, da gero gurixin nostien sartu, aite defuntuek, len e..., Bidebiyetan egon san a... frallic e... ikisten deuren dana dibuju te gusti, Baskonian...ko..., Baskoniak a pagetan deuren, baie, nire aite defuntuek e estauen bierreiten e Baskonian baie beste... batzun seretatik niri gurixin nostien sartu ara, frallicas, ikisten dibuju te... ser plano gustiye, da... berbas be bai, se orreik i ondo dakiye berbas, es nire moduen, da gusti, da gero ba nau, ifinteko... neure konture moduen, baie ni enoala... inora, bueno ba gero arotz, arotz o sartu nasen, da, gero arotzatic i pApelerAra, Arriguriyan, ori..., ya eskonduteko gogoa auki dodan da esan dOdan ba arotz emen estao sereginik, da sartu, se aite defuntuek enosten itxiten ara sartuten, asko bierrein ber²⁰ dOdala asko bierrein ber dodala an, da enosten itxiten, da, atzenien ara bertara sartu nasen, neuri esan nosten e... injeneru betek e bueno, arek e, esan nosten, an a bierra txarto bayo... bayoatzu, es? etorri neugana, topaukotzut, se neure fabriken, ixin dotzut sartu, se bier txarra da, pinture... fabrikie ixin sen, Muñuzuri, entzutie dekosue? Bueno, ango injinieruek esaosten. Urbin, arek e ango injinieruek esan nosten, nik emeko... fabrikera eneunke gure... emeko fabrikan bierreitie suk, beste fabrika baten, da aber nora gogoa dekodan da ba pApelerara, esosten bueno, sartu, an berbaingo(I) neuk, da txarto ba... yoatzu etorri neugana, nik topaukotzut bierra suri, da olantxe sartu nasen, ta gero papeleran ba... suerte ona, ona, dana bierra, askok o asko bierreiten dausen, lenao, baie nik i, lenao gitxi sano, geiyen geiyen oiñ alzenerantza.

²⁰Baiezko esaldietan BEHAR + Aditz laguntzailea = BER + Ad. lag. egiten da normalean, baina bestelakoak ere entzun daitezke: BIER, BIAR...

Aiko, n^í nauk u... aros bai, baie arotz o ein ber da egun gustien e etzetik kanpora, da labrantzan ixí(n) lei in, egun gustien egon askiño kanpoan gero ser gaubien e... solora? orduen ixí(n) lei, da papelerara sartu nasen errelebotan, bierreileko, da erreleboan, dekot, egun erdi libre aukesea lau ordu, lau ordu de lau orduen e... asko inten da... labrantzan, bueno.

Ni eskolara, Samigelen.

Nik euskera.

Banoa nik i... artu dodas a plastasuten e yo eskuegas da (...) estao estao ordurik i kon(te)tako nik artu dodas a plastasuten, pu! yo ta... bengal erderas ein ber dala, da olan, gero maixu txarrao bat, txarra auki dun an bat, kagoenla, arek e..., paluegas, egon o... liburuegas aurrien, da egon da, plast! osteitik, kagoenlamar (...) da gero, eskolatik (...) yo maixuek e! An bertan eskolan, da gero, yoaten garan, beragas, orduek, aparte, e ikisteko... ya apur bet (...) beragas a... ikisteko.

Bai, bai, orduen estauen yoten, orduen estauen yoten e! estauen yoten e!

Enas akordetan a senbet baie gitxi orduen e... gitxi pagauko san, a partikularra..., serien, san, baie au olan ein ber da, bestie olan da berak a..., serien, ifinte(n) eluen, e! baie maixue ona serien ikisteko be..., eskolan kagoenlamar! (...)

Nik erderas, egiye esateko, estót ikixi e! auskeras aistu da erderas ikixi es.

Auskeras aistu in nasta niri sano, da... erderas ikixi es, se nik i... bierren sar!Uduen, ba amasei urte edo aukin dodasen, e, amasei urte, ser da amasortzi urtegas be... nik i... erderas ondiño... txarto, txarto baie sano, arotz egonduen, ba gausa bat esan erderas da ba ser ta... gausa bat a, kagoenlamar, Oiarzun! esaten nosten, erderas, "eres más atravesau que los de Oiarzun".e! Oiarzunekoak baño txarrao nasela, e!

On sarri e! Olan (...) enasta aistuten, da semiek es, semiek e ondo esaten
nostien e! semiek e...

Bai, bai, es es, euskaldunek, euskaldune, au, Ibarrekoa.

Ba nik i... abadietas estot eukiñ i... ser andirik, geiyen geiyen, oin oin
erretirau danagas, Domartiñegas, orregas bai, orregas a... berba in trankillao...
serien da bera(k)p(b)e bai..., ori gasterik etor san, ona Samigelera, gu eskolan
ibilduen, da orduen aregas a, bestiekas es.

Berak a estauen demostretan eser orduen guk u estun yakin i orreik
(g)ausokas, baie Domartin i... auskeldune ixin da, bai, auskeldune, d'abade
ona, ona, abade gitxi egongo dires (...) ni neutzat.

Onk esetuko dauen Donjuan a Seberiyokoa, Arguyan egon sana, ulle
suridun bet, arpegi... lusetxu bet e Seberiyokoa ixin ber ixin dauen, bera, es,
baie sarra ya e! sarra sarra sarra sarra sarra a sarra ixin san, da a enastan
gustau ixin niri, baie Domartin bai, Domartin gixon ona.

Bai, onantza... Balmasedarantza ta orrantza yoan siesan asko, gure andrien
moduen, andrie ta oneik danak, fameli gustiye ortik ibilli siesan, baie,
Seberiyoko jentie, an egon san, orreik suk esaosune len e... fameliye... surie
edo serien datorrela, ba, areik egon siesan, antxe, geure... ausoan, bai, Finagan
egon siesan.

Se... akortan nas, len e, oin be bai, egongo dires, baie len bere, apur bet diru
apur bet auki daurenak a jenero ona aukiten dauren e! es pentzau u oin
bakarririk)(d)laola jenero ona len bere egoten san, akordetan nas Seberiyokoak
auki daurela, batek, edÁdekoa nik estait i nor ixin sen da esebes, baie
estutxe... serien, polite sano! serien e... uregorrisko... seragas einik, orduko
denporan e! Ba sigarroak eta aukiteko, uregorrisko... serien, da gero olan a
estutxe... ba ser, ama... amÁbi edo amalau sentimetro inguruko... luserie, da
saspi edo olan a... sabaleran, baie politek olan a... estutxe politek e! euki
dauresan, batek euki dauen, akordetan nas.

Aiko, gosie gosie, es, gosie dala, es, se guk euki dun, aitek estauen urtein i... etzetik, da an, gure ausokoa(k)p(b)es, inok estauen urtein, da ser einten. san, ba... beiyek eratzte te olan esne gustiyek, batena nai bestienan serien, beiye(k)(d)ekosanak edo gitxi edo asko, ba esne gustiye etzien edaten san, da ser guok egon garan papeleran, da ser einten dauren? ba ara bajatu esnie, ara bajatuten dauren e... taloa edo ogi... serien, ara sertuten dauren, orduen bOnbardeo... serien, da gero, ba indabie etzien kosten san, patAtie oin baño geiyeu, etzien se len, patata asko ereiten san, asko, da gosie esate(n da)na es, oin estala egon oingo... lujorik, oin i yaten da... beste... serao, len e... patata indabak, da olan.

An, an, es, gure... Finagan, problema, Finagakoak es, oin gosie... batzuk igual a... lebatza yaten da noperak²¹ a patata(k)txty)an bier.

Orreit(k)p(b)ai, orreit(k)p(b)ai, orreit(k) pasau deure, se gau(k)p(b)ere eran du, erantzus u patatak, inddabie²², gausa asko, olan a pobre, serien egon da... lastima emon, da eroan²³ dus.

Ni... gitxi akordetan nas, nik es... orrena gitxi, andik i pasau sien ensegida pasau siesan, ensegida, nik dakidana... an a... andik i gure ausotik, ona Marmasiñera, esaten du Marmasin, baso baten, da gero andik, ensegida kosi deuren.

²¹Jose Mojak beti "NoPera" erabiltzen du.

²²Josek gutxitan bustitzen du IND multzoa, baina Basauriko joera nagusia bustitzea da.

²³Josek batzutan "Eroan" eta beste batzutan "Eran" esaten du, baina orokorrean Basaurin normalena ERAN da.

Es, an bertakoari, a, kontus, baie an, Fiñagako iñor esan il serien, o osteintzien, **so**ld**A**duskan, edo, len esaten (...) yoan ber daurela... bueno, se edaderik i... edaderik kosten dauren da benga, yoan bersue seurok, an, bat bai, da es, estakiyen e non, non lotu sen, edo non il sen estakiyen, gero... beste mutil gaste bat, be bai, a bai, a il sen **bO**mb**A** bategas, bi, bi olan a **bO**mba bat kosi (...) da etze alboan il siesan an solo.. solo askinon, (...) bi, batena, bakiye, il sela, baie bestiena, estakiye, eroan dauren, eran dauren bixiri(k)p(b)aie... geiau esta yakin.

An... erderas, erderas.

An papeleran bertan, an Saratamoko batzukes, euskeras, da bestiekas erderas

Es, es, ni ibil nas a arotzan orduen e... etziel**A**lik asko, etze askotan, etze asko asko, osteintzien e... beste fabrikek estot ibilli.

Gerrosteiyen.

Gerrarte... geiyena bai, bai, se yoaten saran Samigelera, yoaten saran eskolara, da, artaburu esateontzuen, el, artaburu, e, joler! artaburu, eser, joer, ba ya nopera (...)

Es es es es, es! da, da, geiyenari, baserriko gustiyeri, euskeras ein askino, geiyenak, e, aber, aber, artaburu, da... gu bere ser ba... oin euki baun u ser artaburu, kosi te **b**im buim, yo bateri ser artaburu artaburu seu sara, ordum bai.

Es, nik etzekoari, etzekoari, da... nire **ed**Adekoari, su, da... olan sarr**E**ri, beorrek, bai, beorrek, beorrek ori.

Beori ba olan... abadieri, edo gixon bat a edadekoa, kosi es? ba beorrek ser einten dau? edo beorrek e se eretxi deko... au bierrau eiteko? e? Nik au eretxiau dekot o olAn eiteko au bierrau da beorrek se eretxi emotelosten? es? da olAn.

Bai, ik i ik i... entzun, Seberiyó aldetik, sano, da... orti(k)p(b)E bai, ik.

Saratamon be bai, e... Saratamon gitxi, baie Saratamon bere estaure sertuten ainbeste ik, ik, i... Seberiyon bai e!

Suk, edo... seuk, edo seurok, ori ya...

Bai, da lantzimiñ i... useneti(k)p(b)e bai Jose, kosi, ekarnxu a! kosi neistesu ori! edo serien.

Bai, da... gixon edadekoari ya, ni beno²⁴..., aber selan esangotzuet... errespeto geiyeu... dekolako serien e... es?, gure gure kuadrillen moduen es, suk da... olan.

Bai bai bai kuadrillan, guk kuadrillan, da geróra ya es, geróra erderas, ya ori... "aldeano, eres un aldeano un artaburu... estás metido con las vacas" orreik i... bai artien gausela sarturik da artaburu te orreik i ya entzunduen ya gau bere, erderas geiyeu erderas erderas...

Erromerire geiyen Santalusiara, ori... Laudiyo goiyen e... dao., Okendo, Okendotik eskoatara, da... Sanrokera, ona Artxandara, Sanrokera... geiyen e ona Pagasarni aspire, or, geiyena... **gastí: denporan** ona Artxandara baño geiyeu ara, a erromeri... gutzat alegriao ixin sen.

²⁴BENO eta BAÑO, biak dira oso erabiliak Basauri aldean. Lehenengoa askok erabiltzen dute forma klitzetu legez, ez bakarrik aurreko bokalearen itxidura eraginagatik.

Da... gero ona Deustun be bai, oneik i ya alegriao ixin diren baie... serien, Artxandak es, se Artxandan egoten san ori... (....) ori... serien, yoko (....) sagatie ta ori... guri es, guri bakarrik i... soñue, txistue, da olan orreik gausok, baie...

Bai bai, (....) Aldai, a ixin sen e... a ona ixin sen bueno ona bere denporan e! Arek e...

Erromeri ba, yoaten garan koadrillen, neskato mutillek e! asi goxien da... basora yoaten garan, da ur egon askino, Santalusiara, goxien, neskato mutillek, ta danok e! da gero an a ba... lotuten garan, Saratamokoak Arguyakoak eta serien, esagunek serien ba gero danak koadrillan, an estan distingidu inor bes, danak koadrillan, da an yantzan, lelengo... mesie entzun, da gero yantzan, koadrillen, gero baskaldu, da yantza in apur bet Ela... benga barrein da santzo batzuk bota andik, baie koadrillen e neskato mutillek es pentzau... oingo moduen e, or kosi eskutik eta olan... serien es es es an... trankillao danok armoni... beste armoni bet egoten san, erromenyetan, da, gero... Laudiyon egoten garan a apur beten asta²⁵ trena... trenan orduen trena kosi te, Bidebietara, da gero, etzera yoaten (....) etorri sen amarrak inguruen, edo lenao, da, esp^Ábere, urrungo egunien e arto ebaiten edo, aitek e.(....) oingo moduen esan ixin a, a alegre ixin sen jo! Areik erromeriyek e, areik ixin siesan, dibertidu goxien asi, de gauberarte, da ona Sanrokera, ona Pagasari aspire arrastiyen, yoaten garan, da goxien be bai e! goxien.

Ni Urkiolan... eskondU te gero yoan nas, andriegas, osteien erromeríra enas yoan, bakarrik elixara, an entzun, mesie ta gero, andriegas, baskaldu ortik, da trankillo trankillo andriegas etzera, edo lagunekas, an ausoko batzukas.

Bai, Santotxikerran, oin i... esta inten baie da Upon, oin oin oin, bai Sansejismundo, da Upora be bai

²⁵Edarazko "Hasta..." erabiltzea normala da Basauri aldeko euskaraz. Ikus JOSKERA.

Niri au, Upokoa.

Ba, segaitik i... neskatilek e geiyeu edo esagun geiyekoak a egoten siesan.

Es es es, olan es san... oingo moduen esan sertuten e! es es es, ibilli te...
berbain da serien, da gero... jo bere aitek es ukusteko edo serien e urrunetik e
bueno agur t'agur urrungo arte ta ale! oingo moduen es es es

Se nik i, Uriondo (...) an neskato batzukes ibilli an yantzan, da gero ba
koadrille ba lagunten andik, andik i Seberiyora urtein, da oñes etzegiñoko,
oñes, da estail se baserri beten be bai, Seberiyoko... yaiyetan, Seberiyoko
plasan, ibilli, yantzan, da eskerretara, on ene...! senbet orduko egunien ibilli
nasen ni an, baserriyen baie urrun! ba estail se... ixin sen, neskato bategas
yoan nasen, geubien, lagundu, bueno etzie emetik eta... ensegida egon san,
itxi neskatoa, da ones etzegiñoko, da nire lagunek, urrungo egunien nire
lagunerri ta ser? Joe, geiyeu enoa ni ara! geiyeu enoa ni ara, ango baserri
enoa nil.

Bai, bai, neskato... neskato formala(k)p(b)ai, formalak, gu es garan yoaten
olAn a... berÁri aprobetxateko ta serien es es es es gu... juerga serien. ibilli, ta
gero lagundu te... agur, yaesta, bai, bai.

Ba nik oin dekodan andriegas, urtein birretik, karpintentik urtein da
ones, Ibarsusigino (....), ones, Bidebiyetatik, Ibarsusi, Ibarsusitik, Sondikera,
Sanjuanetan, e! oñes, basotik, ArtxandAtik, biera yoan da Sondikera,
koadrillie, kosi Artxandan a bere nebarrebak eta beste koadrille bat, da benga,
Sondikera, Sondiketik, etorri, Artxandatik, yoan, ara,²⁶ baserrire andrien
baserrire, e! ara... oin sanatoriyoa selAn dauen? Bueno len bai, Santamariñe,
ba apur bet e beratxuaio dao gure... andrien etzie apur bet e onatxuaio, ara oñes,
oñes e! da gero etzera oñes, ein dot nik.

²⁶Agian konu gehiegi agertzen dira transkripzio honetan, baina horrelakoa da Jose Mojaren berba egiteko
modua, pausa asko egiten ditu eta.

Bai, andriek, geldiro ibilli askiño, ni(k)p(b)eño obeto.

Ni(k)p(b)eño obeto, euskoras.

Are(k)l(d)ekona, are(k)l(d)ekona ba olan a..., asclerau askiño apurtxu bet ba, berba in gure serien apur bet eta txarrao inten dau (...) nebarrebari edo olan berbas trankillo, es? da orduen bai.

Es, estauen eñ estauen eñ es, es, es, orregaitik nire alabiek esan nosten, aita, esaiosu esaiosu emoleko ori sintiori, kosteko ta selan berbaiten dauen, d'aber, berak kos dauela, bere falloa, se esaten yako, da... estau gure serien.

Bai, nik i... ori esetu do(d)an a... Bidebiyetan, da gero, an esetu te gero ba yoan illick eta illick eta serien da... egunek eta domeka askotan ba ibilli yantzan da, gero ifini... egun beten bueno, nI neu gure bosu etorri, niges, ya koadrillelik kanpora, biyok eta yaesta.

Asko igual a... koadrillen e... urtebete bai igual.

Ser, urtebete... urtebete ser, nik esetu dOdana, esetu el soldadutzetik i etorri baño lenao, soldadutzen e... bueno soldadutzera baño, yoan baño lenao, da gero, soldadutzetik i gero, gero el irÚ (u)rtte edo lau barru, orduen asi nasen beragas, ya formalien, niri bera be gustau nastan da, ni enoa, beste bategana.

Bai bai nauk u nauk u oye bueno aber nos urteingoun u.

Kono lelangotan ba estauen gurixin i... urteittie berak a bakarrik i... beste bere lagunakas gurixin dauen, da gero urteitten dun ba bik, nire lagunek, da gero nire lagunek itxi intzen, bere neskatoari, da an nik segidu in dodan, baie gero ya nire lagune da biyok asiduen nik esan dodan bueno, oneik i gure badaure yoan a beste lekuetara doasela, se ni nauk olÁn a... tabematara ta, enastan... serien.

Gu ibilli, ba ortik i... kamiñotik buelta bat ein, edo ibilli serien, gero errome... erromerire gero, ba kafen bat edo artu, tabeman, da briskan benga, da olan briskan edo sert úduen, onten garan ba... Begoñaldekoak, da... serien neskatoak, da mutille(k)p(b)e bai Begoñakoa(k)p(b)e bai ixin sien batzuk, da gero koadrillan ya danok, etzera, koadrillan, bueno etzera edo, etze alboetara, gero, bakotxak a bere etzietara ale.

Erdera... asko, auskeras be bai, bai bai baie erderas be bai, biyetarik.

Bai a... auskeras be bai auskeras be bai bai, bai, baie geiyeu kasik i... erderas, erderas baie euskeras.

Nik i... Burgosen, infanteria Sanmarzial.

Jo, a ixin sen e batzutan ona da beste batzutan txarra, ni neuk, lelengotan pasau dodan apur bet e... asta... ango yana kosi, jo, etzien e... ondo yana edo apur bet e... garbi te ango perol gustiyekas (...), gero osteintzien ondo e! gero pasau dodan ondo ondo, ondo.

An a... lagunek e auki dodasen e... emen Samigelekoak, beste bat a Begoñakoa, da beste batzuk u Durungokoa, be bai, euki dodasen, baie osteien soldadutzie nik, ondo kexarik estekot nik an, lelengotan, lelengotan gogortxo a ixin sen a, baie gero es, se gero, an bere arotz ein dodan, da an a, arotz ibilli askino ba, koño gaur ango etzera yoan bersu seoser eiten, bestien beste batera...

Geure etzie dao einik i, bueno egon san einik, oin i... sementoa dao botarik, da olan, baie osteintzien, dan dan dan materiale gustiye dao einik, eskus, labraurik, eskus labraurik.

Ori einten san, einten san a... aldamiñon andi bet, einten san a... serakas, ba... aratxagas, es? edosein aratxegas kosi, d'ifini, kaballete antzera, da, lotuten san, alturie gi... gixona baño altuao, d'ifini, ba aratx andie, goiyen, da aras ganien egoten san gixon bat, da bien²⁷ bestie, da gero trontzaserriegas, bueno, axe estait nik selan geit **Úten** san, baie serra andi betegas, es? bat an goiyen da bestie bien, da sik! gora bera gora bera gora bera, batek (g)ora bestie(k)p(b)era, gora inten ixin dauenak, e! bierrein, sano in ber ixin dauen, baie ebein goiyen, bekoak, hekoak a bierantza kosten dauen, e! bai, gorantzakoak eroan, ma! bestiek e, einten dauen apur bet e, itxi, eroateko fasillao, ba gure etzie eon san einik, materiyale gusti gusti gustiekas, an frontalak, etzeko frontalak, etzeko postiek, etzeko soloibak, danak, kamarako soloibat(k)p(b)e bai, bieko... soloibe gustiek, danak a... serriegas einik, serraute trontzaserriegas.

Es, es, bueno, oingoa, baie oin dekune es, se oin i dana dao... ormigoiegas botank, e! baie erre ta gero, ein sen, materiyaliegas olan, erreduen ba danak a... ausokaok, eskatuten san bateri ba... aras bat edo bi, bestiek iru emoteusen bestiek lau, aldauenak, Seberiyoti(k)p(b)e bai, ekarri dun, Arrankudiagati(k)p(b)e bai, leku askotatik, jentie ibillen san **bat Úten**, orduen etze errientzat.

Bueno, ba, gure moduen, etzie erre san, da ausokoak, nopera noperari esan bank e! gu ara goas da serien, aurok o juntan siesan ausokoak juntan siesan igual iru edo lau edo... igual danak, es? biduru serien da etzerik etze yoaten siesan eske, eske, da batzuk u emoten dauren e... materiyela, beste batzuk u yana, e! artoa be bai gariye be bai, patata(k)p(b)e bai, da orrelan gause gustiek emoten dauresan lenao, da jentiek emoten dauena borondate gustiegas emoten dauen, da asko(k)(d)irue be bai, da askok o dirue ta materiyela be bai, es? Geiyen geiyen e serien, orduen portetan san a... jentie, da oin, ya ainbeste olan a jenero... serien esteure emoten, oin, oin eskatu bere esta inten ainbeste, es? se etze asko erre dires, da ori desgrasi andie da, aukiteko, andiye, inok estakigu ser dan, e! da oin ya esteure... eskatuten edo

²⁷"Behan" jende gehienak "BIEN" esaten du. Ikus DEKLINABIDEA.

serien, baie eskatu bier leukie etzi errientzat danak, danak, danak, da oiñ i materiyalik eleukie emongo, es? baserrikoak, baie diru apur bet, da diru apur betegas da batek apur bet bestie(k)p(b)este apur bet dirue, sertuten da, da ori, akabetan doa ori, lenaoko..., lege sarrak orreik, orreik lege... serien, orreik orreik i orreik i egon ber siesan oin, baie oiñ i askok ba! erre yako? da, dirue deko ta ingo dau barri bet, baie ori esta, ori esta.

Bai bai, nau yoan nasen, ni yoan nasen, beste ausoko bategas, akordetan nas, Markiyora, Markiyo Arguyatik i gorantza daona, Markiyora, Sollora, el da an etze baten, niri emon nostien amosetan ori akordetan nas, ni mutiltxu bet ixin nasen, mutiko bat, da, an amosetan akordetan nas, amosau, da gero, a gixona yoan san niri an itxi nosten, da bera yoan san a, asto bat kosi, da astoagas ara (...) ara Sollora, da, ba, batzuk u artoa beste batzuk gari apur bet, beste batzu(k) patatie edo, al... al dauena.

Ori, ori da, ermandada... klasera²⁸, ori beste... ser bat (d)a

Lenao²⁹, ba beiyek ermandadie egoten san, ermandada bat, ba... auso askotako serien ermandada bat, da gero, orreik i ermandadiek, bei bet e... igual ilten san edo il ber sala serien, estait nik igual kadera³⁰ bat apurtu, edo edosein gause edo... partoa daon serien e... txal(a) inkeran, ixin dauela in txala, da len ra! ixin dau ein txala? ba il ein ber da, beiyek, oin es, oin i... tripie sabaldutentzie da ensegida ataraten da txala, yosi tripie barrero, da aurrera, baie lenao esan egon ori adelante andi ori, ta ser inten san? ermandadie, da danen arte einten san, subasta antzera, a okelie, yoaten san da geiyen emoten dauenak, einten deuren e... mixtoa ixetu, da aber, aber, nok emoten dau? da nik oneinbeste³¹, igual ba ogei ogerleko edo... erl erletan geiyeu, eta gero ogerlekoa(k)p(b)e bai, nik i mille erriel nik i... serien, erletan, da gero ogerlekoa(k)p(b)e bai, da pesetatan be bai, einten san, da mixtoa ixetu, bueno, bueno, nik oneinbeste, ya amatetan da, nok (g)eiyeu? bueno, ya, mixtoa, ori

²⁸KLASE asko erabiltzen da Basauri aldean MODU, GISA... zentzuan. Ikus MODUZKOAK Joskeran.

²⁹Hitz bukaerako A(G)O hauek AO eta AU artean daude hiztun gehienek ahotan.

³⁰KADERA HANKA esateko erabiltzen da Basauri aldean. Pertsonak, animaliek eta aukiek ere badauzkate kaderak. Ikus LESIKOA.

³¹OneIn(beste), OrreIn(beste) Basauritar askok egiten dute. Ikus JOSKERA(Konparaketa) eta DEKLINABIDEA.

ya lelungotan estauren ixetuten el kontus, lelungotan estauren ixetuten, baie ya... ukusiduen e... estaurela emoten geiyeu ya mixtoa ixetu ta aber! ointxe, aber ya amatetan doa, da beste batek igual a ensegida kendutentzen, da arek eraten dauen e..., lau sati einten diresan, beiye, da aregas, aregas gero sesiñe, okelie ba sati beterako, fameli gustiek e sesiñe, da sesiñ ona, ona, okelie... oin besteko edo obie.

Bai bai bai nik esetu dot geure etzien be bai.

Guk u, lelengo, kandelak, kandeliegas, el kandelie, da... kandelierue kosi, kandelieruek egoten siesan, elixara ta eroateko, len elixara... yoaten san kandelieruegas a... bat ilten san da an olatara serien, kandelieruegas yoaten san, kandelieru bi, geiyenak eraten (....) el da kandelieruegas, an iñiñi kandelierue ta an, sugetien kandela bategas bakarrik, an illumetan, illun, ser, illun, ta yosi be bai, kandeliegas eiten euren, jentiek, da gero, gure aite defuntuek ekar dauen e... karbueroa, karbuero... ser bat, olan tanke... tanke bat karbueroagas, da arek argi sano geiyeu emoten dauen, nik orreik biyok esetu dodas³².

Es ori... an ardink esan egon, es, ardink esan egon, ori estait nik.

Ori bai, ori nauk esetu dot.

Ori... ba gari... gari denpora serien etorten siesan ta... artoa be bai egonduen bastante... allutxo serien etorten siesan, ba oingo inguruen edo etorten siesan, abadie, da oin nik estodana esetu, abadien lenao etzera erarentzien bendesidu (....) seoser, ollaskon bat edo, seoser batzuk erarentzesan, ori bai, baie nire denporan es, abadie etorten san, au Domartin be bai, ori be bai, esetu dot nik, etorri, da soloetarik) bota bendesiñoa, ori, ori bai.

Ba... ori... artoa ta indabie, da gariye ta serien kosteko, sano... serien, obetoao edo... orrelango gausak. Lenaoko... sarrak, el ni nau(k) pentzetan dot

³²Askotan tarteko D hoti ez da ia entzuten. DOXD)AS.

o... ser geiyeu euki daurela, olan gause... siñestu geiyeu... au au daola edo, ori bilddur... bilddur geiyeu, ni neure eretxiyen e! Oñ oñ es, oin nor doa elixara be bai ser! E?

Aikor, da Sanjuanetan, aikor Sanjuanetan be bai, einten san lenao, sue, soloetan, da gero kosi, nik esan dodana len gabille... serien, garidune, da soloetatik, ori neu bere ibil nes, d'ausokoa(k)p(b)e bai, e, gabille kosi serien da "Sanjuan gabille... artoak eta gariek ondo ondo gorde, sapoak eta sugiek ondo ondo erre!" klaroke, oin ya, oin derrepente esin dot esan a... geiyeu serien es baie olan da, Sanjuan gabille esaten dun, artoak eta gariyek ondo ondo gorde, da sugiek eta sapoak ondo erre, da kosi, gabille ta solo gustiyetatik, da lagunek, igual beste leku beEtik andik i (i)kusten san dana, da (...) ori be bai, ori Luxianon... Luxiano ta Luxianon anajie, be bai ibil dires, orreik nau be bai, Sanjuan serien soloan inguruen, da gero sue ein, Sanjuan aratxa, oin be bai, oin be bai.

Ba, ori de... aras bat a... basotan daoena, es? da, kosten yako errama bat, da ifinten da, balkoien, ondo, da gusto apur bet (d)ekonak..., lora batzuk ifinten yakos, da berakatzak(p)b) e bai, ifinten yakos, adomaunik, ondo ondo ondo, polito polito, gusto onien, da askok o, (...) be bai, da nik i, len e, serien kortako atien, ifinten dodan, erramatxu bet, txikitxu bet, d'ari... erramatxueri, kendu beste satitxu bet eta kurtze antza, an, da oin ya a estól ifinten, e, bakarnik i erramatxu bet, da... balkoien, ifinten dot, berakatzakas, lenao lorakas be bai ifinten dodan, baie oin, berakatzak urte gusti gusti gustietan, kosi solotik, da ifinten dodas, da al dala, onenak e! onenak jentiek e (...) berakatzak, ori, ori da (...) sera ori bai, an ifini errama bat.

Es, guk Santakurtzien estun einten eser, es, ori bai, guk u Sanjuan egunien ori, da oin be bai, sue aurten be bai, andriek ein dau, soloan, oin ya ori (...) akabetan da ya estao lenaoko... estao estao! lenaoko gasterik estao! lenao beste... ser bat ixin sen oin i... jentiek e... nik esaten dot orreik i baso lusiek kosi te, orreikas, da, estakiye nora doasen, ni neure eretxiyen, ori dekot nik, jente gasteiyek estaki nora doan, da, alabiek e esaten noste "Ai aita suk estakixu ser daoen ortik, suk ukustensune bakarrik, suk estosu urtein emetik estakixu bakarrik i emetik ukustensune, baie gure moduen e basenkis i, igual goxaldien ibilli ortik eta selan dabillen jentie, jente gustie... estakixu", orreik, bere edadekoat(k)(d)ino, nire alabiek, e, urte gitxi barru, kanpoan a, bat an daoela ya... yausi, beste bat beste eskinan, alán lotuko diresela, jente asko el alabie(k)(d)ino.

Ba, nik estait errasoie hauko se, oin i, errasoie nori emoteontzie? yakin ein ber da ori ori, ain gas dao ori, gatx, sanol

Or guok o... lenao gaste denporan, guk (g)aste denporan len, urteiten dun u erromerire, da erromeriyee... serien e, igual atrebidu bes yoaten, da tabematara... pentzau bes el, an a... egon san a... bololeku bet, Paduran a, es, emen e... Santokriston, Arguyan, Arguyan egon san a... an goiyen bololeku bet, da bololekure lantzinin sartuten garan gero ya apurke apurke sartu garan bololekure osteintzien ara bes, bil... lotza sartutie ara bere, da ardaoa ataten dun u... sera limonadiegas a... nastien, nastien, ardaoa bakarrik pentzau bes, da gero andik etzera, da... nire lagunek, nau ixin nasen gastiena, el da soldadutzetik etorri be bai, da ondinoarren³³ e, ori serori, bildur tabemara... tabematara oingo moduen e tabematara es.

Oin, batek e kosten dauen e moskor apur bet edo serien alegre, bal danon arte lagundu barrein!

Joer... arreik!

³³"OndinoKarren" eta "OndinoGarren", bietara esaten da.

Es, guk u, oiñ i,³⁴lénao, lénao, lénao, ba patátie, lekú beten están e... esán ereiten, oiñ artóa bai, artóa bai, baie ostéien patátie, urté betétik bestéra, kanbíyelan san, aurtén e... eméko salíen botáten bósu, datórren urtíen, bestíen, da béste baten bestíen, béti kanbíyelan, ortuáriye es ortuáriye béti... solórik onénien edo lekúrik onénien a ortuaniye.

Sano, da... anajiek, anajie Bitorrek, yo be bai da atzera bota be bai.

Bera atzetik, da atzekoa(k)p(b)eti errasoie³⁵, e!, bai, se aurretí(k)t(d)oanák, e, beiyek edo idiyek eran ber daus, ondo, artes, e, artes, da espadaroasu, "baie nora soas emetik, yo bierao!" da beiyek ba, bierao, benga, da gero gitxike, ba soloan iten yakó olan a... kurba seren bat, da "estosu ukusten ba, artes artes egon ber dau, artes!", da nopera an benga, kosi igual a serien da yo mekaguenlamar, benga! Baten, akortan nas, soloan da ori egiye da e! anajiek, kosi, palixe bat emon nosten!, soloan, ta ni baño gastiao e lau urte gastiao da! baie, niri pasetan nosten, inderra sano geiao, yo nosten palixe bat ta atzera bota nosten, ale, da gero estait i yoan basan ama, edo aite ni(k) ya estait ser baie niri atzera bota nosten.

Itaurren itaurren itaurren! on.

Ori, itillaurren e... nire andriek, segun dinon berak, idiyek eukiduen, ba auron o etzien e... beti idi pareja bí be bai euki daures, da itillaurren, da bere... aite defuntuek e... Eujeni Eujeni(k)t(d)aki ondoen da, Eujeniges, ta espabere au... Daniel be bai, beste bat, bere anajie, nire konatue are(k)p(b)e bai, baie aren... geiyeu gustan yakon osteien, osteitik ibiltie, se nire andriek asko biarrein dau neu(k)p(b)ano sano geiyeu, labrantzan.

Geiyen geiyen e... kosi... nei neskatoa nei mutille ixin, au txorromorro.

³⁴Pasarte hau izan zen zati aleatorioa. Bertan agertzen diren bokale guztiak neurtu genituen bigarren triangulua osatzeko.

³⁵"ErrAsoie" , "ErrEsoie" , "ErrOsoie"... denetik entzuten da.

Ba, nopera, bat a ifiñi... bien, da berak, da olan illedan, da batek kosi te lelengokoari, da igon, aso baten... ganera moduen, edo biorren ganera moduen, saltoin (...) bestiek e ganetik i, batek e txorro morro piko tallo ke, es? da, biekoak a, txorro! da keba, morro igual ixin da ale barriro, bien, da olan, da gero... ba... asko be bai, neskak, baie orduen e, sano serao, garbiyao, einten san, egoten garan a ba neskato mutillek e... olgetan, da gauilluntzan, ba bat a ostonduten san a okullu baten beste ba(t)p(b)estien, da, aber, non dausen beste bat topetan, da ba(t) lotuten san a, begire, olan a orna eskiñe baten, es? da, arek e begiyek tapaurik egon ber dauen ornan kontran, sera eskuekas, da bestiek e ostonduten siesan ango okullu beten beste okulluetan, es? da yoaten san bat topetan baie, a... guk esaten dun marroa, orna lekuen an marroa, es? da bat a... leku beten e... egoten san bestie beste baten, da batek urteiten... okullu batetik, da estauen ukusten da, tak ukuten dauen da, marro! esatentzen, ale barriro, bera, an, da, arek e, berak a... an dauenak, e marroan dauenak, ba ukusten dauen e... koño, ba fulano! Karmen edo Sole edo Antonio edo Juan, es? Antonio! da ra! yoaten san ara marrora ta, marro! ta ale, a lotuten san an, orreik, orrei(k)p(b)iyok o bai.

Ori... gitxi.

Bai, esetu bai, esetu in dot.

Ori einten san a... sirkulu andi bet, (...) serien, da, an a, ser batera, ser bat kosi... puntzoi... ser bat, da an, inketara, aber nok o yoten dauen ondoen ango... serien, da kaniketara ori neskatoak.

Asko es, bai, ori asko es, ori neskatoak (g)eiyeu, neskatoak, ori neskatoa(k)p(b)ai, ori estai(t) selan... dekon usena, ori, aistu in nasta ya, ori estait, baie ixin san a... katxarro bat olan a karrete... antzeko bat ixin sen, da ser bategas, firu belegas, olan dIdadidadida... ta gero botaten diesan gora, e, ori karreteori gora, da kosten dauen tak, barriro, ori neskatoa(k)p(b)ai.

Ba, txoriek, oin, oin ya atxifetxu asi dires umiek einten, serien, ba, oneik jilgeruek, diferente einten deure, artatxorie(k)p(b)ño, artatxoriek e ba, telletu

eskiñetan, da, olan einten daure telletu... serien, da gero gaubien yoalen dires lo, geiyenak, sera etze... kontran baten edo... nik i erderas orixe estait, erdera edo auskeras estait esalen iedra..., da ara, ara sartuten dires, danak, ara.

Ori kukuek einten dau abia... ori ori, kukuek...

Es kukuek, kukuek e arrontzie inten dau, arrontzie, e, ba..., estait i ser Ari... einten botze, ori txori kontue nik i... nao apur bel e, txarto, baie inten dau arrontzie ta arrontzie itxi, e, estait amilotxari einten botze, amilotxa(k)p(b)a dires el fijo estait, baie amilotxak ixin ber deure, da areik einten daure ya, da andik, ortik dator kukue.

Lantzimin i... segun selango denporie daoen maietz... ean edo apur bet lentxuao, maietz inguruen asten da, maietza baño lentxuao, aprile...

Aiko, ori, ori nik esto(t) sinestuten, se nik i, niri kosi noste diruegas, diru diru ban(k)p(b)e bai, da, nire denporan estekot (d)iru andirik, asike ori, orreik kontuok o...

Bai, bai, dinoiye... kukue datorren (...) beti eran ber dala dirue, aregas, ya... sera... diru geiyeu eukingosule, datorren urtien baie nik i, orixe... estait.

224 LORTUTAKO BALOREAK

Bokale bakoitzarekin banan banan ateratako datuak bukaerako eranskinean paratuko dira. Hemen batezbestekoak bakarrik ikusiko ditugu:

2.2.4.1.- Lehen triangulorako baloreak³⁶(Hertziotan)

- Ezpainetakoak		F-1 ³⁷	F-2 ³⁸
	í	308	2308
	é	3475	1550
Tonikoak	á	644	1296
	ó	400	880
	ú	325	795
	i	292	2264
	e	416	1448
Atonoak	a	620	1333'3
	o	440	1008
	u	350	710
- Hortzetakoak		F 1	F-2
	í	320	2312
	é	376	1744
Tonikoak	á	628	1380
	ó	424	1192
	ú	306'6	1053'3
	i	316	2292
	e	380	1653'3
Atonoak	a	560	1510
	o	416'6	1140
	u	345	1025

³⁶Testu osoko bokaleak + Galdekizun berezien bitartez osagai gisa ateratakoak(167 guztira)

³⁷F-1ek itxidura/irekidura maila adierazten du. Zenbat eta hertzio gehiago, ahoskera irekiagoa.

³⁸F-2k ahoskeraren kokagune aurreratu/atzeratu adierazten du. Zenbat eta hertzio gehiago kokagune aurreratuagoa.

Goi-hobietakoak		F-1	F-2
	í	400	1905
	é	368	1732
Tonikoak	á	592	1352
	ó	380	1090
	ú	340	1150
	i	320	2080
	e	428	1696
Atonoak	a	580	1320
	o	420	1136'6
	u	340	970

Toniko guztien batezbestekoak:

	F-1	F-2
í	342'6	2175
é	363'8	1675'3
á	621'3	1342'6
ó	401'3	1054
ú	323'8	999'4

Atono guztien batezbestekoak

	F-1	F-2
i	309'3	2212
e	408	1599'1
a	586'6	1387'7
o	425'5	1094'8
u	345	901'6

Lehenengo triangulorako balore ertainak³⁹

	F-1	F-2
I	325'9	2193'5
E	385'9	1637'2
A	603'9	1365'1
O	413'4	1074'4
U	334'4	950'5

2.2.4.2.- Bigarren triangulorako baloreak⁴⁰

Toniko guztien batezbestekoak

	F-1	F-2
í	320	2060
é	408	1742
á	560	1395
ó	384	1040
ú	312	1168

Atono guztien batezbestekoak

	F-1	F-2
i	284	2090
e	348	1724
a	612	1382
o	400	990
u	304	924

³⁹Trianguloa osatzeko erabiliko direnak.

⁴⁰Zati aleatorioari dagozkionak. Hemen kontestu guztietako bokaleak onartzen dira, horregatik batezbestekoak denen artekoak izango dira.(66 bokale guztira)

Bigarren triangulorako balore ertainak⁴¹

	F-1	F-2
I	302	2075
E	378	1733
A	586	1388'5
O	392	1015
U	308	1046


224.3.- AZKEN TRIANGULORAKO BALOREAK⁴²

	F-1	F-2
I	313'9	2134'2
E	381'9	1685'1
A	594'9	1376'8
O	402'7	1044'7
U	321'2	998'2

⁴¹Trianguloa osatzeko erabiliko direnak


⁴²Lehenengo eta bigarren trianguloen arteko batezbestekoa. Basauriko triangulotzat har litekeena.(233 bokale guztira).

2.2.5.- BOKALEEN SAKABANATZE GRAFIKOAK ETA TRIANGULOAK
2.2.5.1.- TONIKO GUZTIEN SAKABANATZEA⁴³




⁴³Neurtutako bokale guztiena. (Testukoak eta galdekizunekoak + Zati aleatoriokoak.)

225.2- ATONO GUZTIEN SAKABANATZEA⁴⁴




⁴⁴Neurtutako bokale guztiena. (Testukoak eta galdekizunekoak + Zati aleatoriokoak.)

22.53.- LEHEN TRIANGULO⁴⁵




⁴⁵Testuari eta galdekizun osagarriari dagokiena

22.54.- BIGARREN TRIANGULOA⁴⁶



⁴⁶Zati aleatorioari dagokiona

22.5.5.- AZKEN TRIANGULOA⁴⁷



⁴⁷Basauriko triangulo bokaliko akustikoa litzatekeena.

225.6- Zenbait ondorio eta komentario

Bokaleen sakabanatze grafikei buruz esan daiteke ez dagoela oso definituta bakoitzaren eremua eta batzutan bokaleren bat teorikoki beste batena den ingurunean kokatzen dela. Hau gehienbat I/E artean eta O/U artean gertatzen da. Honek arrazoi bi izan ditzake, lehenengoa hizketa bizian, batez ere arin hitzegiten denean, hotsak ez direla bestela bezain argi eta garbi definituta ahozkatzen izango litzateke, eta bigarrena, geroko fenomeno fonetikoaren deskripzioan ikusiko denez, bokale horien arteko nahasketa edota alternantzia Basauneko euskararen ezaugarrietariko bat dela. I eta Eren arteko tartea ez da agian beste leku batzutan bezain handia eta honi argi ikusten da gertatzen diren alternantzia batzuekin: Adibidez Basauri aldean "Familia" , "Ezin" , "Apellidu"... esateko, jende gehienak "FamEli" , "Ixin", "ApIIIEdu"... esaten du. O eta Uren artean ere antzeko zerbait gertatzen da: "Lehengusu" , "Nagusi" , "Artunduaga" ... esateko "LenkOsu" , "NagOsi" , "ArtOnda"... entzuten dira normalean¹⁸.


Azken trianguloari buruz, bestalde, zera esango nuke: A, bere aldetik, nahiko argi bereiztuta eta aldenduta ageri da beste bokaleetatik. Gauza bitxiena, agian, E eta O ren irekidura gradua izango litzateke. Bokale hauen lehen formanteak, F1ek, adierazten duenez oso itxia da beren ahozkapena, ez bait dira normalak 381⁹ (E) eta 402⁷ (O) bezain balore baxuak bokale hauentzat. Honek eragiten du I eta U-tik ohi baino hurbilago kokatzea eta hau erlazionatuta egongo litzateke aurreko pasartean komentatu denarekin. Orokorrean ere bokale guztiak nahiko itxiak direla esan daiteke.

Honen ostean, egin diren beste triangulo batzuekiko konparaketa txiki bat egingo da.

¹⁸Kus BOKALISMOA, fenomeno fonetikoaren artean.


22.6.- BESTE TRIANGULO BATZUREKIKO KONPARAKETA.

22.6.1.- ZEBERIOKOA⁴⁹




⁴⁹Juan Manuel Etxebarriak bere Zeberrioko euskarari buruzko tesian aurkeztu zuena.

2.2.6.2- BAZTANGOA⁵⁰




⁵⁰Peio Salaburuk bere doktorego tesian aurkeztu zuena

2.263.- NAFARROAKOA⁵¹



⁵¹Rosa Miren Pagolak bere doktorego tesian aurkeztu zuena.

22.64.- GAZTELERAZKOA⁵²



⁵²Antonio Quilisek bere "fonética acústica de la lengua española" liburuan aurkeztu zuena.

2.2.6.5.- FORMANTEEN BALOREAK TRIANGULOOTAN

F-1

	Basaurin	Zeberion	Baztanen	Nafarroan	Gaztelera
I	313'9	338'2	389	318'8	250
E	381'9	459'4	599	443'6	480
A	594'9	623'6	791	635'9	660
O	402'7	480'3	584	472'2	500
U	321'2	367'9	449	338'2	270

F-2

	Basaurin	Zeberion	Baztanen	Nafarroan	Gaztelera
I	2134'2	1993'6	2440	2147'6	2550
E	1685'1	1828'7	2051	2009'6	2250
A	1376'8	1336'7	1568	1443'8	1125
O	1044'7	1053'9	1150	924'9	920
U	998'2	953'9	1064	803	650

22.6.6- Zenbait ondorio eta komentario

Kontutan hartu behar dugu, lehenengo eta behin, hemen aurkeztu ditudan lau triangulook, alde batetik eta nire Basaurikoa, bestaldetik, metodo desberdinekin aterata daudela, beste lauak lekukoei multzo fonikoak esan eraziz eginik bait daude. Honek erlatibizatuko du, beraz, hemen egingo diren konparaketen balioa:

/i/ : Gaztelera^zkoa baino irekiagoa, beste hiru euskaldunak baino itxiagoa, Zeberio^koa baino aurreratuagoa eta beste hirurak baino atzeratuagoa.

/e/ : Basaurikoa beste guztiak baino itxiagoa eta beste guztiak baino atzeratuagoa.

/a/ : Basaurikoa beste guztiak baino itxiagoa, Gaztelera^zkoa eta Zeberio^koa baino aurreratuagoa eta Baztangoa eta Nafarroa^koa baino atzeratuagoa.

/o/ : Basaurikoa beste guztiak baino itxiagoa, Baztangoa eta Zeberio^koa baino atzeratuagoa eta Gaztelera^zkoa eta Nafarroa^koa baino aurreratuagoa.

/u/ : Basaurikoa gaztelera^zkoa baino irekiagoa, beste hiru euskaldunak baino itxiagoa, Baztangoa baino atzeratuagoa eta Nafarroa^koa, Zeberio^koa eta Gaztelera^zkoa baino aurreratuagoa.

Harrigarriena, beharbada, Basauriko bokaleen irekidura gradua da, hemen aurkezten diren beste hiru euskaldunak baino itxiagoak bait dira denak. Kontu honi buruz bi gauza egin daitezke, edo konklusio horrekin geratu edo erabilitako metodo desberdinen ondorioa dela pentsatu, besterik gabe, eta haxe izan daiteke diferentzia horren benetako arrazoia, hizketa normal baten barruan ez bait da ipintzen berba bakarra ahozkatzean ipintzen den arreta berdina.

Beraz, Euskalerrian zehar metodo berriarekin triangulo bokaliko akustikoen beste ikerketa batzu egin artean hemen aipatutako ondorio guzti hauek probisionalak izango dira.

2.3- FENOMENO FONETIKOAK

2.3.1- SARRERA

Lehenago ere esan dudanez, Basauniko eta orokorrean Nerbioi haraneko hizkera ingurukoetatik gehien bereizten duen puntua fenomeno fonetikoena da, batez ere armonizazio bokalikoa eta bustidura. Izan ere, gure herrian hain ugari diren Arratiar, Zebenoztar, Orozkoar, Larrabetzutar eta abarren "Semea" , "Alabea" , "Egie" , "Ardie" eta horrelakoak nahiko desberdinak dira gure "Semie" , "Alabie" , "Egiye" eta "Ardiye" rekin konparatuz eta beste horrenbeste gertatzen da euren "Aite" , "Bildurre" , "Biturie" ... gure "Aitte" , "Bildurre" , "Bitturiye" rekin konparatuz gero. Gainera, ezaugarri guztiok nahiko nabariak dira, belarrira berehala jotzen dutenak eta agian horrexegalik hainbat basauritarrek, gehienbat gizonetzkoek, kanpoko erara moldatu dute bere ahozkerak, lantegielan zituzten beste herri euskaldunago batzutatik etorritako lankide elkarriketakideen hizkera biziago hori pixka bat bereganatuz.

Horregatik, atal honi merezi duen garrantzia eman nahian, gertatzen ziren edo gerta zitezkeen fenomeno fonetikoekin zerranda luzea prestatu nuen, honen antzeko beste lan batzutan aztertu dituztenak aukeratu eta batzutan baita niri bururatzen zitzaizkidan bestelako ezaugarriekin osatuz ere.

Aztergaiak zati nagusi bitan banatuko dira: Bokalismoa batetik eta kontsonantismoa bestetik.

Jarraian, azterketa hau egiteko aukeratutako bidea eta emandako pausoak azalduko ditut.

2.3.2- METODOLOGIA

Agian hizkera uniformeagoa duten beste herri batzutan ondo aukeratutako lekuko bat nahikoa izan liteke honelako ikerketa fonetiko bat egiteko, baina Basaurin begi bistakoa da egoera nahiko desberdina dela. Horregatik, lan honi fidagarritasuna emateko, hemen euskaraz egiteko zelako ohitura falta dagoen ikusita eta hiztun askok duten kanpoko eraginak suposatzen duen arazo metodologikoa kontutan hartuta, lekuko bakarra aukeratu beharrean Basauri udalerrian sakabanatuta dauden auzo askotako biztanle ugari hartu nituen ikerketa burutzeko.

Guztira zazpi auzo hartu eta bakoitzean lekuko egokiena aukeratu nuen ohizko erizpideen arabera.⁵³ Ia auzo guztietan, normala denez, lekuko fidagarriena, eredugarriena zaharrena izan zen. Hona hemen nortasun eta nongotasunak:

- Etxerre: Fermín Larrea⁵⁴
- Uribarri: Maria eta Madalena Zabala⁵⁵
- Artunduaga: Maria Lejarzegi⁵⁶
- Errekalde: Zezilia Urkiza⁵⁷
- Lapatza: Kalixta Madariaga
- Atxikorre: Karmen Moja
- Finaga: Jose Moja⁵⁸

⁵³Ikus lan honen Sarrera orokorra.

⁵⁴Fermín Larrea, neurri batean, lehen aipatutako kanpoko hizkeren eragina jaso duten lantegietan ibilitako gizonetzkoen erdutatutako har liteke. Eragin hau, dena den, ez da izan beste batzutan bezain handia, zeren eta Fermínek beti egin baitu euskaraz etxean eta lagun euskaldunekin, eta ez kanpoko lankideekin bakarrik, beste batzuk egin duten moduan. Bestalde, pentsa liteke Fermínek bere auzoa, Etxerre, Galdakaotik hurbil dagoelako egiten duela apur bat desberdintzaldakoa, fonetika aldetik, gehiago egiten da Arratiako erara Nerbioi haranekora baino) baina hori daukagu, zalantzak uxatzeko, Bernarda Uriarte andrea, Fermínen baserritik berrehun metro tara jaio zena, eta ezaguri fonetiko guztiak San Migeleko esne-saltzaileen erara ematen dituen (Esne-saltzaileok dira zalantza bariak Basauriko euskararen eredu fidagarriena). Penagarria da, baina Bernarda oso zahartuta dago, 90 urte bete ditu 1992an eta ez dago geldera eta entsebista asko jasateko moduan.

⁵⁵Ahizpa bikoitzok pertsona bakartzat har daitezke ia ia, beti egon dira elkarrekin eta Euskara berdin-berdina dute. Bestalde Uribarriako egokiagoa izango zen Pedro Aurteneixe aukeratzea, hizkera biziago eta aberatsagoa bait dauka, baina Pedro ere oso zahartuta dago, 90 urte dauka, Bernardaren moduan, eta nahiz eta osasunez ederto ibili ez du ia batere entzuten, oso gortuta dago eta horregatik ezin atera nik behar nituen erantzun batzu galderen bitartez. Horregatik, nahiz eta hizkera apur bat pobretuagoa eduki, Zabalatarrekin aritu behar. Dena den, hau ez zen arazo handia izan, zeren fonetikarako ez bait da beste azterbide batzutarako bezain garrantzitsua hizkeraren aberastasuna.

⁵⁶Marik ere badauzka 90 urte, baina osasuntsu dago oraindik.

⁵⁷Huriengo biak bezala, esne-saltzaileetarikoa hau ere.

⁵⁸Joseri ere pasatu zaio apur bat Fermín Larreari buruz esaten genuena, baina gutxiago, lantegietan urte askoz gutxiagotan ibilita bait dago.

Beraz, zazpi/zortzi lekuko hauekin hasi nintzen lanean Fonetikari dagokion atalean. Beti bezala oinarri nagusia elkarrizketa naturala izan zen, eta bertatik ateratakoak dira hurrengo orrietan agertuko diren adibide gehien gehienak, baina azterketa sakona egin nahi nuenez, bazeuden fenomeno batzu elkarrizketa hutsekin grabatutako zintetan inondik ere azaltzen ez zirenak. Horregatik, galdekizun berezia prestatu nuen berauek ateratzeko eta lekuko aukeratuon etxeetara joan nintzen, denei banan-banan galdera berdinak egitera.

Nahiz eta galdera batzuk bilatzen zituzten kontestuak nahiko bereziak izan, erantzunak beti ahalik eta modu naturalenean⁵⁹ esan zitzaten saiatu nintzen eta orokorrean ondo irten zelakoan nago.

Fenomeno bakoitzaren deskribapena egiterakoan sarritan emaitza bat baino gehiago egongo da, errealizazio praktiko bat baino gehiago, batzutan pertsona berberak ere modu desberdinetara esaten bait du gauza bera. Horregatik beti lehenengoz modu normalena paratuko da eta jarraian hain normalak ez direnak⁶⁰. Guzti hau azalpen eta adibide ugariz omituta egongo da.

Era fonologikoan transkribiturik agertuko dira adibideak, herriko ahozkeraren biziaren eran, hain zuzen, argitasun handiagorako beharrezkoa denean transkripzio fonetiko edota literanoren⁶¹ bat ere agertuko delarik.

Adibide bakoitzaren ondoan, laburduren bitartez⁶², noren ahotik jasotakoa den azalduko da.

⁵⁹Bilatu nahi den fenomenoaren esaldi edo testu inguru luze baten barruan "ezkutatuta" galdetuz gero lekukoak naturaltasun handiagoz emango du erantzuna.

⁶⁰Adibidez, batzuk "Kunpille" esaten dute eta beste batzuk "Kinpulle", batzuk "Iripasi" eta beste batzuk "Irebasi"...

⁶¹Era literarioa idaztarauki baginakoa izango da.

⁶²Kus LABURDURAK. Sarrera orokorraren barruan.

2.3.3.- BOKALISMOA

Atal honen hasieran bokaleen arteko interakzio berezienak edo adierazgarrienak aztertuko ditugu eta beste fenomeno batzuen azalpenarekin jarraitu aurretik erregela fonologiko nagusiak definituko dira.

2.3.3.1.- Armonizazioa

2.3.3.1.1.- A + A

- IE da emaitza normalena askogatik mugatzailea eranstean⁶³.

"Patatie", "Mesie"(J.M.)

"Auskerie", "Nebie"(K.Mj.)

"Ermittie", "Autopistie"(M.L.)

2.3.3.1.2.- A + E

-A edo E deklinabidean leku-denborazko kasuen plural markak eranstean:

"Tabematara"(J.M.)

"Fiestatan"(K.Mj.)

"Eskolatan"(F.L.)

"Ankatati koxo"(Z.U.)

"Domeketan", "Kaderetan⁶⁴"(K.Mj.)

- E askotan sintagma desberdinak batzean:

"Dan(a) erdera"(M.L.)

⁶³Fernán Larrea, adibidez, sarritan EA egiten du: "Gerrea", "Txapea"... baina hau kanpoko eragina da.

⁶⁴A-z amaitutako hitzei NON , NONDIK, NORA... plural markak eranstean berba batzuekin A mantentzen da ("TabernAtara") eta beste batzutan E egiten da ("DomekEan"). Ikus DEKLINABIDEA.

2.3.3.1.3.-A+O

-IO erakusleak eranstea:

"Ori sintiori"(J.M.)

"Ori fabrikiori"(K.Md.)

-O askotan sintagma desberdinak ditugunean:

"Gaus(a) onik es"(J.M.)

"Person(a) onan trasië"(M.L.)

2.3.3.1.4.-E+A⁶⁵

-IE da normalena askogatik mugatzailea eranstea:

"Geurie","Baraurik egotie"(J.M.)

"Bie⁶⁶ mudau barik"(K.Mj.)

- Hitz barruan ere IE gertatzen da:

"Bietzetan"(M.Z.)

-A emaitza oso normala da sintagma desberdinen kasuan:

"Eskolatan umte) asko dao","On etz(e) andiyori"(K.Mj.)

"Surte) aitte","Sur(e) ama"(M.L.)

2.3.3.1.5.-E+AK⁶⁷

-IEK normalena mugatzailea eranstea:

"Atiek","Barriek"(M.Z.)

"Sugiek","Bestiek"(M.L.)

"Me-me-miek⁶⁸"(K.Mj.)

"Anajiek⁶⁹"(F.L.)

⁶⁵Femin Latreak askotan mantendu egiten du hotela: "Senca","Egunean", baina hau kanpoko eragina da.

⁶⁶BEHEA MEHEA Basaurin BIE MIE esaten dira.

⁶⁷Femin Latreak batzutan mantendu egiten du EAK: "Senca","Gasteak".

⁶⁸Nominatibo singularrean MIE pluralen MIEK.

⁶⁹ANAJE da hitza Nominatibo mugagabea.

-EIK entzun daiteke kasu batzutan, batez ere BESTE hitzarekin:

"Da besteik emen itxi","Batek fumau da besteik⁷⁰ edan", "Gasteik ixih orduen","Ateik eta atebentanak","Auriye eittiek, lar, kalteik⁷¹ eitten daus"(K.Mj.)

"Semeik euki ber deittues"(M.L.)

2.3.3.1.6.- E+E

-IE normalena deklinabidean:

"Etzietatik"(J.M.)

"Umientzako"(K.Mj.)

-E bakarra batzutan sintagma desberdinen kasuan:

"Etze (e)rriena"(Z.U.)

"Berba erdi be (e)s"(K.Md.)

EI Erakusleekin⁷²:

"Areikas"(J.M.)

"Oneik artook"(K.Mj.)

"Orreih etzie"(Z.U.)

"Orreiri"(M.L.)

2.3.3.1.7.- E+O

-IO normalena erakusleak eransteian:

"Ori etziori","Urtiokas"(F.L.)

"Oin gastiook..."(K.Md.)

⁷⁰Noninatibo pluralean zein ergatibo singularrean egiten da horrela.

⁷¹Hala eta guzti, nik Karmeni hau entzun eta gero galdetu egin nion: "Sei esan dosu, Karmen, kalteik eitten dausela?" eta bere erantzuna "Kalteik" izan zen. Agian nahiko inkonziientea da bere ahozkerari hori.

⁷²Ikus ERAKUSLEAK Deklinabidean.

- Hitz barruan berdin gertatzen da:

"Pasioan"(M.L.)

"Biorren ganera moduen"(J.M.)

-O sintagma desberdinak batzean:

"At(e) ondora","Kaf(e) ona","Etz(e) ona san"(K.Mj.)

2.3.3.1.8.-I+A hitz barruan

-I-Konts.-E da emaitza normalena kontsonantea dagoenean tartean:

"Makiñe","Mille"(J.M.)

"Fabrike"(F.L.)

"Iberre"⁷³,"Bittertien"(K.Md.)

"Biskerra"(M.Z.)

-I-konts.-A ere entzun daiteke sarritan:

"Koadrilla"(J.M.)

"Silla bat","Bija asko"(K.Mj.)

"Makiña bat"(F.L.)

"Lamiña"(K.Md.)

-I-konts.-I-raino ere heltzen da kasu berezi batzutan:

"Ikisteko"(J.M.)

"Ixin sen modukoa ixina"(K.Mj.)

-IYE da normalena kontsonantenk ez badago tartean:

"Biyer"(K.Mj.)

"Nobiye","Bituriyen"(F.L.)

"Mungiyekoa"(K.Md.)

"Kriyedu"(Z.U.)

⁷³IBARRE San Migel aldeko auzo bat da.

-IYA ere entzun daiteke batzutan:

"Fiyau", "Estudiyau"(K.Mj.)

"Kanbiyaule", "Arguyara"⁷⁴(F.L.)

2.3.3.1.9.- Bukaerako I + A⁷⁵

-IYE da emaitza normalena kontsonanterik ez badago tartean:

"Baskariye", "Gariye"(J.M.)

-I-konts-E da emaitza normalena deklinabide marka eranstea kontsonantea dagoenean tartean:

"Erromerire"(J.M.)

"Niges", "Biges"(K.Mj.)

- Berdin gertatzen da sintagma desberdinak ditugunean:

"Ibilli"⁷⁶ nes"(F.L.)

2.3.3.1.10.- I + DA

-I DE⁷⁷ gertatzen da, nahiz eta kontsonantea egon tartean:

"Ori de ba..."(J.M.)

"Asi de"(K.Mj.)

"Or bixi de"(F.L.)

"Ii ddela ta..."(M.L.)

⁷⁴ARRIGURRIAGA = ARRIGURRIYA = ARGUYA

⁷⁵Inoiz IE ere esaten da, batez ere gizonen partetik lehen aipatutako arrazoi berdinengatik: "Txarrie", "Ganadu gustie", "Tabakorie"...(J.M.). Fermin Larreak ere sarritan egiten du hau.

⁷⁶Askotan I hori entzun ere ez da egiten ("Ibil(i) nes") baina itxidura mantendu egiten da.

⁷⁷I + NAZ eta I + ZAN kasuetan ere itxidura gertatzen da

2.3.3.1.11. -I + BAT

-I BET da normalena, nahiz eta tartean kontsonantea egon:

"Galbai andi bet","Sati beterako"(J.M.)

"Kantin bet","Mutil beten"(K.Mj.)

"Goardia sobil betek"(Z.U.)

"Patin bet"(M.Z.)

-I BAT ere entzun daiteke inoiz, baina ez da normala:

"Eretxi baten"(M.L.)

2.3.3.1.12. -I + BATZUK

-I BETZUK da normalena:

"Idi betzuk"(J.M.)

"Begi betzukes"(K.Mj.)

"Beste erri betzutan"(K.Md.)

-I BATZUK ere entzun daiteke inoiz, baina ez da hain normala

"Mutil batzuk"(M.L.)

2.3.3.1.13. -I + E

-IYE da normalena askogatik:

- Hitz barruan:

"Grabiyelen semie","Bidebiyeta"⁷⁸(K.Mj.)

"Meriyendetan"(K.Md.)

- Aditz formekin:

"Ondo dakiye","Dekoities"

⁷⁸Horela deitzen dio jende gehienak. San Migel aldekoak zein Etxette aldekoak zein Urbarni aldekoak Basami bertan

- Deklinabide markak eranstea:
"Biyetarik"(J.M.)

2.3.3.1.14. -I+O

- IYO da normalena:

- Hitz barruan:
"Amurriyon"(J.M.)
"Biyotzekoa","Estudiyoak"(K.Mj.)
"Palasiyora"⁷⁹(F.L.)
"Emen yaiyokoa"(K.Md.)

- Erakusleak eranstea:
"Ori auliyori"(K.Mj.)

- Deklinabide markak eranstea:
"Biyon arte"(J.M.)

2.3.3.1.15. -Diptongoko I bokalerdia + A hitz barruan:

- IYE da normalena tartean kontsonanterik ez badago:

- "Maiyetza"(M.L.)
"Geiyeu","Leiyebat"(J.M.)

- I - konts. - E da normalena kontsonantea badago tartean:

- "Aitegas","Kosi neistesu ori!"(J.M.)
"Ainbet"(Z.U.)
"Seinbet urte?"(M.L.)

⁷⁹Honela deitzen dio inguruko jende gehienak Arizeko Toucari: PALASIYOA.

-I - konts. - A ere ez da arraroa horrelakoetan:

"Aista bi", "Aittaitleri"⁸⁰(K.Md.)

2.3.3.1.16. -Diptongoko I bokalerdia bukaerako kokagunean + A:

-IYE da normalena mugatzailea eransteian:

"Beiye"(J.M.)

"Yaiye"(K.Md.)

-IE ere esaten da kasu berezi batzutan, gehienbat erdaratik mailegatutako -ON bukaerako hitzekin:

"Ukusi du abioie"(K.Mj.)

"Errasoie", "Balkoie"(J.M.)

2.3.3.1.17. -Diptongoko I bokalerdia + BAT

-I BET da normalena:

"Selei bet", "Bei bet"(J.M.)

2.3.3.1.18. -Diptongoko I bokalerdia + BATZUK

-I BETZUK da normalena:

"Bai"⁸¹ betzuk"(K.Mj.)

-I BATZUK ez da arraroa, dena dela:

"Bei batzuk"(K.Md.)

⁸⁰Hitz honetan fenomeno biak batera gertatzen dira: Lehenengo diptongoaren bukaerako Ik ez du ixten hurrengo A: "AittAitte", baina bigarren diptongoko Ik bai ixten duela hurrengo A: "AittaittE". Dena den batzuk AITTETTE ere esaten dute.

⁸¹BEIII = BAI/BEI bietara. Ikus A/El alternantzia diptongazioan.

2.3.3.1.19. -O+A

-OA egiten da normalcan mugatzailea eranstea:

"Astoa","Soloa"(J.M.)

"Galdakokoa","Ixikoa","Kabaltoa"(K.Mj.)

"Gogoa dekot"(F.L.)

-UE egiten da erdaratik datozen -O bukaerako hitz askorekin, baina hau berez ez da O + A, zeren hitz horiek euskarara -U bukaerarekin egokitu bait dira. Beraz, zuzenagoa izango litzateke U + A fenomenokoak direla esatea:

"Kandelerue"(J.M.)

"Kantinpalue","Obrerue"(K.Mj.)

"Konejue"(M.L.)

-Antzeko zerbaite gertatzen da -TXO/TXU atzizkiaz amaitulako hitzekin. Beste leku batzutan -TXO egin arren Basauri aldean -TXU egiten da eta -A eranstea fenomeno berez U + A da, eta ez O + A:

"Karrotxue"(J.M.)

"Sugitxue"⁸²(F.L.)

-Bitxikeria gisa, esan behar ORA egiten dela NAHIKOA⁸³ hitzarekin⁸⁴:

"Naikora da"(J.M.)

"Naikora ein ddot"(K.Mj.)

-Bestalde, A egiten da EROAN aditzaren partizipioarekin gehienetan, baina aditz hau jokatzean batzuk O egiten dute(Darot, darosu, daro...) eta beste batzuk OA(Daroat, daroasu, daroa...):

"Eran dauren bixirik"(J.M.)

"Eran errotara"(K.Md.)

⁸²ZUBI = SUGI Basaurin. Ikus B/G alternantzia Kontsonantismoan.

⁸³Ikus DEKLINABIDEA.

⁸⁴Joseba Ibarra GOGORA (GOGO + A) ere badakar bere apunteetan, baina nik ez dut horrelakorik jaso.

2.3.3.1.20. -O+E

-OE da normalena kontestu guztietan:

- Deklinabide markak eransteian:

"Basoetara","Oñetakoetan"(K.Mj.)

- Sintagma desberdinak lotzean:

"Eleuke esango eser"(K.Md.)

- Sintagma desberdinen kasuan O bakarra ere gerta daiteke arin hitzegitean:

"Ondo (e)indde","Emeko (e)uskerie"(K.Md.)

2.3.3.1.21. -O+O

OO mantentzen da deklinabide markak(plural hurbila) eransteian:

"Oneikas besoakas⁸⁵"(K.Mj.)

2.3.3.1.22. -U+konts.+A hitz barruan:

-U-konts.-E da normalena:

"Soldadutzen","Ugeliyo⁸⁶"(J.M.)

"Lusero","Ugeri","Puntegiñoko","Busterriye"(K.Mj.)

"Burles"(K.Md.)

-U-konts.-A ere nahiko normala da:

"Gaulluntzan"(J.M.)

"Munan"(M.Z.)

⁸⁵Dena den, "Oneikas besoakas" eta honelakoak, plural hurbilik gabekoak, normalagoak dira. Ikus DEKLINABIDEA.

⁸⁶UGARAIO / IGEL.

2.3.3.1.23. - Bukaerako -U + A:

-UE egiten da mugatzailea eranstea:

"Labasue","Ordue"(J.M.)

"Txue","Sue"(M.Z.)

-U - konts. - E egiten da tartean deklinabide markak kontsonantea dakarrenean:

"Kuarture","Suges","Irujes"(K.Mj.)

2.3.3.1.24. -U + DA

-U DE ia beti

"Eskondu de"(J.M.)

"Akabau de"(K.Mj.)

"Galdu de"(F.L.)

"Au de penie"(K.Md.)

-U DA entzun daiteke, baina gutxitan:

"Au da etzie","Akabau da"(M.Z.)

2.3.3.1.25. -U + BAT

-U BET da normalena, nahiz eta kontsonantea egon tartean:

"Firu betegas"(J.M.)

"Okullu beten"(K.Mj.)

"Apillidu bet"(M.L.)

"Egun beten"(J.M.)

-U BAT arraroagoa da, baina entzun daiteke, batez ere kontsonanteren bat dagoenean tartean:

"Intxur bat edo bi"(K.Md.)

"Gorpus bat"(M.Z.)

2.3.3.126. -U + BATZUK

-U BETZUK da normalena, nahiz eta kontsonantea egon tartean:

"Buru betzuk","Katu betzuk"(J.M.)

"Leku betzuten"(K.Md.)

"Txakur betzuk"(Z.U.)

2.3.3.127. -U + E

-UE mantentzea da normalena, edozein kontestutan:

- Hitz barruan, adibidez:

"Ori de suertie"(K.Mj.)

-UI egiten da ZUEK izenordearen kasuan⁸⁷:

"Suik ondiño..."(F.L.)

"Suiñ i tiak eta..."(M.L.)

2.3.3.128. -U + O(K)

-UO(K) da normalena, kontestu guztietan:

- Mugatzailea eranstea:

"Kontuok","Eskuok"(J.M.)

"Liburuok"(K.Mj.)

- Sintagma desberdinak lotzean:

"Asarratu orduen"(K.Mj.)

-UROK egiten da ZUEK izenordearekin:

"Surok ein ddoe"(K.Mj.)

"Seurok"(K.Md.)

⁸⁷Orozkon oso normala da fenomeno hau. Basaurin ZUEK adierazteko SUIK eta SUROK erabiltzen dira. Ikus DEKLINABIDEA.

2.3.3.1.29. -Diptongoko U bokalerdia + konts. + A hitz barruan

-U-konts.-E da normalena:

"Edosein gause"(J.M.)

"Euskeldunek"(K.Md.)

"Dauket⁸⁸"(M.L.)

-U-konts.-A ere noizean behin entzun daiteke:

"Gausa fasillena"(K.Md.)

2.3.3.1.30. -Diptongoko U bokalerdia bukaerako kokagunean + A.

-UE da normalena mugatzailea eranslean:

"Deskafeinaue"(K.Mj.)

"Garaue"(J.M.)

-UA entzun daiteke inoiz, baina ez da normala:

"Garaua"(J.M.)⁸⁹

2.3.3.1.31. -Diptongoko -U bokalerdia + BAT

- U BET da normalena:

"Gari garau bet"(K.Md.)

2.3.3.1.32. -Diptongoko -U bokalerdia + BATZUK

-U BETZUK da normalena:

"Garau betzuk"(J.M.)

-U BATZUK ere ez da arraroa:

"Gari garau batzuk"(F.L.)

⁸⁸DEKOT askoz normalagoa da. Ikus ADITZA.

⁸⁹Hiztun berak era bitara esatea ere gertatzen da sarri.(GARAUA/GARAUE)

2.3.3.2.- Erregela fonologiko nagusiak

- a + a = ie: alabie, gonie...
- a + o = io: ori sintiori, ori fabrikiori...
- e + a = ie: semie, etzie...
- e + e = ie: etzielatik, umientzako...
- e + o = io: ori etziori, ori semiori...
- i + a = iye ize (i + bok = i-y-bok, i-z-bok): ogiye, argiye
- o + a = oa: artoa, asloa...
- u + a⁹⁰ = ue: txue, sue...

2.3.3.3. -Armonizazio bokalikoari buruzko zenbait ondorio

Agerian dago itxidurarako joera handia dagoela Basauri aldean, gehienbat I eta U bokaleen eraginez, normala denez. Bokale hauek hitz amaieran daudenean ia beti ixten dute jarraian datorren A, nahiz eta tartean kontsonanteren bat egon. Hitz barruko posizioan ere joera nagusia ixtea da, baina hor beste elementu askoren eragina egon daiteke, aurrekoena zein atzekoena, eta kasu batzutan ez da itxidurarik gertatzen.

Bestalde, ikus daiteke lekuko batzuk besteek baino joera handiagoa daukatela ixteko, baina orokorrean, zaharrenen artean, emakumezko zaharrenen artean bereziki, nahiko erabilera berdina dute fonetika ezaugarri guzti hauei dagokienean.

Edozein modutan ere argi dagoena da armonizazio bokaliko bera, batez ere I osteko YOD-aren agerpenagatik, nahikoa dela Nerbioi haraneko hizkera inguruko beste guztietatik bereizteko.

⁹⁰/u/ bokalearen ostean ez da /b/ elementu kontsonantikotik agertzen.

2.3.3.4.- Diptongazioa

2.3.3.4.1. -AU / EU alternantzia

Hau kontu interesgarrienetarikoa da Basauri aldeko diptongazio fenomenoari gagozkiolarik. Izan ere, oso alternantzia handia dago bi diptongo hauen artean eta benetan zaila gertatzen da bataren edo bestearen agerpenaren zergatia sistematizatzea. Askotan hiztun berberak hiltz bat era bietara ematen du, AU eta EU erabiliz, testu inguru antzekoetan, itxurazko arrazoi lojiko barik. Horregatik, kontu honetan joerei buruz baino ezin da hitzegin.

Nik esango nuke esaldiaren hasieran oso joera handia dagoela AU erabiltzeko, batez ere hitza AU edo EU-z hasten denean, aurretik hots kontsonantikorik eduki gabe. Bestela, diptongo hau duen hitza beste batzuren artean tartekatuta agertzen denan bietara gerta daiteke(AU/EU). Diptongodun berba esan baino lehen pausatxo bat egiten bada normalean AU egiten da eta berdin gertatzen da diptongo hau daukan hitza ingurukoak baino gehiago azpimarratzen bada edozein arrazoigalik.

Dena den, erregela antzeko hau ez da balere segurua eta hamaikatxo salboespen topa litezke. Gainera, berdin da hitza jatorrizko erara AU-duna edo EU-duna izatea, zentzu bietarako aldaketak gertatzen bait dira, hurrengo adibideetan ikusiko denez:

-EU = AU. Hauxe da joera nagusia. Dena den, sarritan, badirudi tarteko zerbait ahozkatzen dela, eta nahiz eta lekukoari berriz esateko eskatu ezin da argi bereiztu ea bata ala bestea esaten den.

"Sauk u bakixu","Aurori","Nau ifinteko","Auskeras","Apur bet auki",
"Gau(k)p(b)ere..."(J.M.)

"Aulate defuntue","Ak aukiko daus","Ori naurie da","Aun txakur",
"Ori auliyori","Auri asko"(K.Mj.)

"Esauen baliyo"(M.L.)

-AU = EU

"Geubes be bai","Geur"(J.M.)

"Geusa (a)sko","Deure"(K.Md.)

-Diren moduan mantendu:

"Gaubien","Eurontza(t)p(b)akarrik"(J.M.)

"Neu nas"(K.Mj.)

2.3.3.4.2. -AI / EI altemantzia.

Aurreko kasuan bezala gertatzen da eta azalpen horrek hemengo kasurako ere balio du. Agian hemen AI-rako joera ez da aurreko kasuko AU-rakoa bezain handia.

-EI = AI

"Bai artien"(J.M.)

"Aitten euen","Aiñ ilten dot","Yakin balai!"(K.Mj.)

"Es aixu pentzau!"(K.Md.)

"Odaiye dao"(M.Z.)

"Erailten"(M.L.)

-AI = EI. Hau ere oso normala da.

"Ebei","Nei neskatoa nei mutille ixin","Selei bet"(J.M.)

"Basaselei","Ibeiye"(K.Mj.)

"Beñie"(Z.U.)

2.3.3.4.3. -EI bereziak

Honako hau beste puntu oso berezi eta aipagarria da, horregatik aparte azaltzea merezi zuela pentsatu dut. Bizkaiko beste leku gehienetan diptongorik ez duten hainbat hitzetan, -E- edo -I- hutsez esaten direnetan, Basauri aldean -EI- ahozkatzen da. Hona hemen adibide batzu, lehenengoa era literarioan eta bigarrena Basauriko erara:

- Urten = URTEIN
- Ostean,Ostera = OSTEIYEN,OSTEIRE
- Nendun, neuen, neban = NEINDDUN⁹¹
- Arrastian = ARRASTEIYEN
- Burdina = BURREIÑE
- Nintzan = NEINTZEN
- Zenbat = SEINBET
- Senide = SENEIDE

"Urtein neinddun", "Peiñekoa", "Arrasteiyen", "Areixera⁹²",
 "Kanposantu osteire", "Burreiñe"(K.Mj.)
 "Yoaten geintzen", "Osteiko aldera", "Entzuten neintzen⁹³", "Seneide
 bat"(K.Md.)
 "Osteiratxuao"(Z.U.)
 "Seinbet⁹⁴"(M.L.)

2.3.3.4.4. -UI bereziak.

Ez dira hainbeste. Batzutan arin hitzegitean badirudi hori entzuten dela.
 Adibidez ORDUEN esateko ORDUIN.

Zalantzarik ez daukana da ZUEK adierazteko SUIK⁹⁵ oso forma erabilia
 dela Basauri aldean.

2.3.3.4.5. -JA - JE - JO

Goranzko diptongoak badaude Basauri aldean, baina mota honetako
 gehienak apurtu egiten dira YOD-aren bitartez edo azentuaren bitartez
 nomalean:

⁹¹Batzuk bakarrik erabiltzen dute horrela. Gehienek NENDUN

⁹²Karmen Mojak batzutan ARIZ auzoari AREIX deitzen dio, deklinabide kasua lotuta daramanean batez ere.

⁹³NEINTZEN bi gauza izan daiteke, batuazko NINTZEN edo NION. Ikus ADITZA.

⁹⁴SENBET ere oso erabilia da.

⁹⁵Ikus DEKLINABIDEA.

-YOD-aren bitartez:

"Kanbiyaukosu", "Seberiyó", "Materiyela"(J.M.)

-Azentuaren bitartez:

"Abí-oie", "Or bí-en", "Radí-oan"(K.Mj.)

"Santí-agon", "Andí-andiye"(K.Md.)

-Batzutan ez dira apurtzen eta goranzko diptongoak ahozkatzen dira:

"Urkiolan", "Uriondon", "Biera"(J.M.)

"Entierrue", "Fiestatan"(K.Mj.)

"Merienda", "Abiasiñoa"(F.L.)

2.3.3.4.6. -WA - WE - WO

-Normalak dira honelako diptongoak, -U osteko -B-rik ez bait da erabiltzen Basaurin:

"Bueno!"(J.M.)

"Igual-igual", "Suertie", "Iruaratzetara"(K.Mj.)

"Eskuartien"(M.Z.)

"Ibarguen", "Sueldue"(Z.U.)

2.3.3.4.7. -OA - OE - AO

-Honelako diptongoak ere normalak dira:

"Ebakoate", "Soloarte"(K.Mj.)

"Eskoetara"(F.L.)

"Koadrillan", "Ardaoa"(J.M.)

"Goasen"(M.Z.)

2.3.3.5. -Diptongo desegitea

Sarritan gertatzen da eta hiru modu nagusi aipatuko ditugu: Sabaiketa, Monoptongazioa eta Kontsonante epentesia:

2.3.3.5.1 - SABAIKETA oso erabilia da baina ez du beti desegiten diptongoa, batzutan mantendu egiten da sabaiketa eta guzti:

-Desegitea:

"Axiek", "Goxaldetan", "Soñue", "Elixara"(J.M.)

"Gatx", "Telletuek", "Ollarrak"(K.Mj.)

"Nos"(K.Md.)

"Bikotxak"(M.Z.)

-Mantentzea:

"Goixalderarte", "Eleixalde", "Geiyenak", "Aixiek", "Goixak"(K.Md.)

"Eleixie", "Leixarrak"(M.L.)

2.3.3.5.2 - MONOPTONGAZIOA askotan gertatzen da eta Basauri aldeko hizkeraren nahiko adibide bereizgarriak eragiten ditu:

"Amaketan", "Deko", "Ganien", "Eraten dun", "Intxurrek"(J.M.)

"Bijak", "Egurdiyen", "Arrontzak", "Bigune", "Soltu", "Erraminttek", "Sana urrutu", "Ayuntaminttue", "Preparaminttuek", "Ukusi in gatus", "Yoan sates"(KMj)

"Galdakon", "Igitie"⁹⁶(F.L.)

"Kasulak", "Espanak", "Lantzimin"(M.Z.)

"In ber dosu"(M.L.)

2.3.3.5.3 - KONTSONANTE EPENTESIA. Normalena I osteko YOD-a da, U osteko B-rik ez dago Basauri aldean⁹⁷:

⁹⁶Normalen IGITIE esaten da.

⁹⁷Basaurin TXUE, SUERTIE.. esaten da, -B- barik.

-YOD-a:

"Grasiye"(J.M.)

"Meriyendetako"(K.Mj.)

"Bitoriyera"(M.Z.)

-G- :

"Segoser eitten geusen orduen","Sugetie"(K.Md.)

2.3.3.6.- Bestelakoak

2.3.3.6.1. -I / U hiltz hasieran. Alternantzia handia dago eta sarritan U-rako joera daukagu, batez ere zaharrenen aholan:

"Usenetik⁹⁸"(J.M.)

"Usentasiño egunetara","Upuiñe gusurre","Ugeliyoak"(K.Mj.)

"Ullie"(M.Z.)

"Urune"(M.L.)

2.3.3.6.2. -I + konts. + U = U-konts.-U. Hau ere sarri gertatzen da:

"Ukusiduen⁹⁹","Ukusi¹⁰⁰ nosten","Ukutu"(J.M.)

"Kuntzurrunek"(M.Z.)

2.3.3.6.3. -I / U alternantziaren beste kasu batzu.

-I = U.

"Galtzupulla kosite","Urrun daos"(K.Md.)

"Biduru¹⁰¹"(J.M.)

-U = I

⁹⁸UZEN hitza ere sarritan entzuten da, baina zaharrek UZEN erabiltzen dute.

⁹⁹UKUSI ORDUEN = UKUSIDUEN

¹⁰⁰UKUSI ere esaten da.

¹⁰¹BI EDO HIRU = BIDURU.

"Gitxi"(J.M.)

"Kukillagakoa¹⁰²"(F.L.)

-METATESI kasu bereziren bat ere badago:

"Kunpilleri¹⁰³"(K.Mj.)

2.3.3.6.4. -E + Konts. + U = U - konts. - U.

"Gusurre"(K.Mj.)

2.3.3.6.5. -U - konts. - E = U - konts. - U ere gertatzen da kasu batzutan:

"Urrungo egunien"(K.Mj.)

2.3.3.6.6.- U-dun trisilaboen aldakortasunari buruz hitzegin genezake ia ia, kasu batzu ikusita¹⁰⁴:

"Durungo"(M.L.)

"Sugutzu¹⁰⁵"(F.L.)

"Sana urutu sana bere lekuen sartu"(K.Mj.)

2.3.3.6.7.- I-dun trisilaboen aldakortasuna. Nahiko handia da

"Irikittie falta", "Xixili¹⁰⁶", "Ixiko", "Igurdi eistesu"(K.Mj.)

"Igerri", "Ikixi", "Iruntzi"(J.M.)

"Iripasi dosu", "Estosu igerriten?"(K.Md.)

2.3.3.6.8.- E - O - A asimilazioak. Era guztietako adibideak daude. Hitz batzu era bilara esaten dira, asimilazioz eta asimilaziorik gabe:

¹⁰²KUKULLAGA / KUKILLAGA Etxebarriko auzoa da.

¹⁰³TIPULA esateko bai KUNPILLE bai KNPULLA erabiltzen dira, zaharrenek KUNPILLE.

¹⁰⁴Aurreko kasuan ikusitako URRUNGO ere hemen sar genezake, agian.

¹⁰⁵SUGUTZU Galdakao aldeko auzo bat da, erdaraz ZUAZO esaten dena.

¹⁰⁶ZEZILIA = XEXILI = XIXILI

-ASIMILAZIODUNAK:

"Senbet", "Telletu", "Odolostie¹⁰⁷"(J.M.)

"Oslondute", "Nosikotona¹⁰⁸", "Errosoi asko"(K.Mj.)

"Ogorleko"(K.Md.)

"Erresoie", "Erlejue"(M.L.)

-ASIMILAZIO GABEAK:

"Okelie¹⁰⁹"(K.Mj.)

"Ostendute", "Ogerleko"(M.Z.)

2.3.3.6.9.- I / E nahastea. Oso normala da Basauri aldean, Triangulo bokaliko akustikoaren atalean esaten genuenez. Batzutan badaude arrazoi fonetiko lojikoak, baina beste askotan ez da horrelakorik ikusten. Adibide morderoa daukagu:

-E = I

"Milikotoiek", "Bidibiyetatik"(J.M.)

"Ixiko", "Amasie artu ixinik"(K.Mj.)

"Igitargie", "Mirriñe¹¹⁰"(F.L.)

"Apillidue"(Z.U.)

"Amoribietan"(M.L.)

-I = E

"Famelikoa", "Bendesiañoa"(J.M.)

"Sangrejuelak"(K.Mj.)

"Martetzenien"(Z.U.)

-METATESIA ere bai noizean behin:

"Ikebokaute nao"(K.Mj.)

2.3.3.6.10. O / U nahastea ere nahiko normala da Basauri aldean

¹⁰⁷Normalcan MORTZILLE esaten da.

¹⁰⁸NOZIK ETA HONA = NOSIKOTONA. Dena den, batzuk NOSIKETONA esaten dute.

¹⁰⁹Arratia aldean OKOLEA esaten da.

¹¹⁰MERRIÑE / MIRRIÑE Etxerre aldeko auzo bat da.

-U = O

"Lenkosue", "Arrigorriyati"¹¹¹, "Barrontetan"¹¹²(K.Md.)

"Kale nagosie"¹¹³(M.Z.)

"Artondan"¹¹⁴(M.L.)

-O = U

"Okullu"(K.Md.)

"Ukaranak"¹¹⁵, "Arrigurriya"¹¹⁶, "Bitturiyen", "Arruntzak"¹¹⁷(M.L.)

2.3.3.6.11.- ER / AR altemantzia. Orokorrean Bizkaiko leku gehienetako joera jarraitzen da Basauri aldean ere, hau da, R dardarkariaren aurrean ER = AR bihurtzea ("Txarri", "Barri"..). Hala eta guzti sarritan aurreko bokalearen (I-U) itxidurarako eragina geroko R dardarkariaren irekidurarakoa baino handiagoa izaten da eta era guztietako adibideak ikus daitezke:

-ER mantentzen da, nahiz eta R dardarkariaren aurretik egon:

"Bi bider", "Txiker batzuk"(J.M.)

"Pipermiñe"(K.Mj.)

-AR mantentzen da, nahiz eta aurrean I eduki:

"Amari esan biarrien...", "Mesie entzutiarren", "Sagalaka ibilttiarrik"(KMj)

-AR = ER bihurtzen da aurreko bokalearen eraginez:

"Iderrak"(M.L.)

¹¹¹Alfonso Irigoienek ahoz esan zidanez, ARRIGURRIAGA, GURRI-duna da zaharragoa. Hortik datorke jende gehienak ARGUYA esatea. ARRIGURRIYA ere jasota daukat.

¹¹²BARRUNTETAN ere esaten da.

¹¹³NAGOSIYE esaten da normalean.

¹¹⁴ARTUNDUAGA Basauriko auzo bat da.

¹¹⁵OKARANAK ere bai.

¹¹⁶Hau, berez, ez litzateke O = U izango, forma zabarra baizik.

¹¹⁷ARRONTZAK ere bai.

"Iberre"(Z.U.)

"Esetz igerri!","Bustertu"(K.Mj.)

-ER = AR bihurtzen da R dardarkariaren eraginez:

"Agartu dire"(K.Mj.)

"Sarratute"(F.L.)

"Asarratu"(K.Md.)

2.3.3.6.12.- N aurreko itxidura ez da normala Basauri aldean¹¹⁸:

"Ointxe","Igon","Ondiño","Askonarra¹¹⁹"(J.M.)

2.3.3.6.13.- Sabaikari aurreko itxidura ere ez da normala. Balzutan kontrakoa ere gerta daiteke:

-Berdin mantendu:

"Olloa¹²⁰","Kollarie","Oñetakoa"(J.M.)

"Etxun¹²¹","Eiyo"(K.Mj.)

-Irekidura:

"Aratxa","Lexarra"(J.M.)

2.3.3.6.14.- Azken bokalea errepikatzea. Oso fenomeno normala da Basauriko hizkeran, ia hitzun guztiek egiten dutena:

"Nik i goxien...","Noperan a biarrak","Beiyek e...","Gureo dot itxon o..."(J.M.)

¹¹⁸Juan Manuel Etxebarriak bere Zeberioko euskarari buruzko lanaren 78. orrialdean Zeberio aldean kasu hau eta hurrengoak oso normalak direla dio. Ikus Bibliografia.

¹¹⁹ASKUNARRA ere jasota daukat(K.Md.)

¹²⁰ULLOA" ere jasota daukat, Karmen Elorduiren ahotik. Harigarria bada ere, bere amak, Karmen Mojak "OLLOA" esaten du, baina berak "ULLOA".

¹²¹ITXUN(J.M.) eta ITXUNDU(K.Md.) ere jasota daukat.

"Guk u..."(K.Md.)

2.3.3.6.15.- Hitz hasierako R. Normalean E ipintzen zaie aurretik R-z hasten diren kanpoko maileguei:

-ERR...

"Errelebotan","Erretirau","Erropie","Erruedie"(J.M.)

"Erreseloa","Ernegau","Errosoi asko"(K.Mj.)

"Erreuniñoa"(K.Md.)

-ARR... inoiz:

"Arratoie"(J.M.)

2.3.3.6.16.- SINKOPAK oso oso normalak dira Basauri aldeko hizkeran, bokaleenak bakarrik edota bokale eta kontsonanteenak:

"Ibil(i)ko dau...","Estotzel pas(a)ten","Ni eskolara ibil(i or)duen",

"Enastan gus(te)tan","Er(rea)letan"(J.M.)

"Nik pen(tze)tan dot...","Iru kur(u)tze"(K.Mj.)

"Aregas jun(te)lan basara..."(F.L.)

2.3.3.7.- Beste zenbait bitxikeria¹²²

-I berezi batzuren agerpena:

"Aintxe kosten daus","Orreinbeste"(K.Mj.)

¹²²Sailkatzeko zailak diren fenomeno aipagarri batzu badaude.

"Olaintxe","Alaintxe da","Seinbet"(K.Md.)

-A organiko batzu desagertu egiten dira:

"Kantin bet","Erromeri gitxi"(K.Mj.)

"Beste armoni bet"(J.M.)

-Arrazoi argirik gabeko itxidura klitxelak:

"Yoan de","Yoan sen"(K.Mj.)

-Hitz konposaketan O = A:

"Talaburreiñe"(M.Z.)

"Artagaraue"(K.Mj.)

-Bokalea sartu kontsonante multzo arraroen erdian:

"Asukerie"(K.Mj.)

-Beste zenbait hitz kurioso:

"Goarda sobillek¹²³"(Z.U.)

¹²³Jende guztiak esaten du horrela.

2.3.4.- KONTSONANTISMOA¹²⁴

2.3.4.1.- Fonemen inbentarioa

Atal honetan Basauriko euskararen fonema kontsonantikoen inbentarioa egingo da. Horretarako, Karmele Rotaetxek bere Ondurruko hizkerari buruzko lanean (1978) erabilitako metodologian oinarrituta, fonemen identifikazioa oposaketen bitartez egingo dut. Esan behar, halaber, Iñaki Gaminderen Urduliz eta Gatikako euskarari buruzko lesia (1992) oso lagungarria izan zaidala zeregin honetan.

Beraz, hona hemen Basauriko euskararen fonemen inbentarioa:

- /p/ Ezpainetako leherkari gorra [p]
 - p/t: aspi/asti
 - p/b: pare/bare, lapur/labur
 - p/m: piñe/miñe, porroi/morro

- /b/ Ezpainetako leherkari ozena [b]
 - b/d: erbi/erdi
 - b/p: Ikus /p/
 - b/m: bille/mille, bai/mai

- /t/ Hortzetako leherkari gorra [t]
 - t/p: Ikus /p/
 - t/d: ta/da, ortu/ordu
 - t/n: este/esne, ele/ene
 - t/l: ate/ale

¹²⁴Alfabeto filologikoa erabiliko da eta transkripzio eta adibideetan euskal ortografia egokitua agertuko da.

- /d/ Hortzetako leherkari ozena [d]

- d/b: Ikus /b/

- d/t: Ikus /t/

- d/n: dator/nator, badoa/banoa

- d/l: dau/lau

- /k/ Beloko leherkari gorra [k]

- k/p: kare/pare, orko/orpo

- k/t: kopau/topau, esku/estu

- k/g: ekari/egari

- /g/ Beloko leherkari ozena [g]

- g/d: goas/doas, egur/edur

- g/k: Ikus /k/

- /ç/ Bizkar hobietako afrikari gorra [ç]

- ç/č: atzien/abzien, atza/atxa

- ç/s: atzie/asie

- /s/ Goi hobietako frikari-txisturari gorra [s]

- s/š: ase/axe

- s/c: Ikus /c/

- /č/ Sabai aurreko afrikari gorra [č]

- č/c: Ikus /c/

- č/š: atxa/axa

- /š/ Sabai aurreko frikari-txistukari gorra [š]

- š/s: Ikus /s/

- š/č: Ikus /č/

- /m/ Ezpainetako sudurkari ozena [m]

- m/p: Ikus /p/

- m/b: Ikus /b/

- m/n: eme/ene, sama/sana

- /n/ Goi-hobietako sudurkari ozena [n]

- n/t: Ikus /t/

- n/d: Ikus /d/

- n/ŋ: onak/oñak, bana/baña

- n/l: noa/loa, ona/ola

- /ŋ/ Sabai aurreko sudurkari ozena [ŋ]

- ŋ/n: Ikus /n/

- ŋ/m: señe/semi

- /l/ Goi-hobietako saheskari ozena [l]

- l/t: Ikus /t/

- l/d: Ikus /d/

- l/n: Ikus /n/

- l/r: solo/soro

- /j/ Sabaiko saheskari ozena [j]

- j/ŋ: mille/miñe

- /r/ Goi-hobietako dardarkari bakun ozena [r]

- r/d: ire/ide, iri/idi

- r/l: Ikus /l/

- r/ř: ure/urte, soro/sorro

- /ř/ Goi-hobietako dardarkari aniztun ozena [ř]

- ř/r: Ikus /r/

- /f/ Ezpain-hortzetako frikari gorra [f]

- f/s: fiñe/siñe

- f/p: fiñe/piñe

- f/m: fiñe/miñe

- /dž/ Sabai-aurreko afrikari ozena [dž]¹²⁵

- dž/č yokoa/txokoa

- /x/ Beloko frikari gorra [x]

Gutziz kasu berezia da, mailegu batzutan eta bestelako berba banakaren batean baino ez da erabiltzen:

/xente/ [xénte]

/xangoiko/ [xangoiko]

/anaxe/ [anáxe]

/antoxu/ [antóxu]

.....

¹²⁵Adibide eta testu zatien transkripzioetan Y erabiliko da.

23.4.2. Kontsonanteen banaketa

Kontsonante guztiak ezin dira hitz hasieran zein amaieran agertu.
Hona hemen egongunearen araberako sailkapena:

- Hasieran:

- /p/: piper, puxige
- /t/: tresneri, tili
- /k/: kunpille, katillu
- /b/: burreine, busterra
- /d/: dendari, domistiku
- /g/: galbai, galtzu
- /tʃ/: txinger, txu
- /f/: fraka, firu
- /s/: sapaburu, sein
- /x/: jittanu, jaungoiko
- /m/: mixto, matzur
- /n/: nastittu, negu
- /l/: lapiko, laratzu
- /ʎ/: lloba¹²⁶
- /dʒ/: yoskille, yaiyo
- /ʃ/: xunku¹²⁷

¹²⁶ Ez dut beste adibiderik aurkitu.

¹²⁷ Ez dut beste adibiderik aurkitu.

- Amaieran:

- /p/: Kasu bereziren batean baino ez: "eup!"
- /t/: senbel, bat
- /k/: dok, gixonak
- /s/: amas, eras
- /c/: otz, ereñotz
- /č/: atx, gatx
- /š/: kapax, gox
- /n/: non, gixon
- /l/: al, ol
- /r̄/: txakur, gor

23.4.3- Taula fonetiko eta fonologikoak

23.4.3.1- Azalpena

Kontsonantismoarekin jarraituz, Basauriko Fonema kontsonantikoen taula eta alofono guztien taula emango dira. Bertan erabiliko diren terminologia eta laburdurak honako hauek izango dira:

- Ahoskuneari (GUNEA-ri) dagozkionak:

- Ezpainet.: Ezpainetakoak
- Esp. hortz.: Espain hortzetakoak
- Hortzet.: Hortzelakoak
- Bizk. hobi: Bizkar hobietakoak
- Goi-hobi: Goi hobietakoak
- Sabai aur: Sabai aurrekoak
- Sabaiko: Sabaikoak
- Beloko: Belokoak

- Ahots moldeari (MOLDEA-ri) dagozkionak:

- Leherk.: Leherkariak
- Sudurkari: Sudurkariak
- Frikari: Frikariak
- Frik. txist.: Frikari txistukariak
- Afrikari: Afrikariak
- Sahieskari: Sahieskariak
- Dard.: Dardarkariak

Traskripzio guztietan ALFABETO FILOLOGIKOA erabiliko da.

23.432.- BASAURIKO FONEMA KONTSONANTIKOEN TAULA

GUNEA

	Ezpainet.	Ezp. hortz.	Hortzet.	Bizk. hobi	Goi-hobi	Sabal aur. eta Sabaiko	Beloko
MOLDEA							
Leherk. gor.	p		t				k
Leherk. oz.	b		d				g
Sudurkari	m				n	ŋ	x ²
Frikari		f					
Frik. txist.					s	š	
Afrikari				c		č / dž ¹	
Sahleskari					l	↓	
Dard. bak.					r		
Dard. ask.					ř		

152

¹Posizio neutralean beratu da egiten den hotsa. l osteko [ž], sabal-aurreko frikari ozena, bere alofonotzat jo genezake.

²Kasu berazietan bakarrik erabiltzen da.

23.433- BASAURIKO FONEMA KONTSONANTIKO GUZTIEN ALOFONOEN TAULA

GUNEA

	Ezp. hertz.	Hortzet.	Bizk. hobi	Goi-hobi	Sabal aur.	Sabaiko	Beloko	
MOLDEA								
Leherk.	p	b	t	d		t̚	k g	
Sudurkari	m	ɱ	n			ɲ	ŋ	
Frikari	f				ʃ	ʒ	x	
Frik. txist.					ʃ̺	ʒ̺		
Afrikari			c			ʃ̺		
Sahieskari			ɰ		l	↓		
Dard. bak.					r			
Dard. ask.					ṛ			
Gor/Ozen:	-	+	-	+	-	+	-	+

³Hots hau IN + D eta IL + D kontestuetan agertzen den D-ren alofonoari dagokiona izango litzateke.

2.3.4.4.- Zenbait Sandhi¹²⁸

Lehenengo eta behin, sandhi-en banan-banango deskribapenarekin hasi aurretik, puntualizazio pare bat egin behar da. Kontsonante bik elkar jotzean gauza bat baino gehiago gerta daiteke, segun eta hiztuna zein den eta nolako jarrera duen zerbait ahozkatzerakoan.

Hainbat lekukorekin hitzeginez eta izan dudan esperientzian oinarrituta nik esango nuke hiru modu nagusi daudela, Basauri aldean behintzat, grupo fonikook ahozkatzeko:

-Lehen kontsonantea erlaxatuta eta bigarrena berdin mantenduta. Adibidez: "Nig dakidana...". Hau normalean egiten da lasaiago hitzegiten denean edo arreta handiagoa ipintzen denean esaten ari den gauza horretan. Esate baterako, nik lekukoari ea gauzaren bat nola esaten duen galdetu eta berak erantzun horretan ohi baino kontu handiagoa jartzen duenean. Honelakorik ez gertatzeko ahalegin guztiak egin ditut, jakina, baina batzutan, kontestu arraroagoak bilatzen nituenean batez ere, ez zait erreza gertatu.

-Kontsonante bien artean ahozkatu den azken bokalea errepikatzea ere gauza guztiz normala da Basauri aldean, Bokalismoaren barruan aipatu denez. Adibidez: "Medikuek e berak...". Arazoa da honelakoetan -K + B-sandhi horretan zer gertatzen den jakin barik geratzen garela eta, jakina, ekin egin behar beste adibide batzurekin nahi den erantzuna jaso arte.

¹²⁸Zati honetan kontsonanteen elkar-jotze batzu aztertuko dira, ohizko hizkeran gerta daitezkeen gehien gehienak.

-Hirugarren modua naturalena izango litzateke, hiztunek arin edo martxa normalean behintzat mintzatzen direnean egiten dutena, herriaren berezko lege fonetikoei jarraituz. Honelakoetan hots biek elkar jotzean bat bakarra ematen dute ondorioz. Adibidez: "Bei bet (d)ekot".

Hiztun bakoitza, egoera bakoitza, momentu bakoitza desberdinak dira eta adibideak aipatutako hiru eretara agertu zaizkit, baina lehen bi gisetakoek ez daukate ezer berezirik eta hirugarren moduaren arabekoak jasotzen saiatu naiz. Beraz, hauexek izango dira, normalenak bestalde, hemendik aurrerako Sandhi zerrenda luzean zehar azalduko direnak.

Gutziz interesgarria izango litzateke bide hauetariko bata edo bestea aukeratzeko hiztun gazte eta zaharren artean zer nolako desberdintasuna dagoen aztertzea, baina Basauri aldeko errealtate tristeak ez du honelakorik permititzen, gure herriko euskara hutsez mintza daitezkeen "gazteen" gizaldia 70 urte inguruan dabilzanena izango litzateke eta.

Zenbait kasutan, argitasunerako beharrezkoa eritzi diodanean, fonologia mailako herri adibidearen ondoan, edo oin oharren bidez, literatura mailako bere pareta ipini dut.

Beraz, esandako guztiak kontutan hartu behar direla argi utzi ondoren ikus ditzagun honako kontsonante multzook:

2.3.4.4.1.- LEHERKARI + LEHERKARI.

Emaitza leherkari gorra da kasu guztietan:

-T + B- = -P-

"Yantzan ni(k) seinbe(t)P(b)ider kalabasak!"(M.L.)

"Eurontza(t)P(b)akarrik"(J.M.)

-T + D- = -T-

"Sugi beT (d)ao¹²⁹", "EstekoT (d)iru andirik"(K.Mj.)

"EstaiT (d)ana"(F.L.)

-T + G- = -K-

"Nik esto(t)K(g)ure"(K.Mj.)

"Etxa(t)K(g)ustetan¹³⁰"(K.Md.)

-K + B- = -P-

"Basori(k)P(b)aso"(K.Md.)

"Inddaba(k)P(b)atu"(Z.U.)

-K + D- = -T-

"Andi(k)T(d)enpora barrenien"(M.L.)

"An ai(k)T(d)aroiyes¹³¹"(Z.U.)

-K + G- = -K-

"BeiyeK (g)obemau"(J.M.)

"SuiK (g)astie(k) seintzien"(M.L.)

-T + P- = -P-

"Esto(t) Pentzetan"(K.Mj.)

"Senbe(t) Pelota?"(M.Z.)

-T + T- = -T-

"SenbeT (t)elletu"(M.Z.)

"SenbeT (t)alo?"(J.M.)

-T + K- = -K-

"Ekarrio(t) Kaballoa"(K.Mj.)

"Seinbe(t) Ke"(K.Md.)

¹²⁹"Zubi bat dago"

¹³⁰"Ez jat gustatzen"

¹³¹"Han haiek daroetz/daramatzate"

-K + P- = -P-

"Ni(k) Pen(tze)tan dot..."(K.Mj.)

"Yaiye(k) Pasetan"(K.Md.)

-K + T- = -T-

"Aselga(k) Ta gause gustiyek"(Z.U.)

"Berretxikoa(k) Topetan"(M.L.)

-K + K- = -K-

"AlabieK (k)osten dau"(J.M.)

"BiyeK (k)obretan daude"(M.L.)

2.3.4.4.2- LEHERKARI + BESTE KONTSONANTE BATZU

Emaitza normalena beste kontsonantea bakarrik geratzea da, baina ez beti:

-T + F- = -F-

"Estai(t) Fijoan e!"(K.Mj.)

"Senbe(t) Falta da?"(J.M.)

-T + L- = -L-

"Senbe(t) Lagun gaos?","Ba(t) Lotuten san"(J.M.)

-T + M- = -M-

"Esto(t) Me(d)idu"(J.M.)

"Nik emon dotze(t) Musue"(F.L.)

-T + N- = -N-

"An berbaingo(t) Neuk"(J.M.)

"Esto(t) Neurtu"(F.L.)

-T + S- = -S-

"Estai(t) Se usen dekon"(K.Mj.)

"Nik estai(t) Selan"(F.L.)

-T + TX- = -TX-

"Esteko(t) TXarririk"(K.Md.)

"Esteko(t) TXakurrik"(J.M.)

-T + Y¹³²- = -TX-

"Estai(t)TX(y)aten","Gure do(t)TX(y)oan"(K.Mj.)

"Artxo ba(t)TX(y)an du"(J.M.)

-K + F- = -F-

"Gauseri(k) Fasillena"(J.M.)

"Ni(k) Fiñagati urtein ddodala..."(K.Mj.)

-K + L- = -L-

"Onei(k) Liburuok","Ni(k) Lagundukotzat"(K.Mj.)

-K + M- = -M-

"Ni(k) Musien estait","Axiek e telletue(k) Mogietan daus"(K.Mj.)

-K + N- = -N-

"Orre(k) Ni(k)p(b)eño memoriye obie deko"(K.Md.)

"Barauri(k) Nao"(J.M.)

-K + S- = -S-

"Arei(k) Samudiyokoa(k)l(d)ires","Dana(k) Siren euskeldunek"(K.Md.)

-K + TX- = -TX-

"Karmene(k) TXartzat artukotzu"(K.Mj.)

"Are(k) TXakurre daroa"(K.Md.)

¹³²Gogoratu behar hots hau berezia dela Basaurin, Sabaikari aurreko afrikari ozena hasierako kokagunean. Honek agian erretzu egiten du kontsonante elkar-jotze honek duen emaitza: Sabaikari afrikari gorra.

-K + Y- = -TX-

"Ama defuntie(k)TX(y)akiñ euen" , "Agustina(k)TX(y)akingo dau",
"Posi(k)TX(y)oan da", "Dana(k)TX(y)oan sien", "Bera(k)TX(y)akingo dau!"
(K.Mj.)

2.3.4.4.3.- TXISTUKARI AFRIKARI + BESTE KONTSONANTE BATZU

Honelakoetan emaitza normalena txistukari frikari + beste kontsonantea geratzea da (S + Beste kontsonantea).

Hemen kontutan hartu behar da TS-rik ez dela ahozkatzen Basauri aldean eta TZ eta TS guztiak berdin esaten direla, TZ hain zuzen. Horregatik "TZ + ..." ipintzen duenean TZ hori jatorrizkoa izan daiteke edo TS-tik datorrena.

-TZ + B- = -SB-

"Aro(tz)S Bai", "Abera(tz)S Bat", "Gorpu(tz)S Bet", "Ame(tz)S Bat",
"Ese(tz)S Ba!"(J.M.)

"Leba(tz)S Buruegas", "Ma(tz)s parra andiye, ma(tz)S Bat!"(K.Mj.)

-TZ + D- = -SD-

"O(tz)S Dao"(K.Mj.)

"Iru sepa ma(tz)S Daos"(J.M.)

"O(tz)S Dekot"(M.Z.)

-TZ + G- = -SG-

"Au(tz)S Gustiye", "Saie(tz)S Gogorra"(J.M.)

"Biyo(tz)S Gogorra"(K.Mj.)

"Alda(tz)S Gusti ori"(F.L.)

-TZ + F- = -SF-

"Ga(tz)S Faltie", "Beraka(tz)S Faltie"(J.M.)

-TZ + P- = -SP-

"Ma(tz)S Parra"(K.Mj.)

-TZ + S- = -S-¹³³

"Ma(tz)S (S)uriye"(K.Mj.)

-TZ + T- = -ST-

"Ma(tz)S Tronkoakas pittikiñe"(K.Mj.)

-TX + B- = -SB-

"Ara(tx)S Bat", "A(tx)S Bat"¹³⁴(J.M.)

-TX + D- = -SD-

"Ain ga(tx)S Da ori!"¹³⁵, "Iru ara(tx)S Daos"(J.M.)

-TX + G- = -SG-

"Ara(tx)S Ganien"(J.M.)

"Ara(tx)S Gogorrak"(K.Mj.)

-TX + F- = -SF-

"Ara(tx)S Faltie"(F.L.)

¹³³S biak batu egiten dira.

¹³⁴HARITZ BAT - HAITZ BAT. Basauri aldean jende askok ARATX hitza ARBOLA zentzuan erabiltzen da.

¹³⁵"Hain gatx(gaitz / zail) da hori"

2.3.4.4.4. -L -N -R + -Z(-S)

-L + S¹³⁶

-LS-

"Bakiye iL Sela"(J.M.)

"Biyek iL Sien"(M.L.)

-N + S¹³⁷

-NS-

"YoateN San"(J.M.)

"PasetaN San"(F.L.)

"Nogas egoN Seintzen?"(K.Md.)

-S- Sarritan galdu egiten da -N.

"Entzute(n) Siesan"(K.Mj.)

-R + S-

-RS-

"Il beR Sala","BilduR Sara?"(J.M.)

2.3.4.4.5.- EZ + KONTSONANTEZ HASITAKO ADIZKIAK ETA BESTE

Berrito esan behar EZ Basauriko euskaraz ES ahozkatzen dela. Badaude aldaketa interesgarri batzuk grupo foniko hauetan:

-ES + L- = EL-

"Au ELekitte ixingo justoa","ELeuke esango eser"(K.Md.)

¹³⁶S hau jatorriz S nahiz Z izan daiteke. Z-rik ez da ahozkatzen Basauri aldean.

¹³⁷S hau jatorriz S nahiz Z izan daiteke, berdin ahozkatzen dira eta.

-ES + N- = EN-

"ENoste¹³⁸ kenduten iñok"(J.M.)

"ENendun berbarik eitten"(K.Md.)

-ES + S- = ES-:

"ES (s)an ixingo egiye"(J.M.)

-ES + Y- :

-ETX- :

"ETXako gustetan"(M.Z.)

-ESTX- ere jasota daukat, baina ez da normala:

"ESTXakien etorri"(M.L.)

-ES + B- (EZ + BA- baldintzazko marka)

-ES + BA- = ESPA-

"ESPAdaroasu..."(J.M.)

-ES + D- = EST-

"Estu ulertuten¹³⁹", "Estakiye"(K.Md.)

-ES + G- = Era bitara egiten da, eta biak dira guztiz normalak:

-ESG-

"ESGara eser"(J.M.)

"ESGeintzen etorri"(K.Mj.)

¹³⁸EZ NOSTE = EZ DOSTE (Ez deust / Ez dit).

¹³⁹"Ez dogu ulertzen". Ikus ADITZA.

-ESK-

"ESKoas bakarrik"(F.L.)

"ESKeintzen etorri"(M.L.)

2.3.4.4.6.- KONTSONANTE BIKOITZAK + LEHERKARI OZENAK

Kontsonante bikoitz horietariko lehenengoa R bada leherkaria gortzea da normalena. Kontsonante hori S bada ez da gortzen, hemen aztertutako kasuetan behintzat. Nik BART, BOST eta NORK-ekin begiratu dut ea zer gertatzen den. Lehenengo kasuan BART, denek ezagutu arren, ez dute normalean erabiltzen, bere ordeztan "Atzo gaubien" esaten dute eta horregatik kostatu egin zitzaidan jendeak naturaltasunez esatea nik eskatzen nizkien hiru grupo fonikoak.

Bigarren kasuan, BOST erabiliz emaitza beti izan zen T galdu eta S + leherkari ozena.

Hirugarren kasuan, NORK erabiliz elkar jotako hiru kontsonanteak desagertu eta bere ordeztan leherkari gorra geratzen zen beti. Hona hemen adibideok:

-RT + B- = -RP-

"BaR(t)P(b)e bai"(K.Mj.)

"BaR(t)P(b)akarrik"(K.Md.)

-RT + D- = -RT-

"BaRT (d)irue galdu in ddot"(K.Mj.)

"BaRT (d)anak etorri si(r)en"(K.Md.)

-RT + G- = -RG- , gortu gabel¹⁴⁰.

"BaR(t) Gaubien"(K.Mj.)

-ST + B- = -SB-

"BoS(t) Bei", "BoS(t) Bider"(J.M.)

-ST + D- = -SD-

"BoS(t) Doas", "BoS(t) Doseña"(K.Mj.)

-ST + G- = -SG-

"BoS(t) Gara"(F.L.)

"BoS(t) Gatos"(K.Md.)

-RK + B = -P-

"Nork + bera", "Inork + badaki?", "Nork + batu deu?" =

"Nopera", "Inopaki?", "Nopatudeu?"(J.M.)

-RK + D- = -T-

"Nork + daki?", "Nork + deko ori?" =

"Notaki?", "Noteko ori?"(K.Md.)

-RK + G- = -K-

"No(r)K (g)aldu dau arrakadie?"(K.Mj.)

¹⁴⁰Badirudi, orokorki, -G-ri gehixago kostatzen zaiola gortzea bere kide leherkari ozenei baino. Berdin gertatzen da aipatu berri den EZ + B-, D-, G- kasuan.

2.3.4.5.- Bustidura¹⁴¹

Hauxe da zalantzarik gabe Basauri aldeko eta orokorrean Nerbioi haran aldeko Euskararen puntu bereziena, inguruko haranetako hizkeretatik gehien desberdintzen duena eta horregatik merezi duen aparteko tratamendua eman behar zaio.

Bustidurak, gure herri inguru honetan ez dauka inolako balio adierazkorrik eta automatikoa da kontestu egokia agertzen denean. Kontestu hau I bokalearen presentziak markatuta dago eta bustidura berdin gertatzen da hitz barruan zein bestelako kontestuetan. Izan ere, bustidura egoleko, gero ikusiko den salboespen pare bat kenduta, "I + beste zenbait elementu kontsonantiko(ez edozein)" testu ingurua behar da. Berdin da I hau bokale hutsa edo diptongoaren bigarren elementua izatea.

Esan beharko, edozein modutan ere, hiztun guztiek ez dutela bustidura egiteko joera berdina eta lan honetan zehar honez gero hainbeste aldiz aipatulako bereizketara jo behar da: Gizonezkoek gutxiago bustitzen dute, behin baino gehiagotan aipatu dugun beste leku batzuetako hizkeren eraginagatik, eta emakumezko gazteek zaharrek baino gutxiago, halaber. Honek esan nahi du Bustidurarena Basauri aldean galtzen ari den berezko ezaugarria dela, jatorrizko hizkera bera ere galtzen ari den era berean.

Larogei urtetik larogeita hamarrerako tartean dauden San Migeleko esnesaltzaileek¹⁴², Basauriko hizkeraren eredutzat hartuak izateko merezimendu guztiak irabazita dauzkatenek, joera bateratsua dute bustiduraren fenomenoari dagokionean, batzuek besteek baino modu nabariagoan, esajeratuagoan, nolabait esateko, egin arren. Horregatik, nahiz eta emakumezko gazteagoek eta gizonezkoek gutxiago busti zaharrenak bizi bitartean behintzat bustitzea Basauriko hizkeraren joera nagusitzat hartuko dugu.

¹⁴¹ BUSTIDURA edo PALATALIZAZIOA.

¹⁴² Karmen Moja, Kalixta Madariaga, Xexili Urkiza...

Jo dezagun, besterik gabe, fenomeno honen deskribapenera. Zerrenda honetako lehen bost kasuetan basaurilar guztien joera berdina da, bustitzea, baina hortik aurrera aipatutako tendentzia desberdinak hasten dira:

2.3.4.5.1.- I + L = ILL- / LL-¹⁴³

"FasILLenera", "KILLo bat", "TrankILLo"(J.M.)

"ILLorduen"(K.Mj.)

"MadrILLeti"(M.Z.)

"OLLoa"(K.Md.)

2.3.4.5.2.- I + N = IÑ / Ñ

"Do(n)martIÑegas", "Sesiñe"(J.M.)

"BaIÑie", "KantIÑek"(K.Mj.)

"OrreIÑa", "Galdu IÑ eurien"(F.L.)

"Gatx eIÑ (n)au¹⁴⁴"(M.Z.)

2.3.4.5.3.- I + S¹⁴⁵ = IX / X

"GIXon bat", "ArIXera", "IXetu", "GoXien"(J.M.)

"Suk artuIXu!", "IXin sen", "AraIXera"(K.Mj.)

"Iru bIXimodu"(M.Z.)

"GoIXak"(K.Md.)

2.3.4.5.4.- I + X = IX

"OrIXe da ba!"(K.Mj.)

"AurretIXik"(F.L.)

¹⁴³ Kasu honetan eta hurrengo lauretan I bokalak ez dauka zertan desagertu bustiduraren ondorioz.

¹⁴⁴ NOR-NORK sistemako formak batzutan NOR-NORI-NORK-ekoen lekuan erabiltzen dira, nahiz eta alderantzizko fenomeno askoz normalagoa izan. Ikus ADITZA.

¹⁴⁵ S hau jatorriz S edo Z izan daiteke.

2.3.4.5.5.- I + TZ = Kasu askotan busli egiten da, baina horrelaxe mantentzea ere gerta daiteke:

-ITZ

"ITZesoa"(J.M.)

"ITZelien"(M.Z.)

"UrKITZene"(Z.U.)

-ITX / -TX

"ATXurre","ATXa"(J.M.)

"ITXi"(K.Md.)

"BikoTXak"(M.Z.)

"BakoTXien"(M.L.)

2.3.4.5.6.- I + D = Ez dago bustidurarik kasu honetan:

"EntenIDu itten dau","AburrIDu itten da"(K.Mj.)

"Lagune etorrI De"(M.L.)

Hurrengo bost kasuetan nabaritzen dira gehien hiztunen arteko joera desberdinak. Fonetikaren arlorako aukeratutako lekukoaren artean, adibidez, Fermin Larreak ez du horrelakoetan inoiz bustitzen eta Jose Mojak noizean behin bakarrik. Beste guztiek, ordea, beti:

2.3.4.5.7.- I + T = Joera biak aipatuko ditugu:

-ITT

"Bakixu segaITTi?", "AITTeITTe", "BriskITTakoa", "Al baneinkITTE ibilli", "BITTurien", "SeñorITToa"(K.Mj.)

"BI TTe bi"(K.Md.)

-IT

"BriskITagiñoko","PolITe"(J.M.)

"ITurri bet","SegaITik?","AITITe"(F.L.)

2.3.4.5.8.- I + LD = Joera bi:

-ILDD:

"Illen bILDDurrik es"(K.Mj.)

"ILDDE dao"(M.Z.)

"Erdiyek IL DDosak"(P.Aur.)¹⁴⁶

"Goxien IL DDE"(K.Mj.)

-ILD:

"BILDurre"(J.M.)

"IL De"(F.L.)

2.3.4.5.9.- I + LT = Joera bi:

-ILTT:

"IbILTTen san","ILTTe ondo estao"(K.Mj.)

-ILT:

"IbILTen san","ILTen dire"(F.L.)

2.3.4.5.10.- I + ND = Joera bi:

-INDD:

"INDDabie"(J.M.)¹⁴⁷

"Solo bat eINDDe", "Esetuten neINDDun"¹⁴⁸, "AgINDDu askiño..",

"EIN DDaude"(K.Mj.)

"On eIN DDaixule"(K.Md.)

¹⁴⁶Pedro Aurtenetxe, gizonaekoa izan arren, oso zaharra da,90 urte, eta zaharrenen joera mantentzen du.

¹⁴⁷Jose Mojak era bietara egiten du honelako kontestuetan. "Gazteagoen" bustiduraren galera prozesua isladatuko luke nolabait.

¹⁴⁸Beste hiztun gehienek NEINDDUN barik NENDUN esaten dute.

-IND:

"INDerra","Neuk eIN Dot"(J.M.)

"EukIN Dot","UrteIN Dau"(F.L.)

2.3.4.5.11.- I + NT = Joera bi:

-INTT:

"AyuntamINTTue", "Bere pentzamINTTuetati", "Ser ifINTTen dau?"
(K.Mj)

"PreparamINTTuek"(K.Md.)

"ErramINTTak","ImINTTeko"(M.Z.)

-INT:

"EINTen daure"(J.M.)

"AyuntamINTTue"(F.L.)

2.3.4.5.12.- TT / LL / DD: Kasu gutxi ikusten dira honelakoak, beti ere klitxetuak, balio adierazkorrik gabekoak:

-TT: TX normala egiten da:

"TXue"(J.M.)

-LL:

"LLobak"(K.Md.)

"ULLe suridun bet"(J.M.)

-DD¹⁴⁹:

"DDantzan"(J.M.)

¹⁴⁹Sabai-aurreko afrikari ozen gisa ahozkatzen da.

2.3.4.6.- Bestelakoak

2.3.4.6.1.- G / K hitz hasieran: K-rako joera ikusten da, baina G- ez da arraroa:

-K:

"Kastañak"(J.M.)

"Kalapan","Kerixak","Kollarie"(K.Mj.)

"Kuntzurrunek"(M.Z.)

-G:

"Guntzurrunek"(F.L.)

"Galapan"(K.Md.)

"Atxur girtena"(M.I.)

2.3.4.6.2. -G / -K- bokale artean: Sarritan galdu egiten dira, batez ere -G-, baina kasuren batean, normalean beste leku batzutan galdu egiten diren -G-ak hemen mantendu egiten dira argi eta garbi:

"E(g)in", "Ara(g)o", "Da(g)ola", "Itxi in d(og)u", "Nik ese(gu)tu dot"
(J.M.)

"Esta(k)it"(J.M.)

"BeGittu!"(K.Mj.)

2.3.4.6.3. -R- bokale artean: Sarritan galdu egiten da:

"Be(r)ori"(J.M.)

"Egon si(r)en"(K.Mj.)

"Sa(ra)lamokoa", "Di(r)es auskeldunek"(K.Md.)

2.3.4.6.4. -T aditz amaieran: Markaren bat eranstea ozendu egin daiteke, baina gor mantentzen dutenak ere ugari dira:

-Ozendu:

"DekoDan", "DoDasan", "DakiDana"(J.M.)

"Dakides"(K.Mj.)

"DekoDas", "EstoDas"(Z.U.)

-Gor mantendu:

"DakiTTen moduen", "DoTen lekuen", "DekoTela"(K.Md.)

"Esan dotzuTena"(M.L.)

"DoTena", "DoTela"¹⁵⁰(Z.U.)

2.3.4.6.5. -K hitz bukaeran, NONDIK kasuan: Sarritan ez da entzuten. Hitzun batzuk NONDI eta beste batzuk NONDIK erabiltzen dute:

"Bateti besteti", "Emeti", "Orduñeti"(K.Mj.)

2.3.4.6.6. -J-ren presentzia: Y, sabai-aurreko afrikari ozena, dz , (posizio neutralean) nagusi da argi eta garbi, baina J, beloko frikari gorra, x , ez da hots arraroa basauritarrentzat:

-Hitz hasieran:

"Jenero ona", "Juerga"(J.M.)

"Jardiñek", "Juegu bet"(K.Mj.)

"Jaungoikoa"(K.Md.)

"Jentie"(Z.U.)

-Hitz barruan:

"Frijidu", "Anajie"(J.M.)

"Bijak"¹⁵¹"(K.Mj.)

¹⁵⁰Xexilik, ikusten denez, batzutan ozendu eta bestetan gor mantendu egiten du.

¹⁵¹"Bidaiak"

2.3.4.6.7.- L / N / R disimilazioa: Oso oso normala da Basauriko hizkeran eta era guztietako adibideak entzun daitezke:

-L / N alternantzia: Oso normala da:

"LeLengo"(J.M.)

"ALimaliyek", "Laranjie"(K.Mj.)

"Lumeroa¹⁵²"(K.Md.)

"ArroNtzie", "Narrue", "Nasai dekot"(J.M.)

"ONangoa"(K.Mj.)

"GuNtzurrunek"(F.L.)

"KoNiflorak", "NikaNoak¹⁵³"(M.L.)

-L / R alternantzia: Oso normala hau ere:

"UgeLiyo"(J.M.)

"KantaLasarra¹⁵⁴"(M.Z.)

"FaLientiek¹⁵⁵"(M.L.)

"ARmosue", "MaRmasiñe¹⁵⁶"(J.M.)

"BRusegas", "BuRtuek atara"(K.Mj.)

"SoRuko arriyek"(K.Md.)

"ARkondarie"(M.L.)

-N / R alternantzia: Ez da hain handia:

¹⁵²Kalixtak dioenez lehen horrela esaten zen.

¹⁵³"Nikaloak", perretxiko mota bat.

¹⁵⁴Basauriko lehengo iturri famatua kokatuta zegoen ingurunea.

¹⁵⁵"Parienteak", "Senideak" esateko.

¹⁵⁶Basauriko mendiaren izena. Erdaraz BALMASIN edo MALBASIN esaten da.

"BeRenoa deko"(K.Mj.)
"ARimeittakoak"(K.Md.)

-L / R METATESIAK

"Denok aRkaL", "ARkiLLerra"(J.M.)
"ARkiLLaute"(M.Z.)
"ARpeLik"(K.Mj.)
"ELdeRdune"(K.Md.)

2.3.4.6.8. -P / B / F / M alternantzia: Denak erabiltzen dira (Hasierako kokagunean zein bestela), ez dago nagusitasun argirik¹⁵⁷.

-P-dunak:

"Parkatu"(J.M.)
"Perretxiko¹⁵⁸"(M.L.)
"ArPela", "IriPasi¹⁵⁹"(J.M.)
"KalaPan"(K.Mj.)

-B-dunak:

"Barre ein"(J.M.)
"Bistute¹⁶⁰", "Bakie"(K.Md.)
"Berretxiko"(M.L.)
"IriBasi"(M.Z.)

-F-dunak:

"Firu betegas"(J.M.)
"Falientiek"(M.L.)¹⁶¹
"IFinten¹⁶² dauena", "KaFie"(J.M.)

¹⁵⁷ikus Fonemen inbentarioa

¹⁵⁸Mari Lejarzegik berak PERRETXIKO eta BERRETXIKO esan zituen elkarriketa berean.

¹⁵⁹IRIBASI eta IREBASI ere jasota dauzkat

¹⁶⁰Hitz hau ezagutu arren IXETU askoz erabiliagoa da.

¹⁶¹"Panenteak" esateko. Hau ez da oso normala, Mariari bakarrik entzun diot.

¹⁶²FINI eta IMINI biak dira oso erabiliak.

-M-dunak:

"IMiñixu"(F.L.)

-Marka gabekoak:

"Ikoak"(J.M.)

2.3.4.6.9.- B / G alternantzia: Badaude kasu batzu:

- B = G:

"SuGi¹⁶³ aspiyen"(J.M.)

"YauGie¹⁶⁴"(K.Mj.)

- G mantendu:

"YaGoixus aite l'ama"(J.M.)

2.3.4.6.10.- D / R alternantzia: Ez da handiegia, baina badaude kasu batzu:

-D-dun bihurtu edo mantendu¹⁶⁵:

"Salduten euDen","OtzaDiegas"(K.Mj.)

"IDi¹⁶⁶ atie"(K.Md.)

"IlleDan","IDie¹⁶⁷"(J.M.)

"Erango dauDes","PatxaDas"(Z.U.)

-R-dun bihurtu edo mantendu:

"Pasau deuRe¹⁶⁸"(J.M.)

"PiñuRiye","OtzaRiegas"(M.Z.)

"MeRina de Pomar"(M.L.)

¹⁶³ZUBI azpian. SUGE = SUGE esaten da. ZUBIA = SUGIYE / SUGEA = SUGIE Ikus ARMONIZAZIOA.

¹⁶⁴JABEA adierazteko.

¹⁶⁵Beste herri batzutan aldatu egiten diren hitz batzuren kasuan.

¹⁶⁶ZABALDU askoz normalagoa da.

¹⁶⁷IDA, IDEA (Beste leku batzutan GAROA)

¹⁶⁸DABE / DUTE adierazteko Basauri aldean DAUDE / DAURE dira modu erabiliak. bere barianteekin.
Ikus ADITZA.

2.3.4.6.11.- R = G bihurtzea: Gertatzen da batzutan:

"SaGatak"(J.M.)

"IGetargiye"(M.Z.)

"BertaGiño¹⁶⁹"(M.L.)

"OGatute"(K.Mj.)

2.3.4.6.12.- D = G bihurtzea: Gertatzen da batzutan:

"IGerrak¹⁷⁰","Geittu","Gedar ein","Gedarres"(K.Mj.)

"Geike"(F.L.)

"SeGoser¹⁷¹"(K.Md.)

2.3.4.6.13.- U = B bihurtzea: Bizkaiko beste leku batzutako EBAN ez da egiten hemen. Guk EUEN, kontsonantizatu gabe egiten dugu. Kasu kuriosoena GAU hitzarekin gertatzen dena da, nahiz eta B agertu U ez bait da galtzen¹⁷²:

"GauBien"(J.M.)

"GauBe gustiyen"(M.Z.)

2.3.4.6.14.- MURRIZKETAK: Oso normala da hemen, beste leku askotan bezala, hitzegiterakoan hainbat hotsen murrizketa egitea. Hona hemen adibide batzu:

"Ensegida egingo dogu" = "Ensegida ingu"(J.M.)

"Badakizu" = "Bakixu"(J.M.)

"Gura badosu" = "Gure bosu"(J.M.)

"Horreek etorri orduko" = "Orreik etorduko"(K.Mj.)

"Zer egingo dogu ba?" = "Serreingu ba?"(K.Mj.)

"Sua emon eutsan" = "Su emotzen"(K.Mj.)

"Badator" = "Bator"(K.Md.)

¹⁶⁹Hau ez da berez R = G bihurtzea, baina aipagarria da kasu hau. NORAINO = NOGIÑO(KO) esaten dute denek Basaurin. Ikus DEKLINABIDEA.

¹⁷⁰IDARRAK

¹⁷¹ZER EDO ZER

¹⁷²Ikus DEKLINABIDEA.

2.3.4.6.15.- Z erdaraz bezala ahozkatzea: Gertatzen da batzutan, izenen zitak eta egilen direnean, berauek euskarazkoak izan arren. Basaurilarrek jadanik ez daukate inolako trabarik hots hau ahozkatzerakoan, erdaraz egiten ondo ohituta bait daude denak:

"IZagirre", "MuñuZuri"(J.M.)

"LejarZegiña"(K.Mj.)

"ManZisidor", "Zabalbiden"(F.L.)

"ZeZilio"(M.Z.)

2.3.4.7.- Beste zenbait bitxikeria¹⁷³

- "Euki / Auki" esateko batzutan bukaeran -N erabiltzen da: "AukiN / eukiN"(J.M.)

-ETZera ahozkatzen da beti.

- "Idi aurrean ibili" esateko "ItiL.Laurren"¹⁷⁴(J.M.)

- "Ia / Kasi" esateko batzuk "KasiK" esaten dute.(J.M.)

- "EiNten dau", "EiNten dot" esaten du Jose Mojak.

- Hitz amaierako -T asko -K bezala ahozkatzen ditu Jose Mojak: "Ni neutzaK", "Ein doK"¹⁷⁵ eta estoK ein"...

- AIK / AREIK esateko ARREIK ere jasota daukat(K Md.), baina ez da normala.

¹⁷³Sailkatzeko zailago direnak.

¹⁷⁴Zeberio aldean eta ITAURREN

¹⁷⁵DOT esateko.

-TAR atzizkiaren ordean -ZTAR erabiltzen dute denek:

"KanpoSTARrak" (G.G.)

"BegoñeSTARrak"(K.Mj.)

-"SuRteti"," SuRteko autze"," SuRbajokoa" R epentetikoarekin esaten dute batzuk.(K.Mj.)

-Euskaraz arraroa den zenbait grupo foniko ahozkatzeko batzuk problemak daukate:


"Poblemak"(K.Mj.)

235.- ZENBAIT ESPEKTROGRAMA BEREZI

Jarraian, Fonetikari dagokion atal luze honi bukaera emateko, Basauri aldeko hizkeran bereziak edo definitzeko zailak diren hots batzuren espektrogramak ipiniko ditut.


Bokalismoarekin hasiz AU/EU eta AI/EI diptongoak dituzten hitz batzu ikusiko ditugu:

Larogeta____ sAI urte(K.Mj.)




l a r o g e t a s a i u r t e

Egon nEIntzen(K.Mj.)




e ɣ o n e i n c e n

NAU(K.Mj.)




n a u

Nik AUkiko (do)das(K.Mj.)



n i k a u k i k o d a s


Bai gAUri(K.Mj.)



b a i g a u r i


-I- osteko Sabai-aurreko frikari ozena eta hitz hasierako Y-:

AmabiYek(J.M.)




a m á b i ž e k

Atzo arrasteiYen(K.Mj.)




a c o a ř á s t e i ž e n

Yo be bai(J.M.)



d ž ó b e b a i

Da Yaten emon(J.M.)




180 d a ž á t e m o n


Beste bustidura kasu batzu:

Gu es gara bIXi IXIÑ(K.Mj.)

GIXon bat(J.M.)




q u e z g a r a b i x i




g i š o m a t

OspITTelera(K.Mj.)

AITTe(K.Mj.)




o s p i t e l e r a




a i t e

INDDable(J.M.)




i n̂ ŷ á b i e

Entzun neINDDun(K.Mj.)



e n̂ c u n e i n̂ ŷ u n

IL DDelako(K.Mj.)



i l̂ ŷ e l a k o

3.- DEKLINABIDEA

3.1.- SARRERA - METODOLOGIA

Basauriko Deklinabidea aztertzeke ikerlan honetan ohizkoa den metodologia erabili dut. Lehenengo pausoa aztergaiak aukeratzea izan zen: Jakineko paradigma guztiak eta horrez gainera deklinatzeko moduari begira zerbait berezia zeukaten beste zenbait kasu.

Bigarren pausoa elkarrizketa naturalekin grabatuta neuzkan zinta ugariak entzun eta bertatik paradigmak betetzeko ahalik eta datu gehien ateratzea izan zen.

Azken pausoa paradigmatako hutsuneak betetzeko galdera bereziak prestatu eta lekuko aukeratuengana laguntza eske jotzea izan zen.

Aztertutako gaien zerrenda ikusiko dugu jarraian:

- Ohizko paradigmak

- Galdera hitzak eta bere deklinazioa.
- Hitz arrunten deklinazioa.
- Pertsona izenak.
- Leku izenak.
- Erakusleak.
- Izenordeak.
- Bat / Batzu-ren deklinazioa.

- Zenbait erabilera berezi

- Inesibo zaharra.
- Ablatibo zaharra.
- Hemen - Hor - Han eta bere deklinazioa.
- EDOzer - Zer EDO zer - Ezer - ZerBAIT eta horrelakoen erabilera.
- Asko / Gutxi.
- Nahikoa.
- Dena / Guztia.
- GAU hitzaren deklinazioa.
- BEHE hitzaren deklinazioa.

Aztertutako deklinabide kasuak ohizko paradigmatokoak izan dira, singularrean, pluralean, plural hurbilean eta mugagabeen.

Bokalez eta kontsonantez amaitutako hitzak aztertu ditut eta honetan kontu handiz ibili behar izan dut fonetika dela eta. Bokalez bukatutako hitzen eredutzat -O-dunak hartu behar izan ditut, nahi eta nahi ez, zeren eta beste edozein bokalez amaitutako berbekin armonizazio fenomeno bereziak gertatzen bait dira¹:

- A amaierakoak: Deklinabideko -A marka eranstea, A + A = IE, adib. "Alaba" + A = "AlabIE".

- E amaierakoak: Deklinabideko -A marka eranstea, E + A = IE, adib. "Seme" + A = "SemIE".

- I amaierakoak: Deklinabideko -A marka eranstea, I + A = IYE, adib. "Ogi" + A = "OgIYE".

¹ikus FONETIKA, armonizazio bokalikoa.

- U amaierakoak: Deklinabideko -A marka eranstea, U + A = UE, adib. "Kantu" + A = "KantUE".

- O amaierakoak: Deklinabideko -A marka eranstea, O + A = OA, adib. "Asto" + A = "AstOA".

Ikusten denez -O amaierakoak bakarrik mantentzen dira berdin, aldaketa fonetikorik gabe eta horregatik paradigmatarako eredu gisa MUTIKO - AUZO aukeratu nituen hitz arruntetako, PEDRITO² pertsona izenatarako eta GALDAKO leku izenatarako.

Kontsonantez amaitutako hitz ereduak aukeratzekoan ere kontuz ibili nintzen aldaketa fonetikorik sortzen ez zuten kontestuak hartzeko. Erabilitako hitzak GIXON - TREN izan ziren hitz arruntetako, KARMEN³ pertsona izenatarako eta SA(N) MI(G)EI⁴ leku izenatarako.

Deklinabideari dagokion atal hau garatzeko lehenengoz, paradigmekin hasi aurretik, Basauriko erabileraren ezaugarri orokorrei buruz hitzegingo da hurrengo puntuan. Gero ohizko paradigmak paratuko dira eta amaitzeko erabilera berezien gaiak ihardungo da. Den dena oin ohar eta azalpen ugari homituta etorriko da, gai honi buruz egon daitezkeen zalantza guztiak uxatu nahian.

²Honela deitzen dio Karmen Mojak berarekin bizi den suhiari eta nire lanaren oinarri sendoena andra hau dela kontutan hartuta onena berri egokitutako adibideak aukeratzea zela erabaki nuen.

³Karmen Mojaren alaba ere Karmen da.

⁴Leku izenekin bestelako bukaera zuten hitzekin ere egin nituen probak: -S, -N... NONGO NONDIK kasuetan gehienbat nolako erabilera egiten zen ikusteko.

3.2.- BASAURIKO DEKLINABIDEAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Atal honetan gehienbat galtzen edo nahasten ari diren ezaugarri batzuri buruz hitzegingo da. Beste aldetik, Basauri aldeko hizkeran erabilera berezia daukaten kasu bitxiak paradigmaren bigarren parterako utziko dira.

3.2.1.- GALTZEN ARI DIREN EZAUGARRI BATZU

3.2.1.1.- Mugagabea

Hitz arrunten deklinazioan mugagabe marka ez dago argiegi definiturik eta sarritan nahastu egiten da singularrekoarekin, ondorioz erabilera bikoitzak sortzen direlarik: "Se etzeRA / Se etzeTARA", "Se gixonAGAS / Se gixonEGAS" eta horrelakoak era bietara dira esaten dira, singular markarekin eta benetako mugagabearekin.

Bestalde, badago zenbait erabilera bitxi, kasu honi dagokionez, adibidez ATE hitzarena, oso normala bait da zaharren artean beti mugagabean erabilia ikustea:

"Bentanati ateTARA" (K.Mj.)

"Ukusi neinddun ateTATI yoan sala"(K.Mj.)

3.2.1.2.- Plural hurbila

Gero eta gutxiago erabiltzen da. Kasu sinpleenetan bai: "Oneik lorOK", "Gu danOK"... baina bestela ez da normala. Bere ordean oso erabilia da egitura hau: "Lehen graduko erakusle plurala NOR kasuan + Hitza + Kasuan kasuko plural marka normala". Adibidez "EtziOTAN", "ArtoOK" esan beharrean: "Oneik etzietan" , "Oneik artoAK"...

Ordezko beste estruktura bat hau da: "Emeko" + Hitzza + Kasuan kasuko plural marka normala". Adibidez "SoloOTATI(K)", "ErriyOTARA" barik: "Emeko soloETATI(K)", "Emeko erriyETARA"...

Kontua da, azken finean, "EtziOTAN", "AriLOOK", "SoloOTATI(K), ErriyOTARA" eta horrelakoak gero eta gutxiago entzuten direla.

Beste gauza bitxiren bat badago, hala nola plural hurbil fosilizaturen bat: EUREK esateko askok AUROK erabiltzen dute eta horrela deklinatzen dute kasu guztietan, O eta guzti⁵.

3.2.1.3.- Azentua singular/pluralezko formak bereizteko

Bizkaiko leku gehienetan hain sustrailuta dagoen ezaugarri berezi hau Basauri aldean jadanik galdua dago, singular eta pluraleko formak itxura aldetik guztiz berdinak diren kasuetan kontestuaeren arabera bereiztu behar direlarik⁶.

Erakusleekin gerta liteke nahaste handiena hau dela eta, baina Basauriko hizkeran itxura aldetik desberdinak dira singularra eta plurala⁷ eta horregatik ez dago azentuaren beharrik.

⁵Ikus IZENORDEAK.

⁶Adibidez NOREN kasuan GIXONAN singularra edo plurala izan daiteke, baina azentuak ez du desberdintasuna markatzen.

⁷1.- agertzen da pluralean. Ikus ERAKUSLEAK.

3.2.2.- DEKLINABIDE KASU BATZUREN GALERA PROZESUA

3.2.2.1.- Instrumentala

Honez gero, Basauri aldean forma klitxetuetan baino ez dira erabiltzen kasu honen deklinabide markak. Kasuari izena emateko ZEREZ edo ZERTAZ ez dira inoiz esaten eta "Burdinezkoa" edo "Oholezkoa" erantzun arren galdera ZERENA? da⁸:

"Au sena da? Burreiñeskoa, burreiñegas eindde dao"(K.Mj.)

Beraz, marka moduan oraindik erabiltzen da kasu batzutan, baina gero eta gutxiago:

"Artes ibilli", "Oñes yoan", "Kontentus egon", "Eskus ein"...

"Kamiños kamiños etorri", "Ingurus ingurus soldadus beteta egon"

"Auskeraskoak", "Oleskoa", "Burreiñeskoa"...

"Askosas be lenao"...

"Auskeras berbas"...

Deklinabide marketan gehien erabiltzen diren ordezekoak hauek dira: ZEREZ zentzuarekin ZEGAZ, eta ZERTAZ/NORTAZ zentzuarekin ZERGAITIK/NORGAITIK, ZEREN/NOREN GAINEAN:

"Ori egurregas eindde dao"

"Bilbogaitti berbas gaos"

"Karmenen ganien berbaitten du"

⁸Era berean, "Eskuz eginda dago"-ri dagokion galdera "ZEGAZ eginda dago" izango litzateke.

3.2.2.2.- Prolatiboa

Kasu hau galduta ez, baina nahastuta badago sano. Bere zentzua nahiko erabilia da, baina marka desberdinekin, batzutan NORTZAT eta NO(RE)NTZAT/NO(RE)NTZAKO kasuei dagozkienak bereiztu barik:

"FormalTZAT badeku"(K.Mj.)

"Orrek e niri lokaTZAKO dekoste"(K.Mj.)

"Ori lagunTZEKO⁹ dekot"(K.Mj.)

Kasuari izena emateko oso oso arraroa izango litzateke "Nortzat" edo "Zertzat" entzutea. Bere ordeztzat NONTZAKO - NONTZAT - NOGAITTI(K) - SENTZAKO - SENTZAT - SEGAITTI(K) erabiltzen dira.

3.2.2.3.- NOGAN eta bere deribatuak

NO(RE)NGAN ez da ezertarako esaten. Bere zentzua ordezkaltzen dutenak NOGAZ eta NO(RE)NTZAKO dira batez ere. Bere deribatu guztiak, ordea oso erabiliak dira, bai kasua izendatzean bai deklinabide markak eranstean ere: NOGANIK eta NOGANA askotan esaten dira. NOGANANTZA eta NOGANAGIÑO(KO) gutxitxoagotan.

- TRANSKRIPZIO OHARRA: Paradigmatan kasu hauei dagozkien lekuetan, gehienetan * marka agertuko da eta horrek adierazi nahi izango du benetako deklinabide marken partez oraintsu aipatutako ordeztzat erabiltzen direla.

⁹Aurreko U-ren eraginez -TZAKO = -TZEKO. Ikus ARMONIZAZIOA Fonetikian.

323.- ERABILERA BIKOITZAK

Sarritan gauza bera esateko dobleteak sortu dira Basauri aldean, batabestearekin desberdintasun txikia daukatenak, askotan, baina hor daudenak nire moduko ikertzaileak pixka bat nahasteko. Izan ere askotan gertatu zait auzo bereko lagun bik adibidez, gauza berbera diferentzia txiki batekin esatea. Esate baterako "NonDI etorri sara?" edo "NonDIK etorri zara" eta horrelako pilatxo bat.

Niretzat honen zergatia argi dago, basauritarrek ez dute aspalditik euskaraz egiten euren artean eta nahiz eta batzuk Euskara orain arte bizirik gorde herrikideak elkarrekin mintzatzen ez badira errezagoa da uniformetasuna galdu eta bakoitzak bere aldetik jotzea, han hemenka hartutako eraginak asimilatuz.

Honelako dobleteak sortu zaizkidanean lekuko "aukeratuen" artean erabiliak badira paradigmelan sartu ditut eta bestela aipamena egin eta kito. Dena den, guzti hau ondo azalduta egongo da oin-oharren edo bestelako azalpenen bidez.

Hona hemen erabilera bikoitz hauen adibide batzu:

- NONDI / NONDIK: Biak dira nahiko erabiliak lekuko zaharrenen artean, agian lehenengoa apur bat gehiago, baina gazteagoek -K-dun forma erabiltzen dute. Berdin gertatzen da ZERGAITI (SEGAITTI) / ZERGAITIK (SEGAITTIK) kasuan (SEGAITTIÑO ere esaten da, baina ez da hain normala). Paradigmatan -K parentesi artean agertuko da.

Bestalde aipagarria da batzutan -TI(K) marka beharko litzatekeenean -GANIK esaten dela:

"Guk berbaitten dunGANIK ori diferentie da"(K.Mj.)

"OinGANIK enoa edaten esebes"(K.Mj.)

- NORAGIÑO / NORAGIÑOKO / NOGIÑO / NOGIÑOKO: Era guztiotara esaten da, halere denek amankomunean daukaten gauza interesgarriena -G-hori da. Paradigmatan -KO parentesi artean agertuko da.

- SUROK / SUIK : "Zuek" adierazteko lekuko erdiek era batera eta beste erdiek bestera egiten dute. Badirudi zenbat eta Arrigomiarantz gehiago jo SUROK esateko joera handiagoa dagoela, baina auzoetan hain euskaldun gutxi geratzen direnez gehiegi arriskatzea litzateke isoglosa non dagoen esatea.

- Benetako mugagabea / Ordezko singularra: Atal honen hasieran komentatu dena, badaudela "Se etzeRA" / "Se etzeTARA" tipoko erabilera bikoitzak mugagabeari gagozkiolarik.

- AUREK / AUROK / AURIEK: "Eurek" adierazteko hiru forma hauek dauzkat jasota Basauri aldean, lehenengoa delarik erabiliena¹⁰.

- NO(RE)NTZAKO / NO(RE)NTZAT: Bietara esaten da, baina lehena erabiliagoa da, horregatik bera azalduko da paradigmatan nagusi bezala

¹⁰Kalixta Madariagak AURIEK deklinatzen du sarritan, Karmen Mojak AUROK beti, eta bere auzokidea den Mari Izagirrek eta beste gehienek AUREK beti.

3.3.- PARADIGMAK

Kasuekin erabiliko den numerazioa:

- 1.- Nominatiboa (NOR)
- 2.- Partitiboa (ZERIK)
- 3.- Ergatiboa (NORK)
- 4.- Datiboa (NORI)
- 5.- Genitibo edutezkoa (NOREN)
- 6.- Instrumentala (ZEREZ/ZERTAZ)
- 7.- Soziatiboa (NOGAZ)
- 8.- Motibatiboa (NOGAIKK)
- 9.- Destinatiboa (NORENTZAT)
- 10.- Prolatiboa (NORTZAT)
- 11.- Inesiboa (NON) / NOGAN
- 12.- Genitibo leku-denborazkoa (NONGO)
- 13.- Ablatiboa (NONDIK) / NOGANDIK
- 14.- Alatiboa (NORA) / NOGANA
- 15.- Alatibo tendentziala (NORANTZ) / NOGANANTZ
- 16.- Alatibo terminala (NORAINO) / NOGANAINO
- 17.- Alatibo destinatiboa (NORAKO)

11. kasutik 16.era bitartekoak paradigma berean agertzekotan -GAN-dunak markarekin egongo dira numeraluta (13',14',15'...).

3.3.1.- GALDERA HITZAK

3.3.1.1.- NOR / NORTZU(K)

	Sg.	Pl.
1.-	NOR	NORTZUK
2.-	----- ¹¹	-----
3.-	NOK	NORTZUK
4.-	NORI	NORTZURI
5.-	NON/NOIN ¹²	NORTZUN
6.-	* ¹³	*
7.-	NOGAS	NORTZUKES
8.-	NOGAI(TTI)(K) ¹⁴	NORTZUKAI(TTI)(K)
9.-	NONTZAKO ¹⁵	NORTZUNTZAKO
10.-	* ¹⁶	*
11.-	* ¹⁷	*
12.-	-----	-----
13.-	NOGANIK ¹⁸	NORTZUKANIK
14.-	NOGANAI ¹⁹	NORTZUKANA
15.-	NOGANANTZA ²⁰	NORTZUKANANTZA
16.-	NOGANAGIÑO(KO) ²¹	NORTZUKANAGIÑO(KO)
17.-	-----	-----

¹¹Kasu bat erabiltzen ez bada marra agertuko dira: -----. Bere ordez beste bat erabiltzen bada asteriskoa: *

¹²NON i A eranstea = NONA. NOIN ekin = NOINA: "Nona/Noina da ori?"

¹³NORTAZ zentzuarekin beste kasu batzu erabiltzen dira: NOGAI(TTI)(K) eta NON GANIEN batez ere

¹⁴-K dun forma eta -K gabea, biak dira normalak. Ablatibo kasuarekin berdin berdin gertatzen da. Badaude hiztun batzu kontu hau oso definituta ez daukatena, batzutan entzuten zaie bukaerako -K eta beste batzutan ez, adibidez Kalixta Madariaga eta Mari Lejarzegi. Beste batzuk beti -K gabekoa egiten dute, adibidez Karmen Mojak, eta beste batzuk beti -K duna, adibidez Jose Mojak. Horregatik, nagusitasuna lar definituta ez dagoenez Moibatibo eta Ablatibo kasuei dagozkien formetan -K beti parentesi artean agertuko da.

¹⁵NONTZAT / NORTZUNTZAT ere forma ezagunak dira.

¹⁶Kasu hau izendatzeko, nahiz eta NORTZAT entzunda eduki, erabiltzen dituztenak beste batzu dira: NONTZAT, NONTZAKO, NOGAI(TTI)(K) gehienbat: "NONTZAKO artu dosu ori?", adibidez.

¹⁷NOGAN ez da erabiltzen. Bere ordez NOGAZ eta NOGAI(TTI)(K), gehienbat. Adib.: "Nogas sinestuten dosu suk?"

¹⁸NOGANDI (K) / NORTZUKANDI(K) ere forma ezagunak dira.

¹⁹NOREGANA/NORAGANA ere bai.

²⁰NOGANANTZA eta NOGANAGIÑO(KO) ez dira gehiegi erabiltzen.

²¹Batzuk "-GIÑO(KO)" erabiltzen dute, -KO klitxetu eta guzti: Karmen Mojak, Kalixta Madariagak, Jose Mojak...eta beste batzuk -GIÑO bakarrik: Mari Lejarzegi, Pedro Aurrenetxe... Horregatik Alatibo terminal kasuari gagozkiorarik (NORAINO/NOGANAINO) -KO parentesi artean agertuko da

33.12.- ZEIN / ZEINTZU(K)²²

Sg	Pl.
1.- SEIN ²³	SEINTZUK
2.- -----	-----
3.- SEIÑEK	SEINTZUK
4.- SEIÑERI	SEINTZURI
5.- SEIÑEN	SEINTZUN
6.- * ²⁴	*
7.- SEIÑEGAS	SEINTZUKES
8.- SEIÑEGAITTI(K) ²⁵	SEINTZUKAITTI(K)
9.- SEIÑENTZAKO	SEINTZUNTZAKO
10.- *	*
11.- SEIÑIEN/SEIÑETAN ²⁶	SEINTZUTAN
12.- SEIÑEKO/SEIÑETAKO	SEINTZUTAKO
13.- SEIÑETI(K)/SEIÑETATI(K)	SEINTZUTATI(K)
14.- SEIÑERA/SEIÑETARA	SEINTZUTARA
15.- SEIÑERANTZA/SEIÑETARANTZA	SEINTZUTARANTZA
16.- SEIÑEGIÑO(KO) ²⁷ /SEIÑETAGIÑO(KO)	SEINTZUTAGIÑO(KO)
17.- SEIÑERAKO/SEIÑETARAKO	SEINTZUTARAKO
11'.- *	*
12'.- -----	-----
13'.- SEIÑEGANIK	SEINTZUKANIK
14'.- SEIÑEGANA	SEINTZUKANA
15'.- SEIÑEGANANTZA	SEINTZUKANANTZA
16'.- SEIÑEGANAGIÑO(KO)	SEINTZUKANAGIÑO(KO)

²²SAN / SAINTZUK. Al-dunak entzutea ere normala da. Ikus DIPTONGAZIOA, Fonetikan.

²³NOR zentzuan ere asko erabiltzen da kasu hau.

²⁴Ikus "Deklinabide kasu batzuren galera prozesua".

²⁵Ikus "Erabilera bikoitzak".

²⁶Hemendik aurrerako kasuotan erabilera bikoitza dago.

²⁷RA- eta guzti ere bai:SEIÑERAGIÑOKO...

33.1.3.- NON

- 11.- NON
- 12.- NONGO
- 13.- NONDI(K)
- 14.- NORA
- 15.- NORANTZA
- 16.- NOGIÑO(KO)/NORAGIÑO(KO)
- 17.- NORAKO

33.1.4.- NOIZ

- 11.- NOS
- 12.- NOSKO
- 13.- NOSIKOTONA/NOSIKETONA
- 16.- NOS ARTE/ARTIÑO

33.1.5.- ZELAN

- SELAN
- SELANGO

33.1.6.- ZENBAT

- SENBET / SEINBET

33.1.7.- ZER

- 1.- SER
- 2.- -----
- 3.- SEK
- 4.- SERI
- 5.- SEN
- 6.- *28
- 7.- SEGAS
- 8.- SEGAITTI(K)
- 9.- -----
- 10.- *29
- 11.- SETAN
- 12.- -----
- 13.- SETATI(K)
- 14.- SETARA
- 15.- SETARANTZA
- 16.- SETAGIÑO(KO)
- 17.- SETAKO

²⁸SEGAITTI(K), SEGAS, SENA dira ordezeko forma erabilienak.

²⁹SENTZAT, SENTZAKO, SEGAITTI(K) dira ordezeko forma erabilienak.

332.- HITZ ARRUNTEN DEKLINAZIOA

Atal honen barruan bokalez eta kontsonantez amaitutako hitzen deklinazioa aztertuko da, lehenik mugagabeen, gero singularrean, gero pluralean eta amaitzeko plural hurbilean.

Paradigma hauek garatzen hasi aurretik ohar garrantzitsu bat egin behar da mugagabeko marken erabilerari buruz. Izan ere, berauekin sekulako nahastea dago. Leku-Denborazko kasuekin (NON, NONDIK...) nahaste hau guztiz argia da, mugagabeko zein mugatuko markak berdin berdin erabiltzen direlarik:

"Se ausoTI(K) sator?" / "Se ausoTATI(K) sator?"

"Se trenERA soas?" / "Se trenETARA soas?"

Honelako dobleteak guztiz normalak dira eta hitzun berak bata nahiz bestea esan dezake edozein momentutan.

Beste deklinabide kasuekin ere badago nahastea, nahiz eta pixka bat txikiagoa izan. Beste kasuetan normalena benetako mugagabe markak erabiltzea da:

"Bost semeRI gustetan yako ardoa"

"Bost trenEGAS naikora"

"Senbet semeNTZAKO?"

Baina bestelakoak ere entzun daitezke, batez ere kontsonantezko amaierak ditugunean:

"Senbet gixonAGAS?"

"Sein gixonAK edaten dau?"

Horregatik, paradigmetan batzutan marka bikoitzak agertuko dira, nahastea guztiz nabaria denean.

3.3.2.1.- MUGAGABEA

BOK.(Mutiko/Auzo)	KONTS.(Gixon/Tren)
1.- mutiko- Ø	gixon- Ø
2.- " -RIK	" -IK
3.- -K	-EK/ -AK
4.- -RI	-ERI/ -ARI
5.- -N	-EN/ -AN
6.- -S / * ³⁰	-ES / *
7.- -GAS	-EGAS/ -AGAS
8.- -GAITTI(K) ³¹	-EGAITTI(K)/ -AGAITTI(K)
9.- -NTZAKO	-ENTZAKO/ -ANTZAKO
10.- -TZAT/ * ³²	-TZAT/ *
11.- auso -TAN/ -AN	tren -ETAN/ -IEN
12.- " -TAKO/ -KO	" -ETAKO/ -EKO
13.- -TATI(K)/ -TI(K)	-ETATI(K)/ -ETI(K)
14.- -TARA/ -RA	-ETARA/ -ERA
15.- -TARANTZA/ -RANTZA	-ETARANTZA/ -ERANTZA
16.- -TAGIÑO(KO)/ GIÑO(KO)	-ETAGIÑO(KO)/ -EGIÑO(KO)
17.- -TARAKO/ -RAKO	-ETARAKO/ -ERAKO
11'.- mutiko- *	gixon- *
12'.- -----	-----
13'.- " -GANIK	" -EGANIK/ -AGANIK
14'.- -GANA	-EGANA/ -AGANA
15'.- -GANANTZA	-EGANANTZA/ -AGANANTZA
16'.- -GANAGIÑO(KO)	-E/ -A GANAGIÑO(KO)

³⁰Ordezko kasuak erabiltzen dira (GAITTI(K), -N GANIEN...) zentzua NORTAZ denean: "Mutikoagaitti(k) berba ein". Kasua ZEREZ denean nahiko normala da -Z atzikia: "Oñes, euskera, karriños...."

³¹Ikus "Erabilera bikoitzak"

³²Ikus "Deklinabide kasu batzuten galera prozesua".

3.3.2.2.- SINGULARRA

BOK.	KONTS.
1.-mutiko-A	gixon-A
2.- -----	-----
3.- " -AK	" -AK
4.- -ARI	-ARI
5.- -AN	-AN
6.- - *	- *
7.- -AGAS	-AGAS
8.- -AGAITTI(K)	-AGAITTI(K)
9.- -ANTZAKO	-ANTZAKO
10.- -----	-----
11.- auso-AN	lren-IEN
12.- " -KO	" -EKO
13.- -TI(K)	-ETI(K)
14.- -RA	-ERA
15.- -RANTZA	-ERANTZA
16.- -GIÑO(KO)	-EGIÑO(KO)
17.- -RAKO	-ERAKO
11'.-mutiko- *	gixon- *
12'.- -----	-----
13'.- " -AGANIK	" -AGANIK
14'.- -AGANA	-AGANA
15'.- -AGANANTZA	-AGANANTZA
16'.- -AGANAGIÑO(KO)	-AGANAGIÑO(KO)

3.3.2.3.- PLURALA

BOK.	KONTS.
1.- muliko-AK	gixon-AK
2.- -----	-----
3.- " -AK	" -AK
4.- -ARI/-AIRI ³³	-ARI/-AIRI
5.- -AN	-AN ³⁴
6.- - *	- *
7.- -AKAS	-AKAS
8.- -AKAITTI(K)	-AKAITTI(K)
9.- -ANTZAKO	-ANTZAKO ³⁵
10.- -----	-----
11.- auso-ETAN ³⁶	lren-ETAN
12.- " -ETAKO ³⁷	" -ETAKO
13.- -ETATI(K)	-ETATI(K)
14.- -ETARA	-ETARA
15.- -ETARANTZA	-ETARANTZA
16.- -ETAGIÑO(KO)	-ETAGIÑO(KO)
17.- -ETARAKO	-ETARAKO
11'-mutiko- *	gixon- *
12'- -----	-----
13'- " -AKANIK	" -AKANIK
14'- -AKANA	-AKANA
15'- -AKANANTZA	-AKANANTZA
16'- -AKANAGIÑO(KO)	-AKANAGIÑO(KO)

³³Plural marketan batzutan -ARI barik -AIRI / -EIRI entzuten da: "NebAIRI erresetan", "UmEIRI euskeras cin", "LagunEIRI"... Honelakoak Karmen Mojari, Kalixta Madariagari eta Mari Izagirri gutxienez entzun dizkiet, beraz bitxikeria bat baino zerbait gehiago dira. Dena den -ARI marka gehiago erabiltzen da.

³⁴-EN ere jasota daukat kasuren batean, baina ez da normala.

³⁵-ENTZAKO ere jasota daukat kasuren batean, baina ez da normala.

³⁶Leku-Denborazko kasuetan hitza A-z bukatzen denean gehienetan -ATAN, -ATAT(K), -ATARA eta horrela egiten da, -A mantenduz: "FiestATAN", "EskolATAN", "DendATATI(K)", "PlasATARA"..... Baina ez da beti honela gertatzen. Badaude -A bukaerako berba batzu -E- hartzen dutenak "DomekETAN", "KanterETAT(K)".....

³⁷Batzutan -O bukaerako hitzei Leku-Denborazko kasuon markak eranstean ia ez da -E- entzuten, batez ere arin hitzegiten denean: "Auso(ETati(k))", "Baso(ETara)"...

3.3.2.4.- PLURAL HURBILA³⁸

BOK.	KONTS.
1.- mutiko-OK	gixon-OK
2.- -----	-----
3.- " -OK	" -OK
4.- -ORI	-ORI
5.- -ON	-ON
6.- - *	- *
7.- -OKAS ³⁹	-OKAS
8.- -OKAITTI(K)	-OKAITTI(K)
9.- -ONTZAKO	-ONTZAKO
10.- -----	-----
11.- auso-OTAN	tren-OTAN
12.- " -OTAKO	" -OTAKO
13.- -OTATI(K)	-OTATI(K)
14.- -OTARA	-OTARA
15.- -OTARANTZA	-OTARANTZA
16.- -OTAGIÑO(KO)	-OTAGIÑO(KO)
17.- -OTARAKO	-OTARAKO
11'.- mutiko- *	gixon- *
12'.- -----	-----
13'.- " -OKANIK	-OKANIK
14'.- -OKANA	-OKANA
15'.- -OKANANTZA	-OKANANTZA
16.- -OKANAGIÑO(KO)	-OKANAGIÑO(KO)

³⁸Plural hurbila ez da lar erabilia. Basauri aldean bere ordez sarritan erabiltzen den forma bat "EMEKO + hitza plural normalean" da. Adibidez "Etzietan" barik "EMEKO ETZIETAN". Beste egitura tipiko bat "Erakuste plurala + hitza plural normalean" da. Adibidez "Besookas" barik "ONEIK BESOAKAS".

³⁹Plural hurbil hau asko erabiltzen da NOIZ zentzua adierazteko ere. -OTAN markaren ordez: "Oingo egunOKAS orti ibil de" (K.Mj.)

3.3.3. PERTSONA IZENAK

Bok. (Pedrito)	Konts. (Karmen)
1.- Pedrito- Ø	Karmen- Ø
2.- " -RIK	" -IK
3.- -K	-EK
4.- -RI	-ERI
5.- -N	-EN
6.- - * ⁴⁰	- *
7.- -GAS	-EGAS
8.- -GAITTI(K) ⁴¹	-EGAITTI(K)
9.- -NTZAKO	-ENTZAKO
10.- -TZAT/ * ⁴²	-TZAT/ *
11.- - *	- *
12.- -----	-----
13.- -GANIK	-EGANIK
14.- -GANA	-EGANA
15.- -GANANTZA ⁴³	-EGANANTZA
16.- -GANAGINOKO	-EGANAGINOKO

⁴⁰Ikus "Deklinabide kasu batzuren galera prozesua".

⁴¹Ikus "Erabilera bikoitzak".

⁴²Ordezko formak ere normalak dira, batez ere bokalez amaitutako pertsona izenekin. "PedritoNTZAT" eta "PedritoNTZAKO" normalagoak lirateke "PedritoTZAT" baino.

⁴³NOGANANTZA eta NOGANAGINOKO gutxiago erabiltzen dira.

3.3.4.- LEKU IZENAK

Bok.(Galdako)	Konts.(Samiel) ⁴⁴
1.- Galdako- Ø	Samiel- Ø
2.- " -RIK	" -IK
3.- -K	-EK
4.- -RI	-ERI
5.- -N	-EN
6.- - * ⁴⁵	- *
7.- -GAS	-EGAS
8.- -GAITTI(K) ⁴⁶	-EGAITTI(K)
9.- -NTZAKO	-ENTZAKO
10.- - *	- *
11.- -N	-EN
12.- -KO	-GO/ -EKO ⁴⁷
13.- -TI(K)	-DI(K)/ -ETI(K) ⁴⁸
14.- -RA	-ERA
15.- -RANTZA	-ERANTZA
16.- -GIÑO(KO)	-EGIÑO(KO)
17.- -RAKO	-ERAKO

⁴⁴San Migel horrela ahozkatzen da.

⁴⁵Ikus "Deklinabide kasu batzuren galera prozesua".

⁴⁶Ikus "Erabilera bikoitzak".

⁴⁷Bietara esaten da: SAMIELGO / SAMIELEKO. Agian lehen normalagoa.

-S bukaerako leku izenekin ere GO marka ager daiteke: "Arixgoa"

⁴⁸Aurreko kasuan bezala: SAMIELDI / SAMIELET(K). Agian bigarren normalagoa.

-S bukaerakoekin TI(K) marka ere jasota daukat: "Arixti(k)", "Burgosti(k)".

3.3.5.- ERAKUSLEAK

3.3.5.1.- SINGULARRA

1. gradua	2. gradua	3. gradua ⁴⁹
1.- Au	Ori	A
2.- -----	-----	-----
3.- Onek	Orrek	Ak/Arek ⁵⁰
4.- Oneri	Orreri	Aleri/Ari
5.- Onen	Orreri	Aren
6.- *	*	*
7.- Onegas	Orregas	Aregas/Agas
8.- Onegaitti(k)	Orregaitti(k)	Aregaitti(k)/Agaitti(k)
9.- Onentzako	Orrentzako	Arentzako
10.- -----	-----	-----
11.- Onetan ⁵¹	Orretan	Aretan ⁵²
12.- Onetako	Orretak	Aretako
13.- Onetati(k)	Orretati(k)	Aretati(k)
14.- Onetara	Orretara	Aretara
15.- Onetarantza	Orretarantza	Aretarantza
16.- Onetagiño(ko)	Orretagiño(ko)	Aretagiño(ko)
17.- Onetarako	Orretarako	Aretarako
11'.- *	*	*
13'.- Oneganik	Orreganik	Areganik/Aganik
14'.- Onegana	Orregana	Aregana/Agana
15'.- Oneganantza	Orreganantza	Areganantza/Aganantza
16'.- Oneganagiño(ko)	Orreganagiño(ko)	Areganagiño(ko)/Aganagiño(ko)

⁴⁹3. graduko forma gehienetan erabilera oikoitza dago. Horrelakoetan modu biak agertuko dira, lehenik aipatzen dena normalena delarik.

⁵⁰ARREK ere jasota daukat, baina ez da normala.

⁵¹Leku-Denborazko kasuetan Erakusleak baino askoz gehiago beste ekturktura bat erabiltzen da: Eneko / Orko / Ango + Hitza kasuan kasuko deklinabide markarekin. Adibidez: "Etze onetan", "Etze orretan", "Etze aretan" baino askoz normalagoak dira Basaurin "EMEKO/ORKO/ANGO etzien". Pluralean berdin gertatzen da.

⁵²Leku-Denborazko kasuetan -RE- gabeko formak ere jasota daukat ("Atan", "Atati(k)...") baina askoz gutxiago erabiltzen dira.

3.3.5.2.- PLURALA

	1. gradua	2. gradua	3. gradua
1.-	Oneik	Orreik	Aik / Areik ⁵³
2.-	-----	-----	-----
3.-	Oneik	Orreik	Aik / Areik
4.-	Oneiri	Orreiri	Airi / Areiri
5.-	Onein	Orrein	Ain / Arein
6.-	*s!	*	*
7.-	Oneikas	Orreikas	Aikas / Areikas
8.-	Oneikaitti(k) ⁵⁵	Orreikaitti(k)	Aikaitti(k) / Areikaitti(k)
9.-	Oneintzako	Orreintzako	Aintzako / Areintzako
10.-	*	*	*
11.-	Oneitan ⁵⁶	Orreitan	Aitan
12.-	Oneitako	Orreitako ⁵⁷	Aitako
13.-	Oneitati(k)	Orreitati(k)	Aitati(k)
14.-	Oneitara	Orreitara	Aitara
15.-	Oneitarantza	Orreitarantza	Aitarantza
16.-	Oneitagiño(ko)	Orreitagiño(ko)	Aitagiño(ko)
17.-	Oneitarako	Orreitarako	Aitarako
11'-	*	*	*
12'-	-----	-----	-----
13'-	Oneikanik	Orreikanik	Aikanik / Areikanik
14'-	Oneikana	Orreikana	Aikana / Areikana
15'-	Oneikanantza	Orreikanantza	Aikanantza / Areikanantza
16'-	Oneikanagiño(ko)	Orreikanagiño(ko)	A(re)ikanagiño(ko) ⁵⁸

⁵³AEK eta ARREIK ere jasota dauzkat, NOR eta NORK kasuetan, baina arraragoak dira.

⁵⁴Ikus "Deklinabide kasu batzuren galera prozesua".

⁵⁵Ikus "Erabilera bikoitzak".

⁵⁶IT hauek ez dira bustitzen.

⁵⁷OTAKO entzun nion behin Pedro Aurtenetxeri.

⁵⁸AIKANAGIÑO(KO) / AREIKANAGIÑO(KO).

33.53.- BIRRITAKO ERAKUSLEAK

Juan Manuel Etxebarriak oso normaltzat jotzen ditu Zeberio aldeko euskaraz eta paradigma osoak paratzen ditu bere herri honetako Euskarari buruzko tesi-liburuan.⁵⁹

Basauri aldean, berriz, askoz gutxiago erabiltzen dira honelakoak. Gure herriko hizkeran Erakuslea aurretik eta atzetik ipintzea ez da oso gauza normala, singularreko lehenengo kasuetan izan ezik:

"Au etziau"

"Orregas gixonorregas"

"Onek etzisionek"

Horrelakoak nahiko normalak dira, baina hortik aurrerakoak ez. Ohizkoena, erakusle normalen zein birritakoen kasuan ordezeko formak erabiltzea da:

"Onetati(k) etze onetati(k)"-en ordezk: "Emeko etzeti(k)"

"Orretara etze orrelara"-ren ordezk: "Orko etzera"

Pluralean Erakuslea aurretik bai, baina hitzari atzetik lotuta plural normala edo hurbila ipintzen da, ez bigarren erakuslea:

"Oneitan etziotan"

"Oneitako errietakoak"

Dena den, normalena lehen aipatutako ordezeko formak erabiltzea da.

⁵⁹Ikus BIBLIOGRAFIA

3.3.6.- IZENORDEAK

3.3.6.1.- NI ETA BERE INTENTSIBOA⁶⁰

	Normala	Intentsiboa
1.-	NI	NAU ⁶¹
2.-	---	-----
3.-	NIK	NAUK
4.-	NIRI	NAURI
5.-	NIRE	NAURE
6.-	+ ⁶²	*
7.-	NIGES	NAUGES
8.-	NIGAITTI(K) ⁶³	NAUGAITTI(K)
9.-	NITZAKO ⁶⁴	NAUTZAKO ⁶⁵
10.-	*	*
11.-	*	*
12.-	-----	-----
13.-	NIGANIK	NAUGANIK
14.-	NIGANA	NAUGANA
15.-	NIGANANTZA	NAUGANANTZA
16.-	NIGANAGIÑO(KO)	NAUGANAGIÑO(KO)

⁶⁰"Bigarren intentsibo" deienezakeena ere badago. Normala nominatiboan kasuan kasuko intentsiboari erantsiz egiten da: "Ninau", "Ninautzat", "Ninauri"... Hautariko batzu nahiko erabiliak dira, batez ere lehenengo pertsonan mintzatzean.

⁶¹Izenorde intentsibo guztiekin dago AU / EU alternantzia. Ohizkoena AU-dunak entzutea da, baina -EU-dunak ere normalak dira, testu inguruaren arabera alda daitezkeelarik. Ikus DIPTONGAZIOA Fonetikaren barruan.

⁶²Ikus "Deklinabide kasu batzuren galera prozesua"

⁶³Ikus "Erabilera bikoitzak".

⁶⁴NIRETZAKO, NIREGANA eta horrelakoak, -RE-dunak, ezagunak dira, baina gutxiago erabiliak.

⁶⁵NAUTZAT ere esaten da.

33.6.2- HI ETA BERE INTENTSIBOA

	Norm.	Int.
1.-	I	AU ⁶⁶
2.-	----	-----
3.-	IK	AUK
4.-	IRI	AURI
5.-	IRE	AURE
6.-	*	*
7.-	IGES	AUGES
8.-	IGAITTI(K)	AUGAITTI(K)
9.-	ITZAKO ⁶⁷	AUTZAKO
10.-	*	*
11.-	*	*
12.-	-----	-----
13.-	IGANIK	AUGANIK
14.-	IGANA	AUGANA
15.-	IGANANTZA	AUGANANTZA
16.-	IGANAGIÑO(KO)	AUGANAGIÑO(KO)

⁶⁶Kasu honetan AU-ren nagusitasuna askoz nabariagoa da, honelakoetan diptongoa hitzaren hasiera absolutoan dago eta.(Ikus DIPTONGAZKOA, Fonetikaren barruan) Dena den, gaur egun Basaurin honelakoak entzutea pribilejio handia da, ia inork ez bait du hizak egiten jadanik.

⁶⁷IRETZAKO, IREGANA... ere bai

33.63.- GU ETA BERE INTENTSIBOA

	Norm.	Int.
1.-	GU	GAU ⁶⁸
2.-	----	-----
3.-	GUK	GAUK
4.-	GURI	GAURI
5.-	GURE	GAURE
6.-	+	+
7.-	GUGES	GAUGES
8.-	GUGAITTI(K)	GAUGAITTI(K)
9.-	GUTZAKO ⁶⁹	GAUTZAKO
10.-	+	+
11.-	+	+
12.-	-----	-----
13.-	GUGANIK	GAUGANIK
14.-	GUGANA	GAUGANA
15.-	GUGANANTZA	GAUGANANTZA
16.-	GUGANAGIÑO(KO)	GAUGANAGIÑO(KO)

⁶⁸GUOK ere jasota daukat.

⁶⁹GURETZAKO, GUREGANA... -RE-dunak ere entzun daitezke.

33.64.- ZU ETA BERE INTENTSIBOA

Norm.	Int.
1.- SU	SAU
2.- ---	-----
3.- SUK	SAUK
4.- SURI	SAURI
5.- SURE	SAURE
6.- *	*
7.- SUGES	SAUGES
8.- SUGAITTI(K)	SAUGAITTI(K)
9.- SUTZAKO ⁷⁰	SAUTZAKO
10.- +	+
11.- +	+
12.- -----	-----
13.- SUGANIK	SAUGANIK
14.- SUGANA	SAUGANA
15.- SUGANANTZA	SAUGANANTZA
16.- SUGANAGINO(KO)	SAUGANAGINO(KO)

⁷⁰SURETZAKO, SUREGANA eta horrelakoak ere nahiko normalak dira.

33.65.- ZUEK ETA BERE INTENTSIBOA⁷¹

Norm.	Int.
1.- Surok/Suik	Saurok/Sueik
2.- -----	-----
3.- Surok/Suik	Saurok/Sueik
4.- Surori/Suiri	Saurori/Sueiri ⁷²
5.- Suron/Suin	Sauron/Suein
6.- *	*
7.- Surokas/Suikas	Saurokas/Sueikas
8.- Surokaitti(k)/Suikaitti(k)	Saurokaitti(k)/Sueikaitti(k)
9.- Surontzako/Suintzako	Saurontzako/Sueintzako
10.- *	*
11.- *	*
12.- -----	-----
13.- Surokanik/Suikanik ⁷³	Saurokanik/Sueikanik
14.- Surokana/Suikana	Saurokana/Sueikana
15.- Surokanantza/Suikanantza	Saurokanantza/Sueikanantza
16.- Surokanagiño(ko)/Suikanagiño(ko)	Saurokanagiño(ko)/Sueikanagiño(ko)

⁷¹ZUEK adierazteko Basauri aldean bi modu daude: SUIK eta SUROK, eta biak dira oso erabiliak. Ia ia esan daitezke jende erdiak bata eta beste erdiak bestea erabiltzen duela.

⁷²Gabino Gorostiagaren ahotik "Eskerrikasko SAIRI" ere jasota daukat.

⁷³SUINGANIK, SUINGANA eta horrelakoak ere badira.

33.66.- HIRUGARREN PERTSONETAKO INTENTSIBOAK

BERA	AUREK ⁷⁴ (EURAK)
1.- BERA	AUREK ⁷⁵
2.- -----	-----
3.- BERAK	AUREK
4.- BERARI	AURERI
5.- BERE / BEREN	AUREN
6.- *	*
7.- BERAGAS	AUREKAS
8.- BERAGAITTI(K)	AUREKAITTI(K)
9.- BERETZAKO/BERENTZAKO/BERANTZAKO	AURENTZAKO ⁷⁶
10.- *	*
11.- *	*
12.- -----	-----
13.-BEREGANIK/BERAGANIK	AUREKANIK ⁷⁷
14.-BEREGANA/BERAGANA	AUREKANA
15.-BEREGANANTZA/BERAGANANTZA	AUREKANANTZA
16.-BEREGANAGIÑO(KO)/BERAGANAGIÑO(KO)	AUREKANAGIÑO(KO)

⁷⁴AUOK, plural hurbilaten marka fosilizatuarekin deklinatzea ere oso normala da: AUOK, AURORI, AURONTZAKO.... Honelaxe egiten du beti, Karmen Mojak, adibidez.

Bestalde, AURIEK forma ere deklinatzen entzunda daukat: AURI(E)K, AURIEN, AURIENTZAKO.... Honelakoak esaten ditu Kalixta Madariagak, adibidez.

⁷⁵BEREIK ere jasota daukat.

⁷⁶AURENTZAT ere bai.

⁷⁷AUREKANDĠ(K) ere forma ezaguna da lekuko batzuentzat.

3.3.7.- BAT / BATZUK DEKLINAZIOAN

BAT	BATZUK
1.- BAT	BATZUK
2.- -----	-----
3.- BATEK	BATZUK
4.- BATERI	BATZURI
5.- BATEN	BATZUN
6.- * ⁷⁸	*
7.- BATEGAS	BATZUKES ⁷⁹
8.- BATEGAITTI(K) ⁸⁰	BATZUKAITTI(K)
9.- BATENTZAKO	BATZUNTZAKO
10.- -----	-----
11.- BATEN	BATZUTAN
12.- BATEKO	BATZUTAKO
13.- BATETI(K)	BATZUTATI(K)
14.- BATERA	BATZUTARA
15.- BATERANTZA	BATZUTARANTZA
16.- BATEGIÑO(KO)	BATZUTAGIÑO(KO)
17.- BATERAKO	BATZUTARAKO
11'- *	*
12'- -----	-----
13'- BATEGANIK	BATZUKANIK
14'- BATEGANA	BATZUKANA
15'- BATEGANANTZA	BATZUKANANTZA
16'- BATEGANAGIÑO(KO)	BATZUKANAGIÑO(KO)

⁷⁸kus "Deklinabide kasu batzuren galera prozesua".

⁷⁹Armonizazio bokalikoari begira kasu honetan bakarrik gertatzen da ohizko itxidura fenomeno: U + Konts. + A = U-konts.-E Gainera BATZUKAS ere entzun daiteke.

⁸⁰kus "Erabilera bikoitzak".

3.3.8.- ZENBAIT ERABILERA BEREZI

3.3.8.1.- INESIBO ZAHARRA

Badaude baten batzu fosilizatuta:

"BiarrEN ibilli" = Beharrean, lanean ibili.

"ItillaurrEN ibilli" = Idi aurrean ibili. Beste leku batzutan "Itaurren"

"IkessginEN" = Ikatza egiten ibili.

"UmeginEN"

"BatEN" = NOIZ adierazteko.

3.3.8.2.- ABLATIBO ZAHARRA

Oso ugariak eta erabiliak dira honelakoak:

"AtxiñeRIK estol ukusi Bixenta"(K.Mj.)

"Lengo asteRIK oingo aстера"(K.Mj.)

"EgunIK egunera"(K.Mj.)

"Beste probintziETARIK"(G.G.)

"AldeRIK eta alde"(M.I.)

"ErriRIK erri"(M.I.)

"BasoRI(K)p(b)aso orti"(K.Mj.)

"OrduRIK eta geiyau..."(K.Mj.)

"YaiyoRIKotona emen bixi nes"(K.Mj.)

"AtzoRIKetona"(M.I.)

"NosI(K)p(b)ein nerbiyoso paretan gara"(K.Mj.)

Deklinabideko NOGANIK eta NOSIKETONA / NOSIKOTONA ere hor daude.

3.3.8.3.- HEMEN-HOR-HAN

11.-	EMEN	OR	AN ⁸¹
12.-	EMEKO ⁸²	ORKO	ANGO/ANGOKO
13.-	EMETI(K)	ORTI(K)	ANDI(K)
14.-	ONA	ORRA	ARA
15.-	ONANTZA	ORRANTZA	ARANTZA
16.-	ONAGIÑO(KO)	ORRAGIÑO(KO)	ARAGIÑO(KO)

3384.- HONELA-HORRELA-HALA

1. gradua 2. gradua 3. gradua

ONAN	OLAN	ALAN ⁸³
ONANGO	OLANGO	ALANGO

3385- EDOZER / ZER EDO ZER / EZER / ZERBAIT..

	Edo- / -gura	-(ed)o ⁸⁴	E- / I ⁸⁵	-bait ⁸⁶
ZER	Edoser / Sergure	Segoser / Seoser	Eser	(Serbait)
ZEIN ⁸⁷	Edosein / Seingure	(Seiñedosein)	-----	-----
NOR	Edonor	(Noredonor)	Iñor	(Norbait)
NON	Edonon / Nongure	(Nonon / Nonedonon)	Iñon	(Nonbait)
NOIZ	Edonos / Nosgure	Nosedonos / Nonos	Iños ⁸⁸	(Nosbait)
ZELAN	Edoselan / Selangure	Seoselan	Eselan	(Selanbait)

⁸¹Intentsiboa AINTXE, -I-duna da.

⁸²EMENGO noiz edo noiz entzun daiteke, baina ez da batere normala.

⁸³Berauen forma intentsiboetan -I- agertzen da: ONAINTXE OLAINTE, ALAINTXE

⁸⁴Hautariko batzu, ZEIN, NOR eta NON kasuei dagozkienak oso gutxi erabiltzen dira.

⁸⁵Baiezko, ezezko nahi galderazko esaldietan erabil daitezke honelakoak, kontestuaren arabera.

⁸⁶Hautarikoak oso gutxitan erabiltzen dituzte basauritarrek, baina ezagunak badira. BAIST-dunak ere bai.

⁸⁷NOR zentzuan ere asko erabiltzen da hau.

⁸⁸Honen zentzuarekin EGUNDO eta SEKULA ere oso erabiliak dira.

Parentesi artean daudenak ez dira ia erabiltzen. Ordezko forma ugari daude hauen zentzuak ordezkatzeko eta eurok dira normalean entzuten direnak:

BATEN BAT baiezko, galderazko eta baldintzazko esaldietan erabiltzen da "Noredonor", "Norbait" edota "Inor" ordezkatuz.

ARAN BATEN⁸⁹-ek aurreko kasuaren funtzio berbera bete dezake, "Nonbait", "Nonon", "Nonedonon" eta "Inon" ordezkatuz.

SELAN EDO ALAN-ekin ere horrelako zerbait gertatzen da.

3386.- ASKO / GITXI

Normalean mugagabe markak hartzen dituzte:

"GitxiK gure daude"

"Bai askoRI batu otziet esnie"

Kasu berezi batzutan, denbora epe bati erreferentzia egitean eta, singular markekin ere entzun daitezke:

"Urte askoAN"

"Ain denpora gilxiyEN"

Aditza singularrean eramaten dute sarr⁹⁰:

"Asko DAO kolokaute"

"Alaba askori gustetan YAKO"

"Gitxi allegetan DA"

"Mutil gitxiri gustetan YAKO"

⁸⁹Mari Lejarzegik AREN BATEN esaten du.

⁹⁰Zenbakiekin ere entzun daitezke singularrezko aditzak Basauri aldean: "Hiru mutilleri gustetan YAKO".

3.3.8.7.- NAHIKOA

NAIKORA da Basauri aldean erabiltzen den hitza eta honela deklinatzen da:

- Bera bakarrik doanean:

"NAIKORA yan dot"

"NAIKORA ain ddu"

- Adjetiboarekin batera:

"NAIKORA lodiye da"

"NAIKORA politte da"

- Izenari lotuta datorrenean gertatzen da gauza bereziena, partiliboa agertzen baita izenari erantsita:

"NAIKORA patxaranIK edan dot"

"NAIKORA lagunIK dekot" (laguni(k)(d)ekot)

"NAIKORA libertadeRIK"

- Bestelakoak, NAIKO(A), NEIKO(A)... ere entzun daitezke noizean behin, beste leku batzutako hizkeren eraginaren ondorioz, baina hauxe da erabilera jatorrena.

- BASTANTE ere oso erabilia da, NAIKORA-ren modu berberean aipatutako hiru kontestuetan.

33.88.- DENA / GUZTIA

Berauen artean dagoen nahastea kontutan hartuta ia edozelango egiturak entzun daitezke, baina zaharren artean normalenak direnen berri ematen saiatuko naiz hemen:

- Singularrean bera bakarrik dugunean: "DANA"

- Pluralean bera bakarrik: "DANAK"

- Singularrean + Izena, bi eratara:

Izena mugagabea + GUSTIYE: "Bedar GUSTIYE", "Bide GUSTIYE".

Izena singularrean + DANA: "BedarrA DANA", "Bidie DANA dao loi".

- Pluralean + Izena, bi eratara:

Izena mugagabea + GUSTIYEK: "Pastel GUSTIYEK"

Izena pluralean + DANAK: "PastelAK DANAK"

Kontutan hartu behar da, bestalde GUSTI hitza asko erabiltzen dela singularrean deklinatuta baina plural zentzuan:

"Emeti leku gustiRE"

"Al dodan gustiyEN etorten nas"

33.89.- GAU hitzaren deklinazioa

Batzuk GAU deklinatzen dute eta beste batzuk GAUBE. Adibidez Karmen Mojak egiten du lehen erara eta bere auzokidea den Mari Izagirrek bigarrenera. Edozein modutan ere deklinabide markak eranstean -B- agertzen da -U- galdu barik:

- 1. erara:

"Iru GAU pasau dodas emen"
"GAUBE da lusie"
"Emen estao GAURIK"
"GAUBEK bilddurre emoten dau"
"Se GAUK emotectzu sustue?"

.....

-2. erara:

"Bost GAUBE pasau dire"
"GAUBIE da lusie"
"GAUBIEK bilddurre emoten dau"
"GAUBIERI bilddurre"

.....

338.10.- BEHE hitzaren deklinazioa

NOR kasuan BIE da, NON kasuan BIEN eta hortik aurrerakoetan erabilera bikoitza dugu (Beti ere singularrean). Lehenengo joera, -I- gabekoa, Karmen Mojarena dugu, bigarrena beste batzurena:

- 1.- BIE
- 11.- BIEN⁹¹
- 12.- BEKO / BIEKO
- 13.- BETI / BIETI
- 14.- BERA / BIERA
- 15.- BERANTZA / BIERANTZA
- 16.- BE(RA)GIÑO(KO)⁹² / BIE(RA)GIÑO(KO)

⁹¹Batzuk BEIEN esaten dute (Fermin Larrea, Mari Zabala...)

⁹²-RA-dunak eta -RA- gabeak, biak dira normalak.

4.- ADITZA

4.1.- SARRERA

Basauri aldeko aditza sakontasunez aztertzen hasi baino lehen, egia esateko, sistema pobretua eta nahastua aurkitzea espero nuen eta hau neurri batean horrela izan zen. Hainbat bider adizki bereziren bati buruz galdetzean honako erantzun hau entzun behar izan nuen: "Ori entzutie badekot, baie guk estu olan berbaitten".

Hala eta guzti, gure herriko euskararen egoera negargarria kontutan hartuta espero zitekeen baino askoz aberastasun handiagoa azaleratu zen eta alde zaureratik burutik pasatu ere egiten ez zitzaizkidan hainbat forma bitxi agertu ziren, azterketa sakon samar baten ondorioz.

Hau gehienbat hitanoa dela eta diot. Izan ere, nik baneukan entzunda hitano adizki banakaren bat gizonetzko batzuren ahotik, baina beraien gurasoen nongotasuna kontutan hartuta adizkiok Basauritik kanpoko jatorria zutela pentsa zitekeen: Errekaldeko Mariano Uribiartek ederto egiten du hikaz, baina bere ama Larrabetzukoa da eta herri honetan bai dela guztiz normalean aditz sistema hori erabiltzea. Arizeko Gabino Gorostiagak ere niri dena hikaz egiten zidan, baina bere aita Dimakoa zen....

Uribarriko Pedro Aurtenetxek ere badaki hikaz, eta guraso biak basauritarrak ziren, baina bere gortasunak aditz sistema honi buruzko galdekizun sakona egiteak eragozten zidan. Bestalde, gai honi buruz itaundutako lekuko guztiek erantzuten zidaten eurek ez zekitela horrela hitzegiten, hori lehengo kontua zela, bere guraso eta aitue-amandreen sasoikoa.

Egoera ikusita, Basauriko aditzaren paradigmatan Zukako ahalik eta forma gehien eta Hikako banakaren bat bakarrik sartzeko etsila nengoela a ze sorpresa atsegina hartu nuen emakumezko batek, nire lekuko onena zen Karmen Mojak hain zuzen, berak gizonetzkoen hika ezezik emakumezkoena ere bazekiela egiten esan zidanean!

Beraz, Karmeni suertatu ziltzaion nire etengabeko eta amaiera gabeko galdera zerrenda luzeari erantzutea, lehenik zuka, gero gizonezkoen hika, gero emakumezkoena, dena singular eta pluralean.... Egia esan, nik ez dakit zelan jasan ninduen hainbeste egunez gai berdintsuei buruz hain galdera astunak eginez, baina aguantatu zuen, bai, jatoriasun handiz, gainera, eta berari esker daukagu orain basauritarrok eta edonongo dialektologiazaleok bertoko hitanoaren paradigmek osatzen duten altxorra ikusteko eta aztertzeke aukera.

Gure herriko aditz erabileraren joera nagusiak Bizkaiko mendebaldeko hizkeretakoekin bat datoz gauza askotan, baina berezitasun batzu badauzka eta berauek Basauriko aditzaren ezaugarri orokorrei buruzko atalean garatuko dira. Atal honetan aditz sistema bakoitzaren funtzionamenduaz gain beste zenbait puntu ere aztertuko dira, hala nola HIKA, ZUKA eta BERORIKA-ren erabilera, aditz-sistemen arteko nahasketak, aspektoari dagozkion ezaugarriak eta beste batzu.

Aditzaren atalari amaiera emateko erabiltzen diren adizki guztien paradigmak paratuko dira ohizko ordena jarraituz: Egite era, Baldin era(Baldintza eta Ondoriozkoa), Ahalera, Subjuntiboa eta Inperatiboa. Denak ere ZUKA-z lehenik eta HIKA-z gero(Gizonezkoena eta emakumezkoena), Sintetikoak eta Laguntzaileak aztertuz eta NOR / NOR-NORI / NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sistemen arabera.

4.2- METODOLOGIA

Metodologia ikerlan honetan zehar erabilitako ohizkoa izan da, lehenik ahalik eta datu gehien bildu elkarrizketa naturalen bilartez eta gero, batez ere paradigmaren hutsuneak betetzeko, galdera zuzenduak prestatu eta lekuko aukeratuei galdetu.

Hemen aipamen berezia merezi du Karmen Mojak, lehen esan dudanez bera izan bait da hitanozko formak atera ahal izateko gakoa. Beste lekuko batzuren testigantza balio handikoa izan da, bai, baina batez ere osagarri moduan. Karmenena izan ez banu, berriz, hitanoaren paradigmak erdi hutsik egongo ziren. Horregatik, kontutan hartu behar da beste atal batzutan (Fonetika, Deklinabidea....) pisua lekuko batzuren artean banatuago egon bada aditzarenean Karmen Moja izan dela garrantzitsuena.

Jarraian datorren aditzaren ezaugarri orokorren atalean azalpen ugari emango dira gai bakoitzari buruz eta geroko paradigmekin ere formen erabilera hobeto ulertu ahal izateko oin-oharrak agertuko dira sarri. Kontutan hartu behar da askotan adizki bat baino gehiago egongo dela gauza bera esateko. Honelakoak bere ugaritasunaren arabera ordenatuko dira, erabiliena aipatzen den lehenengoa izango dela.

4.3.- BASAURIKO ADITZAREN ZENBAIT EZAUGARRI

4.3.1.- HIKA/ZUKA/BERORIKA

Euskaraz mintzatzekotan ZUKA da gaur egun gure herrian erabiltzen den sistema nagusia askogatik. Beste biak edo aintzinako kontuak dira edo oso kontestu gutxitan edo giro berezietan erabiltzen dira.

BERORIKA oraingo zaharrenek bere gurasoekin egiten zuten edo bestela errespeto handiko jendearekin, normalean eurak baino zaharragoak zirenekin. Beraiei mintzatzeko hirugarren pertsona singularreko formak erabiltzen ziren: "Berori nora doa?", "Berorrek se eretxi deko?"... Gaur egun oso arraroa da honelakorik entzutea.

HIKA-ren kontua dela eta pixka bat luzatzeak merezi duelakoan nago. Lehenengo eta behin esan behariko Nerbioi haraneko herrietan, orokorrean, inguruko haranetan (Arratia, Zeberio, Orozko...) baino askoz gutxiago egiten dela hitanoz. Basaurin lekuko gutxi topatu ditut hikaz normal normal egiteko gai zirenak, normalean zaharreneen artekoak:

-Arizeko Gabino Gorostiaga, aurtan, 1992an, 90 urte beteta hil dena.

-Uribarriko Pedro Aurtenetxe, Gabinoren kintako bakarra, berak esaten duenez.

-Errekaldeko Mariano Uribiarte, gazteagoa, 67 urtekoa, baina ama larrabetzularra zeukana¹.

-Artunduagako Victoriano Azkueta, 72 urtekoa, baina euskara apur bat nahastuta daukana.

¹Larrabetzun ia jende guztiak egiten du hikaz gaur egun etc.

Eta honelako beste batzu badaude, baina gehienek "akats"-en bat daukate, edo ez dute Basauriko euskara hutsean egiten edo hizkera nahastuta daukate edo gurasoetariko bat hikaz gehiago egiten den beste leku batekoa da....

Egoera aztertuta eta lekuko gehienek testigantzak entzunda esan daiteke orokorrean Basaurin bertan oraingo zaharrenen gurasoen gizaldirarte guztiz normala zela hikaz hitzegitea, baina handik aurrera utzi egin zitzaioala sistema honi.

Puntu honetan, dena den, zerbait zehaztu egin behar da. Gehienek diotenez "Ergoien" aldean² gehixeago iraun zuen hikaz egiteko ohiturak eta horri esker oraindik horko zaharrenek badakite horrela hitzegiten: Karmen Moja, 86 urte gaz Ergoien zaharrena da³ eta lehenago esan dudanez bera izan da lan honetako hitanoaren azterketaren oinarria.

Bixenta Beti, 81 urtekoa Karmenen lehengusina da eta gaztetan hikaz egiten zuten euren artean⁴. Arazoa da Ergoien oso zahar gutxi geratzen direla eta Karmen eta Bixentaren atzetik datozenak nolabait hurrengo gizaldikotzat jo genitzake eta jadanik ez dakite hikaz egiten: Mari Izagirre, 66 urte, Jose Moja, Karmenen iloba, 68 urte, Karmen Elordui, Karmen Mojaren alaba, 62 urte....

Beheko auzoetakoak direnak ere ez dira hikaz egiteko gai, nahiz eta Karmen eta Bixentaren adinekoak izan: Errekaldeko Xexili Urkiza, 86 urte, Lapatzako Kalixta Madariaga⁵, 84 urte, Artunduagako Mari Lejarzegi, 91 urte, Uribarriko Mari eta Madalena Zabala, 84 urte....

²Atxikorre, Luzarre, Finaga eta Briskietako auzoak osatzen duten ingurunea.

³Luzarreko Enkarna Erxebaniak 96 urte dauka, baina jatorriz Lapatzako auzokoa da.

⁴Orain ez dute ez hikaz ez zukaz egiten, zein Bixenta Bidebieta aldean bizi da. Soloarten, eta Karmenek esaten duenez "Atxiñeri" ez dute elkar ikusi.

⁵Kalixtak dioenez bere nebak lehen hikaz egiten zuen lagun batzuekin.

Bestalde esan behar da, leku gehienetan bezala gizonezkoek hobeto gorde dutela hikaz egiteko ohitura, baina Basauri aldean, lan honetan zehar behin baino gehiagotan esan denez, gizonek hizkera nahastuta izaten dute sarri beste herrietako euskaldunen eraginez. Gainera, kontutan hartzen badugu Basaurira etorritako langile euskaldun gehienak Arratia, Zeberio, Larrabetzu aldekoak direla eta ingurune hauetan ia denek egiten dutela hikaz, nire ustez ez litzateke lar fidagarria izango Basauriko hitanoaren azterketa gizon batekin egitea.

Zorte handia izan da, beraz, "esne-saltzaile"⁶-en artean hikaz ondo egiten zuen bat topatzea.

Gainera, esan behar Karmen Mojak neurri handian hikazko formak nahiko modu jatorrean erabiltzen dituela subordinazioari dagokionean. Hona hemen adibide batzu:

"Aber selan dekoan ik jertsie"(K.Mj.)

"Ik ein ddoana txarto yaok"(K.Mj.)

"Eskutan dekoana loie dok"(K.Mj.)

Amaitzeko esan behariko Basauriko hizkera galtzear badago bertako hitanoaren desagerpena askoz hurbilago dugula eta zorte handia izan dela paradigmatik bere osotasunean jaso ahal izatea, juxtu-juxtu heldu bagara ere.

⁶Lehenengo esne saltzaileak dira lan honen oinarri nagusia: Karmen Moja, Kalixta Madanaga, Xexili Utkiza...

4.3.2- SISTEMEN ARTEKO NAHASKETA

Nahasketa hau nahiko normala Bizkaiko beste hainbat lekutan ere eta gehienbat NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sistemen artean gertatzen da. Basaurin ere guztiz sartuta dago NOR-NORK formak behar direnean NOR-NORI-NORK-ekoak erabiltzeko ohitura eta aipatutako lehen sistema ia ia hirugarren pertsonekin baino ez da entzuten, NOR hirugarren pertsona denean, hain zuzen ere:

"Lagunek ekarten dotzie kotxien"(K.Mj.)

"Etor baseinkittes nik ukusi eingo neinkixu"(K.Mj.)

Honelako esaldiak normal-normalak dira Basauri aldeko euskaraz, baina kontutan izan behar da alderantzizko nahasketak ere gertatzen direla, hau da, NOR-NORI-NORK behar denean NOR-NORK erabiltzea. Lekeitio aldean egiten den erara:

"Gausa asko ekarten gatus"(K.Mj.)

"Segoser eillen gausen orduen..."(K.Md.)

"Seriyo begittu gatusek"(K.Mj.)

Amaitzeko esan beharoko batzutan hirugarren pertsonatik kanpo ere zuzen erabiltzen direla NOR-NORK formak, baina hau, zoritxarrez, nahiko arraroa da gaur egun Basauri aldeko hizkeran:

"Ni etziek ito iten nau, ito"(M.I.)

"Kotxien eran saittues?"(Z.U.)

433.- SISTEMA BATZUREN ERABILERA ESKASA

Badaude adizki batzu ia batere erabiltzen ez direnak. Adibidez NOR-NORI hirugarren pertsonetatik aparte(NOR hirugarren pertsona izanik) ez da batere entzuten.

NOR-NORK sistemarekin ez da hain nabaria, baina antzeko zerbait gertatzen da, oraintsu komentatu denez.

SINETETIKO LEHENALDIAK ere gero eta gutxiago entzuten dira, eta gero eta gutxiago diot zaharrenean ahotik baino ezin baitira jaso. Gabino Gorostiaga zendua eta Pedro Aurtenetxe, biak 90 urtetik gorakoak, ziren "Egoan", "Egoasen", "Nekiyen" eta horrelako banaka batzu naturaltasunez esaten zituzten bakarrak. Adizki hauen ordeaz jende gehienak forma bukatuak erabiltzen ditu:

"Ez nengoan pozik" esan beharrean "Eneintzen egon kontentus"

"Polita nintzen" adierazteko "Politte ixin neintzen"

"Ez nekien" barik "Estot yakin"

Baldintza, Potentzial, Subjuntibo eta Inperatiboaren erabilera aparte aztertuko da, bakoitza bere aldetik.

434.- ERABILERA BEREZI BATZU

Bizkaiko leku askotan guztiz normalak dira hemen azalduko diren gehienak, baina hala eta guzti interesgarria eritzi diot hauetariko batzu jarraian paratzeari, bitxikeria gisa:

-NOR:

"Auriye da"(K.Mj.)

"Edurre da"(K.Mj.)

"Os dao"(K.Mj.) = Hotz dago

"Os nas"(K.Mj.)

"Bero nas"(K.Mj.)

"Gose nas"(K.Mj.)

"Egarri nes"(K.Mj.)⁷

-NOR-NORI:

"Gure etzieren yakon Urkitzene"(Z.U.)

"Jenaro yakon usena"(M.I.)

"Etzat akordetan"(M.L.)

"Ori akordetan nasta"(K.Mj.)

"Motz eretxitten yako"(K.Md.)

"Enasta ardure"(K.Mj.)

-NOR-NORK:

"Arrabiyoak emoten dau"(K.Mj.)

"Eskapa in yoat basora"(K.Mj.)

"Eskapau in nendun etzetik"(M.I.)

"Aburridu itten dot"(K.Mj.)

"Urte in ddau?"(K.Mj.)

"Aurok ibiltzen daude tertuliyen"(K.Mj.)

"Beste fabrikarik estot ibilli"(J.M.)

"Igon dot onen"(K.Mj.)

"Basora igon yoat"(K.Mj.)

"Esniek irikin yok?"(K.Mj.)

"Estau ardure"(K.Mj.)

"Leiye in ddau"(K.Mj.)

⁷Azken lau egitura hauek EDUKI aditzarekin ere erabiltzen dira lantzean behin: "Otza dekot".....

-NOR-NORI-NORK:

- "Lamiñak urteingotzue"(K.Md)
- "Etaust urteitten"(M.L)
- "Mutil betek itxi intzela neskatoari"(K.Mj)
- "Arek itxiotzen etortien"(K.Mj)
- "Lagun betek geiltu nostek"(K.Mj)
- "Ogatu oste eskulati"(K.Mj)
- "Orrek segidu in yostek osteitti"(K.Mj)
- "Enostek ardure"(K.Mj)
- "Estost ardure"(B.B)
- "Estoa ardurie emoten orrek?"(K.Mj)
- "Iguale doste"(K.Mj)

435- SINKOPAK ETA ADITZ ERROA

-I amaiera duten aditzekin sinkopa fenomenoak guztiz normalek da Basauri aldeko hizkeran eta horrek ondorio oso okerrak ateratzera eramanez lezake alde honetako hizkera ezagutzen ez duena, batez ere gertatzen diren forma bitxi batzuek aztertzerakoan:

- "Etor sates!"
- "Ukus daixun"
- "Ibil seinkittes"

Baten batek agian pentsa lezake aditz erroa dela hor erabiltzen dena, gramatikaren arabera Potentzial, Subjuntibo eta Imperatiboek dagokienez, baina hori ez da inola ere horrela. Gertatzen dena sinkopa fenomeno hutsa da, -I z amaitutako partizipioekin edozein aditz eratan ikus daitekeena:

- "Orrek ibil(i)ko dau..."
- "Ondo ukus(i) nendun"
- "Goxeti etort(i) sara"

43.6. ASPEKTOARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Hemen aditzaren hiru partizipioak erabiltzeko moduari buruz hitzegingo da, bereziki bigarrenari buruz, aldakortasun handiena duena da eta.

- LEHEN PARTIZIPIOA: Ez dauka gauza bereziegirik, bakarrik esan sarritan -I bukaera dutenak sinkopatu egiten direla aditz laguntzailea eranstekoan:

"Ukus(i) dot"

"Etor(ri) de"

"Ibil(li) nes"

.....

- BIGARREN PARTIZIPIOA: Bereziarena da bere marketan agertzen duen aldakortasunagatik:

-TEN da normalena:

"Esetuten dosu?"(B.B.)

"Estot enteniduten"(B.B.)

"An itxitten dau"(M.Z.)

"Garbittuten"(K.Mj.)

"Preparaten"(K.Mj.)

-ETAN ere oso erabilia da:

"Estosu entenietan?"(K.Mj.)

"Axiek e telletuek mogietan daus"(K.Mj.)

"Katuke korrietan dau"(K.Mj.)

"Segietan dosu"(K.Mj.)

"Akordetan nas"(K.Mj.)

"Esta kuretari"(M.L.)

"Dana estropietan dot"(K.Mj.)

-TAN ere esaten da:

"Piperrak erretan"(K.Mj.)

"Lamiñak erropak garbittan egoten sien"(K.Mj.)

"Gero esta lodittan"(K.Mj.)

"Ulertan"(M.I.)

"Korritan"(M.L.)

-TZEN askoz arraroagoa da, baina noizean behin entzuten da:

"Esposu esetzen"(G.G.)

"Trena artzen"(M.I.)

Ikusten denez aditz bera era batera baino gehiagotara erabil daiteke:

"Garbittuten"/"Garbittan"

"Enteniduten"/"Entenietan"

"Korrietan"/"Korritan"

Horregatik oso zaila da lotura bakoitza noiz erabiltzen den zehaztea eta aukera desberdinei buruz baino ezin dugu hitzegi.

-HIRUGARREN PARTIZIPIOA: Ez dauka gauza berezi handirik. -KO loturaren bitartez egiten da. Aditza -N z bukatzen bada -GO egiten da (Egingo, Emongo, Yango...). Aditza -L z amaitzen bada lotura -KO eta -GO izan daiteke: ILKO/ILGO, bietara entzun daiteke.

-I bukaera dutenekin hemen ere sarritan gertatzen da sinkopa eta -I hori desagertu egiten da normalean:

"Etor(ri)ko sara?"

"Orrek ibil(l)ko dau..."

"Ukus(i)ko neinkixu"

43.7- FAKTITIBOAK

-ASO(N) loturaren bilartez egiten dira, era bitara ager daitekeelarik, -N-z eta -N gabe:

"Etorraso nostiek"(K.Mj)

"Eta galasoten"(K.Mj)

"Yanaso aih ostiek tartie"(K.Mj)

"Bota aihaso ostiek satzartera"(K.Mj)

"Kenduaso"(P.O.)

"Guroskun ulertu ason geuri"(MI)

"Berak arontzak ein de beste batzuri asi ason umiek eiten dotzos"(MI)

"Gero ari labrantzan biarrein ason, ari gero kuntzurrunek makurtu ason!"(MI)

43.8- PLURALGILEAK

-ZER plurala adierazteko hizki erabiliena -Z (-S ahozkeraz) da: "dotzu / dotzus".... IT (ITT ahozkeraz) ere bai, kasu batzutan: "daude / deittues"....

Hirugarren pertsona plurala markatzeko modu erabilienak -DE (dau / daude), -RE (dau / daure), -YE (yako / yakoye), eta -YIE (daki / dakiyie) dira. -DIE, -RIE, -E, -IE ere entzuten dira batzutan.

43.9- EGITE ERAKO ORAINALDIA

Ez dago gauza berezi gehiegirik Orainaldia dela eta. Dena den, aditz sintetikoetarako buruz puntualizazio pare bat egin beharko da:

-NOR sisteman oso erabiliak dira paradigmetan ikusiko diren eretara.

-NOR-NORI sistemakoak hirugarren pertsonan entzun daitezke (3. pertsona NOR denean), baina arraragoak dira, batez ere NORI 1. pertsona denean. Horrexegatik daude hutsune batzu HURA/HAIEK NIRI formak behar diren laukietan.

-NOR-NORK sisteman sintetikoak asko erabiltzen dira NOR hirugarren pertsona denean. Bestelakoetan NOR-NORI-NORK formak esaten dira NOR-NORK zentzuarekin ("Emen dekostasu", "Etzera daroste"...)

-NOR-NORI-NORK sisteman nahiko erabiliak dira sintetikoak, bere benetako zentzuan zein NOR-NORK zentzuan, oraintsu esan dudanez.

4.3.10. EGITE ERAKO LEHENALDIA

Kontu bi dira aipagarrienak hemen, lehenaldiak egiteko modua eta sintetikoek erabilerak:

- LEHENALDI ERREZAK dei genitzakeenak egiteko joera handia dago hiztun askorengan, hau da, benetako lehenaldiak egin beharrean Orainaldiko formari -N marka erantsi eta kito:

"Etorri neintzen" barik "Etorri) NASEN"

"Yan nendun" barik "Yan DODAN"

"Entzun neintzun" barik "Entzun DOTZUDEN"

"Auki gendun" barik "Auki DUN"

- LEHENALDIKO SINTETIKOENA beste arazo bat da, ia ia ez bailira erabiltzen, paradigmatako hutsune ugarietan ikusiko denez. Zaharrenek bakarrik erabiltzen dituzte, noizean behin. Sintetikoon ordezkua forma bukatua izaten da:

"Kontentus nengoan" barik "Kontentus egon neintzen"

"Enekiyen" barik "Estot yakin"

"Ondo egoan" barik "Ondo egon san"

.....

43.11 - BALDIN ERA

Badaude puntu interesgarri batzu komentatzeko baldintzak egiteko modua dela eta:

- **BALDINTZA/POTENTZIAL NAHASKETA** handia dago aditz laguntzaileei dagokienean, trantsiliboetan eta intrantsiliboetan. Badaude Egite erako lehenaldietan oinarritutako baldintza formak, baina askoz gutxiago erabiltzen dira potentzialezkoekin egindakoak baino. Honako hau da Basauri aldean baldintza zentzuko esaldiak egiteko ohizko modua:

- **Intrantsiliboetan:** Lehen partizipioa + BA + Potentziala:

"Etor baseinkittes..."

"Ixin baneinkitte ddantzariye...⁸"

"Surok ixin baseinkittesie aberatzak..."

"Kanpoti espalekutte etorri..."

"Gustau baleixu..."

- "Aberatza banentz", "Ori egiye baleitz" eta horrelako "benetako" baldintzak ere badira, baina askoz gutxiago erabiltzen dira lehen aipatutakoak baino.

⁸"Baneinkitte ddantzariye" ere bai.

- **Trantsitiboetan:** Lehen partizipioa + BA- + Potentziala, egitura normalena askogatik

"Yan baseinki geiyau..."

"Edan baneinki kafie..."

"Ukus(i) baseinkiye..."

"Gure baseinki..."

"Emon baneinkixu..."

- Lehen partizipioa + BA- + Ondoriozko forma ere egitura erabilia da, baina aurrekoa baino gutxiago:

"Ukus(i) baneunke..."

"Ori edan bagaunke..."

- Hirugarren partizipioa + BA- + Ondoriozko forma ere entzun daiteke inoiz, baina arraroa da:

"Kosiko baleuke..."

- **LEHENALDIKO BALDINTZAK:** Hauetarako Egite erako lehenaldiaren adizki normalak erabiltzen dira:

- Lehen partizipioa + BA- + Lehenaldi normala:

"Atzo etor(ri) baseintzen..."

"Kotixau banendun..."

"Ara yoan bageintzen..."

- SINTETIKOEN ERABILERA:

- Intransitiboetan gutxitan erabiltzen dira, gehienbat hirugarren pertsonetan:

"Balator..."

"Balego..."

- Transitiboetan askoz normalagoak dira, pertsona guztiekin:

"Suk basenki..."

"Ankie ondo banenko..."

"Amak baleki..."

- ORDEZKO FORMAK: AZKERO, AZKINO eta horrelakoak oso erabiliak dira, gehienbat pertsonak edo aldiak pixka bat "arraroak" direnean.⁹

4.3.12. ONDORIOZKOA

- ONDORIOZKO/POTENTZIAL NAHASKETA: Normala da kasu honetan ere eta sistema guztietan gertatzen da NOR NORR en izan ezik:

- Intransitiboak 3 partizipioa + Potentziala:

"Etor(ri)ko neinkitte"

"Emen lotuko seinkittes?"

"Gustauko neinkiste sinera yoaten"

⁹Kus JOSKERA, Baldintzazkoak.

- **Trantsiliboak:**

- 3. partizipioa + Potentziala(NOR-NORI-NORK):

"Emongo neixu"

"Orrek emongo leixu dirue¹⁰"

- 3. partizipioa + Ondoriozkoa(NOR-NORK):

"Eingo neunke"

"Ser yango geunke?"

- **LEHENALDIKO ONDORIOAK:** 3. partizipioa + Lehenaldi normala egiturarekin egiten dira:

"Kobrauko nendun"

"Eingo geinddun?"

"Yoango neintzen"

- **SINETTIKOAK:** Ez dira batere erabiltzen ondoriozko formetan, leku gehienetan gertatzen den bezalaxe.

- Baldintzak egiteko moduari buruzko azalpen hauen ondoren esaldi oso batzu paratuko ditut, ondorio eta guzti kontu hau bere osotasunean hobeto ulertu ahal izateko:

"Etor baseinkittes nik ukusi ingo neinkixu"(K.Mj.)

"Etor baseinkittes emen ukus(i)ko geinkittes"(K.Mj.)

"Kanpoli espaleikille etori ser yango geunke?"(M.L.)

"Auki baneinki emongo neixu"(K.Mj.)

¹⁰-Emongo NENKIXU" eta "Emongo LEKIXU" ere erabil litezke esaldiotan.

"Onk bueltie emon balei neuk bere aprobetxauko neinddun obeto"(K.Mj.)
 "Ukus(i) bancunke esetuko neunke"(G.G.)
 "Su be txarto ibil(li)ko seinkittes espasenko ser ein"(K.Mj.)
 "Espaleuko pistirik beren kontra!"(M.I.)
 "Etor(ri) baseintzen eingo geinddun"(K.Mj.)
 "Kotixau banendun kobrauko nendun"(M.L.)
 "Egon baneintzoan ba neu sille bategas a ilko neiyogan bertan!"(K.Mj.)

4.3.13. AHALERA

Jarraian agertuko diren esaldi guztien ondoan noren aholik jasotakoak diren adieraziko da laburduren bidez. Laburdura guztion argibidea lan honen lehenengo kapituluak daude. Begi bistakoa da, joskerari dagokion atalean behintzat, K.Mj., Karmen Mojari dagokion laburduraren nagusitasuna beste guztien gainetik, baina hau normala da kontutan hartzen bada bera izan dela nire lekuko egokiena, baldintza guztiak ondoan betetzen zituena eta gainera bere etxean behin eta berriro pazientzia handiz ondoan hartu nauena, ikerlan honen sarrera hiltzetan ere esanda dagoenez.

Esaldi mota bakoitzaren barruan, kasu puntualen batean izan ezik, hiru adibidetik gora agertuko dira eta gehienetan ez dut adibide kopuruari begira mugarik jarri, zeren eta lan honetan aztertzen den euskara aldaki hau desagertzeaz egonik ez bait da sobran egongo urte gutxi barru entzun ezin izango diren hainbat esaldi mota hemen biltzea.

Basauriko euskararen joskerari dagokion kapitulu honetan honako puntuok aztertuko dira:

- Esaldiaren guna
- Semantika joskera loturak
- Esaldi koordinatuak
- Menpeko esaldiak

5.2 - BASAURIKO EUSKARAREN JOSKERA EZAUGARRI OROKORRAK

Arlo honetan erdararen eragina agian nabarmenagoa da beste batzutan baino. Euskaraz noizean behin baino hitzegiten ez bada normalena da Basauri aldean gertatu dena gertatzea, hizkera pobretu egiten da eta apurka apurka estruktura asko jatorrasuna galdu eta kanpoko hizkuntzaren eredura moldatzen hasten dira. Hau begi bistakoa da esaldi batzuren ordenean, baita sortutako forma hibrido batzutan ere, adibidez oso gauza normala da "Noiz arte" adierazteko erdarazko "Hasta" gehi euskarazko "Arte" esaldi berean erabiltzea, esaldi kontzesiboetan ere sarritan entzuten da erdarazko "Aunque" euskal hitzei lotuta, adbertastiboetan ere maiz esaten da "Sin embargo"..... "Enas yoango hasta su etorri arte", "Aunque ori egiye dan" eta holakoak ez dira batere arraroak Basauri aldean.

Bestaldetik, sinplifikaziora jotzen da eta nahiz eta gauza bat adierazteko hamaikatxo modu egon beti estruktura bera erabiltzen da, beste guztiak ia ia ahazteraino heltzen delarik. Honen adibide asko dauzkagu: Denborazko esaldiak adierazteko ia beti Partizipioa + "Orduen" "Orduko"-rekin jokatu, baldintzazko formak erabili beharrean "Azkeru", kontzesiboa behar denean beti "Arren".....

Baina kontu handiz ibili behar da honekin, askotan sinplifikazio eta pobrezia hau itxurakoak, azalekoak baino ez dira eta ikertzaileak ondo ateratzen asmatuz gero uslegabeko bitxiak agertzen dira, inongo hiztegi, liburu edo gramatikatan aipatzen ez direnak, eta batzutan baita forma arkaiko oso ederrak ere, kapitulu honetako adibideetan ikusiko denez. Hau, normala denez, lekuko zaharrenekin gertatzen da, zenbat eta zaharrago hainbat eta hizkera aberatsagoa izaten baitute. Nik honelako jendearekin ihardun dut, pazientzia handiz eta honen emaitzak nahiko positiboak izan direla uste dut.

5.3. ESALDIAREN GUNA

Esaldiaren guna jakin edo jakinerazi nahi dena izango litzateke, komunikatu nahi dena, alegia. Horren arabera esaldiak era batera edo bestera ordenatuko dira. Orden teoriko hauek gehienetan beteko dira, baina sarri askotan bestelako ordenamenduak ere agertuko dira, hain jator eta zuzenak ez direnak, gehienbat erdararen eraginez. Hauetariko batzu atal honen azken puntuan ikusiko ditugu.

5.3.1. GUNA GALDERA HITZA DENEAN

5.3.1.1. Galdera hitza izenordea denean(Galdera hitza + Aditza)

"Baie nora soas emetik?"(J.M.)

"Sertako bier dosu geiyau?"(K.Mj.)

"Da edatieri nos itxikotzu ba?"(K.Mj.)

"Bilboko kallerik lusiena sein dde?"(K.Mj.)

5.3.1.2. Galdera hitza adjetiboa denean(Galdera hitza + Izena + Aditza)

"Senbet sakudida emontzel nik amari"(K.Mj.)

"Sein laguneri esaten soas ori?"(K.Mj.)

"Sein botilla gurosu astie?"(K.Mj.)

5.3.2. GUNA IZENA, ADITZ, IZENA, ADJETIBOA (Atributoa), IZENORDEA (Galderazko adjetiboa eta izenordea ezik), ADJETIBOA DENEAN

5.3.2.1. Izena denean(Izena, izen sintagma + Aditza)

"Pedrito la Lorea doas, Karmentxu estoa"(K.Mj.)

"Bai, Jenaro yakon usena"(M.L.)

"Umiek emongotzie bier apur bet"(K.Mj.)

"Aitte etor de, da semie(k)p(b)e etorko dire"(K.Mj.)

5.3.2.2- Aditz izena denean(Aditz izena + Aditza)

"Lagunek e goxeli etortie gure dau"(K.Mj)

"Orrek edatieri emontze"(K.Mj)

"Ori esatiek estotzu lotzarik emoten?"(K.Mj)

5.3.2.3- Adjetiboa(Atributoa) denean(Adjetiboa + Aditza)

"Bera yoango lekितte, baie gastie da la"(K.Mj)

"Diru faltetie be txarra da gero"(K.Mj)

"Txarri okaranak goxoa(k)(d)ire eldu orduen"(K.Mj)

5.3.2.4- Izenordea denean(Izenordea + Aditza)

-Izenorde pertsonala denean¹

-Indartu gabea

"Guri esan gatus"(K.Mj)

"Surontzako erosi de"(K.Mj)

"Suri be gustau yatzu,ala?"(K.Mj)

-EU markaz indartua

"Sarrena nau neintzen"(M.L.)

"Gaurie da,es beste batena"(K.Mj)

"Gauk esaten geinddun"(K.Mj)

"Esto(t)p(b)aliyo, neu(k)(d)akitl"(K.Mj)

"Egon senkittes seuk (g)urdosun lekuen"(K.Mj)

-BER markaz indartua

"Berari emon dotzu"(K.Mj)

"Berie da, es gurie"(K.Mj)

"Infernu demoniñoa bera da"(K.Mj)

¹Ez dira lar ondo bereizten markatua eta markatu gabea, nahiz eta esaldiaren guna izan, batzutan ez da forma indartua erabiltzen. Berdin gertatzen da erakusleekin.

-Erakuslea denean

-Indartu gabæa

"Au ixin dde"(K.Mj)

"Oneri emon neintzen nik erregaluc"(K.Mj)

"Areri emon neintzen nik dirue"(K.Mj)

"Aik dakiye ori"(K.Mj)

"Onegas goas gu orti"(K.Mj)

"Ori gure dau esan orrek"(K.Mj)

-XE markaz indartua

"Auxe ixin dde"(K.Mj)

"Onexek e daki"(K.Mj)

"Orreixeri ekarten noa erregaluc"(K.Mj)

"Aixek dakiye ori"(K.Mj)

-BER markaz indartua

"Berone(k)l(d)aki"(K.Mj)

"Bera(k)l(d)aki"(K.Mj)

"Bera(k)lx(y)akingo dau setan etor den orra"(K.Mj)

-Izenorde mugagabe edo numeral denean

"Aillentzako bere seoser erosi ber neinddun"(K.Mj)

"Ori edoseiñe(k)l(d)aki"(K.Mj)

"Bankueri berrogei berbosus, ba amar edo eskatu leis, baie dana es"(K.Mj)

"Bigarrena da surie"(K.Mj)

"Bat bota biarrien bi egoten dire ta apartau ixinik"(K.Mj)

-Adberbioa denean

-Erazkoa

"Tontolute saos"(K.Mj)

"Au kendute obeto gaos emen"(K.Mj)

"Atzo sarra emen bakar bakarrik triste oten da"(K.Mj)

"Yaten ondo emoten dauden an"(K.Mj)

-Zenbatezkoa

"Emen bere asko itten da erderas"(K.Mj)

"Lar yan askero lodittu itten da"(K.Mj)

"Gitxiau yaten san orduen"(J.M)

"Asko itten geintzesan, e, Tomaseri"(K.Mj)

-Lekuzkoa

-Indartu gabea

"An dao asukerie"(K.Mj)

"Aragiño yoaten san"(M.I.)

"Makiñe ba(t)p(b)ider emen ibilli gara kartetan"(K.Mj)

-BER edo XE markez indartua

"Ortxe dekosu, bertan dekosu"(K.Mj)

"Ortixe yoan yatzu"(K.Mj)

"Bertali yoan yatzu"(K.Mj)

"Bertakoa dala esaoste"(K.Mj)

"Bertan bixi dela esaoste"(K.Mj)

"Oneik emekoa(k)p(b)ertakoak sien"(M.I.)

-BER eta XE markez indartua

"Ementxe bertan bixi de ori"(K.Mj)

"Araxe bertara yoan dire"(K.Mj)

"Ortxe bertan daos"(K.Mj)

-BER errepikatuz

"Berbertan deku etzie"(K.Mj)

"Aintxe berpetan esetu geintzen gu"(K.Mj)

53.3. GUNA ADITZAREN BAIETZA EDO EZETZA DENEAN

53.3.1. Baietza denean

-Aditz soilaz

"Nik orrenbeste badakit"(K.Mj)

"Ibilli badarill, baie estait selan darillen"(K.Mj)

"Piperrak sartuten basaritzesie?"(K.Mj)

-Aditz konposatuaz

"Nik orrenbeste yakin ddot"(K.Mj)

"Yakin ddotue etorriko nasela?"(K.Mj)

"Pedrito yoan de²"(K.Mj)

"Inor, baten bat etor de?"(K.Mj)

53.3.2. Ezetza denean

-Aditz soilaz

"Yakin estaki, baie ondo majorik darill"(K.Mj)

"Orra esteku setan sartu"(K.Mj)

"Ni enoa beste bategana"(J.M)

-Aditz konposatuaz

"Nik i dakidela etxatzue allegau kartarik, arien bes"(K.Mj)

"Len Lapatzan asko esuren berbaitten oneik"(K.E)

"Nik erderas, egie esateko, estot ikixi el auskeras aistu da erderas ikixi es"
(J.M)

"Aitek estauen urtein i etzetik"(J.M)

²"Yoan dE" , "Yoan sEn" forma klitxetu legez erabiltzen dira, nahiz eta itxidura egiteko itzurazko arrazoak fonetikorik ez egon.

534. GUNA ADITZAREN EKINTZA DENEAN

534.1. Aditz soilaz

"Ibilli saritzes da, olango gausek pasau bier"(K.Mj)

"Andrie auki deko"(K.Mj)

"Auki badekosu sertako bier dosu geiyau?"(K.Mj)

"Yakin dakiyelako berak"(K.Mj)

534.2. Aditz konposatuaz

"Apurtu in dde"(K.Mj)

"Yausi in yako"(K.Mj)

"Yarri in dde"(K.Mj)

"Bilddurre dekol se entzun be estot aitten ondo"(K.Mj)

"Nik suri estotzut ukusi gure be ein"(K.Mj)

"Egon al bagara egon eingo gara"(K.Mj)

"Bier fasilie da, yarritte paraute baie ein in bier"(K.Mj)

535. GUNA ESALDIA DENEAN

535.1. Osagarria osatuaren aurrelik³

"Bertakoa dala esaoste"(K.Mj)

"Ixillik oteko esaoste, es barbarik eitteko"(K.Mj)

"Yarrilteko esaoste, yarritte egoteko"(K.Mj)

"Orreik erropok edurrartera yoateko erosi dodas"(K.Mj)

535.2. Osagarria aurkezle bidez

"Esan osten baietz, gaubien etorko dala"(K.Mj)

"Esaoste esetz, estaula gure"(K.Mj)

"Ser esangotzet, arin ibil daittela"(K.Mj)

³Hau askotan ez da hetetzen. Ikus geroko adibideak.

53.6. HIZKERA ARRUNTEKO ORDEN ALDREBESTUAK

Orain arte aipatutako ordenak eta kokaguneak ez dira beti betetzen. Basauri aldean erdarak daukan eragin handiaren ondorioz bestelako esaldi ez hain "perfektoak" ere entzun daitezke, orden aldrebestukoak eta Hona hemen adibide batzu:

"Euki daus iru seme"(J.M.)

"Au aurrera doa, se deko odola garbi"(J.M.)

"Telengotan pasau dodan apur bet... gero pasau dodan ondo"(J.M.)

"Diño ori, olangoa bera(k)p(b)e atara ber dauela"(K.Mj.)

"Ori de gurie, da surona be bai"(K.Mj.)

"Emeko berbaitie da distinto"(K.Mj.)

"Esantzel fatxadas ibiltteko"(K.Mj.)

"Pentzetan dot inor be estala etorriko"(K.Mj.)

"Esan dau auriye dakarrela"(K.Mj.)

"Diru larra ni(k)p(b)eti esan dot dala txarra"(K.Mj.)

"Baie dekie politto sano"(K.Mj.)

"...da eneindun moduen suertenk eukiñ i, esebes"(K.Mj.)

"Geittutentzie dakiyelako berak"(K.Mj.)

"Daritzes arkalen osteitti"(K.Mj.)

5.4. SEMANTIKA JOSKERA LOTURAK

5.4.1. OHITURA EDO PROZESU ERREPIKATUA ADIERAZTEKO

5.4.1.1. -TEN atzizkiaren bidez

-Forma soilen oposizioan

"Len be egoten sien moskorak, moskortiyek"(K.Mj.)

"Etorten sien aiteilegana tripie betarren gerra denporan"(M.I.)

"Len e besterik es geinddun eukitten e!"(K.Mj.)

"Ni eskonparri yoaten neintzen"(M.I.)

"Txarritxu bet aukitten geinddun urte gustiyetan"(K.Mj.)

"Beti ekarten auden garrafoi bet ardo"(K.Mj.)

"Plasan korrue indde eukitten geinddun geuri begire"(K.Mj.)

"Atzo sarra emen bakar bakarrik triste oten da"(K.Mj.)

-Forma soilen oposizio gabe, testu inguru bidez

"Guk u txakoliñe itten geinddun emen"(K.Mj.)

"Tanke bat karburoagas, da arek argi sano geiyeu ematen dauen"(J.M.)

"Jentiek su(k) pentzetan dosun baño geiyau edaten dau"(K.Mj.)

"Fumeu sano, sano, sano fumetan san"(J.M.)

"Oin nosepein itxi itten dot, beste nosepein sabalik aukitten dot"(K.Mj.)

"Bera es geintzen bajetan"(K.Mj.)

-Forma soilak ohitura zentzuarekin

"Ba asko itten dau, beti dao an da!"(K.Mj.)

"Ni soloan naoenien pos posik nao"(M.I.)

"Datosenien gaus(a) asko ekarten daure"(M.I.)

"Egun gustiyetan dakasus u sapata igualak"(K.Mj.)

"Emeko etzien egun gustiyetan deku bier asko"(K.Mj.)

"Teatrorra doasen orduen ondo pasetan daude"(K.Mj.)

"Egun gustiyetan dator etzera trenien?"(M.I.)

5.4.1.2. TEN + IZAN

- "Inaki(k)p(b)ere nosipein i botille bat ara erate(n) ixin ddau"(K.Mj)
- "Oin txarri okaranik estao, Ereñok ekarte(n) ixin gatus"(K.Mj)
- "Obrerue, etorte(n) ixin ddena bakasinoakas yoan de"(K.Mj)
- "Oin apur bet galdu de baie len geiyau eitte(n) ixin dde"(K.Md)

5.4.2. PROZESUAREN JARDUERA ADIERAZTEKO

5.4.2.1. IBILI aditzaren bidez(-Ten, etan, n, ka...)

- "Pedrito kakotuten ibil de soloan"(K.Mj)
- "Ni banaril piperrak sartuten"(K.Mj)
- "Pedrito badaril satzak ataten"(K.Mj)
- "Kartelan gantzes"(K.Mj)
- "Itillaurren ibilli gara makine bat(Dp(b)ider"(K.Mj)
- "Mutikoa arrike dani, da baten bateri aber yoten botze"(K.Mj)

5.4.2.2. EGON aditzaren bidez

- "Yontxu lo dao"(K.Mj)
- "Kafe irikitten dao"(K.Mj)
- "Umie emegelan dao"(K.Mj)
- "Tomas, ikoak ostuten daos"(K.Mj)
- "Alabiek esaoste berbas eon siela"(K.Mj)

5.4.2.3. EKIN aditzaren bidez

- "Orrek ekingolze negarres berie in arte"(K.Mj)
- "Ekiyosu bierra itten illundu arte"(K.Mj)
- "Ekiyosu batuten asta akabau arte"(K.Mj)
- "Ekiyosu bedarra ebaitten e berdegelliegas"(K.Mj)

5.4.3. INPERTSONALTASUNA

5.4.3.1. Aditz iragankorrekin, laguntzaile iragangaitza

- "Nai asko edan ori beti dabil artes-artes, ori esta ikusten alborantza"(M.I.)
- "Esaten yako ta estau gure"(J.M.)
- "Lora batzuk ifinten yakos, da berakatza(k)p(b)e bai, ifinten yakos"(J.M.)
- "Emen Frankok kendu euenien entregau es citie abastosera itxi sen radikal ereitie gariye"(M.I.)
- "Da gero gitxike, ba soloari iten yako olan a kurba seren bat"(J.M.)
- "Ardoa beti edan da apur bet,es?"(K.Mj.)
- "Surontzako erosi de"(K.Mj.)
- "Ereittieri segidu in ber yako, badaespadan"(K.Mj.)

5.4.3.2. NORK hirugarren pertsona plurala erabiliz

- "Yanbarnitten yatordue ebai itten dala esaten daude"(K.Mj.)
- "Eskolan aitten dauden antzera, alan aitten daude"(K.Mj.)
- "Besoa lusetuten badau kendu ittontzie ta fuera"(K.Mj.)

5.4.3.3. Aditz iragangaitzekin

- "Emen txakur barik ixin lekittie (eg)on"(M.I.)
- "Lar yan askero lodittu itten da"(K.Mj.)
- "Eri andiyetan fasil galduten sara"(K.Mj.)
- "Or illunetan esara ukusten non saosen"(K.Mj.)
- "Gustau itten da, barres, aukittie"(K.Mj.)
- "Aiñ ondo es gara iños bixi ixin"(K.Mj.)
- "Ibilli ixin gara ta, yarritte paraute"(K.Mj.)

5.4.4- ERREFLEXIBOTASUNA

5.4.4.1.- BURU hitza erabiliz

- "Orrek e burue erre kara botauen"(K.Mj)
- "Neure burue yagoten badakitt, ondo"(K.Mj)
- "Geure buruen kalterako es gara ibilko"(K.Mj)
- "Orrek e bere buruegas berbaitten dau"(K.Mj)
- "Neu be sarri oten nas neure buruegas berbas bakarrik eta"(K.Mj)

5.4.4.2.- Laguntzaile iragangaitzarekin

- "Orrastu sara etzeti urtein orduko?"(K.Mj)
- "Egun beten yantzi sates"(K.Mj)
- "Elixara yoatekotan preparauko nas"(M.I)
- "Kalera yoan es itekotan setako prestauko nas?"(M.I)

5.4.4.3.- Beste bide batzu(Beti ez dira erreflexiboak)

- "Biyon arte ensegida ingu"(K.Mj)
- "Biyok biyotara ibiltten geintzen yantzan"(K.Mj)
- "Aurek biyek biyetara disfrutauko dauden"(K.Mj)
- "Ni(k) neuretara bere aitten dodas gausak"(K.Mj)
- "Aurok aurotara, auron modure ein deittues gausak"(K.Mj)
- "Nik neure barrureko pentzetan dot onetara"(K.Mj)
- "...da esan neinddun neur(e) artien, niri ardoak enoste ondo itten"(K.Mj)
- "Iñok esan barik, bere kittien"(K.Mj)
- "Bere kittien, bere pentzaminttuetati"(K.Mj)
- "Bere kittien pentzau te mojarra yoan ber daula, da aittek gure es!"(K.Mj)

5.4.5- ELKARREN ARTEKOTASUNA

5.4.5.1- ARKAL erabiliz⁴

- "Aber arkal artuten badaude"(K.Mj.)
- "Selan ulertuten garan gu arkalegas?"(M.I.)
- "Aik etorr(i) askero beti malaxinan arkalegas"(M.I.)
- "Arkalen ganien"(K.Mj.)
- "Atzo ukus geintzen arkal"(K.Mj.)
- "Arkale esetuten gara gu biyok"(K.Mj.)
- "Kristianuek arkaleri gur(e) tzie edo gurixiten izien"(K.Mj.)
- "Anajiek arkaleri lagundu itteontzie"(K.Mj.)
- "Geu(k)p(b)ere arkaleri lagundu itteontzu"(K.Mj.)
- "Arkale orreik ixin ddire ukusi"(K.Mj.)

5.4.5.2- BATABESTE erabiliz

- "Batabestieri ixin ddotzie ukusi"(K.Mj.)
- "Batabestieri ixin ddaude ukusi"(K.Mj.)
- "Ondo arregletan dire batabestiegas"(K.Mj.)
- "Batabestien osteitti daritzes"(K.Mj.)
- "Kondusidu in ber da batabestien osteitti"(K.Mj.)

5.4.6- AHALMENA ETA EZINA

Normalean bereiztu egiten dira trantsitibo eta intrantsitiboa, bai ahalerazko formekin bai bestelakoekin ere.⁵

⁴Erdararen eragina nabaria da hauetariko esaldi batzutan.Nahiz eta ARKAL aditz iragankorrekin erabili, gero laguntzilea iragankorra da askotan.

⁵Dena den "Al seindun etorri" "Al dot yoan" eta horrelakoak ere entzun daitezke noizean behin.

546.1- Ahalmena

-Ahalerako formak

"Etor ein senkilttes gurdosun orduen"(K.Mj)

"...se igual ego(n) leittela mesa baten desioan"(K.Mj)

"Egon senkilttes seuk (g)urdosun lekuen"(K.Mj)

"Posik on senkilttes"(Z.U)

"Gure baseinddun emen lotu senkilttesan"(K.Mj)

"Lotu lekitten atzo emen"(K.Mj)

"Ixin lekितte"(M.L)

-Ahalera erabili gabe

"Al basara etorri etorri"(K.Mj)

"Sartu al basariye sartu"(K.Mj)

"Egon al bagara egon eingo gara"(K.Mj)

"Al dau yan?"(K.Mj)

546.2- Ezina⁶

-Ahalerako formak

"Ori ixin ein lei"(K.Mj)

"Emen ixin genkilttes egon"(K.Mj)

"Ori ixin geinki ein permiso bank"(K.Mj)

"Ume oberik ixi(n) llei eskatu"(K.Mj)

"An neguen ixin lekितte egon"(K.Mj)

"Ixin nenkiste tokau aloteriye"(K.Mj)

"Onegas esin neinki berbain"(M.L)

⁶"Ezin + Partizipioa + Ahalera" ordena kasuren batean baino ez da erabiltzen eta ez da oso orden normala

Ahalera erabili gabe

"Su barik ixin nas egon ni"(K.Mj)

"Ixin yaudan edan aurok"(K.Mj)

"Ixin nasta gustau"(K.Mj)

"Ik ixin ddoan edan"(K.Mj)

"Ori gixonori bierrik ein barik ixin dde egon"(K.Mj)

"Ixin sara etorri?"(K.Mj)

"Ixin sara sartu"(K.Mj)

"Emen ixin gara egon"(K.Mj)

"Ixin dauela in txala?ba ill ein ber da"(J.M.)

5.4.7. BEHARRIZANA

Erabilera normalena beti trantsitiboa da, baina aditz intrantsitiboekin laguntzaile intrantsitiboak erabiltzea ere normala da.

"Emeti yoan in ber du"(K.Mj)

"Sartu in ber dosu"(K.Mj)

"Yan in ber dosu"(K.Mj)

"Umiek asi in ber daude"(K.Mj)⁷

"Mutill ona ixin ber dosu"(K.Mj)

"Yoan in ber dot"(K.Mj)⁸

⁷"Umiek asi in ber dire" ere bai

⁸"Yoan in ber nas" ere bai.

55- ESALDI KOORDINATUAK

5.5.1- KOPULATIBOAK

5.5.1.1- ETA,TA,DA... lokarria

-ETA,TA,DA... aldakortasuna

DA da erabiliena, baina hirurak dira normalak, testu inguruaren arabera aldatzen direlarik. Ohizko erregela fonetikoak betetzen dira hauekin, adibidez itxidura eta bustidura fenomenoak⁹.

"Kosi arrontza bat edo serien da... frijidu te yan"(J.M)

"Etzie emelik eta ensegida egon san"(J.M)

"An esetu te gero, ba, yoan ilieck eta ilieck eta serien da egunek eta domeka askotan ba ibilli yantzan da gero..."(J.M)

"Medidie ixin lekite Saratamoti asi lte onagiñokoa"(K.Mj)

"Kafelesnie sopakas, da gero armosu apur bet"(J.M)

"Yo ta benga yo an da garandu iten san"(J.M)

"Artxandatik biera yoan da Sondikera"(J.M)

"Egun beten danak ixin leis ein de"(K.Mj)

-ETA esaldi soilaren atalak ugaritzeko

"Lengo egunien yoan sien au Karmenxu te"(K.Mj)

"Edaixu, edaixu kafe ta"(K.Mj)

"On lte au Mariano Artiakoa ta"(K.Mj)

"Kandelerueck egoten siesan, elixara ta erateko"(J.M)

"Oin daritzes ortxe in ber daudela sera, garajie, kotxiak eta gordetako"(K.Mj)

"Karmenxu te sapatuetan yoaten dire orti"(K.Mj)

"An soloak eta auki gendusen"(M.L.)

- ETA zergatik kulsuz¹⁰

⁹ -U + TA = -UTE, -I + TA = -ITE = -I TTE

¹⁰ Ikus "ZERGATIZKOAK"

55.12- BE, BERE, BAITA, EZTA...

BAITA, EZTA... ez dira oso erabiliak, BE BAI, BE EZ askoz gehiago. Batzutan tarteko formak, nahastuak ere esaten dira.

-BAITE...BE / BAI...BE¹¹

"Lorea kanpoti ibiltten da, baitte Jose be bai"(K.Mj.)

"Josek beiye(k)(d)ekos, baitte Luxiano(k)p(b)e bai"(K.Mj.)

"Nire laguneri ukusi dotzet, baitte saludau be bai, ein tzet"(K.Mj.)

"Pedritok bier asko itten dau, baitte Karmentxu(k)p(b)e bai"(K.Mj.)

"Loreak a neguen biarreitten dau, baie baitte Jose(k)p(b)e biarreitten dau neguen"(K.Mj.)

-EZTA...BE / EZ...BE

"Umieri esta esta esta au be estau gure erderarik eittenik"(K.Mj.)

"Niri enasta gustetan patxarana, esta suri bes"(K.Mj.)

"Gurie esta, esta surona bes"(K.Mj.)

"Loreak estau biarreitten agostuen, esta Jose(k)p(b)es"(K.Mj.)

"Guk esteku beirik eta...esta Mari(k)p(b)es"(K.Mj.)

-BE / BERE alternantzia¹²

"Nik ori ondo entenietan dot, da suro(k)p(b)ere, suro(k)p(b)e ondo entenidukosue ori"(K.Mj.)

"Gau(k)p(b)ere eran du, erantzus u patatak, inddabie..."(J.M.)

"Urrungo urtien bere gurixiñ euden sartu"(K.Mj.)

"Igitiyegas bere ba bedarra ebaitten geinddun"(K.Mj.)

"Urtein posik eitten dau da sartu bere posik, kontentus"(K.Mj.)

"Pasetan nasta gauserik pasau be niri"(K.Mj.)

"Taloa la esnie be yaten geinddun guren"(K.Mj.)

"Posi(k)tx(y)oaten da eskolara, etorri be kontentu itten da"(K.Mj.)

"Lo aitten dau baie yan be itten dau"(K.E.)

¹¹ Adibide guzti hauek ez daude emanda oso era naturalean, nik beraietaz galdetuta baino. Hizkera normalean BE BAI BE EZ bakarrik erabiltzen dira.

¹² Biak dira oso erabiliak eta bere alternantzia ez da arrazoi lojikorik ikusten.

BE BAI¹³

- "Ba lenao ibillen garan a geubes be bai"(J.M)
- "Neu be bai egon nas"(J.M)
- "Neu be bai, da bere andrie be bai eon san"(J.M)
- "Bai, da lantzimiñ i usenetik)p(b)e bai"(J.M)
- "Bestiek be bai, bestiek be yoaten dire"(K.Mj)
- "Estudiyau eitten daude ondo da nota onak atara be bai"(K.Mj)
- "Yoan posik eitten da, baie gero etorri be bai"(K.Mj)

BE EZ

- "Intxaurnik es, da okarani(k)p(b)es"(J.Mj)
- "Igual atrebidu bes yoaten, da tabernatara pentzau bes"(J.M)
- "Elixara yoan bes inor"(K.Mj)
- "Bakarrik esta yoan, etorri bere bakarrik esta ingo"(K.Mj)
- "Guk esteku beink, da Mari(k)p(b)es, Mari(k)p(b)e esteko"(K.Mj)

EZEZE_BE

- "Negar esese barrein be itten du guk"(K.Mj)
- "Lo esese yan be itten dau umiek"(K.Mj)
- "Umiek esese nagosiyetk)p(b)e yoaten dire"(K.Mj)
- "Tiñagan esese emen be badakigu ori"(K.Mj)
- "Leixugak esese bainak)p(b)e soloan dekus"(K.Mj)
- "Arrañak esese, okelie be sano gustetan nasta niri"(K.Mj)

EZ BAKARRIK_BE

- "Es pentzau oin bakarrik)(d)atola jenero ona, len bere egoten san"(J.M)
- "Yan aitten du, baie yan bakarrik es, edan be itten du"(K.Mj)
- "Negar bakarrik es, barre be itten du"(K.Mj)
- "Umiek bakarrik es, nagosiyetk)p(b)e yoaten dire"(K.Mj)

¹³Batzutan, batez ere gazteago direnen artean, nahastu egiten da teorikoki BE(RE) bakarrik erabili beharke litzatekeen kasuekin.

552- DISJUNTIBOAK

55.2.1- ALA

-..ala..

"Gero estaitt etorko badire batera ala ser eingo dauden"(K.Mj)

"Yoan soas ala etorri satos?"(K.Mj)

"Ser da, mutille ala neskie?"(K.Mj)

"Ukusi ein bier ona ala txarra urteingo dauen"(K.Mj)

-...ALA?

"Basoasie, ala?"(K.Md)

"Tontotute saos, ala?"(K.Mj)

"Orrek estaki euskeras, ala?"(K.Mj)

"Estosu gure, ala?"(K.Mj)

"Kantzau sara, ala?"(K.Mj)

"Suk beti dekosu gosie, ala?"(K.Mj)

55.2.2- EDO

-EDO esaldi asertiboetan

"Estaitt etor bada edo es"(K.Mj)

"Badakixu bada mutille edo neskatoa?"(K.Mj)

"Telefonoa txarto darill edo estao inor etzien,estlaude kontestetan da"(K.Mj)

"Yan edo oira yoan, begire es egon"(K.Mj)

"Gurdosu bai edo¹⁴ es?"(K.Mj)

"Esaixu bai edo es, klaro"(K.Mj)

"Esan ber dostesu bai edo es"(K.Mj)

¹⁴"Bai ALA ez" baino gehiago "Bai EDO ez" esaten da Basaurin.

-EDO zentzu berdintsuen adierazgarri

"Neskatillek e geiyeu edo esagun geiyeuakoak a egoten siesan"(J.M.)

"Olan porrue edo palatak edo inddabie, orreik gausok es"(J.M.)

"Aurreti(k)l(d)oanak, beiyek edo idiyek eran ber daus"(J.M.)

"Andriñak edo orreik estotzies ekarri"(K.Mj.)

"Sirimiriye gas edo auri gitxiges"(M.I.)

-EDO...EDO...

"Edo bata edo bestie"(K.Mj.)

"Berbaiten dauen bakotxien edo dabil ullie artuten edo tonteriyek esaten"(M.I.)

...EDO, "gutxi gorabehera"zentzuaz.

"Biarren sartuduen amasei urte edo eukin dodasan"(J.M.)

"Oin apur bel gortute edo dao"(M.I.)

"Aukiusen ba lau urtetxu edo au sentrala aia aurenien"(M.I.)

"Pastoriek e diñon letxe ba sera, denpora txarra in ber dauela edo ude txarra dakarrela edo"(M.I.)

5.5.2.3.- NAHI (NAHI)¹⁵

Erabilera normalena aditza jokatu gabekoa da, baina aditza jokatzuz ere esaten da, baita aditza isilpeturik ere:

...NAHI...

"Gu beti biarren, domekie bada nai astelena bada"(K.Mj.)

"Txikerra neintzen nai andiye neintzen, maiezien buru neintzen"(M.I.)

"Baskariye ona, etzien nai tabeman"(K.Mj.)

"Aurrerantza nai atzerantza igual aitten du guk"(K.Mj.)

"Sarrari nai gastieri igual yoako"(K.Mj.)

"Sekorra nai birintzi ixin, gure aite San Antoniok yagon daiela"(M.I.)

"Sarrak ixin nai gastiek ixin dano(k)l(d)ekus geure poblema"(K.Mj.)

¹⁵NAHIZ...NAHIZ... eta ZEIN...ZEIN... ez dira erabiltzen.

-NAI...NAI...

"Geiyen-geiyen e kosi,nei⁶ neskatoa nei mutille ixin,au txorromorro"(J.M.)

"Nai galtzu asko euki, nai galtzu txiki euki, maietzi en beti..."(M.I.)

"Nai lagundu itten bagatus nai es lagundu aurrera igual aingu guk"(K.Mj.)

"Nai emen nai beste leku beten danien igual"(K.Mj.)

"Nai astelenien nai martitzenien..."(K.Mj.)

5.5.3.-DISTRIBUTIBOAK

5.5.3.1.- ...LA...LA¹⁷

"An a enjeneral landara geiyenak yorratu, piperra dala ta baiñie dala inddabie dala ta yorratuten yoaten nas"(Z.U.)

"Motza dala nai politte dala niri enoste ardure"(K.Mj.)

"Edo sagarrak erre ber dieresela edo flana ein ber dala edo..."(K.Mj.)

"Galtzupullak kositte lapurrek erre ber dieresela ta estai(t) ser ein ber dieresela"(K.Md.)

5.5.3.2.- BAT...BESTE... / BATZU...BESTE¹⁸

"Bat gastie, lar gastie da, da bestie lar sarra"(K.Mj.)

"Serra andi betegas,es? bat an goiyen da bestie bien"(J.M.)

"Bat ostenduten san a ukullu beten beste ba(t)p(b)estien, da, aber, non daosen beste bat topetan"(J.M.)

"Gora bera gora bera, batek (g)ora bestie(k)p(b)era"(J.M.)

"Batek fumau itten dau da besteik edan, alandase biyek faltak"(K.Mj.)

"Beti galletak a baten begittu bestien begittu..."(K.Mj.)

"Baten alderdi betera yoaten dire da bestien bestera, da etzien beti bakarrik"(K.Mj.)

"Batzuk u emoten dauren e materiyela, beste batzuk u yana"(J.M.)

"Batzuk lodittu gure, beste batzuk argaldu gure, iñor bes konforme"(K.Mj.)

¹⁶Ai / El diptongoen alternantzia normala da Ikus fonetika arloa.

¹⁷Egitura hau ez da ia erabiltzen, "Edo" edo "Nai"-rekin konbinatuta batzutan bai, baina bera bakarrik nekez.

¹⁸Lehenengo zatia mugatu barik mugagabeen erabiltzen da ia kasu guztietan.

5.5.4. ADBERTSATIBOAK

5.5.4.1. BAIE¹⁹ / BAINO

-Lehen esaldia + BAIE + Bigarren esaldia

"Nik gurot yoan, baie ya berandu da ta"(M.I)

"Goardia sobille(k)p(b)ai, yoan bai, baie errotariyek e itxiri(k)l(d)ana"(J.M)

"Nik segidu in dodan, baie gero ya nire lagune..."(J.M)

"Urrungo urtien gurxiñ euden sartu, baie ateik itxi in geintzesan"(K.Mj)

"Olgau itten dau, baie estudiyau bapes"(K.Mj)

-BAIE esaldi amaieran

"Nora soas baie?"(M.I)

"Ser gurusu baie?"(M.I)

"Selan etorri sara baia?"(M.I)

-BAINO

"Ori guk estotzu in, suro(k)p(b)ano"(K.Mj)

"Yarritte estau, suluni(k)p(b)ano"(K.Mj)

"Au alkatie etorriketona estekosu buruko mine baño"(M.I)

"Emen estao bierra baño besterik"(K.Mj)

"Ak esteko besterik, urtie(k)p(b)ano es"(K.Mj)

5.5.4.2. BARIK / BEHARREAN

BARIK

"Dirue dekosun arte gastau, gorde bank, gero peniegas egon bank"(K.Mj)

"Begire egon bank etorri lte biarrein"(K.Mj)

"Paraute egon bank estudiyau baseinki obeto"(K.Mj)

"Etorri sutondora, otzak illten egon bank"(K.Mj)

"Txingorra emen estu esaten, emen e txingorra bank abasusiye²⁰"(K.Mj)

¹⁹BANA ez da inoiz esaten, beti BAIE.

²⁰Aditza isilpeturik ere erabiltzen da.

-BEHARREAN

- "Amari esan biarrien ori, aitteri esan"(K.Mj.)
"Kantau biarrien yantzan eixu"(K.Mj.)
"Ure edan biarrien kafe baltza asukera barik,dranga-dranga"(K.Mj.)
"Bat bota biarrien bi egoten dire ta apartau ixiniik"(K.Mj.)

5.5.4.3. OSTERANTZEAN / EZPABERE / BESTELA

-OSTEINTZIEN²¹ / OSTEIEN²²

- "Umie, elori ona, osteintzien yo ingotzu"(K.Mj.)
"Karmenek unikamente iten dau auskeras, osteintzien aurek e..."(M.I.)
".....ostaintzien sorriyek yan ingo gatusen bixirik"(K.Mj.)
"Guk u txakoliñe etzien ein geinddun, baie osteintzien ardoa..."(K.Mj.)
"Bat txikerretan il yakon, baie osteintzien ixin sien iru neba ta au"(K.E.)
"Sapatuen deskantzue, osteintzeko bierrak aitleko"(K.Mj.)
"Lelengotan... gero osteintzien ondo e! gero pasau dodan ondo"(J.M.)
"Arrontza bat edo serien da frijidu te yan, baie osteien lapikokorik es"(J.M.)
"Karmelo alboan, da andik i ur yoateko, serien, osteien baseritik andik i nor ba, esin!"(J.M.)

-EZPABERE / EZPABE²³

- "Estaittoala enterau pepiñuek guk kostentzusela, espabere orrek ill eingo gatusena"(K.Mj.)
"Amarrak inguruen, edo lenao, da, espabere, urrungo egunien"(J.M.)
"Etorko sara ona, umie? espabere artukosu ta"(M.I.)
"Egon sates geldi, se espabere yo ingotzu"(K.Mj.)
"Yaixu edo espabere basoas ointxe oira"(M.I.)
"Estudiyau, espabere estosu aprobauko"(K.Mj.)
"Asi gatesan,bai? se espabe estu eser eingo ta²⁴"(K.Mj.)
"Jardiñe politto aukitteko birrein ber da, espabe estao"(K.Mj.)
"Diru sarrak edo espabe monedak"(P. Aur.)

²¹OstAlntzien / OstElntzien, bietara.

²²Lekuko bati, Jose Mojari bakarrik entzun diot hau zentzu honekin.

²³Biak dira oso erabiliak.

²⁴Hauxe izaten zen Karmen Mojaren eguneroko esaldia, nire galdera zehatzik gabe, elkarriketa hutsarekin denbora galtzen geundelakoan.

-BESTELA

"Elixara yoan ber badu bai, baie bestela es"(M.I.)

"Ekarri mortzillek da bestela es etorri"(K.Mj.)

"Yaixu se bestela txaplasu bet emongotzu"(K.Mj.)

5.5.4.4. OSTERA / OSTEAN / BARRIZ / BARREZ²⁵

-OSTERA / OSTEIEN

"Ondo pasau berak aitten dau,baie ostera estudyau bape estau itten da"KMj)

"Denpora onagas a bagaritzes ondo baie txarragas a ostera txarto"(K.Mj.)

"Da aitte defuntue, a ostera, biyotzekoa, aitte defuntuek"(K.Mj.)

"Fiñagako etzien asko bixi geintzen, emen ostera gitxi"(K.Mj.)

"Artoa bai, baie osteien patatie, urte betetik bestera kanbiyetan san"(J.M.)

"Oin ya esta inten, osteien guk u..."(J.M.)

-BARREZ²⁶

"Landara onak, gastiek eta ondo, ondo gobernaunik, barres²⁷"(J.M.)

"Yoan da etorri oñes eite(n) euren, barres, e, Miraballesetik"(M.I.)

"Karmen be onagoa san, on utze, da bastante gasterik il sen, barres"(K.Mj.)

"Poraoran ondo, akabau dau,barres"(K.Mj.)

"Gustau itten da, barres, aukittie"(K.Mj.)

"Ak auki (a)uen marrona, lengo urtekoak, bestiek, barres, angoak ak a eneindun ukusi"(K.Mj.)

"Yan ondo itten dau, lo barres estau itten ondo"(K.Mj.)

"Lo aitten dau, barres estudyau estau itten bapes"(K.Mj.)

"Edan aitten dau, baie barres e yan bapes"(K.Mj.)

"Auriyek bere serak dekos, da txingorra barres e arriyek e danak apurtu itten daus"(K.Mj.)

²⁵OSTERA da modu erabiliena zentzu honekin.

²⁶BARRIZ ez da esaten

²⁷Esaldien bukaeran sarri erabiltzen da BARREZ eta kutsu berezia ematen dio, aurretik esan dena indartu edo egiten dela dirudi.

5.5.4.5. ERDARAKADAK²⁸

"Gurien egun gusti gustiyetan kafe, sin embargo koparik es"(K.Mj.)

"Egoten sien beli apurtxu bet e destakadotxuek yasten da, sin embargo emeko aitte defuntue..."(K.Mj.)

"...da sin embargo oin bakixu"(M.I.)

"Lusarre txikerra da la Fiñaga sin embargo andiye da"(M.I.)

²⁸Erdarazko "Sin embargo" pila bat erabiltzen da honelako esaldietan.

5.6.- MENPEKO ESALDIAK

5.6.1.- OSOGARRIAK

5.6.1.1.- Adilz jokatuaz

5.6.1.1.1.- LA²⁹

"Esan dau politte dala ta asko gustau yakola"(K.Mj)

"Estaittoala enterau pepiñuek guk kosten tzusela"(K.Mj)

"Esaosten medikuek edan nenkiyela basutxu bet ardo yatorduetan"(K.Mj)

"Niri iñok estostela siñestuten Samielgoa nasela neure bixi gustiyen"(M.I)

"Pentzaurik igual ama laster ilko dala..."(K.Mj)

"Etor diesela pentzetan dot"(K.Mj)

"Es pentzau oin bakarri(k)(d)aola jenero ona"(J.M)

"Amak estau yakin i emetik sarisela"(K.Mj)

"Entzun dosu ori etor dela?"(K.Mj)

"Yakin ddosu Lorea eskondu dela?"(K.Mj)

5.6.1.1.2.- NA esaldi osogarrien lokarria, Bizkaiko beste leku askotan ez bezala, ez da erabiltzen Basauri aldeko euskaraz, edo nik, behintzat, ez dut jaso. Nahiz eta esaldi menperatuko ekintza hiztunarentzat jakinekoa izan edo ziurtasuna adierazi, LA lokarria erabiltzen da:

"Batena bakiye il sela"(J.M)

"Beintzet e bakit Galdakokoa sala"(K.Mj)

"Bakit egiyce dala"(M.I)

"Esaun de aberatza dala"(K.Mj)

"Orren igerri iten yako aberatza dala"(M.I)

"Seguru nao etorko diesela"(M.I)

"...da grasiak patinetiegas emon otzala berak musturrien"(M.I)

"Emen grasiak umerik estabillela"(M.I)

"Eskerrak agertu sariyela"(M.I)

"Eskerrak etorri sariela"(K.Mj)

"Yakin neinddun nik umetan txikitxue ixin seintzela"(K.Mj)

²⁹Baiezko, ezezko nahi galderazko esaldietan erabiltzen da.

5.6.1.1.3.- NIK

-Ezezkoetan

"Estot pentzetan ori ei(n) lleiyenik"(K.Mj.)

"Suk estekosu itxurerik maixue sariyenik"(M.I.)

"Estot pentzau ain argala sariyenik"(K.Mj.)

"Nik estot yakin etor diesenik"(M.I.)

"Guk u es geinddun u pentan plasara allegau ber dunik, da aintxe yantzan basoan biyok"(K.Mj.)

"Estot entzun etor sarienik"(K.Mj.)

"Estot pentzau etorriko danik ori gixonori"(K.Mj.)

-Galderetan³⁰

"Ori esango seunke suk barriro etorriko danik?"(K.Mj.)

"Suk pentzetan dosu orreik etor lekiltesenik ostabere?"(K.Mj.)

5.6.1.1.4.- NAREN egitura osogarria ez da erabiltzen. Bere ordeaz -N hutsa erabiltzen da:

"Gixon orrek yan barik dauen antza deko"(K.Mj.)

"Estekosu maixue saran a etxurerik"(K.Mj.)

"Gixonak a abadie ixin dden antzik esteko"(K.Mj.)

5.6.1.1.5.- LA-ren gainekoak

5.6.1.1.5.1.-LAKO oso erabilia da batuazko -LAKOAN-en zentzuarekin.

"Aistu te amatau dosuleko ixetute ta txapie gorri"(K.Mj.)

"Umieri igual a yaten emotentzielako bere auro(k)lx(y)an da umieri gitxi emon"(K.Mj.)

"Ni etor dieselako nago"(K.Mj.)

"Errespeto geiyeu dekolako serien"(J.M.)

³⁰Ez da erabilera normala, noizean behin bakarrik esaten da.

5.6.1.1.52.-LAKOAN ere nahiko normala da.

"Etor dieselakoan nago"(K.Mj.)

"Ori etor dalakoan nao"(K.Mj.)

"An daolakoan emen presentetan da"(K.Mj.)

5.6.1.1.53.-LAZKOAN ere forma ezaguna da, baina oso gutxitan erabilia.

"Fuerte daolaskoan da gaixorik paretan da"(K.Mj.)

"Ori lagune dalaskoan nao"(K.Mj.)

5.6.1.1.6.-N/-LA subjuntibozko formekin

"Esangotzet arin ibil daittela"(K.Mj.)

"Umiek yagon edo etzie apur bet arregletako gure lekiyiela yoan neittela ara kriyeda atzera"(K.Mj.)

"Goxeti etor gaittesen³¹ etzera gure dau lagunek"(K.Mj.)

"Ona da ori,mutil-neskatoak eskolan arkalegas olgetan ibil daittesela"(K.Mj.)

"Etzera yoan daittela aginddu otzet"(K.Mj.)

"Aginddu otzet botilla bat ardo ekar daiyela etzera"(K.Mj.)

"Aittek diñotze mas-tronko batzuk ifin daiesela emen txakoliñe itteko"(K.Mj.)

"Gure dot tokau yakon³² aloteriye"(K.Mj.)

5.6.1.1.7.- BA- baldintza itxurapean osogarrien esanahi berdina.

"Gurao neunke espalai auririk ein"(K.Mj.)

5.6.1.1.8.- ZE...+ -LA

"Yoan sien lengo baten da esantzien se suertie be estala txikerra"(K.Mj.)

"Ospittelien esantzien se ixintziela eser ein"(K.Mj.)

"Gero esan auen se oin yoan ber daula Eroskire"(K.Mj.)

"Saurok esaten dosue se espadau illen auri asko kamiñoa daola sano peligroso sirimiriye gas edo auri gitxiges"(M.I.)

³¹"Etor" ez da aditz erroa, baizik eta forma sinkopatua. Sarritan gertatzen dira holakoak: "Etor(ri) nes", "Ekar(ri) dot"..... Ikus "Fonetika".

³²Yakon indikatibozko forma da, baina subjuntibo zentzuan erabilia. Ikus "Aditza".

-Askotan erabiltzen da zeharkako estilolik zuzenera pasatzeko, batez ere erdarazko zita bat egin behar denean:

"Da medikuek esaosten se: un vasito ya puedes beber"(K.Mj.)

"Eran neintzesan papelak eta esaosten se: Kamen, con estos papeles vienes?"(K.Mj.)

5.6.1.2- Aditz jokatu gabekoaz-Nominalizazioa

5.6.1.2.1- T(Z)EA

"Eneunke gure emeko fabrikan bierreitie suk"(J.M.)

"Lelengotan ba estauen gure ixin i urteitie berak a bakarik i..."(J.M.)

"Gurona ostutie orreni pepiñuek?"(K.Mj.)

"Es auen gure yoatie moja"(K.Mj.)

"Balekitte olaintxe be sertutie!"(M.I.)

"Kafie preparaute dao, irikittie faltan"(K.Mj.)

"A gurdiye niri tokau nastan atatie"(K.Mj.)

"Balekitte ixittie mutille, gurao"(K.Mj.)

"Gurol geiyau es erostie"(K.Mj.)

5.6.1.2.2- T(Z)EAK

"Auriye eittiek, lar, kalteik itten daus"(K.Mj.)

"Ori esatiek estotzu lotzank emoten?"(K.Mj.)

"Ain berandu altzatiek estotzu penie emoten?"(K.Mj.)

"Asko edatiek e problema txarrak ekarten daus"(K.Mj.)

5.6.1.2.3- T(Z)EARI

"Orrek baso bete ardo edatieri elekiyo esango esetz"(K.Mj.)

"Orrek edatieri emontze"(K.Mj.)

"Bier eittieri itxiotzet"(K.Mj.)

"Ereittieri segidu in ber yako aurrera, badaespadan"(K.Mj.)

5.6.1.2.4- T(Z)EAREN

"Gitxi yatien bentajak onak estire"(K.Mj.)

"Asko fumetien konsekuentziyek txarrak ixitten dire"(K.Mj.)

"Berba lar aittien problema(k)p(b)e estire onak"(K.Mj.)

5.6.1.2.5- T(Z)ERIK

- "Umieri esta esta esta au be estau gure erderarik eitterik"(K.Mj)
- "Estol gure disgusturik eukitterik"(M.I)
- "Esan egon kartarik eskribiduterik euskeras"(K.Md)
- "Elzie erre yakonik etona estao beragas berbaiterik"(M.I)
- "Nik estekol edaterik"(K.Mj)
- "Guk esteku orra sartuterik"(K.Mj)
- "Estudiyau esik estau aprobetarik, kalabasak"(K.Mj)

5.6.1.2.6- T(Z)EKO

- "Medikuek esan nosten neu yoateko"(J.M)
- "Aiko, guri gure aite defuntuek esaten geuren fabriketara es sartuteko"(J.M)
- "Esaios esaios emoteko ori sintion"(J.M)
- "Esantzien gurasoak yoateko"(M.I)
- "Esatontzen Pedritok es erosteko, baie..."(K.Mj)
- "Esantzel etorteko tertziyos etzera"(K.Mj)
- "Lagunduteko eskatuten dotzel"(M.I)

5.6.2- ZEHARKAKO GALDERA ESALDIAK

Erdararen eragina guztiz nabaria da hizlari guztiengan, gehienbat BA- / -N erabilerari dagokionez, atal honen "B" partean ikusiko denez.

5.6.2.1- Galdera hitzarekin egiten direnak

5.6.2.1.1- Esaldi asertiboak

- "Nik estait segaiti(k)(d)en"(J.M)
- "Estakiye nora doasen, ni neure erelxiyen"(J.M)
- "Estakit selan geittuko yakone"(K.E.)
- "Narra yakingosu ser dan"(K.Mj)
- "Ukusi itten auden nondi doasen neskatoak eta"(K.Mj)
- "Nik ederto entenidu dotzet ser esan dauen"(M.I)
- "Enasta akordetan selango usena dekon"(K.Mj)
- "Estait nona dan ori"(M.I)
- "Gure neunke yakin nok ein ddauen ori"(K.Mj)
- "Da (esan nosten) aber nora gogoa dekodan"(J.M)

5.6.2.1.2.- Esaldi interrogatiboak

"Estakixu ser pasau yakon?"(K.Mj.)

"Begittusu senbet etor diesan?"(K.Mj.)

5.6.2.1.3.- Agintezko esaldiak

"Esan daiyela senbet gurdauen"(K.Mj.)

"Preguntaiyosu aber nok apurtu dauen kristela"(K.Mj.)

"Esaixu aber nok erosi dauen kotxie"(K.Mj.)

"Begittuixu aber nok (g)aitsu dauen"(K.Mj.)

5.6.2.2. - Baietza eta ezetzaren eremuak

5.6.2.2.1.-N / BA³³ (ala ez)

"Estakigu biyer etorko bada"(K.Mj.)

"Nik estakit txarra ixin basan"(J.M.)

"Oin estait(t)p(b)adao"(J.M.)

"Datorren astien estait badao"(K.Mj.)

"Gero estait nik lagunen bat ekariko badau ona"(K.Mj.)

"Begittuixu aber etor bada"(K.Mj.)

"Bakixu etor diren ala es?"(M.I.)

"Intxur andi bet, oiñ estait egongo dan"(K.Mj.)

"Yakin gurdot ori egiye dan"(K.Mj.)

"Da ni apuraute, seoser pasau ete yakiyen"(K.Mj.)

"Olan paretan san agoa sabalik eta serien da an lotuko ete natan bilddurregas"(K.Mj.)

5.6.2.2.2.- EA / ABER....-N / BA³⁴

"Aber arkal artuten badaude"(K.Mj.)

"Aber famelikorik badao esan dauen"(J.M.)

"Yakin gure neunke nik aber esaten bagatus egiye"(K.Mj.)

"Aber espliketari botzut"(M.I.)

³³ N ez da ia batera erabiltzen, ia-ia "ETE" partikularekin lotuta doanean bakarrik.

³⁴ "Aber....ba-" da erabilera normala.

5.6.3.- BALDINTZAKOAK³⁵

5.6.3.1.- Aditz jokatuaz

5.6.3.1.1.-Orainaldiko errealak

- "Nobedaderi(k)p(b)adao ensegida etorko da baten bat esaten"(J.M.)
- "Aurten e emeko satien botaten bosu, datorren urtien bestien"(J.M.)
- "Bankueri berrogei ber bosus, ba amar edo eskatu leis, baie dana es, se espabere sekule ixin ddosu bururik altzau"(K.Mj.)
- "Badekosu sertako bier dosu geiyau?"(K.Mj.)

5.6.3.1.2.-Gerora begirako baldintzak, helburu kutsukoak

- "Bixiko bagara biarrein ein berku"(K.Mj.)
- "Aurrera gurbu urtein biarrein ein berdu"(K.Mj.)
- "Bixi gurbu biarrein berko da"(K.Mj.)
- "Eseixu edan yoan bier bosu aran balera kotxiegas"(M.I.)

5.6.3.1.3.-Lehenaldiko errealak

- "Orduen errotara eraten basendun, espadekosu papela edo sera, libretie edo, kendu ilten otzuen artoa ta gariye ta"(M.I.)
- "Ama etor basan umie(k)p(b)e etorko sien"(K.Mj.)
- "Atzo baietz esan basendun gaur segailik esaten dosu esetz?"(M.I.)
- "Su, nigana etor basan segosegaitik etorko san!"(M.I.)
- "Inos etorten basan amandrie ona..."(K.Md.)

5.6.3.1.4.-Orain-Geroko irrealak

Baldintza forma hauek eratzeko modu normalena, sintetikoak ez direnean, honako hau da: Partizipioa + BA + Potentziala³⁶.

- "Onek bueltie emon balei neuk bere aprobetxauko neinddun obeto"KMj
- "Auki baneinki emongo neixu"(K.Mj.)
- "Su be txarto ibilko seinkittes espasenko ser ein"(K.Mj.)
- "Estakixu,bakarrik i emelik ukustensune,baie gure moduen e basenkis"JM
- "Espaleuko pistirik beren kontra!"(M.I.)

³⁵Ikus aditzari dagokion kapitulua.

³⁶Adibidez batuazko "(izango) balitz" adierazteko Basauri aldean modu normalenak, ordenez, hauek izango lirateke: "Ixin balekitte" / "Balekitte" / "Baleitz". Ikus "Aditza".

-Bestelako erabilerak:

"Gaur esango balekistie³⁷: Su, ba urliyek..."(M.I.)

"Guk dana, ori edan bagaunke³⁸"(M.I.)

5.6.3.1.5.- Lehenaldiko irrealak

Partizipioa + Indikatibozko formak lehenaldian da ohizko erabilera:

"Egon baneintzoan ba neu sille bategas a ilko neiyoan bertan!"(K.Mj.)

"Nik yakin baneindun eneindun erosko ori etzeori"(K.Mj.)

"Ukusi baseindun!"(K.Mj.)

"Pedritton aitte bixi ixin basan milloi bet kobraukouen"(K.Mj.)

"Su etor baseintzen ondo pasauko geindun"(K.Mj.)

"Euki baun³⁹ u ser artaburu, kosi te bim buim, yo bateri ser artaburu, artaburu seu sara, orduin bai"(J.M.)

5.6.3.2.- Aditz jokaturakoaz

5.6.3.2.1.- AZKERO

"Su yoan askero neu be yoango neinkitte"(K.Mj.)

"Ardoa lar edan askero moskorra seguru"(K.Mj.)

"Lar yan askero lodittu illen da"(K.Mj.)

"Banekiyen ondo, baia... itxi askero gausak beti ba aistu illen da"(P.Aur.)

5.6.3.2.2.- AZKIÑO / AZKETIÑO⁴⁰

"Biarra aukiñ asketiño!"(G.G.)

"Asi asketiño..."(B.B.)

"Egun gustien egon askiño kanpoan gero ser gaubien e solora?"(J.M.)

"Esan askiño au emeiosu amatxuri ensegida kosi te emolontze"(J.M.)

"Arra nai emie ixin igual da, ona ixin askiño"(K.Mj.)

"Gurien lengo sarrak esaten auden e kapabaltzak a etze ingurura arrimau askiño, ensegida berantza"(K.Mj.)

³⁷Partizipioa + KO + potentziala, ez da hain normala

³⁸Partizipioa + BA + ondoriozko forma. Honela ere egiten dira baldintzazkoak, baina potentzialarekin normalagoa da.

³⁹"Badogun" = "Baun". Orainaldiko forma + -N modu normala da lehenaldiak osatzeko.

⁴⁰Lehena bigarrena baino askoz normalagoa da. AZKERO eta AZKIÑO biak erabiltzen dira asko.

5.6.3.2.3.- EZIK / EZEAN¹¹

- "Eser eñ esik obeto"(K.Mj)
- "Al dan orduen eñ esik esebes"(K.Mj)
- "Etakiye emoten da emon esik..."(K.Mj)
- "Auki (e)sik ba esta fumetan"(K.Mj)
- "Inor egon esik ixin ddu berbarik ein"(K.Mj)
- "Dirurik auki (e)sien ixin lei eser erosi"(K.Mj)
- "Estudiyau esien estosu aprobauko"(K.Mj)

5.6.3.2.4.- TEKOTAN¹²

- "Neuri dana emotekotan yoango nas"(K.Mj)
- "Sinera yoatekolan urteingot etzeli da osteintzien enoa urteitten"(K.Mj)
- "Eser emon es eittekotan ba arpeli saos emen"(K.Mj)
- "Eser eñ es eittekotan, ortakotan etzera darot eta yaesta"(K.Mj)
- "Kallera yoan es eittekolan enoa ifintten majarik"(K.Mj)
- "Tabernara yoatekolan etzien mille bider obeto nao"(MI)

5.6.3.2.5.- Partizipioa + -AN + BE(RE)

- "Ereittien segidu, gosie etorriyen bere aukitleko"(K.Mj)
- "Baten batek ukusiyen be ori ondo gordeixu"(K.Mj)
- "Baten bat yausiyen bere ori platano asalori kendu orti"(K.Mj)
- "Ostondu sales Loreak ukusiyen bere"(K.Mj)

¹¹Biak dira normalak.

¹²Beste forma batzuetatik -TEKOAN, -TEKOTZAT ezagunak egiten zaizkie lekuko batzuri, baina ez dituzte erabiltzen. Baldintza mota honetarako gerokotasun zentzua dauka.

5.6.3.2.6. - ZEIN⁴³

- "Eseixu txarto berbain seiñ umiek entzun"(K.Mj.)
- "Eraixu guardasola sein busti"(K.Mj.)
- "Yoan geldiro sein labandu te yausi"(K.Mj.)
- "Umie ondo yagon, sein galdu"(K.Mj.)
- "Kristelak ifini deittues danetan, komedorien, balkoien da danien sagatie etorri serera ta umie be seiñ ixartu te serien"(K.Mj.)
- "Nebarrebakas seiñ enfadau ser ein nendun? soloa neurie saldu ariñeketan"(Z.U.)
- "Esnieri ure? seiñ erre, sein kasulie erre"(Z.U.)

5.6.4. - HELBURUZKOAK

5.6.4.1. - Aditz jokatuaz

- Subjuntiboa + -N

Gutxitan erabiltzen da, bere ordeaz forma nominalizatuak esaten dira ia beti.

- "Umiek negar aitten dau gu konturatu gaittesen beragas"(K.Mj.)
- "Aittek pagie emon deisten ondo portau ber dot beragas"(K.Mj.)
- "Emontzet mille peseta lagundu gatusen⁴⁴"(K.Mj.)

⁴³Azken bi egitura hauek: Partiz. + AN + BE(RE) eta ZEIN baldintzazko esaldien artean sartu ditugu, baina bere esanahiagatik batzutan helburuzkoekin erlaziona litezke eta kasu batzutan baita kontzesiboekin ere. Adibidez lehenengo adibideko "Gosie etorriyen bere" eta "Gosie etorrila ere" edo "Gosie etorri arren" gutxi gorabehera gauza bera dira. Bestalde, Karmen Mojari berari esaldi hauetariko batzuren erdarazko itzulpena eskatzean honela erantzun zidan: "Eraixu guardasola sein busti" = "Coger el paraguas pa no mojar". "Umie ondo yagon, sein galdu" = "La criatura cuidar bien pa no perder". Beraz, gutxi gorabehera ezezko helburuen zentzua hartzen dute esaldiok.

⁴⁴"Gatusen" ez da berez subjuntibozko forma, baina zentzu horrekin erabiltzen dira sarri indikatibozko formak -N erantsita.

5.6.4.2.- Aditz jokatubakoaz

5.6.4.2.1.- TEKO / -TERA / -TEN⁴⁵

"Pris(e) asko auki askiño aran batera yoateko alabieri esatontzet"(J.M.)

"In ber dun u gariye entregetako auron"(J.M.)

"Labasue inten dun u artoa errelako, bai, artoa apur bet pasetako, gustu ona emoleko"(J.M.)

"Papelerara sartu nasen errelebotan birreiteko"(J.M.)

"Urrik emoleko bes!"(K.Md.)

"Auli bet illteko kapas es!"(K.Mj.)

"Lepoa igurdi tte yo, amasie bueltetako"(K.Mj.)

"Lo in ber da mutill andi asteko"(M.I.)

"Ya eskonduteko gogoa auki dodan"(J.M.)

"Ori fregaderali yoateko da"(K.Mj.)

"Milloitxu bet esta galdutekoa!"(K.Mj.)

"(Andrie)...esnie salduten yoaten san Samigelera astoagas"(J.M.)

"Andra biduru⁴⁶ ba erre kara, estiek (g)arbituten"(J.M.)

"Komulgetan esalako yoan emotzen palixe bat!"(K.Mj.)

"Yoaten sien Seanurigiño sardiñek salduten"(M.L.)

5.6.4.2.2.- TEKOTAN⁴⁷

"Orretakotan, ori eittekotan, etzien lotu"(K.Mj.)

"Basora yoatekotan bortzegiyek yantzi berko do(d)as"(K.Mj.)

"Tabemara yoatekotan gurao dot etzien lotu"(K.Mj.)

"Elixara yoatekotan preparauko nas"(M.I.)

⁴⁵Basauri aldean, Bizkaiko beste hainbat lekutan bezala, ZERTARA joan, etorri... esan beharrean, ZERTAN joan, etorri... esaten da. Beraz, kasuotan -TERA barik -TEN erabiltzen da.

⁴⁶BIDURU = "Bi edo hiru".

⁴⁷Esaldi hauek erdi helburuzkoak erdi geroaldiko baldintzazkoak dira.

5.6.4.2.3.- TEAGAITIK / -TEAGAITIÑO⁴⁸

"Suges egotiegaitiño etorri nes"(K.Mj.)

"Su ukustiegaitiño etor dire lagunek"(K.Mj.)

5.6.4.2.4.- T(E)ARREN⁴⁹

"Ondarroara yoan geintzen lebatza yatarren"(K.Mj.)

"Lagune ukustarren yoan nas ospitalera"(K.Mj.)

"Dirue aurreratutarren orrek txarto yaten dau"(K.Mj.)

"Oiti altzau mesie entzutiaren?"(K.Mj.)

"Auskera ikistarren yoan de ikastolara"(K.Mj.)

"Esnie erostarren yoan de Bilbora"(K.Mj.)

"Ikastolara dabil euskera ikistarren"(M.I.)

5.6.4.2.5.- T(E)ARRIK

"Suges egotarrrik etorri nes"(K.Mj.)

"Samudiyora yoan de ixiko ukustarrrik"(K.Mj.)

"Aurori, semieri, emotarrrik i estudiyo apur bet"(J.M.)

"Da gero...ba esatarrrik i geu"(J.M.)

5.6.5.- ERLATIBOZKOAK

5.6.5.1.- Egitura lotuan

"Nik i ba yan, andriek ifinten dauena yan"(J.M.)

"Idiyek euki dauresanak idiyekas"(J.M.)

"Diru apur bet auki daurenak a jenero ona aukiten dauren"(J.M.)

"Oin dekodan andriegas"(J.M.)

"Suk ukustensune bakarrik, suk estosu urtein emetik, estakixu"(J.M.)

"Iñon diesenak eintziesan"(K.Mj.)

"Auriyek eitten deittusen kaltiek andiye(k)t(d)ire"(K.Mj.)

"Jentiek emotentzenagas bixi de ori"(K.Mj.)

⁴⁸EgoTIEGAIITI(K) forma ezaguna egiten zaie lekukoei, baina helburu zentzuarekin EgoTIEGAIITIÑO, EgoTARRIK eta,batez ere, EgoTARREN dira erabiliak.

⁴⁹Hauze da modu erabiliena askogatik helburuzko esaldiak egiteko. Normalean -TARREN da erabiltzen den atzizkia, nahiz eta noizean behin -TIARREN ere entzun.

5.6.5.2- Egitura banatuan:Aposizioan

"Ausoko batzu(k)p(b)e bai, txarriye eusten e dabixenak"(J.M.)

"Gixon bat e... edan eiten dauena"(J.M.)

"Ori de ara(t)x bat a basotan dauena"(J.M.)

5.6.5.3- Erlatibo kutsuko esakera adierazkorrak⁵⁰

"Non lan ba an yan"(K.Mj.)

"Umien e sentzune etzien e entzune"(K.Mj.)

"Ser ukusi (osun) a ikixi"(K.Mj.)

"Ser erein (-Iten dosun) a batu"(K.Mj.)

"Nondi etorri (sariyen) andi yoan"(K.Mj.)

5.6.5.4- Caldera hitzekin erlatibo esanahikoak

"Aurten estu bota guk, estao nok eñik"(J.M.)

"Arotz emen estao seregiñik"(J.M.)

"Bier asko da nok ein gilxi"(K.Mj.)

"Ointxe gaste sariyen arte da nok alboti erakutzi dekosuen arte ikixi te in"(K.Mj.)

5.6.6- PARTIZIPIOZKOAK

5.6.6.1- Partizipioa + -KO⁵¹

"Len ukusiko gixona nire lagune da"(K.Mj.)

"Bertan yaiyokoak ixin ber dire"(K.Md.)

"Jentiek emoneikoagas⁵² bixi de ori"(K.Mj.)

"Suk esaneiko moduen"(M.I.)

"Illeiko gixona sarra san"(K.Mj.)

⁵⁰Hautariko gehienak aditza jokatuz zein jokatuta gabe esaten dira.

⁵¹Beste leku batzuetako -TAKO eta -(R)IKO ez dira Basaurin erabiltzen. Hemen aditz partizipioari zuzen erantzen zaio -(E)KO atzizkia.

⁵²Aditza kontsonantez amaitzen bada normalena -EIKO lotzea da. -I eta guzti.

5.6.6.2.- Deklinabide markak partizipio hutsari erantsiz

"Ona etorriyek, oneik ya porejemplo Larrabetzukoak eta oneik"(M.I.)

"Bilbon yaiyoa(k)p(b)e bilbotarra(k)(d)ire"(K.Mj.)

"Radiyoan entzunek enastas gustau"(K.Mj.)

"Gure ama san Larrabetzutik etorriye"(Z.U.)

"Da nire gixona emen yaiyoa"(Z.U.)

5.6.7.- ZERGATIZKOAK

5.6.7.1.- Aditz jokatuaz

5.6.7.1.1.- LAKO

"Penie da gasterik il ddelako"(K.Mj.)

"Gurdodalako ain ddot ori"(K.Mj.)

"Egarriye auki dodalako edan dot ure"(K.Mj.)

"Orreik eperdikerak, beti dantzeselako serien"(K.Mj.)

"Fumetan badau asko txarra, diru asko gastetan daudelako"(K.Mj.)

"Bideoa ekar dosuleko, seguramente"(K.E.)

"Nik estakidelako erderas"(K.Mj.)

"Egarri sarielako edan dosu ure"(K.Mj.)

5.6.7.1.2.- LAKOAN⁵³

"Auriye asi delakoan etor gara gu"(K.Mj.)

"Inok estotzo sinisten, ba gusurre baño estauelakoan esaten"(M.I.)

"Sarrenak estudyau daulakoan, medikue da, baie dentistie danak.."(M.I.)

"...da auskerie...oin alabakas ikixi daulakoan, osteintzien eseuen yakin esebes"(M.I.)

"Danak labradorien kontra, artatxoriyek gariye garanduten daulakoan, satorrak aspiti jaten⁵⁴ dauelakoan.."(M.I.)

⁵³ -LAKO eta -LAKOAN biak dira oso erabiliak kausal zentzuan.

⁵⁴ Mari Izagirek noizean behin J-ren bat botatzen du, gorra: /X/, seguruenik bere Ondarruko suhiaren eta beronen umeen eraginagatik.

5.6.7.1.3.- ...ETA(...DA / ...TA)⁵⁵

- "Geu(k)p(b)ere obeto yango yune, gause asko ekarriko gatusena tiok eta"(K.Mj.)
"Goaxen etzera, parte txarrekoak, sorgiñe(k)l(d)osana ta"(K.Mj.)
"Estaitt etor bada, estot ukusi lte"(K.Mj.)
"Etorko sara ona, umie? espabere artukosu ta"(M.I.)
"Ibilli saritzes da, olango gausek pasau bier"(K.Mj.)
"E, Julian, geu goxak, da soasie etzera trankillo"(K.Mj.)
"Berandu de bai, da bierrari itxi in ber yako"(K.Mj.)
"Umie lo dao ta ixillik egon"(K.Mj.)
"Egunes biarrein ber daude ta gaubetan aprobeixau bier seoser"(K.Mj.)
"Egun ona dau te bagoas plaiara"(M.I.)

5.6.7.1.4.- LA ETA

- "Emen itxitten gausen, bertako yaiye dala ta"(K.Md.)
"Esta egoten kontentus, Loreak obeto itten dauela ta"(K.Mj.)
"Egun beten bat da bestien bestie, bi kantzau itten dala ta"(K.Mj.)
"Nik aukitten neinddun enbidiye, areri obeto esatontzela amak eta"(K.Mj.)
"Eskopetie kendu ostien an falta ittontziela guardiyak eitteko ta⁵⁶"(K.Mj.)

5.6.7.1.5.- N MODUEN⁵⁷

- "Yaiyek diresan moduen jentie etorko da"(K.Mj.)
"Berak farmasiyen egon biar dauen moduen Lorea yoan de"(K.E.)
"Auriye asi den moduen etzera etor gara"(K.Mj.)
"Otz eitten dauen moduen ixin urtein"(K.Mj.)
"Berandu den moduen bierrari itxi in ber yako"(K.Mj.)
"Emen gaosen moduen seoser ein berku"(K.Mj.)
"Ama emen daoen moduen umie pos(k)l(d)ao"(K.Mj.)

⁵⁵Kausal kutsua daukan esaldia atzean zein aurrean egon daiteke.

⁵⁶Agian esaldi hau Zergatizkotzat barik osogarritzat jo liteke. Beste batzutan antzera gerta liteke.

⁵⁷Egitura hau oso oso erabilia da kausal zentzuan eta beste lekua batzutan -NEZ eta -NEZ GERO-ren lekua betetzen du.

5.6.72.- Aditz sintagma eta aditz izenarekin

5.6.72.1.- TEAGAITIK / TEAGAITIÑO

"Berandu etortiegaitiño kastigau in ddostie"(K.Mj.)

"Ori berandu ibilltiegaitiño pasau yatzu"(K.Mj.)

"Berandu etortiegaitiño ba gedar in osten"(K.Mj.)

"Ixillik egotiegaitiño pasau yatzu ori"(K.Mj.)

5.6.72.2.- T(E)ARREN

"Len auskera berbaitarren multak ifintten eittuesan"(K.Mj.)

"Arin yoatarren yausi sara lurrera"(K.Mj.)

"Arin yatarren tripetako miñe(k)(d)ekos"(K.Mj.)

"Lar edatarren pasau yako ori"(K.Mj.)

"Nik bistie txarto dekot bordetarren eskus da argi txarragas"(M.I.)

"Orrek e bistie kantzate deko ainbeste telebisiñoan aurien egotarren"M.I.

5.6.72.3.- T(E)ARRIK

"Suges egotarik kastigau in ddostie"(K.Mj.)

"Beti sagataka ibiltiarrik asarratu in gara"(K.Mj.)

"Eskolan auskeras aiñarik i maixu-maistrak⁵⁸..."(K.Md.)

5.6.73.- Elkarkuntzak

5.6.73.1.-...ZE...

"Oin es yan, gerotxoao yan, se oin, lar bero dao"(J.M.)

"Aurten estu bota guk, se estao nok einik"(J.M.)

"Bildurre dekot se entzun be estot eitten ondo"(K.Mj.)

"Egon sates ixillik se umie lo dao"(K.Mj.)

"Ori nik estot siñestulen, se nik i niri kosi noste diruegas, diru diru barik be bai, da, nire denporan estekot (d)iru andirik"(J.M.)

"Ba, nik estait errosoie bauko se oin i errosoie nori emotontzie?"(J.M.)

"Kotxiegas kontus ibilli se kotxiegas peligrosoa da karraitie"(K.Mj.)

"Tbilli sates kontus se ori peligro andiye dekosu"(M.I.)

⁵⁸Partizipioa + ARRIK. -TE gabe ere bai, inoiz.

5.6.7.3.2.- ...ZE...ETA.⁵⁹

"Asi gatesan, bai? se espabe estu eser eingo ta"(K.Mj)

"Oingo urtien fallie barruntauko daude se andriñak edo orreik estotzies ekarri tte"(K.Mj)

"Oin esta yoaten se ixin ddau te"(K.Mj)

"Onango denporiegas ixin lei se otza itten dau te"(K.Mj)

"Trankillo yoan se prisarik estau te"(K.Mj)

5.6.8- ALDIZKOAK

5.6.8.1- Esaldi nagusiko prozesua aurretik

5.6.8.1.1- AURRETIK⁶⁰

"Sartu aurreti gaittu in ber da"(K.Mj)

"Yan aurreti erresau in ber da"(K.Mj)

"Seoser ainen aurreti pentzau in ber da"(K.Mj)

"Patxarana edanen aurreti ure edan"(K.Mj)

"Baskalduen aurreti beti erresau ber da"(K.Mj)

5.6.8.1.2- BAINO LEHEN(AGO)⁶¹

"Kafie edaixu otzittu baño lenao"(K.Mj)

"Allegau baño lenao"(K.Mj)

"Soldadutzetik i etorri baño lenao"(J.M)

"Etzera sartu baño lenao gaittu in ber da"(K.Mj)

⁵⁹Oso erabilia da forma hau.

⁶⁰ Aditz partizipioa + AURRETI(K) ezezik, Aditz partizipioa + EN + AURRETI(K) ere erabilten da.

⁶¹ -AGO-dun forma erabiliagoa da bestea baino.

5.6.8.1.3.- ORDUKO⁶²

- "Orreik Pedritok esangotzus onan(Aitaren) aiñ orduko"(K.Mj.)
- "Orrastu sara etzeti urteñ orduko?"(K.Mj.)
- "Eskondu orduko il yakon aitteitte"(K.Mj.)
- "Yaten asi orduko bierrak akabau in ber dire"(K.Mj.)
- "Su etorri orduko ni emen egon nas"(K.Mj.)
- "Umie oitti altzau orduko egurdi, egurdiye da"(K.Mj.)
- "Suk bierrak aiñ orduko guk akabaute"(K.Mj.)
- "Bierra amaitu orduko gaube da"(M.I.)
- "Emeti altzau ta ara yoat(e) orduko..."(K.Mj.)
- "Ara yoat(e) orduko papelak emen eiñ ostesan"(K.Mj.)
- "Ara eral(e) orduko ni enterau neintzen"(K.Mj.)
- "Yoat(e) orduko Baskoniara"(J.M.)

5.6.8.1.4.- ARTE/ARTEAN/ARTERAINO

- "Bostak eta...pasau arte an"(J.M.)
- "Orrek ekingotze negarres berie eiñ arte"(K.Mj.)
- "Danok baskariye akabau arte mailli esta altzau bier"(K.Mj.)
- "Ondora etor arte enas konturatu nor ixin dden"(K.Mj.)
- "Lotu kotxie ta egon pasau arte"(M.I.)
- "Akabau artien emen egongo gara"(K.Mj.)
- "Su saosen artien gu bere egongo gara"(K.Mj.)
- "Da ara allegau artiño Frankon tropak ba an"(P.Aur.)
- "Etor artiño estot ukusi nor dan"(K.Mj.)
- "Umie yegi artiño"(K.Mj.)

⁶²Oso erabilia da bai "Baino lehen" bai NOIZKO zentzua adierazteko. Batzutan aditz partizipioari -TE erantsita ere erabiltzen da.

5.6.8.1.5.- HARIK ETA...ARTE⁶³ / HASTA...(ARTE)⁶⁴

"Areik eta yana akabau arte emen egongo gara"(K.Mj)

"Areik eta su etor arte"(K.Mj)

"Areik eta bierrak akabau arte"(K.Mj)

"Asta kolokau edo aran baten sartu arte"(K.Mj)

"Ekiosu batuten asta akabau arte"(K.Mj)

"Lelengotan pasau dodan apur bet e...asta...ango yana kosi"(J.M.)

5.6.8.1.6.- NERAKO / -N ORDURAKO / ORDURAKO⁶⁵

Orokorrean esan daiteke jokatu gabeko formak askoz erabiliagoak direla jokatuak baino eta hemen horrelaxe gertatzen da. Forma hauen ordeztzaia beti Partizipioa + ORDUKO erabiltzen da.

"Su asi sarienerako aitten guk akabau in ddu"(K.Mj)

"Su salosenerako beti dekosu kafie prest"(M.I)

"Suk ein dduenerako guk akabaute"(K.Mj)

"Enterau nasen ordureko ya berandu ixin dde"(K.Mj)

"Su asi ordureko guk akabaute"(K.Mj)

5.6.8.2.- Esaldi nagusiko prozesua batera

5.6.8.2.1.- ORDUAN

-Aditza jokatu barik⁶⁶

"Ile bi euki neinddusen nik aitte ill orduen"(K.Mj)

"Bieren sartuduen ba amasei urte edo eukin dodasen"(J.M.)

"Ori gasterik etor san ona, Samigelera, gu eskolan ibilduen"(J.M.)

⁶³AREIK ETA...ARTE esaten da.

⁶⁴Erdararen eraginez sortutako forma hibrido hau gehiago erabiltzen da aurrekoa baino.

⁶⁵ORDUKO eta ORDURAKO berdinean erabiltzen dira NOIZKO zentzuan, baina lehenengoa askoz normalagoa da.

⁶⁶Sarritan sinkopatu egiten da eta Partizipioa + (OR)DUEN bakarrik entzuten da.

-Adilza jokatuta

"Okelie daon orduen bota ta estaoen orduen okela barik"(K.Mj.)

"Seuk esaten dosun orduen, bueno biyer noa bueno bale"(K.E.)

"Len al dodan⁶⁷ orduen esta egon nitzako eser da oiñ i ixin"(K.Mj.)

"Niges egoten seintzen orduen ori eseinddun esaten"(K.Mj.)

"Entzun neinddun orduen, pena bat auki neinddun"(K.Mj.)

5.6.8.2.2.- NEAN

"Al dosunien ekarri ori"(K.Mj.)

"Aukiusen ba lau urtetxu edo au sentrala aiñ aurenien"(M.I.)

"Su satos seuk (gurdos)usunien"(M.I.)

"Aiteite il sanien euki nendusen ya amasaspi urte"(M.I.)

"Ni soloan naoenien pos-posik nao"(M.I.)

"Datosenien gausa asko ekarten daure"(M.I.)

"Orrek berbaiten dauenien beli dao tonteriyek esaten"(M.I.)

5.6.8.2.3.- NETAN

"Al dodanetan etorten nas"(K.Mj.)

"Teatrorra doasenetan ondo pasetan daude"(K.Mj.)

"Eroskire doasenetan gausa asko erosten daude"(K.Mj.)

5.6.8.2.4.- N BAKOITZEAN

"Ukusten dodan bakotxien moskortute dao"(K.Mj.)

"Berbaiten dauen bakotxien edo ullie artuten dao edo tonteriyek esaten"(M.I.)

"Orrei(k)l(d)atosen bakotxien yokoan paretan dire"(M.I.)

"Ber dodan bakotxien laguntasun gustiye eskatutontzel"(M.I.)

⁶⁷Nahiz eta lehenaldia buruz hitzegin orainaldiko forma erabiltzen da menpekoan. Hau oso normala da.

5.6.8.2.5.- N GUZTIETAN / GUZTIAN⁶⁸

- "Al dodan gustiyen etorten nas"(K.Mj)
- "Yokoan eiten gendun gustiyen beli asarratute"(M.I)
- "Satosen gustiyetan kafie prest dekosu"(M.I)
- "Seuk (gurd)usun gustiyetan etorn"(M.I)

5.6.8.2.6.- N ARTE / ARTEAN⁶⁹

- "Ointxe gaste sariyen arte da nok alborti erakutzi dekosuen arte ikixi te in"(M.I)
- "Bixi sarien arte surok ibilli"(K.Mj)
- "Umie lo daoen arte es ein sagatarik"(K.Mj)
- "Dirue dekosun arte gastau, gorde barik, gero peniegas egon barik"(K.Mj)
- "Su ba ikusi munduen ser daoen e gaste sariyen artien"(M.I)
- "Al dosun artien ibilli"(K.Mj)

5.6.8.2.7.- N BITARTEAN

- "Lo daoen bittertien"(K.Mj)
- "Emen gaosen bittertien esta etorn inor bes"(K.Mj)
- "Ni bixi nasen bitartien euskera ingotziel nire llobari"(M.I)
- "Ni egon nasen bitartien inor esta agartu"(M.I)

5.6.8.2.8.- KERAN⁷⁰

- "Autobuseti urteikeran yausi in sen lurrera"(K.Mj)
- "Etzera sartukeran txakurrek auliyoka asi sien"(K.Mj)
- "Ikuskerien, bakarrik ikuskeran esetu dot"(M.I)
- "Pasakeran ikusi dot suge bat"(M.I)
- "Trena artukeran kontus ibilli ber da"(M.I)
- "Eskolara sartukeran maixuek txaplada bat emon otzan"(M.I)

⁶⁸Era bietara esaten da, baina erabiliena singularrekoa da.

⁶⁹-N ARTE askoz normalagoa da -N ARTEAN baino, -N BITARTEAN-en sinonimo bezala.

⁷⁰Beste leku batzuetako -TEAN-en ordez erabiltzen da. Forma hau ezagutzen da baina ez da erabiltzen.

5.6.8.2.9.- LA

- "Al dala emon, da yakin daiyela yagoten"(K.Mj.)
- "Etzera noala txakurrek ukusi dodas"(K.Mj.)
- "Eskolati natorrela⁷¹ liburue yausi nastan lurrera"(K.Mj.)
- "Ni etzien naola esta etorni inor bes"(K.Mj.)
- "Afalduten daosela etorten yakiyen logurie"(K.Mj.)

5.6.8.3.- Esaldi nagusiko prozesua atzetik

5.6.8.3.1.- NEAN

- "Emen Frankok kendu euenien entreagau es eitie abastosera itxi sen radikal ereitie gariye"(M.I.)
- "Lagune datorrenien beragas yoango gara"(M.I.)
- "Suk akabetan dosunien nau asiko nas"(M.I.)
- "Su, seure bierra akabetan dosunien etorri ona"(M.I.)
- "Altzetan nasenien radiyoa iminten dot"(M.I.)

5.6.8.3.2.- Partizipioa + IKETONA/IKOTONA⁷²

Hauxe da modu erabiliena askogatik "Noiztik" zentzua adierazteko.

- "Lagune illikotona burunik estau altzau"(K.Mj.)
- "Semie birren asikotona formaldu de"(K.Mj.)
- "Ori ixin sen juergistie, baie eskondu(r)ikotona formaldu de sano"(K.Mj.)
- "Eskonduikotona estau artu moskorrik"(K.Mj.)
- "Alkatie etorrik etona estekosu buruko miñe baño"(M.I.)
- "Su, umie illik etona bixi be esta"(M.I.)
- "Enfadaurik etona or estao bakerik"(M.I.)

⁷¹Ikusten denez, lehenaldia beharko litzatekeenean ere orainaldiko forma erabiltzen da. Sintetikoak oso gutxi erabiltzen dira lehenaldian. Ikus ADITZA.

⁷²NoizIK ETA HONA = Nosiketona = Nosikotona.

5.6.8.3.3.- NIK ETA HONA(Aditz jokatuaz)

"Umie auki daudenikotona sano formaldute"(K.Mj)

"Pelikulie asi danikotona esebe estot ein"(K.Mj)

"Umie yaiyo sanikotona"(K.Mj)

"Gaube ein danik etona inok estau berbank eiten"(M.I)

"Lagunegas asarratu nasenik etona estot ikusi be in"(M.I)

"Su, biarren asi denik etona formalao dabil"(M.I)

"Etzie erre yakonik etona estao beragas berbaiterik"(M.I)

5.6.8.3.4.- NETIK / -NIK⁷³

"Asarratu sanik, ordurikotona esta agartu be in ona"(K.Mj)

"Ni yaiyo nasenik ona..."(Z.U)

5.6.8.3.5.- NEKO⁷⁴

"Aleti sartu seneko asi sen txarto berbaitten"(K.Mj)

"Amaittu daueneko yoan de orti"(K.Mj)

5.6.8.3.6.- AZKERO

"Lagune ill askero burunik estau altzau"(K.Mj)

"Eskondu askero formaldu de, estau artu moskomik"(K.Mj)

"Katue ekarr askero estao sagurik etzien"(K.Mj)

"Nobiyiegas asi askero formaldu de sano"(K.Mj)

5.6.8.3.7.- N + AZKERO⁷⁵

"Umie il yakon askero ba ori personie esta bardiñe, esta bixi be"(M.I)

5.6.8.3.8.- ETA GERO

"Armosau te gero da baskaldu te gero da afaldu te gero"(M.I)

"Akabau te gero estail nora yoango garien"(K.Mj)

"Bierrein de gero yan ingu"(K.Mj)

"Eskondu te gero bai"(J.M)

⁷³Forma hauen ordezt "Nozik eta hona" e-estruktura erabiltzen da ia beti.

⁷⁴Askoz normalagoa da jokatu gabeko forma. ORDUKO.

⁷⁵E-estruktura hau ez da ia erabiltzen.

5.6.8.3.9.- OSTEAN / OSTETIK

- "Afaldu osteiyen gero ya lotara"(M.I.)
- "Afaldu osteiyen oira"(K.Mj.)
- "Baskaldu osteiyen⁷⁶ kafie edaten dot"(K.Mj.)
- "Edan osteitik eseixu kotxerik artu"(M.I.)
- "Edan osteitti yan"(K.Mj.)
- "Ondo in da osteitti"(K.Mj.)

5.6.8.3.10.- ORDUAN⁷⁷

- "Jentie fiestie akabau orduen danak etzera"(K.Mj.)
- "Mesie akabau orduen arin etzera"(K.Mj.)
- "Akabau orduen yoan eillen sien"(K.Mj.)
- "Suk akabelan dosun orduen neuges etorri"(K.Mj.)
- "Kafie edan dosun orduen garbittu katxarue"(K.Mj.)

5.6.8.3.11.- ORDUKO⁷⁸

- "Begiyeq itxi orduko amesau"(K.Mj.)
- "Ukusi orduko yoan neintzen beragana"(K.Mj.)
- "Etorri orduko asten sien yalen"(K.Mj.)
- "Ukusi orduko konturatu neintzen selangoa san"(K.Mj.)
- "Ukusi orduko esetu dot"(K.Mj.)

5.6.8.3.12.- LA

- "Ori txarriboda...ya urte asko da itxi dala"(J.M.)
- "Amar urte edo geiyeu ixingo da estule il txarririk"(J.M.)
- "Gixona il nastala ogetasaspi urte"(K.Mj.)
- "Nik i sure aitte estodala ukusi.... gerra denporan, emen egon sien orduen"(K.Mj.)
- "Igualestodala edan ardorik ixingo da... berrogeta urtiak"(K.Mj.)
- "Oinddogarren esta urt(e) asko il dala"(M.I.)

⁷⁶"Baskalosteiyen" ere esaten da.

⁷⁷Aditza jokatu ere bai.

⁷⁸Inoiz "R" epentetikoa ere entzuten da: "SartuRorduko".

5.6.8.3.13.- Partizipioa + ALA

"Emonala, noberak emonala aurok yan aitten auden, iruntzi"(K.Mj)

"Edanala altzau itten sien"(K.Mj)

"Dirue irebasi⁷⁹ ala gastau itten dau"(K.Mj)

5.6.8.3.14.- Partizipioa + -AZ BATERA

"Ori esanes batera yoan sien kallera"(K.Mj)

"Kristela apurtues batera danok bilddurregas"(K.Mj)

"Afaldues batera"(K.Mj)

5.6.8.3.15.- Partizipioa + BARRITAN-BARRIAN / ZAHARREAN

"Ogiye ainbarriyen egoten da bigun"(K.Mj)

"Yanbarriten yatordue ebai itten dala esaten daude"(K.Mj)

"Yanbarriten es yoan erre kara, yansarrien bai"(K.Mj)

5.6.9.- MODUZKOAK

5.6.9.1.- Aditz jokatuaz

5.6.9.1.1.-N LETX/LETXE⁸⁰

"Loreak aitten dauen letx aitten dauen Jose(k)p(b)e"(K.Mj)

"Orrek e kantetan dauen letx ba askok eiten dau"(M.I)

"Seuk gurosun letx"(M.I)

"Fasill eiten dire orreik gausak orrek ein ddauen letx"(M.I)

"Amak agindu dosten letx ein dot"(M.I)

"Telebisiñoak esan dauen letxe ba auriye in biadau"(M.I)

"Pastoriek e diñon letxe ba sera, denpora txarra in ber dauela edo ude txarra dakarrela edo"(M.I)

⁷⁹"Iripasi" ere bai.

⁸⁰Aditz jokatuarekin gutxitan erabiltzen da estruktura hau. Bestela, jokatu gabe, santiago.

5.6.9.1.2.- N MODUAN-RA/ ANTZEAN-RA/ ERAN-RA/ KLASEAN-RA⁸¹

"Oin gaosen moduen emen, berbas"(J.M.)

"Olan be bada,e! su(k)t(d)ñosun moduen"(K.Mj.)

"Al dan moduen ain ber da, es gurdun moduen"(K.Mj.)

"Al daigun moduen"(K.Mj.)⁸²

"Periodikuek esan dauen moduen biyer auriye ingo dau"(K.Mj.)⁸³

"Jaungoikoak agindduten dauen modure ain ber da"(K.Mj.)

"Ori dabillen antzien nor dabil ba?"(M.I.)

"Gurdosun antzera aixu"(K.Mj.)

"Ori seuk (g)urdosun erara ein seinki ori"(K.Mj.)

"Eskolan aitten dan klasera, alan aitten daude oneik"(K.Mj.)

5.6.9.1.3.- BA + Baldintza (+N) + LEZ/MODUAN

-BA + Baldintza + LETX⁸⁴

"Iñor espalego letx"(K.Mj.)

-BA + Baldintza⁸⁵ + MODUEN

"Iñor espalego moduen ixin geinki berbain"(K.Mj.)

"Dana yakin balei moduen"(K.Mj.)

"Etzeko umie baleis⁸⁶ moduen portetan da"(K.Mj.)

-BA + Baldintza + -N + MODUEN

"Ori gixonori alkatie ixin balekitten moduen portetan da"(K.Mj.)

"Etzeko umie ixin balekitten moduen"

"Akortan nasta ointxe balekitten moduen"(K.Mj.)

"Etzekoa balekitten moduen"(K.Mj.)

⁸¹Erabiliena -N MODUEN da.

⁸²Ez da normala subjuntiboaren erabilera honelakoetan.

⁸³Basauri aldean ez da erabiltzen "Periodikuek esan dauenez...".

⁸⁴LETX nekez erabiliko da aditza isilpeturik egon ezean.

⁸⁵Baldintza edo bere ordeaz erabiltzen den ahalera.

⁸⁶"Baleitz" + "moduen" = "Baleis moduen"

5.6.9.1.4.- Indikatibozko formekin esanahi berdina

"Ixin ddu berbarik ein iñor estaoen moduen"(K.Mj)

"Urrungo goixien yoan neintzen ni, uretan goasen moduen erre kara"(KMj)

5.6.9.1.5.- SEGUN...-N⁸⁷

"Itillaurren e nire andriek segun diñon berak, idiyek eukiduen, ba auron o etzien e..."(J.M.)

"Marik segun esaten dauen Enkarna ospitalera eran daude"(K.Mj)

"Larogetamar urte inguru euki ber (dei)ttu, segun esan auen Patxik"(Z.U.)

"Segun esaten dauden..."(P.Ar.)

5.6.9.1.6.- LA

"Berakatzak urte gusti gusti gustitan, kosi solotik, da ifinten dodas, da al dala onenak e!"(K.Mj)

"Nik i dakidela etxatzue allegau kartatik"(K.Mj)

"Ser ein estakiyela egon san a bere umiegas"(K.Mj)

"Ori buruen txapela dekola ibillten da kalleti"(K.Mj)

"Ser ein estakixule egon basenkittes"(K.Mj)

"Goserik es, al dala"(K.Mj)

5.6.9.2.- Aditz jokatu gabeaz

5.6.9.2.1.- Partizipioa + (E)KO + LEZ/MODUAN⁸⁸/ANTZEAN...

"Amamak esaneiko les preparetan dot nik kafie"(K.Mj)

"Suk esaneiko moduen ein dot"(M.I.)

"Seuk itxiko moduen topau dot etzie"(K.Mj)

"Seuk itxiko antzien"(K.Mj)

⁸⁷Nahiko erabilia da forma hau, beste leku batzuetako -NEZ-en ordez.

⁸⁸Erabiliena askogatik, bai estruktura honetan bai hurrengoan ere.

5.6.9.2.2- Partizipioa + TEKO + LEZ/MODUAN/ANTZEAN...

- "Ondo entenietako letx ain ddau berba"(K.Mj)
- "Negar aitteko letx"(K.Mj)
- "Kallera yoateko moduen yantzille gaos"(K.Mj)
- "Ondo entenietako modure esplikatu gatus dana"(K.Mj)
- "A asustetako modukoa esan ixin"(K.Mj)

5.6.9.2.3- Partizipioa + BARIK

- "Ausokoak, nopera, noperari esan barik el gu ara goas da serien, aurok o juntan siesan"(J.M)
- "Gau bitten nao lorik ein barik, amesau ta amesau"(K.Mj)
- "Beti ibiltten sara yasten akabau barik"(K.Mj)
- "An berotuten da, a ixetu barik"(K.Mj)
- "Inori kalte in barik bixitteko"(K.Mj)
- "Orrek gixonorrek hierrik ein barik estaki egoten"(K.Mj)

5.6.9.2.4- Partizipioa + EZINIK⁸⁹

- "Ibilli ixinik paretan bada, ña, selango jeniyoa paretan yako!"(K.Mj)
- "Parau sen besoetati yan ixinik da neuk emon bier yaten"(K.Mj)
- "Bat bota biarrien bi egoten dire ta apartau ixinik"(K.Mj)
- "Begiyeq sabaldu ixinik egoten gara logunegas"(K.Mj)
- "Burue altzau ixinik ibiltten gara gero"(K.Mj)
- "Ulertu ixinik arkalegas ibiltten sien"(M.I)

5.6.9.2.5- Partizipioa + TA/-(R)IK

- "Yan barik estao lodink da yanda argal asko"(M.I)
- "Arpeiye gorritute ibiltten gara kalleti"(K.Mj)
- "Liburuek artute yoaten nas eskolara"(K.Mj)
- "Dan dan dan materiale gustiye dao einik eskus, labraurik, eskus labraurik"(J.M)
- "Muñuzuri, entzutie⁹⁰ dekosue?"(J.M.)

⁸⁹"Ezin" Basaurin gehienek "kin" esaten dutenez, "Ezinik" "ixinik" esaten da.

⁹⁰"Entzunda euki" esateko "Entzutie euki" esaten da Basauri aldean.

5.6.9.3.- Aditza isilpeturik

5.6.9.3.1.- Nor/Nork/Nori/Noren... + LEZ⁹¹ / MODUEN....

- "Beti egon bier mosolloan moduen, beti etzien"(K.Mj.)
- "Igon, asto balen ganera moduen edo biorren ganera moduen"(J.M.)
- "Lenaoko moduko denporak balekos oin"(K.Mj.)
- "Guresoak letx ibilli askiño ondo ibilko sara"(K.Mj.)
- "Umieri letx emotontzien yatekoa"(K.Mj.)
- "Beliko letx garitzes"(K.Mj.)
- "Suron antzera yasten geintzen gu"(K.Mj.)
- "Beste batzun antzien ingu?"(K.Mj.)
- "Umien klasera yaten emon ber yakiye sarrari"(K.Mj.)
- "Gabon bonbon, natibete ase ta bele da Sanestefantxu bestetan lentxu⁹²"(K.Mj.)

5.6.9.3.2.- Esaldiak izen sintagmaren bidez batzen direnean

- "Surelangoa ixin bagenkittes!"(K.Mj.)
- "Gure umie langorik estosu topauko"(K.Mj.)
- "Gulangoantzako estao errukirik"(K.Mj.)
- "Etzie langorik estao"(K.Mj.)
- "Infermu demoniñoa langoa san"(K.Mj.)
- "Gure modukoari es eskatu lar"(K.Mj.)
- "Erbiyen moduko biskorra ixin eskero ixin lei kosi"(K.Mj.)
- "Geure euskerien modukonk estao"(K.Mj.)

5.6.10.- KONTZESIBOAK

5.6.10.1.- Aditz jokatuaz

5.6.10.1.1.- NAHIZ ETA / ARREN

Ez dira ia inoiz erabiltzen aditz jokatuarekin.

- "Nai de ondo yokatu dauren⁹³ galdu in daure"(M.I.)

⁹¹Kasu honetan askoz normalagoa da LETX-en erabilera.

⁹²"Bestetan lentxu" = "Bestetan legez".

⁹³Hau bitxikeria bat da, ez da batere normala.

5.6.10.1.2.- BA...BE(RE)

- "Belauniko parau balekitte bere aurrien enenkiyo eser emongo"(K.Mj.)
- "Gusurre esaten bostesu be enostesu engañauko"(K.Mj.)
- "Ereittieri segidu in ber yako, badaespadan gosie etorten bada bere aukilleko gausie"(K.Mj.)
- "Asko estudiyetan badau bere estau aprobetan"(K.Mj.)
- "...badagos be erre daittes⁹⁴"(K.Md.)

5.6.10.2.- Aditz jokatu gabeaz

5.6.10.2.1.- Partizipioa + ARREN (+ BERE)⁹⁵

- "Xepi te xepi esan arren katue ondoti ixin ddot kendu"(K.Mj.)
- "Persona ona(k)(d)ire, baie onak ixin arren estekosu...estosu berbarik eitten"(K.Mj.)
- "Bera ondo ibilli arren e bakixu ser pastan dan"(K.Mj.)
- "Faltan bat euki arren, es?defekto serien euki arren aber badator o etzera"JM
- "Denpora txarra aih arren bere or gaos gu"(K.Mj.)
- "Umiek yoan es arren nagosiyek yoaten dire"(K.Mj.)
- "Briskittan egon es arren e beiyek Fiñagan badaos"(K.Mj.)
- "Denpora ona aih es arren gu plaiara yoaten gara"(K.Mj.)

5.6.10.2.2.- NAHIZ ETA / NAHI

"Eta"-dun forma ez da ia batere erabiltzen. Normalena NAHI + Partizipioz egitea da. Inoiz NAI DE entzun daiteke, baina arraroa da.

- "Nai de berandu ixin yoango gara"(M.I.)
- "Nai txarto egon oiti yegi da"(M.I.)
- "Nai burue gogorra dekodala esan nik neuk gurdodana aingot"(K.Mj.)
- "Nai egiye ixin nik estol o siñestuten ori"(K.Mj.)

⁹⁴San Juan gauean, galtzupulla hartuta, solo artezik ibiliz kantatzen zenaren zatia.

⁹⁵Hauxe da modu erabiliena esaldi kontzesiboak egiteko.

5.6.10.2.3.- Partizipioa + TA + BE(RE)

"Ordu batetan edo ordu biyetan yoanda bere libre, iñon gedarrik es"(K.Mj.)

"Biyen bittertien illte bat ixindde bere, bera barik il, ba etzien egon askiño badaki"(K.Mj.)

"Tonto arpeiye aukitte bere ori lontoa esta"(K.Mj.)

"Gusurre esanda bere enostesu engañauko"(K.Mj.)

5.6.10.2.4.- Partizipioa + EZ + DA + BE(RE)

"Yan es da bere, yan barik egon arren bere, ori bastante lodi dao"(K.Mj.)

"Orra yoan es da bere estu gaus(e) andirik galduko"(K.Mj.)

"Guk aiñ es da bere beste batzuk aingo leikie"(K.Mj.)

5.6.10.2.5.- Partizipioa + AZKERO-AZKIÑO/EZIK-EZEAN... + BE(RE)

"Demoniñoak berak emon askero bere artuko leuke"(K.Mj.)

"Txarto bixi askero bere aguantau"(K.Mj.)

"Umiek yoan esi(k)p(b)e nagosiyek yoaten dire"(K.Mj.)

"Ereittieri segidu, gosie etorriyen bere aukitteko"(K.Mj.)⁹⁶

5.6.10.3.- Erdarakadak

Nahiko normala da Basauri aldean erdarazko "Aunque"-ren erabilera euskal esaldien barruan:

"Aunke estaoen obligasiñorik nik urte gustiyetan bakunetan dodas"(M.I.)

"Aunke estaiyen ondo berbain euskeras, gero..."(M.I.)

"Aunke egie esaten dosun iñok estotzu siñestuko"(M.I.)

⁹⁶Egitura hau, -AN + BERE baldintzazkoen artean sailkatu dugu, baina hatzutan bere zentzuaren arabera kontzesiboen artean ere koka liteke.

5.6.11.- KONPARATIBOAK

5.6.11.1.- Gehiago / gutxiagotasuna adierazteko

5.6.11.1.1.- Konparaketaren lehen atala + bigarrena + BAINO + -AGO/HOBE

"Suge bat, atxur girtena baño andiyaoa"(M.I.)

"Nire andriek asko biarrein dau, neu(k)p(b)año sano geiyeu labrantzan"(J.M.)

"Orrek e deko sano, ni(k)p(b)año doble baño geiyeu"(J.M.)

"Da lotuten san alturie gixona baño altuao"(J.M.)

"Arek e...bere aite(k)p(b)año obeto"(J.M.)

"Orrek ni(k)p(b)eño⁹⁷ memoriye obie deko"(K.Md.)

5.6.11.1.2.- Konparaketaren bigarren atala + BAINO + lehen atala

"Ni iru urte gastiao ixin neintzen nire gixona baño"(K.Mj.)

"Oin baño gitxiao yaten san orduen, taloa geiyeu eraten san"(J.M.)

"Umie(k)p(b)año txarrao da ori"(K.Mj.)

"A baño bestie yaten dau obeto"(K.Mj.)

"Aiten gendun sano erresao sera baño, bestera baño"(M.I.)

5.6.11.1.3.- Konparaketaren atalen bat ixilpeturik

"Etzekoa beti goxoao"(K.Mj.)

"Oiarzunekoak baño txarrao nasela"(J.M.)

"Gutzak alegreao ixin sen"(J.M.)

"Gaur apur bet txartxuao dari"(K.Mj.)

"Ume oberik ixi(n) llei eskatu"(K.Mj.)

5.6.11.1.4.- Lokuzioz:"Noren aldean" / -GANIK...

"Ori ondo kuidau de Luxianon aldien"(K.Mj.)

"Gure umie beste batzun aldien txikerra da"(K.Mj.)

"Gure etzie ori beste etzien aldien andiye da"(K.Mj.)

"Guganik ondo bixi dire orreik⁹⁸"(K.Mj.)

"Sureganik badaki orrek"(K.Mj.)

"Oingo gasteriye ondo bixi de lenao moduen⁹⁹"(K.Mj.)

⁹⁷Batzuk beti BÉ(1)ÑO erabiltzen dute.

⁹⁸"Gu baino hobeto" esan nahi du.

⁹⁹Aurrekoen modukoa esanahi aldetik.

5.6.11.1.5.- Konparaketak aditz gaiekin

Aditza jokatzuz zein jokatu barik egiten dira:

- "Eskolan naril neu(k) pentzau dodan baño obeto"(K.Mj.)
- "Ori umiori suk esan seinddun baño fuertiagoa da"(K.Mj.)
- "Neu(k) pentzau dodan baño bastante obeto"(K.Mj.)
- "Alaba sarrenak dekosan baño urte bi geiyau"(Z.U.)
- "Suk pentzau baño geiyau edaten daude jentiek"(K.Mj.)

5.6.11.1.6.- Errepikatuz

- "Orreik bal-bal-baltza(k)t(d)ire"(K.Mj.)
- "Geiyen-geiyen oiñ' alzenerantza"(J.M.)
- "Ni soloan naoenien pos-posik nao"(M.I.)
- "Nai asko edan ori beti dabil artes-artes"(M.I.)
- "Ondo-ondo danill ori"(K.Mj.)
- "Eder-ederrak esaostes"(K.Mj.)
- "Politto-politto eitten dau orrek berba"(K.Mj.)

5.6.11.1.7.- Mailakatzea aditzarekin

- "Suri senbet eta esanao orduen barregarriyao"(M.I.)
- "Ori lure senbet eta landuao erasao ekarkosu seugana"(M.I.)
- "Senbet eta esanao txarrao da ori"(K.Mj.)
- "Sapatak senbet eta ibillao bigunao itten dire"(K.Mj.)

5.6.11.1.8.- Mailakatzea adberbio edo adjetiboaren barruan: Sano, oso, guztiz, lar, ondo,huts...

-SANO¹⁰⁰

- "Baserriyen birrein...eskondu arte gitxi sano"(J.M.)
- "Auskeras aistu in nasta niri sano"(J.M.)
- "Orren aitte ta ama ixin sien sano euskaldunek"(K.E.)
- "Ori karrerie sano da gatxa"(M.I.)
- "Ori sano ibil dde kasan"(K.E.)
- "Gustetan yako sano autoan"(K.Mj.)

¹⁰⁰SANO askoz gehiago erabiltzen da OSO baino

-OSO

"Orreik upuiñek oso politte(k)t(d)ire"(K.Mj.)

"Oso mutiko ederra dekosu"(K.Mj.)

"Ori oso kanbiyaute dao"(M.I.)

-GUZTIZ

"Au denporau gustis txarra da"(K.Mj.)

"Gustis txarritute dekos erropak"(K.Mj.)

-LAR(RA)¹⁰¹

"Gerotxoan yan, se oin lar bero dao"(J.M.)

"Gixajoa, lar ona, malesi bakoa"(K.Mj.)

"Auriye ona da, denporan, baie lar be esta ona"(K.Mj.)

"Ortalixieri biarreitten estotze itxitten lur lar umeduek"(K.Mj.)

"Umedade larra be esta ona"(K.Mj.)

"Diru faltatie tristie da, baie larra be esta ona"(K.Mj.)

-ONDO

"Ixarrik on neintzen ni, ondo ixarrik!"(K.Mj.)

"Umie ondo politte da"(K.Mj.)

"Ondo politte da etzie"(K.Mj.)

"Ondo loittute dao bidie"(K.Mj.)

-HUTSA

"On utze da, on utze"(K.Mj.)

"Samar utze as, loi utzel"(K.Mj.)

"Karmen be onagoa san, on utzel!"(K.Mj.)

¹⁰¹LAR mugaturik ere erabiltzen da: LARRA

5.6.11.1.9.- Mailakatzea atzizkien bidez: -EGI¹⁰², -TXU, -TZAR.

-EGI

"Gastegiye sutzako"(M.I.)

"Lodiegi parau sara, lodiegi saos"(M.I.)

-TXU

"Gaur apur bet txartxuao darit"(K.Mj.)

"Anditxue da gure umiegas ibiltteko"(K.Mj.)

"Illuntxu dao urteitteko"(K.Mj.)

-TZAR

"Onango txuletatzarra!"(K.Mj.)

"Ori de ixiltteko andratzarra!"(K.Mj.)

"A san ixiteko gixontzarra!"(K.Mj.)

"Ori de liburutzarra ekar dosune!"(K.Mj.)

5.6.11.2.- Parekotasuna adierazteko

BEZAIN, BAIZEN eta horrelako kualitatezko markarik ez da erabiltzen, beste egitura batzurekin moldatzen dira esanahi guztiak.

5.6.11.2.1.- Adjetibo edo adberbioekin: Noren, Non, Noiz(ko)... + BESTEKO / BESTEAN.

"Ori esta gurie besteko ona"(K.Mj.)

"Au patxaranau esta lengoa besteko ona"(K.Mj.)

"Sesiñe, da sesiñ ona, ona, okelie oin besteko edo obie"(J.M.)

"Aitten bestekoa ain dde"(K.Mj.)

"Atzo esan egon gaur besteko eguskiye"(K.Mj.)

"Gaur estao atzo bestien illun"(K.Mj.)

"Emen estao ango beste ondo"(K.Mj.)

"Gaur besteko moduen kontentus esan egon atzo"(K.Mj.)

"Alabiek...bedar denporan gixon bate(k)p(b)estien"(J.M.)

¹⁰²Nahiz eta atzizki hau ezagutu normalcan LAR aurretik erabiltzen da.

5.6.11.2.2.- Konparaketaren atalak kasu berean: BESTE / LEIN(E) / GEIN(E)

BESTE da modu erabiliena askogatik, LEIN(E) noizik behin baino ez da entzuten eta GEIN(E) ia ia inoiz ez. Azken biok mugatuta zein mugatu gabe ager daitezke.

"Ni(k)p(b)este tardauko dau orre(k)p(b)ere!"(K.Mj.)

"Orreinbeste txanpon, or dekosun beste txanpon"(K.Mj.)

"Orrek esteko guk u beste lagun"(K.Mj.)

"Ni beste nor yoaten da elixara ba?"(K.Mj.)

"Nik estekot orre(k)p(b)este diru"(K.Mj.)

"No(rk)l(d)aki ba su(k)p(b)este?"(K.Mj.)

"A(k)p(b)este edoseiñek ei(n) llei"(K.Mj.)

"Sure lein geu(k)p(b)e ingo geunke"(K.Mj.)

"Su geiñe ni enabil mendiyen"(M.I.)

5.6.11.2.3.- Zertarako, Norako, Norentzako... + BESTE/LEIN(E)/GEIN(E)

Kasu honetan sarriago entzuten dira GEIN(E) eta batez ere LEIN(E):

"Bixitteko beste irebasi askiño geiyau sertako gurdu ba?"(K.Mj.)

"Sutzako beste badekosu suk"(K.Mj.)

"Nitzako beste badao emen"(M.I.)

"Nik badekot bixitteko lein"(K.Mj.)

"Bixiteko lein badeku ta setako geiyeu?"(M.I.)

"Gutzako lein badao"(K.Mj.)

"Orreri irebasteko leiñe badakilt"(K.Mj.)

"Akabetako leiñe ba ingu"(K.Mj.)

"Nitzako leiñe badao"(K.Mj.)

"Aurontzako leiñe badekiye"(K.Mj.)

"Nitzako gein"(M.I.)

"Gutzako geiñe badeku"(K.Mj.)

5.6.11.2.4.- Aditza + -N + BESTE / LEIN(E) / GEIN(E)

Kasu honetan berriro normalena askogatik BESTE esatea da.

"Edaixu gurdosun beste"(K.Mj.)

"Suk dakixun beste bagenki danok"(K.Mj.)

"Orrek dakiyen beste notaki?"(K.Mj.)

"Suk yaten dosun beste no(k)tx(y)aten dau?"(K.Mj.)

"Ekar dosun beste estosu yan"(K.Mj.)

"Suk ekar dosun beste sagar geu(k)p(b)e ekar du"(K.Mj.)

5.6.11.2.5.- HONENBESTE(KO) / HORRENBESTE(KO) / HAINBESTE(KO)

Nahiz eta HAINBESTE(KO) erabiltzeko joera gero eta handiagoa izan oraindik bereizten dira hiru graduak.

"Oneinbeste¹⁰³ umegas ixin lei burutu"(K.Mj.)

"Oneinbeste sagatagas selango buruko miñe itten da!"(K.Mj.)

"Oneinbesteko ude txarrik estot esetu"(K.Mj.)

"Orrek estaki orreinbeste"(K.Mj.)

"Orreinbeste txanpon, or dekosun beste txanpon"(K.Mj.)

"Norako dosu ba orreinbesteko prisie?"(K.Mj.)

"Orreinbesteko gusurrik estot entzun"(K.Mj.)

"Ainbeste begillu txakur txikerrari...oin farra-farra gastan daude dirue"K.Mj

"Orrek e bistie kantzaute deko ainbeste telebisiñoan aumien egotarren"(M.I)

"Setako gurusu ainbeste sakrifikau?"(M.I)

"Ain eskola gitxi euki te ainbesteko sabiduriye euki!"(M.I)

"Bai, bai, baie es ainbesteko seragas"(M.I)

5.6.11.2.6.- HONEN / HORREN / HAIN

Aurreko atalekoa gertatzen da gutxi gora behera.

"Oncin goxo nos egon gara ba?"(K.Mj.)

"Orreiñ arin selan ain ddosu ba?"(K.Mj.)

"Aiñ ixillik egoteko seoser badaril"(K.Mj.)

¹⁰³Hiztun batzuk l-dun formak erabiltzen dituzte hiru gradutan: "Oncin(beste)", "Orreln(beste)", "Ain(beste)"

5.6.11.27.- Konparaketa zentzuan erabiltzen diren beste esaldi mota batzu.

Oso normala da hau, gehienbat moduzko esaldiekin jokatzuz:

"Aittelangotzar asi de"(K.Mj.)

"Suron txakoliñe esta gurielango ona"(K.Mj.)

"Au esta lengo moduko fasilte"(K.Mj.)

"Atzo esan egon gaurko moduko eguskiye"(K.Mj.)

"Atzo esan egon umie ain kontentus gaurko moduen"(K.Mj.)

"Emen estao ango moduen aĩn ondo, baie konforme daril"(K.Mj.)

5.6.11.3.- Superlatiboa

5.6.11.3.1.- (-(r)ik / -etarik... +) -EN

"Artoa bakarrik be bai, baie indabie geiyenien"(J.M.)

"Eguenetan ixiten da gurie txarrena"(K.E.)

"Ori da polit-politena"(M.I.)

"Da gero esan auen e mutillek e eskonduko dala bera, ibilko dala bera

Samieleko neskatorik pobrienagas"(K.Mj.)

"Or afisiñorik geiyen, or Atxikorrekoak euki dauren"(J.M.)

"Auxe da danik eta libururik txarrena"(K.Mj.)

"Danik eta okerrena seu sara"(K.Mj.)

"Umie, daoenik polittena orixe da"(K.Mj.)

"Danetati polittena orixe da"(K.Mj.)

5.6.11.3.2.- ENETARIKO...

"Andiyena edo andiyenatarikoa"(M.I.)

"Ori karrera ori de gatxenatarikoa"(K.Mj.)

"Nire umie onenatarikoa da"(M.I.)

"Orixe da politenatarikoa"(M.I.)

5.6.11.3.3.- (R)IK ERDI

"Libururik erdiyek sitzek yanda daos"(K.Mj.)

"Solorik erdiyek labrau barik daos"(K.Mj.)

"Begittuixu ser pasau den da jenterik erdiye esta enterau"(K.Mj.)

"Yanik erdiye da loa"(K.Mj.)

5.6.12. HARRIDURAZKOAK

Klase askotara egin daitezke eta adibide ugari agertu dira orain arteko esaldien artean. Agian Basauri aldeko harridurazkoen gauzarik aipagarriena izan liteke gehienetan "Galdera hitza + aditza" tipokoetan ez dela -Nrik agertzen aditz jokatuari lotuta. Hona hemen adibide batzu:

"Oneinbeste sagatagas selango buruko miñe ilten da!"(K.Mj)

"Selango beroa dekol!"(K.Mj)

"Ene, se ederto yan dau!"(K.Mj)

"Senbet kamixa apurtutzet nik emetik, rra, igurditteko sera paparra ta lepoa!"(K.Mj)

"Ibilli ixinik paretan bada, ña, selango jeniyoa paretan yako!"(K.Mj)

6.- LESIKOA

6.1.- SARRERA

Basauri aldean, zoritxarrez, erdara guztiz nagusi da bizitzaren arlo guztietan eta hori, nahi eta nahi ez, nabaritu egiten da bertako euskal hizkerak bereganatu dituen kanpoko eraginetan.

Lesikoaren eremuan orain arte aztertutako linguistikaren beste ataletan baino nabariagoa da erdarakaden eragina, normala denez, errezagoa bait da kanpoko hitzak ordezkatzeko hutsez onartzea Joskerako egitura osoak edo Fonetika aldaketak asimilatzea baino, esaterako.

Basauri aldeko hizkeran nahiko normala da erdaratik hartutako hitz ugari entzutea. Gure herriko euskaldun gehien gehienek erdaraz askoz sarriago egiten dute euskaraz baino eta horren eragina agerian geratzen da euren ama-hizkuntzan mintzatzen direnean, batez ere lar ondo ezagutzen ez dituzten kontuez ari direnean¹.

Orain arte aipatutako guztiak ez du esan nahi ingurune honetako euskal lesikoa guztiz pobrea denik, ezta pentsatu ere. Erdararik hartutako mailegu ugarien ondoan oso berba eder eta jatorrak entzun daitezke, euretariko batzu inongo hiztegitan jasota ez daudenak eta Basauriko edota Nerbioi haraneko euskararen aldakari nortasun berezia ematen diotenak, beste ezaugarri batzurekin batera.

¹Basaurin, beste edozein lekutan bezala, euskaldun gehienak jatorriz baserritarrak badira askoz hobeto ezagutuko dute baserri munduko hitz altxorra arrantza mundukoa baino, adibidez.

6.2- METODOLOGIA

Nonbaiteko lesikoaren ikerketa egiterakoan zaila da zer aztertu eta zer ez zehaztea. Izan ere, honelako lan bat sakontasun handiz burutzeko Azkue, Mujika edota Lino Akesoloren hiztegi eder horietariko bat hartu eta berba guztiak banan banan itzul litezke leku horretako hizkerara, eta hala eta guzti seguru batzu jaso barik geratuko lirатеkeela.

Nire helburua ez dago hain umun. Basauriko lesikoaren ezaugarri nagusiak aztertzearekin konformatzen naiz, gure hizkera beste lekuetakoetatik gehien bereizten duen hitz altxorra jasoz. Horretarako, zerbait interesgarri eta erabilgarria egin nahian azterketa arlo semantikotan banatzea erabaki nuen eta berauek aukeratzekoan gure herriko izaera eta egoera bereziak kontutan hartu nituen².

Basaurik, nahiz eta gaur egungo itxurak bestelakorik adierazi, baserri jatorria dauka eta geratzen diren betiko azken euskaldunak mende hasieran izen bereko eta egoera guztiz desberdineko herri txiki batean jaio ziren. Nire lekuko guztiak baserritarrak izan dira euren gaztaroan gutxienez eta baserri munduko lesikoa da ondoen menperatzen dutena. Beraz, hau jasolzea ezinbestekoa zen eta horrela egin dut.

Arrantza munduko kontuak sakonki aztertzeo ideia baztertu egin nuen hasieratik, gauza handirik aterako ez nuelakoan.

²Erreferentzia nagusitzat Alvar-en lanak hartu nituen. Ikus bibliografia.

Bestalde, topatu dudan arazo bat "espezialisten" falta izan da. Izan ere, hegaztien izenak, basapiztienak, erreko arrainenak, perretxikoenak, artzain zereginenak, eta horrelakoak jasotzeko horretan ihardun edo iharduten dutenak bilatzea gustatuko zitzaidakeen, baina ezinezkoa egin zait gehienetan. Basaurin euskaldun gutxi daude eta multzotxo honetan denetariakoak aurkitzea gehiegi eskatzea izango litzateke.

Hitzak jasotzeko jarraitu dudan bidea dela eta, laburbilduz azalduko dut zer nolako metodoa erabili dudan. Lehenengo eta behin, beste atal guztietan bezala, izandako elkarrizketa natural ugarietatik atera ditut hainbat eta hainbat hitz. Gero, arlo semantikoak osatzeko, behar nituen zerrendak prestatu eta bide nagusi hauek jarraitu ditut berbak ateratzeko:

-Ahal izanez gero nola deitzen zen jakin nahi nuenaren argazki edo marrazkiren bat erakutsi.

-Azalpenen bitartez lekukoari zeren bila nenbilen adierazi: "Badao txori bet gaubetan bakarrik ibiltzen dana...."

-Beharrezkoa zenean, inguruko beste herri batzutan erabiltzen ziren berbak aipatu.

-Erdarazko hitza esan, inolako nahasterik sortu ezin zitekeen kasuetan³.

Hitz guztiak mugagabeen agertuko dira eta horrela jasotzeko, kasuaren arabera hitz horri aurretik BOST edo atzetik BAT eransteko eskatzen nien lekukoei, zalantzaren bat egon zitekeenean. Deklinabide markak eranstean kasu bakoitzean zelako fenomenoak gertatzen diren jakiteko Fonetikari dagokion atala kontsultatu beharko da.

³Basauriko euskaldun guztiek ondo dakite erdaraz jadanik eta horregatik, lesikoaren arloan, behintzat, ez dago traba handirik batzutan berbaren baten itzulpena eskatzeko.

Arlo semantikoaren zatian, kasu bereziren batean, erdarazko hitza topatzea zaila denean edo, itzulpenaren ordean euskarazko deskripzioa agertuko da.

Gauza bera adierazteko berba bat baino gehiago erabiltzen bada normalena lehenik aipatuko da eta beharrezkoa denean azalpenak emango dira oin oharren bitartez.

Auzo eta herrien izenak tilde eta guzti agertuko dira, bere ahozkapena zelakoa den argiago uzteko. Bertoko euskaldunek erabiltzen dituzten izenen ondoan erdaraz edota ofizialki erabiltzen direnak paratuko dira, berauek desberdinak izanez gero.

Azkuaren hiztegiaren agertzen ez diren hitzak zerrenda baten barruan emango dira atal honen amaieran. Multzo honetan ez dira sartuko gaur egun gazteleraz erabiltzen diren berben kalko hutsak direnak, adibidez "Kaballo", ezta Azkuek aipatzen dituen hitzen barianteak aldaketa fonetiko oso sinpleen ondorio direnean (Itxidura-irekidura, bustidura...), adibidez "Iodittu" (=Ioditu) edo "Bixer" (=Bizar). Bestelako kasuetan, aldaketa fonetikoak handiago edo bereziagoak direnean, adibidez "Naikora" (=Naikoa) edo "Elderdu" (=Erdaldun), erdaratik nahiko era bitxian egokitutako hitzak direnean, adibidez "Ufanda" (=Bufanda) edo "Koniflora" (=Coliflor) edo Azkuek antzekorik ere ez dakarren berben kasuan, adibidez "Trikillu", "Agoseru", "Mintz"... aipatutako zerrendan jasoko dira. Batzutan Lekeitioko ikertzaile famatuak bere hiztegiaren dakarren bariantea ere paratuko da Basauriko berbaren ondoan, batez ere hitz hau urruneko euskalkietakotzat bakarrik jotzen duenean, adibidez "Urrutxa" (Azk. "Urrutx" R, BN), "Txapin" (Azk. AN, BN) edo "Auliyu" (Azk. "Aulia" AN)

Amaitzeko esan beharko Lesikoari buruz ari garenean mundu hau ia mugagabea dela. Nik neure lan honetan muga batzu ipini behar izan dizkiot, ezinbestean, baina kontu hau zabalik geratzen da eta luzaro baino lehen, azken euskaldunak joan aurretik, luzatua izango dela espero dut.

6.3.- ARLO SEMANTIKOAK

6.3.1.- ABERE ETA BASERRI INGURUKO ANIMALIEN KONTUAK

Akar: Cabrón / Bouc

Akullu⁴: Ganaduaren atzetik doanak daraman iltzedun palua.

Aska: Pesebre-Abrevadero / Ratelier-Abreuvoir

Adar: Cuerno / Corne

Adur: Baba / Bave

Aida!: Behi eta zezenei esaten zaiena aurrera joateko

Apatx: Pezuña / Sabot

Ardi: Oveja / Brebis

Argixeri: Cera / Cire

Aritto: Morueco / Bélier

Arran: Cencerro / Sonnaillies

Arrontze: Huevo / Oeuf

Artxo: Cordero de leche / Agneau de lait

Asa⁵: Piel-Cáscara / Couenne-Coquille

Aspigarri: Cama de paja / Litière

Asto: Burro / Ane

Astokume: Pollino / Anon

Atx!: Txamiak uxatzeko oihua

Auntz: Cabra / Chèvre

Ausnar ein: Rumiar / Ruminer

Auxi ein: Ladrar / Aboyer

Axa!: Txakurra norbaiten kontra botatzeko oihua

Bai: Vaca / Vache

Bakoi: Bacón / Ventrèche

Bior: Yegua / Jument

Biri: Pulmón / Poumon

Birintxa: Novilla / Génisse

⁴Ikus PALU

⁵Animaliena ere ASAL(A) da.

Brasulu: Txarriaren aurreko besoa
Busten: Rabo / Queue
Egasti: Ave de corral / Volaille
Egα: Ala / Aile
Eratzi: Arañar / écorcher
Erla: Abeja / Abeille
Errape: Ubre / Mamelles
Errebeñu: Rebaño / Tropeau de moutons
Erro: Pezón del animal / Trayon
Estamangu: Estómago / Estomac
Este: Intestino / Intestin
Esti: Miel / Miel
Gangar: Cresta / Crete
Gantzagi: Manteca / Panne
Gantzα: Ganso / Jars
Gorringo: Yema / Jaune d'oeuf
Idi: Buey / Boeuf
Ifiñi: Poner huevos / Pondre
Irrintze ein: Relinchar-Gruñir / Hennir-Grogner
Itillaurren ibilli: Idiaren aurrean ibili soloko lanean.
Ixepil: Katua uxatzeko oihua.
Kaballo⁶: Caballo / Cheval
Kaballokume⁷: Potro / Poulain
Kadera: Pata / Pied
Kanpaliña: Arran txikia, lepoko modukoa, metalezkoa, dotorea.
Kapau: Capar / Chatrer
Kapoi: Capón / Chapon
Katu: Gato / Chat
Koipe: Grasa / Graisse
Koneju: Conejo / Lapin
Korta: Establo / étable
Kuntzurrun: Riñón / Rognon

⁶SALDI ere hitz ezaguna da, baina ez da erabiltzen.

⁷POTROTXU ere bai.

Kurra, kurrita! Oiloentzako deia.
Luma: Hegaztienak ezezik txarriaren ileak ere badira lumak
Makera: Cerda / Truie
Mando: Mulo / Mulet
Mixina pssss! Katuarentzako deia
Mortzille: Morcilla / Boudin
Mustur: Hocico / Mufle
O!⁸: Ganaduari geldi egoteko esaten zaiona
Ollaloka: Gallina clueca / Mère-poule
Ollanda: Polla / Poulette
Ollar⁹: Gallo / Coq
Ollasko: Pollo / Poulet
Olllo¹⁰: Gallina / Poule
Ollotoki¹¹: Gallinero / Poulailler
Orroa ein: Mugir / Mugir
Palu¹²: Makil mehea, ganaduaren aurretik joateko
Pastietan egon: Pacer / Paitre
Pato: Pato / Canard
Pernil: Jamón / Jambon
Piku: Pico / Bec
Satz: Estiercol / Fumure
Sekor: Toro / Taureau
Seriski: Costilla / Cotes
Solomillo: Solomillo / Filet mignon
Solomo: Lomo / Filet
Tomaki! Txakurra uxatzeko oihua
Tripekallu: Callos / Gras double
Txakur: Perro / Chien
Txal: "Birintxa"-ren moduan baina jaioberritan.
Txarri: Cerdo / Porc

⁸O PARAU GELDI! esaten omen da.

⁹OLLAR eta OLLASKO hitzak batzuk zentzu berean erabiltzen dituzte.

¹⁰OLLO esaten dute zaharrenek, baina gazteagoren batek ULLO ere esaten du.

¹¹Hitz hau baino gehiago GALLNERU erabiltzen da.

¹²MAKILLE palu lodia izango litzateke, Santa Agedan erabiltzen denaren antzekoa.

Txarrikorta: Podilga / Porcherie
Txarrikume: Cochinillo / Petit cochon
Txilin: Arran txikitxua
Txita: Pollito / Poussin
Txitxitxi...!: Txarri eta txakurrentzako deia.
Urdei: Tocino / Lard
Ux(a)¹³: Oiloak uxatzeko oihua
Uxigi ein: Morder / Mordre

6.3.2.- ARBOLAK ETA FRUITUAK

Andriñe: Endrina / Prunelle
Arantza: Espino-Espina / épine-Aubépine
Aratz¹⁴: Roble / Chene rouvre
Arbola¹⁵: Arbol / Arbre
Arboladuri¹⁶: Arbolado / Bois
Arte: Encina / Chene-vert
Artz: Aliso / Aulne
Asal: Corteza-Cáscara / écorce-Coquille
Askasi: Acacia / Acacia
Askolari: Leñador / Bucheron
Askora: Hacha / Grande hache
Beresi: Jaral / Taillis
Boskel¹⁷: Bosque / Foret
Burbux: Madroño / Arbousier
Egur: Leña / Bois de chauffage
Ereñotz: Laurel / Laurier
Errama: Rama / Branche

¹³UXAI eta UXI biak esaten dira.

¹⁴Edozein arbola mota adierazteko ere erabiltzen da berba hau.

¹⁵ARATX eta SUGATZ ere erabiltzen dira zentzu orokorrean. SUGATZ batzuren ustez sua egiteko balio duen egurra ematen duena da. ARATX Karmen Mojaren ustez ezkurak ematen dituen da.

¹⁶Basauri aldean -DURI atzizkia erabiltzen da arbola multzoa adierazteko: ARBOLADURI ARAXTURL... PINUDERI ere entzun diot Karmen Mojari.

¹⁷Basauri aldean BASO beste leku gehienetan MENDI esaten dena adierazteko erabiltzen da.

Eskur: Bellota / Gland
Fruta: Fruta / Fruit
Iketz: Carbón / Charbon de bois
Iko¹⁸: Higo-Higuera / Figue-Figuier
Intxur: Nuez-Nogal / Noix-Noyer
Iñerrakeri¹⁹: Brezo / Bruyère
Karraskille: Tilo / Tilleul
Kastaña: Castaña-Castaño / Chataigne-Chataignier
Kerixa: Cereza-Cerezo / Cerise-Cerisier
Lexar: Fresno / Frene
Madari²⁰: Pera-Peral / Poire-Poirier
Makatz: Madari txikiak, berez, erein barik hazten direnak
Masusta: Mora / Mure
Menbrillu: Membrillo / Coing
Milikotoi: Melocotón / Pêche
Mimen: Mimblera / Osier
Mismeru: Níspero / Néflier
Mukur: Enborrekin egiten diren zatiak, gero egurra ateratzeko.
Okaran: Ciruela-Ciruelo / Prune-Frunier
Oi: Madera / Bois de construction
Orri: Hoja / Feuille
Pabo: Haya / Hêtre
Piñu: Pino / Pin
Sagar²¹: Manzana-Manzano / Pomme-Pommier
Sasi: Zarza / Ronce
Sasiarrosa: Rosal silvestre / Églantier
Sasiarte²²: Matorral / Buisson
Serra: Sierra / Scie passe-partout
Sugatz: Ikus "Arbola"

¹⁸Fruituaren izena eta berau ematen duen arbolarena gehienetan berdina izaten da. Batzutan -ONDO atzizkia erabiltzen da arbolaren izena adierazteko.

¹⁹"Iñarrak" edo erratzak egiteko erabiltzen zen. "Erredondoa eta larrosa amarilloakas" da, Karmen Mojaren hitzetan.

²⁰MADARIONDO ere esaten da arbolaren izena adierazteko.

²¹SAGARRONDO ere bai, arbolaren izena adierazteko.

²²MATORRAL ere esaten da, gaztelera bezala.

Suster²³: Raíz / Racine
Sustrai²⁴: Raíz / Racine
Tronko: Tronko / Tronc
Txopo: Chopo / Peuplier
Urrutxa: Avellano-Avellana / Noisette-Noisettier

6.3.3.- BASAURI INGURUKO HERRIAK

Arákaldó
Argúya: Arrigomiaga
Arránkudia: Arrankudiaga
Arrátiye: Arratia²⁵
Bilbo: Bilbao
Etxébarri
Galdáko: Caldakao
Laudíyo: Ludio, Llodio
Miráballes: Ugao, Miravalles
Sarátamo: Zaratamo
Sebéniyo: Zebeño
Sóllo: Zollo

6.3.4.- BASAURIKO AUZOAK

Abáro: Abaroa
Aréix²⁶: Ariz
Artía: Arteaga
Artégoitti: Arteagoiti
Artónda: Artunduaga
Asbárren: Azbarren

²³Sustrai nagusiaren inguruko txikiak.

²⁴Lodia, sustrai nagusia, beste meheagoak "Suster(rak) dira.

²⁵ARRATIA ez da herri bakarra, haran osoa baizik.

²⁶ARIX ere bai.

Asgóitti²⁷: Arizgoili
Atxikórre
Basáselei: Basozelai
Begie²⁸: La Vegada
Bidébiyeta: Bidebieta, Dos Caminos
Biskótzalde: Bizkotzalde
Briskítta²⁹: Briskieta, Picota
Ergóiyen(a)³⁰
Errékalde: Rekalde
Etzérre: Etxerre
Fiñága: Finaga
Góiri³¹
Ibérgun: Iburguen
Ibérre: Ibarre
Iruaratxéla: Iruaretxela
Karía goikóa: Kareaga goikoa, Calero
Karía bekóa: Kareaga bekoa, Calero
Lapátza
Lusárre: Luzarre
Sarrátu
Ugárte
Urñbarri
Urkitzéne³²
Uyérite: Uriarte

²⁷Batzuk BIDEBIYETA-ren zentzu berean erabiltzen dute.

²⁸ERGOIEN-ekin kontrajarria, beheko aldeko auzoak.

²⁹Briskitta berez Arrigorriaga da, baina ERGOIEN-en barruan sartzen da.

³⁰Atxikorre, Luzarre, Finaga eta Briskieta auzoek osatzen duten ingurunea, MARMASIN mendian gora dagoena. ERGOIYEN eta ERGOIYENA esaten da, bietara.

³¹Etxe bakarra da.

³²Xexili Urkizaren jatorrizko etxea, botata dago.

6.35.- BASERRIA: EGITURA, TRESNAK...

- Abitasiño:** Kaleko etxebizitza normala, pisua.
Age: Viga, poste / Poinçon
Almuda: Almohada / Traversin, oreiller
Argi: Luz / Lumière
Arkillau: Arrendar / Donner une terre à bail
Aspire: Artesa / Petrin, maie
Ate: Puerta / Porte
Aurki: Banco / Banc
Aurreko parte: Fachada / Façade
Ausuna³³: Barriada / Hameau
Basern³⁴: Caseño / Ferme
Baul: Arca o baúl para vestidos / Coffre à habits
Bentana³⁵: Ventana / Fenetre
Erloju: Reloj / Horloge
Erri: Pueblo / Village
Eskillera: Escalera / Escalier
Etze: Casa / Maison
Giltz: Llave / Clé
Frontal: Frontal / Entrait
Inkiliñu: Inquilino / Locataire
Itxi: Cerrar / Fermer
Itxon: Esperar / Attendre
Ixera: Sábana / Drap de lit
Kamara: Desván / Galetas
Kolgadore: Armario / Armoire
Koltxo³⁶: Colchón / Matelas
Kristel: Cristal / Vitre
Kuartu³⁷: Habitación / Chambre

³³AUSO, BARRIYO eta BARRIYADA ere hitz erabiliak dira.

³⁴KASERIYO eta LABRANTZA-ETZE ere esaten dira.

³⁵Ikus LEIYO

³⁶Ikus LASTAMARRAGA

³⁷Ikus ABITASIÑO

Lastamarraga³⁸: Jergón / Paillasse
Leiyó: Kortako orman dagoen zuloa, kalera eman dezake edo ez.
Mai: Mesa / Table
Manta: Manta / Couverture
Molle: Muelle / Mou
Oi: Cama / Lit
Oreñel: Orinal / Pot de chambre
Orma: Muro / Mur
Ostei parte: Parte trasera / Derrière de la maison
Patin: Pozo / Puit
Petroliontz³⁹: Lámpara de petróleo / Lampe
Sabaldu: Abrir / Ouvrir
Selet: Suelo / Plancher, Sol
Serraja: Cerradura / Serrure
Sille: Silla / Chaise
Silorrasu⁴⁰: Techo / Plafond
Tejabana: Cobertizo / Appentis
Tella: Teja / Tuile
Telletu: Tejado / Toit
Tollara: Pajar / Pailler
Usaba⁴¹: Propietario / Propriétaire

6.3.6.- DENBORA KONTUAK

6.3.6.1.- Aste egunak

Astelen: Lunes / Lundi
Martetzen: Martes / Mardi
Egusten: Miércoles / Mercredi
Eguen: Jueves / Jeudi

³⁸Artoaren kapaxaz betetzen zen eta beste koltxoiazen azpian ipintzen zen, "molle"-aren ordeaz.

³⁹Karburuzkoa ere erabiltzen zen.

⁴⁰SERU ere bai.

⁴¹PROPIETARIYO esatea ere oso normala da.

Bariku: Viernes / Vendredi
Sapatu: Sabado / Samedi
Domeka: Domingo / Dimanche

6.3.6.2. Urtaroak:

Udebarri: Primavera / Printemps
Ude: Verano / été
Udegoyen: Otoño / Automne
Negu: Invierno / Hiver

6.3.6.3.- Hilak:

Erdarazko izenak erabiltzen dira, aldaketa fonetiko txikiren batekin.

6.3.6.4.- Denbora erreferentziak:

Iges: El año pasado / L'année dernière
Aurten: Este año / Cette année
Datorren urtien: El próximo año / L'année prochaine

Areiñegunatzeli: Antes de antes de ayer / Avant avant-hier
Areiñegun: Antes de ayer / Avant-hier
Atzo: Ayer / Hier
Geur: Hoy / Aujourd'hui
Biyer: Mañana / Demain
Etzi: Pasado mañana / Après-demain
Etzilimo: Pasado pasado mañana / Après-après-demain

Egunon⁴²: Buenos días / Bonjour

Arrasteiyon⁴³: Buenas tardes

⁴²Eguerdira arte, bazkalordurarte edo honela esaten da. EGURDIYON badago, baina ez da oso erabilia.

⁴³Ordubatak inguruan hasita honela esaten da.

Gaubon⁴⁴: Buenas noches / Bonsoir

Goxalde: Madrugada / Grand matin

Egunsenti: Amanecer / Aube

Gox: Mañana / Matinée

Egurdi: Mediodía / Midi

Arrastei: Tarde / Après-midi

Gaube-illuntza⁴⁵: Atardecer / Soir

Gau⁴⁶: Noche / Nuit

Gauberdi: Medianoche / Minuit

Egun: Día / Jour

Astegoiyen: Fin de semana / Fin de semaine

Aste: Semana / Semaine

Ille, Illebeta: Mes / Mois

Urte: Año / Année

Arin: Rápido / Vite

Asti: Tiempo libre / (Avoir du) temps

Atoan: Inmediatamente / Tout de suite

Atxiñe⁴⁷: Antiguamente / Autrefois

Bart: Anoche / Hier soir

Berandu: Tarde / Tard, en retard

Bespera: Víspera / Veille

Biyamonien: Día siguiente / Lendemain

Geldiro-geldiro⁴⁸: Lentamente / Lentement

Gero: Después / Après

Lenao ba arimeittekoak yo askero esin lekiyen kanpora urtein se... Arimeittekoak, orreik gaubien yoten audesan illuntzan, kanpai betzuk yoten audesan, d'aik ixin sien arimeittekoak, esaten auden, da gero ba kanpoti kontus, se gero sorgiñek urteitten auden, parte txarrekoak eta olangoak, baie baten e bueno ba, aittek esan auen e baten e etor siela tabemati, taberna nagositti etor siela etzerantza, berandu, gaubien etor siela berandu, ene, an goiyen ikusten audela gause bat tarrata bateli besteli lte ene...! ointxe parte txarrekoak orti dabix parte txarrekoak eta bat asi sela ya erresetan, parte txarrekoa(k d)liesela ta gero ba batek esan daula "Arrimau in biot ia aber ser ser dan ori" da gero esan tziela "E, egon trankillo, se astokumie da ta!"

.....

Da lenao mutillek eitten audesan bilddurre emoteko gaubetan, ba kalabasiagas, ba ifini olan a barruen kandela bat edo seoser ixetute, eta gero begiyek eta olan ein dde imintten eudesan or beresiyetan da olan jentieri bilddurre emoteko, lenao or beresiye on san or be pasetako, eta an beresiyen da olangoak mutillek imintten audesan, bilddurre emoteko ta.

.....

Auskeras, bai, ta amagas beti, amak estau erderarik eitten. Amak a gaste denporan erderas yakin be es auen ein, lokepasake, kanpoko jentie etorten san moduen asko, ba gero etorten sien e orduen ba aukitten geinddusen ollasko ta ollo ta koneju te, da dana aukitten geinddun de ba a edo ori eske

etorten sien moduen da aik estauden moduen euskerarik i yakitten ba alan edo olan ikixi (a)uen. Da ni be eskolara asi orduen erderarik arien bes, nik estai(t) selan arreglau neintzen, da nire moduen beste batzu(k b)pe arien bes erderarik i yakin, edo txarto, maistrie be andaluza, da onegas, onegas ibil sen maistrie niges be bai, andaluza ixin sen.

.....

Gero errotatara be yoaten geintzen, ba klaro artoa ta aukitten geinddun etzien, esta? baie a (a)iyoko barik ba baliyo es yateko ba! da aiyoten eran biar, baie errotak ote(n) sien ba presintaute, es otzien itxitten aiyoten da dabixenak ixitten sien gitxi, da klaro, aukitten audesan dana... ba... dana sobras beterik, da gaubetan da, baten be yoan geintzen ba bueno andi tiak a Bidebiyetan a abixue, ba badoasela ta yoateko gure bot eta bueno ba, enteretan geintzen orduen leku gustitara, ba... yoan geintzen e da serera, nora da... ara estasiñora... ori... sera Llodio baño lenaokoa, Areta. Emen sorroa imiñi astoari, da goixaldien pim-pom-pim-pom Aretara, astoagas Aretara, astoagas, bueno, an egon, egun gustiyen, da emon oskun e! da ostabe an egon, egun gustiyen, yan barik iñok es auen aukitten eser da! iñon esan egon esebes yateko, nik estaitt aguantau selan aitten geinddun, baie yan barik, antxe, orduen esan egon esebes yateko, iñok es auen aukitten eser da! antxe egon yan barik, itxon d'itxon, da bueno, gero ostabe gaubien e sorroak imiñi ba astoari lle ostabe etzera, da gaubien e, ba orduen e ba autorik es da esebes da, ba astoan a sagatie beño esan a ba apatxak litatitita, besterik es, aixek, titatita sagatie ta bilddurres ba baten batek urteingo ete dauen e goarda sobillen batek edo ba... ba kenduko ete dauen, ba sorroak biduru kenduten audesan batzutan, bueno ba, etor geintzen, tiradie dao gero, yoan da etorri!

8.1.6 - URIBARRI - PEDRO AURTENETXE

Ikixi (e)uen euskera, baie kostau yakon da meritue deko esebe estakiyenak ikisteko e! Berbarik e polittena da, e! polittena munduen euskerie, estaki(t) nok inbentau (eu)en ori, nok, baie euskera... nik entzuten

dot... oneik umiek esatebaterako auskera itten daurien... gause politta(g)orik estau.

Euskeras, baia txarto, txarto, len ba banekiyen ondo, baia itxi askero gausak beti ba aistu itten da, da klaro, igual ba edosein moduten esaten dire gausak, estakiyelakoan ba signifikaue da...

Lagun batek e ba Arrigurriyan biarreitte(n) euen da nik i Baskonian, da bakasiñoatan igual a topau... aregas, da "Ño, selan abil? Ba akordeta(n) as senbet kinto ixin geintzen?" da "Bai, bai, berrogetamabost" da "Erdiyek il ddosak" esa(n) auen berak. Da ori, kamioi ganien yoan san yesarritte, d'or o Subibarrin, Puentenuevo da Subibari, ba gerra denporan bota aurein sugiye ta gero barriye da. Da an, bueltea artukeran baum!!! yausi sen e petrillen kontran da antxe il san, mutille, da berak esaten auen "Erdiyek il ddosak", bat geiyao, alandase... olaintxe da sera, da urte batzuk bixi askero ba akordaten da, da baten batek e ba kreditue emoteko gausari.

Emen gerran a Frankon gerran enendun aiñ ondo pasau e! Or eridute bajatu neintzen, lau egun falta sien e entregetako Bilbao, anbulansia baten Bilbora, ospitalera, da esan erida bat a... ondiño dekot... inddaba garau txiker bat, ondiño be markie óekot

8.2. INGURUKO HERRIETAKOAK

8.2.1.- ARRATIA - DIMA-BARGONDIA (EDUARDA BILBAO)⁷

Jitana bat, ta jitanuek yoan sian, da ba erropa danak ba apurtute eukesan, baia (e)ukien ainbeste erropa da gitanu bet, es, esatzen e "Niri ostu eustesanak estait, suok ixin sarie? bastar gustiek ostu dosues d'estait (s)er ein dosue ta" "Es, guri baño... eskus garbiek (g)ara, ba... gitanuek ixin arren guk esku garbie deku" esatzen da tire ba, da gero... esatzen ba "Ukala manduka" "Tapate esa colilla" esatzen besteak. "Joxe", Joxe euken ixena jitanuek, "Joxe", ba aren amak esan i euen, Barbarak esan i euen ba "Bai, sorri baneke abapadu labaña, bestela mutille garbia dula". Agustin euken ixena mutil orrek.

.....

Dimen egon sian, ba... Bargundien, egon sian Anton da Pedro, anaie bi, Anton da Pedro, da yoan sirean e, ba... gari... yoteko metak soltetan, da urteotzien suge batek, an metatik, da gero ba anai bata(k) tragau in beadula, Pedrok esatzen da Antoniok esatzen "Es, itziok, se ori be Jainkoak eiña dauela", baia a ta gusti be besteak e busten puntea kendu otzen suge orri. Gero ixin sen, ba sein de esaterako Kuban edo Españako partean gerrea ixin leitike(n) moduen, gerra bat ixin sen, da tokau yakon o Antoneri ba gerrara yoatea, da Pedro ba etzean lotu sen baie Anton yoan san, da, ba, Gabon egune etorri sen, da destino emo(n) otzien e etzera etorteko soldadueni baia esin sien etorri gabon gaubean e Bargondire esin sen etorri, urrin egoan da, Pedro esin sen etorri, da esan i (e)uen "Ña, nor egon leiteke neure aitegas d'amagas e sutondoan e afaiten" esauen da "Ai, gurusu eroatea, ala?" esatzen alboan gixon batek "Bai baia urrin deuket, ni esin yoan neintike ara, urrin dao ta"

⁷Ipuinok 1984 urtean grabatu genituen, andra hau artean bizi zela Eduarda Bilbao Euskalerriko ipuin kontalari eta abeslari onenatarikoa zela esan daiteke zalantzarik gabe. Hemen agertzen diren bi kontaketa laburrok berak barruan zeukan eta zorionez neurri handian jasota dagoen bere altxor preziatuaren erakusgarri txikia baino ez dira.

"Ba atoan presentauko saitut suk (g)ure bosu" da "Ai gure bai, baia a urrin dao" Ba "Parau saite lepoan, baia Jesusik eseixu esan se bertan ilunean lotuko sara ta, suk arre deablo esan beti". Estropusada senbet eta andiao in "Arre deablo" esateuen besteak eta, ba "Aldokoetzeko portalean...", lepoan artu t'orduko esatzen "...mesmerue(k d)teko orri gorri" esatzen da "Su(k) selan dakixu ba Aldokoetzeko portalean e mesmeruek e orri gorrie dekona?", "Ba ni(k y)txakin es, obeto es, ba etxatzu akordetan suek e gari metea soltau sinduen orduen e ba selan e suge batek urteuen da selan suk esan seuntzen e ba ori be Jaungoikoak eiñe dok eta itxio(k b)pixirik? Amen neuk e atzamar txikien seran faltan" esatzen.

8.2.2- ARRIGORRIAGA

8.2.2.1- ARRIGORRIAGA-BRISKIETA (TOMAS ARTARAS)

An a Atxikorren e sera... oin aspalditxoan es b(a)le len e yoan orduen e an a musikuek e... esara ibilli ixingo su be or, esta? aik tronpetakas da, an demoniñoan a korue, demoniñoan korue, an, dosena ba(t b)pañu geiyau, dosena ba(t b)pañu geiyau, iru-lau kotxe ta ango... batek (g)litterne bestiek... sagatie! Dios! Musiko bandie ekart(en) auen.

.....

Emeti, emeti Arratiyera ta Seberiyora ta estau diferentzi andirik, e! Emen daona diferentziye, ni soldadu egon orduen e... sera, nabarroakas, da gipuskoanuek, da nok entendidu? Jode...! Nok entendidu airi? Ademas, nabarroak a sera, Pirineo ondokoak edo sien e sera sarratuek, erderas a kasik es ekiyen. Batek e, kagoendies! Patiyoa, patiyoa allu, da es euken e es ekiyen e erderas a miau be esaten da gixona aburridu te es euen e patioli burue bota! Da artu te era(n) (e)uden ospittelera, da etxakon eser pasau, ba seuser e alonlaute ta lotu sen baie... ta etor sen da gero esaten otzen e "Ser, barriro botako (d)ok o burue?" ta "Barriro es, barriro es!"

.....

Pariantie san Infernu⁸, ondoan bixi xena, Infernu, a bai a esetu nendun. A okerra! Seberiyon o nik i entzun u bateri baño geiyauri entzun tziet, Seberiyon o alabie il dde astoan ekarr(i) auen da kanposantuti ondoti ba esat(en) auen e se(r)a ganiek emot(en) olzala kosi tte kanposanture botateko, bai, ildde ekarr(i) auen da ba etzera ekar bearrien e artu te astoan ekarr(i) auen da ba kanposanture bota, ormati bestaldera bota!

8222- ARRIGORRIAGA-GORIBISKO (ILDEFONSO LANDETA)

Nik i beti auskeras ain ddot, eta erdera gitxi in ddot nik, anik eta eskolara yoan arte bapes da gero be ba auskeldunekas an beti auskeras. Eskolan ba batzukes, eskolan gitxi, baie gero, andi urtein orduen gero ango aldeako jentiekas ba auskeras, erromerire yoat(e) orduen be koadrille..

.....

Gerra osteiyen gero auskeras berbaitten proibidu san. Apur bet igual berbaitten geinddun baie, entzun askero... bilddur itzela! Da orduen galdu sen auskerie, auskerie, gur(e) auskerie sano galdu sen orduen, gure denporan.

⁸"Infernu" aintzina Finaga auzoan bizi zen pertsona nahiko ezaguna omen zen eta bere ezizenak adierazten duenez ez omen zen lar ona.

8.23.- BILBO

8.23.1.- BILBO-BEGOÑA-IBARSUSI (EUGENIA LEGINA)

Guk beti esaten du, beti, ba... "Aitu" esateko "Begittu"⁹, baie oiñ esaten daude "Begira" eta guki "Begira" ba egotie begire seoseri, oseake beste gause bat, eta sarriten esaten (do)su: Onek ser esan dau? oseake, lengo baten pasau yatan ba astoa neskes aukitten daude emeko... ba... gu(k d)teku baie auso gustiyen bi bakarrik daus, ta etor sien ba... esta(k)i(t b)pa seguramente umeakas¹⁰ aille ixengo san edo osaban bat edo ume... iru lau umegas da "Ene bal itxistesu astoa ba... alateko erretrato batzuk" ta esatontzien "ona begira" esatontzien, nik esan nendun ba onek aldrebes esatontze, eta klaro gero konturatu neintzen oneik ikisten daudenak gramatika distinto darille guk e berbain dune, diferente, da klaro, gause batzuk esaten daude gause batzuk eta nik esaten dot onek txarto esan dau txarto es! ondo esango (e)uen ak igual txarto nau(k b)paie len e ba esan egon moduen nok irikatirik ba entzun dosune ta olan aurrera.

Sarrena(k b)pai se lelangotan ba bakixu, baie gero gerra osteiyen asi sen len barreitten tzien euskalduneri barre komoke oneik mamoaak nondi datos, da bakixu ser pasten dan, oiñ sinenbargo aldrebes, oiñ euskeras dakienari ba seloa, egie da, egiye¹¹ da.

Emen, emen nik i sertu (do)ltzetena konturatuten nasena, ba... Laudiyoti onantza, balle gustien uskera gitxi iten dala, oin, baserritan, Seberiyto be

⁹PT bustidura batzutan bestetan baino nabariagoa da. Orokorrean esan daiteke Begoñako jatorriko andra honek behintzat Basauri aldeko andra gehienek baino bustidura gutxiago egiten duela. Dena den, ondorio fidagarriak ateratzeko lekuko askorekin egin behar:ko lirateke probak.

¹⁰E + A eta A + A ez dira beti IE egiten.

¹¹I + Bokala kontestua dagoenean ez da beti yod antihiatikoa sartzen.

erretirautxuau dao, l'olango lekuetan emen be ba senbet eta gorau, ba uskera obeto, baie balle gustien gitxi iten da uskera, gitxi, gitxi, emen Samigelen nok iten dau uskera Samigelen ya? Eta etzean nekes, etzean nekes ganera, oseake nogas ein be estekosu te!

8.232.- BILBO-BUIAGITI (MARIA MOJA)

Karmenen ama bai, ni(k b)pai, nik eselu neuen se orregana sarri elorten neintzen ni olan fiestatan da, konbidedu be etorritte nau ni orra e! orra Fiñagara.

.....

Aregas barre gerra denporan. Boketen subipien dao, bakixu, errefujio tremendo bat, sera, sartu geintzen ara, ara sartu geintzen da ba danok, esan eon ba... emeko basoan eo(n) sien ya tiroka, ta gu gauerdien e orti serera, bagoas an sulo bat topetan du te orren tio sarra, "tio sarra" esateontzun danok, tio sarra, da gixajoa ba... frakak erantzi gure (e)usen, eta oreiñela segaitti estotzen ekarri, segaitti estotzen ekarri oreiñela, Domingari! Esatzen gixonari "Ixili(k) saus!"

.....

Bolasiñoetan eoten gara posik. Kotxien eran eta ekarri be bai itte(n d)osku, Arguyatik, Arguyakoak, lagunek (g)eure lagunek, eta an e tabernari(k) taberna, Arguyan be bai, ta orti ibiltte(n) geintzen, erdi txispaute etzera, keba, ainbeste es, baie...

.....

Kanpostarra daula asko or, bai, asko, etzie(k b)pe estosu ikusten e an e Seberetxan beko aldien se etze montoie daun an. Orreik dana(k d)lire kanpokoak, danak, apurtxu belegaittik atara itten doskue bertatik, apurtxu

betegaittik, oinddo be... Or Peiñen, or Peiñen e jiltenu gustiyek e Arguyara etor dire, or dau jentetan! Ikusi baseinki, Tomas! Yoaten nasen bakotxien, umiek bat e lepoan, bestie arrastaka gonak e sertuten, beste bat igual pilliskau itteontzie seguru negar eitteko, ori egiye ixin leikitte, ume bateri?

824- ETXEBARRI URIBARRI (JOAKIN ELORRIAGA)

Etxebarrin yaioa, bertan, Uribarrin. Ori dao plasalik i ona Bandaserantza, plasan asi da emeko... atxine estait suk esetu bosu, piñu andiek¹² eon sien or o erreka unguruen, or o Kalero parien, piñu andi bi. Bandas dao fabrikie, a bere Urbarrin dao inde a be, a Uribarrin (ixitn) xen atxiñe a dana, Uribarrin, axe diñotzena, plasan asi, eta askenekoan etze illadie on san, bat, bi, iru, lau, bost, sei, sei etze, danak aldeakoak.

Lelengo bixi neintzoan an gure suegroak emon yoan a saldu yoan terrenoa sati bet etze bat eiteko, da gerrien... gerriek urtein yoan, da an bixi neintzoan, emen goiyen pixu bet pixu bet eon san eta ara sartu neintzen, etor soan¹³ gerrie da bonba bategas etzien alderdi bet e bota yoan, alderdi bet e bera, da muebliek eta dana sartuten da... da gero Mariak an librau yoan pixu bet eta an.

A soan semes Begonekoa, da eskondu soan bigarrenes. Da atxiñeko urtietan Begonen dana erdera berbaiten soan, dana erdera.

¹²Joakinek "I + Bokala" kontestuan batzutan sartu egiten du Yod antihiatikoa eta beste batzutan ez, eta bere ustez lehen Etxebarri aldean bietara esaten zen. Bestalde, E + A eta A + A kontestuetan ez du beti IE egiten. Batzutan EA ere egiten du, baina bere ustez argi dago lehen bere lertian beti IE egiten zela.

¹³Batzutan HIKA eta ZUKA sistemak nahastu egiten ditu elkarizketa berean, agian pertsona birekin batera hitzegiten egoteagatik. Grabazio hau Fermín Larrea lagunarekin batera egin zen. Fermín normalean likaz egiten zion eta niri, behar bada konfidantza faltagatik, batzutan hikaz eta batzutan zukaz.

Ba nos sartu soan erderie asko? ba... ointxe, gerratik onantza, gerra aurien baie gitxi, asko asko es, bai, beti gitxitxoao, estok? baie oiñ aurrera gerratik gero dana erdera, da len be bai, bastante, len be bai, baie ainbeste es e! Len egoten san jente sarra, gure porejemplo gure aitetek eta amamak eta aitek eta olan, aik euskera eiten auren dana, euskera, geiyena. Kukillagan nire parientiek e dana euskera iten auren.

.....

An a solo unguuetan bear eiten geiyoan, neu(k b)pe aukin neiyoan ortu apur bet eta alan. Etzeko gausak, ba berdura apur bet edo letxuga batzuk edo porru betzuk edo, patata apur bet ereilen geiyoan da onetara, aldean sera. Terrenoa bai, terrenoa aukin geiyoan baie biarreiñ e... erdiye labrau barik, bedarra edo.

.....

Etxebarrin sar asko estao, egon nok pentzetan pentzan baie etxaok sarrik, estao. Etxebarriñ i ni baño sarraoak a Arzelai, unikue, gixonetatik e! estot topetan besterik, Arzelai, geiau estot topetan e! lengoak e, lengoak! egon nok pentzan pentzan e! andrak a bai, Bibiana, Bibiana Lekue, da Rufina... Ilurriaga, orreik, orreik biyok sarrenak.

8.2.5.- GALDAKAO-URRETA (DOMINGO CASTILLO)

Ni ixin nintzen orduen e etzean a bigarrena, es? da ba dendara yoaten nintzen egun gustietan jeneroan bille ba neu. Ogie edo makalloa edo kafea edo dana, an dana, es? ba neu yoaten nintzen erosten. Da dendueri ikusi nontzen ba tranpatxue iten. Saku bet e makallo ekarri euen, andi bet es? da an a ni itxoten da se ite(n e)uen? makallo surienak alde batera itxi da olan a ba apurtxu bet e ba gorritxu oten siesanak beste alde batera, es? da nik i ba areik suritxuenak a txakur bet e karuao, amaika txakur t'erdi, amaika térdi

gorritxuenak eta amabi t'erdi surienak da ni yoaten nintzen makalloan bille da se iten neuen nik? ba gorrien pillora yoan da suritxuena koi, je je je, da aregas txakur andiegas ogi bet erosten neuen, biena edo geituten tzien orduen, es? Etzean taloa, taloa ta orreik ogi nagusiek orreik i tiro biko ogiek eta, da bestea an papeltxuegas a ba sartute la ser, da ademas asukereagas einde e!, pastelan moduen. bollotxu beten moduen, da nik axe ta denderuek e ser. ail seu sara granujea andi koi (d)osu makalloa e! je-je-je, barre ite(n e)uen arek! Amari esaten neuntzen amabi txakur t' erdi pagetan dodala ta amaika t' erdi pagau da aregas txakur andiegas ogie, bixio andie ori bere.

Errekadistea, bueno, egunean egunean yoaten nintzen, eskolara yoan orduko, eskolara sartu ba... bederatzielan, goxeko bederatzielan sartuten nintzen da sortzietat(ra)ko nik errekadoa inde eukiten nauen e! Ogie edo asukerea edo arrosa edo indabea edo dana dalakoa ba bederatzie(k b)paño lenao, gero barriro eskolara, da. Loroño... a muebledune...da aren ama oten san bentanan: "Basoas dendara?" da "Bai", "Ekarri eistesu au te bestea, da esan neuretzako dala e!, neu yoango nas pagetan" Bueno, astelenean. Martitzenean be aintxe bentanan. "Basoas dendara?". "Bai". "Au te bestea ekarri eistesu e, bueno neu(k) pageuko (d)ot". Ba yoan eiten nintzen dendara ta ba "Urlick agindu doste", bueno. Ta "Sapatuen emongo (doltzut propiñea, e, ona, propiñea ona emongo (doltzut sapatuen!". Da ni ba, koitedue ba, koño ba pentzate ba emongo (do)stela pentzetan nauen bost txiki e, erreal bat, erreal bat emongo (do)stela e! ba asko enauen eskatan e, aste gustien joer!, da banoa jo! sapatuen posao sentellea baño, banoa da ser? da an on san begire bentanan da nik i ba or o propiñea dekol. Banoa ta "Ekarri eistesu au te sera", da, bueno, ba badaroste etzera da "Ara, autzi propiñea!" ta sagar bi... ustelak esiesan ixin baie tximur tximurrek olango sagar bi tximurrek, bueno!, da etzean... esa(n d)otzut, berreun u sera arbola auki geindun guk, e! Beieri bota geintzen guk sagar..., bueno, enbidia emoteko moduko sagarrak beieri e! edo txarrieri edo! da niri emongo (d)oste a ba! Urten nauen da... an amar metro eñ orduko das! sera sanjara bota nauesan aik sagarrok. Da bai, eldu sen barriro astelena, da banoa, da "Ser, basoas a dendara?" ta "Es, gaur es, gaur

eskolara noa", "A, eskolara soas?" da "Bai, gaur eskolara noa se... ba... estauela bear esebe amak eta.. eskolara noa" Ta bestea bentanan ba aber baten bat pas(e)lan bada andi te ni ba besoan koite ogiek eta sera ta "Estosu esan ba eskolara soasela?", "Bai baie ondiño astie sobran deko(t b)pai te banao etzera". Giau esosten agindu.

8.2.6. LARRABETZU - GOIKOLEXEA (MARIA LEKERIKA)

Ba on san gixon bat, bixarra euki euen, sure moduen, ba aldien e aldien... arie iten, goruetan, goruetan entzun dosu iños? goruetan, gixona, ori enbran enbran bearrak dires orrek, baie gixona. Etor sen katu bet eta esatzen e, selan san, bai, esatzen: "Gixona, gixona eta goruetan?", katuek esatzen. "Katue ta berbetan?" da emotzen bota otzen e palu bet eta kaderea apurtu otzen, da urungo egunean ausoko enbrea koja.

.....

"Logure nas da lo ingo neuke baneko oirako lagune, oirako lagune badeket baie agure lepo makurre. Agure xirki xorko, bosteun urtekoa, i baño gura neuke ogetabikoa" Ori amamak umeari ume soñuegas.

8.2.7. OROZKO - SAN MARTIN (JUSTO RESPALDIZA)¹⁴

Aspurun egon ei sen abaderen bat, bisiten, nire amamak nire aitek eta sarrak lengoak geienak kontetan euden ori de abade ori ba Aspuruti estai(t b)pa nora... se mesalara edo norako eukite(n e)uen e... bere ser ori, ba berak mesa ta gausak non esan bear eusen, baie (e)uken estaki(t) nik ala arrebea ala... enbrasko bat euki uen etzean, da enbrasko ori etzean parau san bera joan san aren baletu te enbra... etzean parau sanean ba ibili sen etzea arregletan da etzea arregletan dabilela topau (eulen kaja bat, da kaja orretan

¹⁴Grabazio hau 1985 urtean egin zen. Justok 75 urte zeuzkanean.

euki euesan abade orrek e segun, parte txarrekon batzuk egon da bereinkasiñoas batu te kajan euki (e)uesan, da ser ete daon estaon kajea sabaldu euenean a urten eudein d' urten orduin i bear eska asi yakosan enbrorren, bearra, ba ekarrixuix egurrek, ekarrixui bestea, baie ailien eiteko denporea baño lenao planta in yakosan bearragas, bearra... aginduletzien bearragas, da atzenean enbrorrek ba, nik ser agindukotziet pentzau ei (e)uen bere artean da esan ei tzen ba "Nafarrondoko errekatu ekarristesui galbaian sera ba ure", da aber, joan da bustinegas galbaian dana konpondu da galbaian ure ekarri ei otzien, gero abadea etorri ei sen, da abadeak a "Baie ser ein dosu?" da abadeak ba ostera be ba bere abilidade bere bereinkasiño edo bere erresu edo bere gausokas ba batu eusan da bakeak ein ei sien, baie ostean ixin euresan enbreak ixin euen gausa onik ein... Lamiñak edo deabruik

8.28.- TXORIHERRI - LEZAMA (JOSE MARIA JAUREGI)

... da gu egon gintzesan gero ordu bien frente bien erdien, ofensibea ein saurienean, goiko mendien lotu sien, olan alturen nasionalak, da geube pasetan iluntzean olan a ba... sartu sien, eta gero besteak e galapaka atzera etorrite, munetan paraute beko etzean, da gu an bien erdien.

.....

(San Juanetan) Oin be bai e! oin be guk eiten du ori, bai leixarra euskera, guk e an leixarra esaten tzu, bai, leixarra, e! Oin be bai e! Kurtzeagas e, kurtzeagas e! Es dau erramak iminite bakarrik balio, olan gaus erakutzite an be, errameari ba kurtzea in e, olan sartute kurtzeagas eta gero lorakas da.

.....

Umeak, umeak e gasteak yoaten sien eso, sarrak esa ta gero... Lenau galtzue, garie ereiten san es? da galtzue lusea, trillau barik, da ari gero puntan sue emon da are(k b)pa a erre arte denporea soloari aregas e buelta emon

umeak, ba iru edo lau badaus bakotzak e bategas, ta aixe kostunbrea soloari
buelta bat eiten, San Juan besperan, amen da an be bai.

.....

Ori de ba lenaoko ba erakutzi bet e ba, kontu baten moduen edo edukasino
bat edo errespeto bat, estakigu se benefixio eukiko dauen, baie...

.....

"Josemari, ekaristesu ba serrea", serrea, ba... serrota... serrota, e! ta igitieri,
e, ba guk an serrea esaten tzun Lesaman, da nik esebes, serrea eroan
bearrekoan nik igitie eroan, da "Igitie, baie nik ser esa(n) dotzutt b)pa!" Guk e
"Auxe da serrea ori esaostesu, serrea", entenidu esin lelangotan.

829- ZARATAMO - ARKOTXA (BERNARDA URIARTE)

Etzerren bixi nes eskondu neintzenik ona, ogetabost urtegas eskondu in
neintzen, da an Etzerren euki (d)un etzetxu bet e aittek ei(n) euen, se
eskendun lekuri euki, de an bixin ixin nes ba ordurik ona, baie ostien e
Salamokoa nas, Arkotxekoa, baie an egon san etze sar bat, kaseriyo bat, lenau
ixin sen konde batzuna, baie gero Praderak¹⁵ erosi (e)uen da Praderak ya
kakastu (e)uen, bota (e)uen dana ta... dana txarritu, de oin ba gero e... geure
etzien or Etzerren.

.....

Gure aittek e bei bi euki ordun iru gunxitle(n) (e)usen, iru euki orduen
lau te sortzi lte bederatzi be euki gendusen, epokan, da kriyedun bat beti
eukitten gendun etzien, baie ni antxe txinoan moduen aik (g)obernelan, bai
nik estol ikixi besterik i baserrikoa baño, ta egundo eskolara bes fatxadas.

¹⁵ "Pradera S.A." Arkotxa-Etxerre aldeko lantegi handia da.

Orduen dotriñie ikixi bi(er) san lelango komuniñoa itteko, da abadiak e obligau itte(n) (e)uen, da orduen yoan neintzen e aldingada baten, eskolara, da ikixi nendun seoser leiduten, da neure... firmie botaten edo olan baie kasi estaki(l) nik esebe, se leidu eitten dot, baie neuk u eskribidu olan es, ein bai seoser baie keba, es.

.....

Ama(k) panderoa yote(n) (e)uen ondo, eta areik etorten sien, Nikolas euki uen balek ixena da bestiek) Fetra, da areik etorten sien e gure elzera, ara kaseriyora, da amari: "Marijona, yo bei fanderoa ba", ta "Se fandero ta, oira yoan biot, kantzute nau te", "Yo bei ba, ta toke bat edo beste bat bakarrik" ta yot(en) otzien gero, da areik yantza ta yantza an, da nik estot yantzan be inos ikixi, ser ikixi biot!, beti egoten sien e beiyee edo konejuek edo txarriyeri edo beti lte bestiek y)txantzan igual da ba gu beste gastioak igual an txarriyeri emoten edo, txarriye(k b)pe ba(t b)pakarrik es iru edo lau edo eukitten gendusen, da urtien il be pare bat edo bai, olan, ta gero etzien egoten sien aik mortzillek eta, txorixoak eta...

§2.10 - ZEBERIO - UNBURRA (PATXI ETXEBARRIA)¹⁶

Aldi beten, eguskie t'itargie andra gixonak i sirean da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daoela, badiñotzo eguskiek itargieri arrokeris heterik:

- Ikustona Mundue, egunean bano egunean ederrago!
- Bai, ikusiko etxoapa!
- Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker!
- Bai, eta ni naure gaubetako montzari!

Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok

¹⁶Einotesto hau nire tesi zuzendaria den Juan Manuel Etxebarriak batu eta transkribitu zuen. Nik bere tesi lanetik kopiatu baino ez dut egin. (Ikus Bibliografia)

itargieri eta erreunes bete arpegi gustie. Untxe l'untxe be esaun daus aik erreunak, aitutea baño estao itargieri idergi betea danean.

Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi sen. Eguskie orduen atzerikara gañetu yakon.

Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete ta ilbera gustien eragoyon eguskiek itargie kuxetan da ogela sortzigarren egunean ie ie kuxetako aukela estotzo itargiek bere burue gordetan!

Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunatxoan egunak etorri itargie atzerikara ikustauen.

Orduen, atzera in esin euen les, ain eragoyon eragon be itargie barriro atzerikara kuxetako da orretarako beste ogeta sortzi egun bear ixin ausen, baye itargiek ostera be bere burue gorde.

...Gaur be undiño or dabis bata bestearen atzean!

§2.11. ZOLLO-ASPIUNZA (JESUSA LEKANDA)

Sollon egon sara inos? Angoxekoa nas ni, Aspuntzekoa, Aspuntzen egonda saus? Ba onek esan dauna egiye da, a iturriye, beti on dan iturriye siketu in de, beliko iturriye. A seguramente gnetaren bat sabaidu te pasoa kendu in tzo eta... Aspuntzen bai, ur bank geratu dire. Aspuntze da onan barnyotxu bet, barnyotxu bet, gero andi gora yoan biatn da ya... Sollo, Solloti, eleixie...

Da Korpusetan gogoan deuket e len e prosesinoa ote(n) san Samigelen, ni mesa nausire yoan da, or taberna nausiyen juntau beragas, da... Karmen be bai, "Ala Jesusa, yo txaloak, yo txaloak!" da Karmen e Karmenen e tia... "Ixilik egon sales, ser diñotzesu, es eixu txalori(k y)txo!" Bai, gogoan deuke(t b)pai, len e itzelesko funtziñoak eite(n) sien Samigelen, oin ya esebes.

Da argiye iminten yoan sienien etzien yakingosu suk ori, es? Estakixu ori?
Ba etor senien elektrisistie seguru, ba an kuartu illunien, bakixu, da seguru
bere etzien errentie imini, bere kuartuen es, d'aitu, argiye errentie da, da ilxi
es iminten, Domingari entzun tzel nik sarri

Leng(o) (eg)unien ekin otzien radiyoan esaten aber segaiti... Da egiye da,
emen ya lengorik esteku, Tomas, oin ser? Porruetk b)pe beittu, miserisko
porruetk, len nik estait, estau Enbalde gabitzes el enbalde enbalde, errebentau
ta eser ein es, da egiye da... da elduko dala egune emen estala eser kosiko, se
estala iminten mediyorik kontaminasioari te daon pestekeriyeri, da ori
egiye da.

9.- AZKEN ONDORIOAK

9.1.- LAN HONEN ONDORIO OROKORRAK

Lehenengo eta behin esan beharko jarraian aipatuko diren ondorio orokorrez gainera ikerlan hau osatzen duten atal guztien hasieran edota amaieran kasuan kasuko ondorio puntualagoak agertzen direia.

Laburbilduz eta orokorrean nik ondorio nagusi bi aipatuko nituzke. Batetik Basaurin oraindik badagoela bertako euskara eta bestetik euskara horrek bere ezaugarri bereziak dituela.

Lehenengo puntua dela eta, esan beharko gure herriko hizkerak interferentzia itzelak jasan dituela alde guztietatik, erdararenak zein inguruko haranetako euskararen aldaki desberdinenak. Erdararen presentzia gero eta handiagoak Basaurin euskaraz gero eta gutxiago hitzegitea eragin du, gerra ostetik hona egon den deseuskalduntzea izugarri handia izan delarik. Inguruko beste euskal aldakien eragina bestelakoa izan da. Batetik Basauriko betiko euskaldunek euskaraz egiteko zeukatzen ohitura gero eta txikiagoa pixka bat berrindartu egin du, baina bestetik gure herriko hizkeraren ezaugarri bereziak galtzea eta kanpoko hizkeretakoekin ordezkatzeta eragin du kasu askotan, adibide argiena fabriketan Arratia, Larrabetzu, Zeberio eta horrelako lekuetako langileekin ibilitako basauritar gizonezkoena delarik.

Dena den, oraindik emakumezko zaharrak Basauriko betiko euskara garbian mintzatzeko gai dira, lehengo bizimoduaren arabera oso kontaktu txikia izan bail dute inguruko haranetako euskaldunekin. Gure herriko hizkeraz berba egin dezakeen hiztunaren prototipoa honako hau izango litzateke: San Migel aldekoa, emakumezkoa, 80 urtetik gorakoa eta jatorriz baserritarra. Baldintza guztiok betetzen ez dituzten banaka batzu badaude, baina ez dira gehiegi.

Aipatulako bigarren ondorioa dela eta, Basauriko hizkerak badauzka bere ezaugarri bereziak eta ezaugarriok, orokorrean, Nerbioi haraneko hizkera inguruko haranetakoetatik desberdintzen dutenak dira. Bonapartek hizkera honi "Arrigorriagako aldakia" izena jarri zion eta bere barruan Nerbioi ibaiaren bazterretan dauden herri guztiez gainera Zeberio eta Galdakao ere sartu zituen, baina bi herriok beste aldaki baten barruan sartu beharko lirateke.¹ Hizkuntzaren arlo guztietan ditu berezitasunak Nerbioi haraneko hizkerak, baina nabariena Fonetika arlokoak dira, gehienbat Armonizazio bokalikoari eta Bustiduraren fenomenoari dagozkienak.

Beraz, baditugu gure berezitasunak Basauri aldeko hizkeran eta badugu geure euskara, eduki ere, baina ez luzarorako, zoritxarrez. Oso zaila da muga zehatzak ezartzea, Basauriko euskarak noiz arte iraungo duen esatea, baina kontutan hartzen badugu gure herriko hizkera hulsean oraindik mintza daitezkeen euskaldun gehien gehienak 80 urtetik gorakoak direla agerian dago zerbait egitekotan, zerbait jaso eta aztertzekotan orainxe egin behar dela, beranduegi izan baino lehen.

Lan honen helburu nagusia Basauriko euskara osatzen duten arloen deskribapen ahalik eta osoena egitea zen, egoera larria kontutan harturik, baina gauza asko hobetu eta sakondu beharrean geratzen dira. Espero dut denon artean San Migeleko atso zahar honek betiko joan aurretik euren ahotik barruan gordetzen duten altxor preziatuaren parte ahalik eta handiena ateratzeko gauza izatea.

¹Juan Manuel Etxebarriak bere Zeberioko euskarari buruzko tesian paratzen dituen ezaugarriak tesi honetan agertzen direnekin konparatu bestetik ez dago. Bestetik ikerlan honen amaieran dauden herri askotako etnotestoen artean konparaketa txiki bat egitea nahikoa da desberdintasun handiez berehala jabetzeko.

10.- BIBLIOGRAFIA

10.1. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- ALARCOS LLORACH, E: "Fonología española", Gredos, Madrid, 1986.
- ALLIERES, J: "Petit atlas linguistique basque français 'Sacaze'", Via Domitia VII-VIII, 1961.
- ALLIERES, J: "Petit atlas linguistique basque français 'Bourciez'", in FLV 27, 352-386 or., Iruña, 1977.
- ALLIERES, J: "La dialectologie basque", Euskal linguistika eta Literatura bide berriak, 103-114 or., Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1981.
- ALLIERES, J: "Petit atlas linguistique basque français 'Bourciez'", in FLV 47, 5-46 or., Iruña, 1986.
- ALTUBE, S: "Erderismos", Inchaustu ed., Bilbo, 1975.
- ALVAR, M: "Proyecto de un Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón", Zaragoza, 1963.
- ALVAR, M: "Estructuralismo, geografía lingüística y dialectología actual", Gredos, Madrid, 1973.
- ALVAR, M: "Estudios de geografía lingüística", Paraninfo, Madrid, 1990.
- ALVAR EZQUERRA, M: "Lexicología y lexicografía", Almar, Salamanca, 1983.
- ALZO, J: "Estudio sobre el euskera hablado", Donostia, 1961.
- AÑIBARRO, A: "Voces bascongadas diferenciadas de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra", C.A.P.V., Bilbo, 1963.
- AÑIBARRO, A: "Gramática bascongada", Villasantek prestatutako argitalpena, Donostia, 1969.
- ARANZADI, T: "Nombres Vascos de Aves", RIEV 3, 1929.
- AREJITA, A: "Euskal joskera", Leopoldo Zugaza argit., Durango, 1978.
- AREJITA, A, ETXEBARRIA, J.M, IRAZOLA, J.M, URIARTE, J: "Bizkaierazko Joskera", Euskal Jaurilaritza, Gasteiz, 1989.
- AURREKOETXEA, G, VIDEGAIN, X: "Euskal Herriko Hizkuntz Atlas", in Ikasgelatik plazara, UEU, Bilbo, 1990.
- AZKUE, R.M: "Diccionario vasco-español-francés", Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.

- AZKUE,R.M.: "Morfología vasca", La gran enciclopedia vasca, Bilbo, 1969.
- AZKUE,R.M.: "Euskalerraren Yakintza", Espasa-Calpe, Madrid, 1969.
- BARANDIARAN,J.M.: "Obras completas", BGEV, Bilbao, 1972.
- BARANDIARAN,J.M.: "Etnografía de Vasconia. Encuesta sistemática", in Anuario Eusko Folklore, XXV, 9-22 or., 1973.
- BARANDIARAN,J.M.: "Guía para una encuesta etnográfica", Arabako Foru Aldundia, 1976.
- BARANDIARAN, J.M.: "Etnografizko galdeketa baterako gidaliburua", Donostia, 1985.
- BASTERRECHEA,J.: "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica", FLV 18, 353-393, 1974.
- BASTERRECHEA,J.: "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica", FLV 21, 289-338, 1975.
- BONAPARTE,LL.: "Carte des sept provinces basques". Londres, 1869.
- CAMPION,A.: "Gramática de los cuatro dialectos del euskara", Tolosa, 1884.
- CHOMSKY,N., HALLE,M.: "Principios de fonología generativa", Fundamentos, Madrid, 1979.
- DICCIONARIO ENCICLOPÉDICO DEL PAÍS VASCO: Haranburu ed., San Sebastián, 1985.
- ECHAIDE,A.M.: "IKER -3, Azkueren Erizkizundi Irukoitzaren datuen ordenamendua", Ed. Aranzadi, Iruñea, 1984.
- ECHAIDE,A.M.: "El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas", Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
- ECHENIQUE,M.T.: "Historia Lingüística Vasco Romana. Intento de Aproximación", CAP de Guipúzcoa, 1984.
- ERKOREKA,A.: "Gorputz izenak", FLV 11, 51-58 or., Iruñea, 1979.
- ETXEBARRIA,Jose Maria: "Giza gorputzari buruzko inkesta", Euskera 28, 253-260 or., Euskaltzaindia, 1983.
- ETXEBARRIA,Jose Maria: "Léxico rural vasco de Amorebieta", Eusko Ikaskuntza, cuadernos de sección Hizkuntza eta Literatura 4, Zarautz, 1985.

- ETXEBARRIA, Jose Maria: "Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren historiarako", *Euskera* 32, 375-412 or., Euskaltzaindia, 1986.
- ETXEBARRIA, Juan Manuel: "Gorbea inguruko ipuin eta esaundak", *ETNIKER* II...VII, 1976-85.
- ETXEBARRIA, Juan Manuel: "Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa", Ibaizabal, Zornotza, 1991.
- ETXEBARRIA, Juan Manuel: "Zeberioko euskararen azentuaz" in *Memoriae I. Mitxelena Magistri Sacrum*; Lakarra, J.A. edit. eta Ruiz, I. Lagun, 677-707 or., 1991.
- ETXEBARRIA, Maitena: "En torno al vocalismo vasco", in *Memoriae I. Mitxelena Magistri Sacrum*; Lakarra, J.A. edit. eta Ruiz, I. lagun, 635-655 or., 1991.
- EUSKALTZAINDIA: "Euskal Aditz Batua", Donostia, 1979.
- EUSKALTZAINDIA: "Euskal Gramatika Lehen urratsak I", Burlada, 1985.
- EUSKALTZAINDIA: "Euskal Gramatika Lehen urratsak II", Bilbo, 1987.
- EUSKO JAURLARITZA: "Bizkaierazko joskera", Gasteiz, 1989.
- GAMINDE, I.: "Butroiko euskara", *FLV* 40, 403-460 or., Iruñea, 1982.
- GAMINDE, I.: "Aditza Bizkaieraz", U.E.U., Bilbo, 1984.
- GAMINDE, I.: "Sanoren erabileraz", *Enseiucarrean* 3, 32 or., Bilbo, 1987.
- GAMINDE, I.: "Leioako euskararen gramatikaz", Ekekei, Leioa, 1989.
- GAMINDE, I.: "Gurdiaren lexikoaz", in *ETNIKER BIZKAIA* 9, Erandio, 1990.
- GAMINDE, I.: "Tonuarekin lotutako ulermen mailako testa" in *Uztero* 3 Bilbo, 1991.
- GAMINDE, I.: "Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa", Deustuko Unibertsitatea, 1992.
- GARATE, G.: "Erdarakadak", Mensajero, Bilbo, 1988.
- GARMENDIA, J.: "De Ethnografia vasca", Tolosa, 1976.
- GARMENDIA, J.: "Euskal Lexiko Etnografikoa", EHU, Donostia, 1987.
- GAVEL, H.: "Elements de Phonétique Basque", in *RIEV* XII, Paris, 1929.
- GAVEL, H.: "Gramaire basque", Bayonne, 1929.

- GILI GAYA,S: "Elementos de fonética general". Gredos 5. argit., Madrid, 1966.
- GILI GAYA,S: "Curso superior de Sintáxis Española". Barcelona, 1973.
- GLOSSAIRE DES PATOIS DE LA SUISSE ROMANDE. Zurich, 1900.
- GOENAGA,P: "Gramatika bideetan". Erein, Donostia, 1980.
- HOLMER,N.M: "El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología euskérica". Donostia, 1964.
- HOLMER,N.M: "A historic comparative análisis of the structure of the basque language", in FLV 4, 1970.
- HUALDE,J.I: "A Lexical Phonology of Basque". University of Southern California, 1988.
- HUALDE,J.I: "Acentos vizcaínos" in ASJU XXIII 1, 275-326 or., Donostia, 1989.
- HUALDE,J.I: "Otro acento vicaino: Getxo" in ASJU XXIII 3, 809-818 or., Donostia, 1989.
- HUALDE,J.I: "Euskal doinu azentuaz" in ZUTABE 21, 1989.
- HUALDE,J.I BILBAO, X: "A phonological study of the basque dialect of Getxo". Supplements of Anuario del Seminario de Filología "Julio de Urquijo" XXIX. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1992.
- HUALDE,J.I: "Notas sobre el sistema acentual de Zeberio" in ASJU XXVI - 3, 767-776 or., 1992.
- IBARRA,J: "Auskerie" Basami aldeko euskarari buruzko apunteak. Argilara gabea.
- IRIGOYEN,A: "Curiosidades y observaciones sobre el vizcaíno literario", in EUSKERA III, 1958.
- IRIGOYEN,A: "Formas de nombres de localidades vizcaínas", in FLV 2, 1972.
- IRIGOYEN,A: "Bizkaiko aditzaren erabileraz oharrak", in EUSKERA XXVIII, 1983.
- IRIGOYEN,A: "En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco", Bilbo, 1985.
- IRIGOYEN,A: "De Re Philologica Linguae Vasconicae II", Bilbo, 1987.

- IZAGIRRE,K: "Ullizamako euskeraren gai batzuk", in BRSVAP, 1966-3/4 Donostia, 1966.
- JACOBSEN,H.W: "Nominative Ergative Syncretism in Basque", in ASJU-VI, 67-119 or, Donostia, 1972.
- JACOBSON,R, HALLE,M: "Fundamentos del lenguaje". Ayuso, Madrid 1973.
- KINTANA,X: "Hiztegia 80", Ed. Elkar, Bilbo, 1980
- LABAYRU y GOICOECHEA, E.J.: "Historia general del Señorío de Vizcaya", Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974.
- LABOV,W: "Modelos sociolingüísticos", Catedra, Madrid, 1983.
- LAFITTE,P: "Grammaire Basque", Elkar, Donostia, 1979.
- LAFON,R: "La lengua vasca", in Enciclopedia lingüística hispánica I, Madrid, 1960.
- LAFON,R: "Le système du verbe basque au XVIIe Siècle", Donostia, 1990
- LANGENSCHIEDT: "Diccionario Universal, Francés Español, Español Francés", Berlin, 1981.
- LARDIZABAI,J: "Gramática vascongada", San Sebastián, 1956
- LARRAMENDI,M: "Diccionario trilingüe", 1853.
- LASPIURI,I: "Azentu diakritikoa Eibarko euskarari" in Euskera 24-1, 175-268 or, 1979.
- LAZARO CARRETER,F: "Diccionario de términos filológicos", 2 ed, Madrid, 1962.
- LHANDE,P: "Dictionnaire basque-français et français-basque", Paris, 1926
- MALMBERG,B: "Introducción a la lingüística", Catedra, Madrid, 1982.
- MARTINET, A: "Economía de los cambios fonéticos", Gredos, Madrid, 1974.
- MARTINET,A: "Elementos de Lingüística general", Gredos, Madrid, 1978.
- MARTINEZ CELDRAN,E: "Fonética". Barcelona, Teide, 1984.
- MARTINEZ CELDRAN,E: "Una utilidad en fonética: La carta de formantes por ordenador" in Estudios de fonética experimental -IV, 181-193 or Laboratorio de fonética, Facultad de Filología, Universidad de Barcelona, Barcelona, 1990.

- MITXELENA, K: "A propos de l'accent basque" in Bulletin de la Société de Linguistique de Paris, 204-233 or, 1957-58.
- MITXELENA, K: "Euskaltzaindian sartzerakoan Ormaetxea jaunak egindako itzaldia eta Mitxelena jaunaren erantzuna" in Euskera 3 1958.
- MITXELENA, K: "Textos arcaicos vascos", Madrid, 1962.
- MITXELENA, K: "Lenguas y protolenguas". Salamanca, 1963.
- MITXELENA, K: "La lengua vasca", in Guipuzcoa, San Sebastián, 1969.
- MITXELENA, K: "Las antiguas consonantes vascas" in Estructuralismo e Historia I, Homenaje a A. Martinet, Univ. de Laguna, 1975.
- MITXELENA, K: "Fonética histórica vasca", Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián, 1976.
- MITXELENA, K: "Galdegaia eta mintzagaia euskeraz" in Euskal Linguistika eta Literatura bide berriak, Deustuko Unibertsitatea, 1981.
- MITXELENA, K: "Palabras y textos", EHU, Gasteiz, 1987.
- MOUTARD, N: "Etude phonologique sur les dialectes basques" I II III, in FLV-19, 1975, FLV-20, 1975 eta FLV-22, 1976.
- MUGICA, P: "Diccionario vasco castellano", Ed. Mensajero, Bilbao, 1981.
- NAVARRO, T: "Pronunciación guipuzcoana" in Homenaje a Menéndez Pidal, III, 593-653 or, Madrid, 1925.
- NAVARRO, T: "Estudios de Fonología española", New York, 1966.
- NAVARRO, T: "Manual de pronunciación española" RFE 20. argit., Madrid, 1980.
- OÑEDERRA, M: "Euskarazko fonologiaren zenbait bilakabidez". Euskal morfosintaxia eta fonologia eztabaida gaiak, EHU, Bilbo, 1987.
- OÑEDERRA, M: "Euskal Fonologia: Palatalizazioa, asimilazioa eta hots simbolismoa". Zarautz, Itxaropena S.A., 1990.
- PAGOLA, R.M.: "Euskal atlas linguistikorako ekarria". Universidad de Deusto, 1990, Bilbo.
- PAGOLA, R.M.: "Euskal fonetika Nafarroan". Gobierno de Navarra, Iruñea, 1992.
- PUJANA, P.: "Oletako Euskal Aditza". Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1979.

- QUILIS,A: "Fonética acústica de la lengua española", Gredos, Madrid, 1981
- QUILIS,A: "El comentario Fonológico y Fonético de Textos". Arco Libros S.A, Madrid, 1988.
- QUILIS,A, HERNANDEZ,C: "Lingüística española aplicada a la terapia del lenguaje". Gredos, Madrid, 1990.
- QUITLET, R: "Atlas elemental de las plantas". Barcelona, 1977.
- RETANA: "Diccionario de Autoridades del Euskera". Bilbao, 1977.
- RIJK,R.P.G. de: "Vowel interaction in Bizcayan Basque", in FLV-5, 1970.
- ROTAETXE,K: "Estudio estructural del euskara de Ondárroa". Leopoldo Zugaza, Durango.
- SALABURU,P: "Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia Fonetika eta Fonologia" Bilbo, 1984.
- SALABURU,P: "Hizkuntzaren soinu egitura". EHU, Bilbo, 1984.
- SALABURU,P: "Arau fonologikoak". EHU, Bilbo, 1984.
- SANCHEZ CARRION, J.M: "El espacio bilingüe". Navarra, 1981.
- SAUSSURE,F: "Cours de Linguistique générale". C. Bally et A. Sechehaye Paris, 1969.
- TOVARA: "El vizcaino entre los dialectos vascos". El euskera y sus parientes, Madrid, 1959.
- TRUBETZKOY,N.S: "Principios de fonología", Cincel, Madrid, 1973.
- TXILLARDEGI: "Euskal Gramatika". Ediciones vascas, Bilbo, 1978.
- TXILLARDEGI: "Euskal Fonologia". Ediciones vascas, Bilbo, 1980.
- TXILLARDEGI: "Some accoustic data about the three basque sibilants" in First international basque conference in North America, Fresno, 1982.
- TXILLARDEGI: "Euskal azentuaz". Elkar, Donostia, 1984.
- UE.U: "Euskal dialektologiaren hastapenak", Iruñea, 1983.
- UNED BERGARA: "Bergarako euskera". Bergara, 1988.
- URRUTIA,H. ETXEBARRIA,M. TURREZI, DUQUE,J.C: "Fonética Vasca I, Las sibilantes en el Vizcaino", Universidad de Deusto. Bilbao, 1988.

- URRUTIA, H., ETXEBARRIA, M., TURREZI, I., DUQUE, J. C.: "Fonética Vasca II, Las sibilantes en el Guipuzcoano". Universidad de Deusto, Bilbao, 1989.
- VIDEGAIN, X.: "Enquete lexicale en domaine basque a Ciboure pour l'Atlas linguistique des cotes de l'atlantique". Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura / Eusko Ikaskuntza-10, Donostia, 1990.
- VILLASANTE, L.: "La declinación del vasco literario común", Ed. Franciscana Aranzazu, Oñate, 1972.
- VILLASANTE, L.: "Palabras vascas compuestas y derivadas". Oñati, 1976.
- VILLASANTE, L.: "Estudios de sintáxis vasca". Oñati, 1978.
- VILLASANTE, L.: "Sintáxis de la Oración Simple". Oñati, 1980.
- VILLASANTE, L.: "La oración causal en vasco". Oñati, 1986.
- YRIZAR de, P.: "Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca", Itxaropena, Zarautz, 1981.
- ZABALA, J. M.: "El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno". Donostia, 1848.
- ZAMARRIPA, P. de: "Gramática vasca", 6. ed., Bilbao, 1947.
- ZAMARRIPA, P. de: "Vocabulario vasco-castellano y castellano vasco". Bilbao, 1957.
- ZARATE, M.: "Euskal deklinabidea". Labayru, 4. argit., Bilbo, 1989.